Enplegu Publikoaren Eskaintza 2016-2017

Erainkuntza, Obra Zibil eta Mantentze Lanetako Goi mailako Teknikaria

Galdera sorta

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ATAL OROKORRA

1. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen III. Hitzarmen Kolektiboaren 15. artikuluak hauei egiten die erreferentzia:**

   a) Baimenei.
   b) Espainiako Konstituzioari.
   c) Gizarte Funtsari.
   d) Lanpostu hutsak betetzeari.

2. **Hauek dira Estatuaren botereak:**

   a) Betearazlea, legegilea eta judiziala.
   b) Betearazlea, gobernuarena eta administratiboa.
   c) Betearazlea, judiziala eta gobernuarena.
   d) Betearazlea, administratiboa eta judiziala.

3. **Espainiako Konstituzioaren 16.2 artikuluaren arabera, inor ezingo da behartu hauei buruz deklaratzera:**

   a) Bere laneko metodologiari buruz.
   b) Bere ideologiari, erlijioari edo sinesmenari buruz.
   c) Bere lantokiaren bortxaezintasunari buruz.
   d) Bere ohoreari buruz.

4. **Espainiako Konstituzioaren arabera, hau da ezkontzeko eskubidea:**

   a) Betebehar bat, interes orokorrekoa baita.
   b) Oinarrizko eskubide bat.
   c) Eskubide parlamentario bat.
   d) Herritarren eskubide bat.

5. **Espainiako Konstituzioan osasunaren babeserako eskubidea aitortzen da:**

   a) Herritarren eskubide gisa.
   b) Oinarrizko eskubide gisa.
   c) Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipio gisa.
   d) Herritarren betebehar gisa.

6. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publiko dira herri-administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak zeregin hauetan...**

   a) Interes orokorrak zaintzeko zereginetan.
   b) Enpresa kontratatzailearen interesak zaintzeko zereginetan.
   c) Autonomia-gobernuaren interesak zaintzeko zereginetan.
   d) Gobernu Zentralaren interesak zaintzeko zereginetan.

7. **Eskubide hauetatik zein jasotzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 15. artikuluan?:**

   a) Askatasun sindikala izatekoa.
   b) Oporrak izatekoa.
   c) Indarreko araudiaren arabera erretiratzekoa.
   d) Adierazpen-askatasuna izatekoa.

8. **Langile lan-kontratudunen sustapena hauetan jasotako prozedurei jarraituz egingo da:**

   a) Zerbitzuan adostutako barne-akordio pribatuetan.
   b) Langileen estatutuan edo hitzarmen kolektiboetan.
   c) Gobernu Kontseiluaren gehiengo osoa duten akordioetan.
   d) Unibertsitateko Klaustroak berretsitako araudian.

9. **Zeri buruzkoa da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren III. kapitulua?**

   a) Ordainsari-eskubideak.
   b) Oinarrizko eskubideak.
   c) Biltzeko eskubidea.
   d) Lanaldia, baimenak eta oporrak izateko eskubidea.

10. **Langile funtzionarioen oinarrizko ordainsariak Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen dira; hauek izango dira beren osagai bakar-bakarrak:**

    a) Esleitutako soldata eta hirurtekoak.
    b) Esleitutako soldata.
    c) Soldata, hirurtekoak eta destino-osagarria.
    d) Soldata, hirurtekoak, osagarriak eta dietak.

11. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren aplikazio-eremuan, gai hauetatik zein ez da nahitaez negoziazioan aztertu beharrekoa?**

    a) Gizarte-ekintzari buruzko irizpide orokorrak.
    b) Enplegu publikoaren eskaintzei buruzko irizpide orokorrak.
    c) Funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa ezartzea eta aplikatzea.
    d) Zuzendaritzako langileen lan-baldintzak zehazteko erabakiak.

12. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer sistemaren bidez hauta litezke lan-kontratudun langile finkoak?**

    a) Oposizioa, oposizio-lehiaketa edo merezimenduak balioesteko lehiaketa.
    b) Oposizioa edo oposizio-lehiaketa.
    c) Oposizioa.
    d) Berariaz egindako lan-poltsa.

13. **Ez da izango karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoia:**

    a) Nazionalitatea galtzea.
    b) Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea.
    c) Funtzionario izateari uko egitea.
    d) Lanerako aldi baterako ezintasuna.

14. **Funtzionarioen erretiroa ezingo da izan:**

    a) Borondatezkoa.
    b) Partziala txanda-kontratuarekin.
    c) Nahitaezkoa, legez ezarritako adina betetzen denean.
    d) Funtzionarioak ezintasuna duela erabakitzen denean.

15. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, honela sailkatuko dira langile lan-kontratudunak:**

    a) Lan-arloko legeriaren arabera.
    b) Enpresa-batzordearen barne-akordioen arabera.
    c) 1996ko urriaren 23ko akordio arautzailearen arabera.
    d) Estatuaren Aurrekontu Orokorretako xedapen gehigarrien arabera.

16. **Zer falta motatzat joko da greba-eskubidea askatasunez baliatzea eragozteko egintzak egitea?**

    a) Falta astuntzat.
    b) Falta arintzat.
    c) Falta oso larria.
    d) Diziplinazkoa ez den faltatzat.

17. **Zeinek izango du UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen III. Hitzarmenaren interpretazioak sor ditzakeen arazoak aztertu eta konpontzeko eskumena?**

    a) Batzorde Parekideak.
    b) Negoziazio Batzordeak.
    c) Enpresa Batzordeak.
    d) Plangintza Batzordeak.

18. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, zein izango da UPV/EHU-n ordaindutako urteko oporraldiaren iraupena?**

    a) 22 egun.
    b) 25 egun.
    c) 24 egun.
    d) 23 egun.

19. **UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratudun langileek aparteko hiru ordainsari izango dituzte hilabete hauetan:**

    a) Apirila, abuztua eta abendua.
    b) Martxoa, ekaina eta abendua.
    c) Ekaina, iraila eta abendua.
    d) Otsaila, ekaina eta urria.

20. **Unibertsitateko hizkuntza-politikaren ildo nagusiak, zeinek euskararen garapenari eta normalizazioari laguntzen baitiete, hemen jasotzen dira:**

    a) Euskararen Plan Gidarian.
    b) Jardun Akademikoari buruzko Planean.
    c) Esparru Akordio Eleaniztunean.
    d) Hizkuntza Politikari buruzko Oinarrizko Akordioan.

21. **Nolakoa da UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua?**

    a) Berezko zerbitzua.
    b) Besteren zerbitzua.
    c) Enpresaburuak pertsonalki onartutako zerbitzua.
    d) Esleitutako langile baten bidezko zerbitzua.

22. **Lanpostuak betetzeko eta promozionatzeko prozesuak, lan-eskaintza publikokoak eta UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen III. Hitzarmen Kolektiboko bigarren xedapen iragankorrean jasotakoak bukatutakoan, bi taldetara irekitako lanpostuak:**

    a) Uneko egoeran mantenduko dira.
    b) Goragoko taldean sartuta geratuko dira.
    c) Beheragoko mailako taldean sartuta geratuko dira.
    d) Amortizatu egingo dira.

23. **UPV/EHU-koak ez diren pertsonek edo erakundeek ezin izango dute erabili unibertsitatearen zigilua, baldin eta horretarako baimena ematen ez badie berenberegi:**

    a) Errektoreak.
    b) Gerenteak.
    c) Unibertsitateko Klaustroak.
    d) Gobernu Kontseiluak.

24. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz eta legeek diotena kontuan hartuta, UPV/EHU-k honela jarduten du:**

    a) Foru-erregimenean.
    b) Autonomiaz.
    c) Mendekotasun funtzionalez.
    d) Eskumen eskuordetuen erregimenean.

25. **UPV/EHU-k, bere Estatutuen 5.3 artikuluan, hau onartu eta bermatzen du:**

a) Adierazpen-askatasuna.
b) Erlijio-askatasuna.
c) Katedra-askatasuna.
d) Pentsamendu-askatasuna.

26. **UPV/EHU-ko II. Berdintasun-planak esparru hauetan antolatu du berdintasun arloko jarduketa:**

a) Gizartea, irakaskuntza eta zerbitzuak.
b) Irakaskuntza, zerbitzuak eta ikerkuntza.
c) Instituzioa eta gizartea.
d) Irakaskuntza, ikerkuntza eta instituzioa.

27. **UPV/EHU-n, hizkuntza ofizialak hauek dira:**

a) Euskara, gaztelania eta ingelesa.
b) Euskara eta ingelesa.
c) Gaztelania eta ingelesa.
d) Euskara eta gaztelania.

28. **Zein da UPV/EHU-ren kide bakarreko organoa?**

a) Gizarte Kontseilua.
b) Gobernu Kontseilua.
c) Errektorea.
d) Bizkaiko Campuseko Batzarra.

29. **Unibertsitateko kideak talde hauetan banatzen dira:**

a) Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
b) Ikasleak eta langile autonomoak.
c) Irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.
d) Ikasleak, langile autonomoak eta zuzendaritzako karguak.

30. **Irakasleek lan egingo dute...**

a) Arduraldi osoan edo partzialean.
b) Arduraldi osoan bakarrik.
c) Arduraldi partzialean bakarrik.
d) Arduraldi osoa eta partziala txandakatuz seihilekotik seihilekora.

31. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nork ezarriko ditu administrazio eta zerbitzuetako langileen ordainsariak?**

a) Errektoreak
b) Unibertsitateko Klaustroak
c) Enpresa Batzordeak
d) Gobernu Kontseiluak

32. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, langile lan-kontratudunak honela sailkatuko dira:**

a) Ikastegietako batzarren akordioen arabera.
b) Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera.
c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera.
d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera.

33. **UPV/EHU-ren Estatutuen arabera, UPV/EHU-ko langile funtzionarioak edo lan-kontratu finkoko langileak hautatzeko egingo diren probetako oinarrietan, hauek adierazi beharko dira, nahitaez:**

a) Lehiakideek bete beharko dituzten baldintzak.
b) Epaimahaiko kideen izen-deiturak.
c) Deialdiari dagozkion zuzkidurak.
d) Emaitzak argitaratuko diren data.

34. **Zeini dagokio administrazio eta zerbitzuetako langileen karrera profesionalari buruzko arautegia garatzea?**

a) Unibertsitateko Klaustroari.
b) Gizarte Kontseiluari.
c) Gobernu Kontseiluari.
d) Enpresa Batzordeari.

35. **Zein da lan-kontratudun langileen ordezkaritza-organo bateratua?**

a) Langileen Batzarra.
b) Enpresa Batzordea.
c) Gobernu Kontseilua.
d) Unibertsitateko Klaustroa.

36. **Zein da administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen ordezkaritza-organo bateratua?**

a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
b) Enpresa Batzordea.
c) Gobernu Kontseilua.
d) Unibertsitateko Klaustroa.

37. **UPV/EHU-ren unibertsitate-inguruneak irisgarria izan beharko du...**

a) Ikasleek hala eskatuz gero.
b) Langileek hala eskatuz gero.
c) Ikasleek edo langileek hala eskatuz gero.
d) Legeriak xedatutakoari jarraituz.

38. **Zeinek hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen diziplina-araubideari buruzko erabakiak, indarrean dagoen legeriak beste organo bati esleitzen ez badizkio?**

a) Aldezleak.
b) Errektoreak.
c) Arbitraje Batzordeak.
d) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak.

39. **Unibertsitateko jarduera guztiekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko bide alternatiboak, aurkakoak izango ez direnak, bultzatuko dituen erakunde burujabe eta inpartziala da:**

a) Aldezlea.
b) Enpresa Batzordea.
c) Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea.
d) Errektorea.

40. **Aldezle izateko hautagaia:**

a) Gobernu Kontseiluak proposatu eta aukeratuko du.
b) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta aukeratuko du.
c) Gobernu Kontseiluak proposatu eta Unibertsitateko Klaustroak aukeratuko du.
d) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko du.

41. **Aldezleak ez du hartuko parte:**

a) Ofizioz.
b) Hauteskunde-prozeduretan.
c) Alde batek eskatuta.
d) Unibertsitateko edozein kidek aurkeztutako kexetatik abiatuta.

42. **Aldezlearen gomendioen aurka errekurtsoa jarri ahalko da:**

a) Errektorea zerikusia duen alderdia denean.
b) Ezingo da jarri errekurtsorik.
c) Beti jarri ahal izango da errekurtsoa.
d) Unibertsitateko talde handi bati eragiten dionean.

43. **Zeinen eskumena da graduondoko ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea gobernu-kontseiluari?**

a) Graduko Batzordearena.
b) Graduondoko Batzordearena.
c) Berezko Titulazioen Batzordearena.
d) Errektorearena.

44. **Unibertsitateko biblioteka ikasteko, irakasteko eta ikertzeko baliabideen gunea da, bai eta hauekin zerikusia daukaten bestelako jarduerak aurrera eramateko baliabideena ere:**

a) Unibertsitate osoaren funtzionamendua eta kudeaketa.
b) Ikasleen ikasteko gaitasuna garatzea.
c) Irakasleen ikertzeko gaitasuna.
d) Gizarteari zerbitzua ematea.

45. **UPV/EHU-k hizkuntza ofizial hauen erabilera normal eta ofiziala bermatuko du:**

a) Euskara, gaztelania eta ingelesa.
b) Ingelesa eta gaztelania.
c) Ingelesa eta euskara.
d) Euskara eta gaztelania.

46. **UPV/EHU-n, organo honek zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezko euskara eta gaztelania jakitea:**

a) Gobernu Kontseiluak.
b) Unibertsitateko Klaustroak.
c) Enpresa Batzordeak.
d) Langileen Batzarrak.

47. **UPV/EHU-n, honi dagokio campusak aldatzea:**

a) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Klaustroaren proposamenari jarraituz.
b) Unibertsitateko Klaustroari, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz.
c) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Campusaren proposamenari jarraituz.
d) Unibertsitateko Campusari, bere proposamenari jarraituz.

48. **Hau da UPV/EHU-ko kontratazio-organoa, ahalmen hori eskuordetu badezake ere:**

a) Gerentea.
b) Errektorea.
c) Kontratazio eta erosketen gerenteordea.
d) Unibertsitateko Klaustroa.

49. **Zein da Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea?**

a) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa.
b) 31/1996 Legea, azaroaren 8koa.
c) 30/1997 Legea, urtarrilaren 8koa.
d) 31/1995 Legea, abenduaren 8koa.

50. **Banakako babes-ekipamenduak erabili beharko dira:**

a) Langileari egokia iruditzen zaionean.
b) Langileari arriskuan dagoela iruditzen zaionean.
c) Arriskuak ezin direnean saihestu edo behar beste murriztu babes kolektiboko neurri teknikoen bidez edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozeduren bidez.
d) Erreibindikazio sindikal baten mende dagoenean haiek erabiltzea.

51. **Zeinek eman beharko ditu banakako babes-ekipamenduak?**

a) Prebentziorako eskuordeek.
b) Enpresaburuak.
c) Langilearen sindikatuak.
d) Langilea.

52. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua hauei aplikatzen zaie, besteak beste:**

a) Unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
b) Unibertsitate publikoetako langile lan-kontratudunei bakarrik.
c) Funtzionarioei eta, dagokion neurrian, unibertsitate publikoetako zerbitzupean dauden langile lan-kontratudunei.
d) Unibertsitate pribatuetako langile guztiei eta unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.

53. **Honela sailkatzen dira langile publikoak...**

a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.
b) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak.
d) Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finko nahiz aldi batekoak.

54. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunak dira...**

a) Legezko izendapen baten ondorioz Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, izaera iraunkorreko zerbitzu profesional ordainduak emateko.
b) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeko edozein modalitate erabilita, eta idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
c) Berariaz justifikatutako larrialdi- eta premia-arrazoiak direla-eta halakotzat izendatua dena berez karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.
d) Izendapen baten bidez eta iraupen ez-iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-krediruen kontura jasotzen duten langileak.

55. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunen lanbide-karrera eta sustapena...**

a) Langileen Estatutuan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
b) Hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
c) Langileen Estatutuan edo hitzarmen kolektiboetan jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.
d) Funtzio Publikoaren Legean jasotako prozedurak erabiliz bideratu eta gauzatuko dira.

56. **39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, sektore publikoari aplikatzen zaio. Sektore horretan sartzen dira hauek...**

a) Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoen administrazioak.
b) Estatuaren Administrazio Orokorra, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
c) Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
d) Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.

57. **Zer da lanetik eratorritako kalte bat?**

a) Harreman txarra izatea lankideekin.
b) Lanean edo lana dela-bide izandako gaixotasun, patologia edo lesioak.
c) Gripe-pandemia bat izatea.
d) Lanaldian hartutako kolpeak.

58. **Lan-arriskuaren definizioa**

a) Enpresa batean azpikontratatua egotea.
b) Lanaren ondorioz langileak kalteren bat izateko posibilitatea.
c) Lan-baldintzak direla-eta nagusiari kexa adieraztea.
d) Gaixo egonda lan egitea.

59. **Zer esan nahi du lan-prebentzioa egiteak?**

a) Lan-prebentzioko ikastaroak egitea.
b) Lanetik eratorritako arriskuak saihesteko edo gutxitzeko enpresako jarduera-fase guztietan hartutako edo hartzea aurreikusitako neurrien edo jardueren multzoa.
c) Lan-jarduera oro geraraztea balizko arrisku bat dagoenean.
d) Balizko arrisku bat ikustea eta haren berri ez ematea.

60. **Nork onartzen du behin betiko UPV/EHU-ren aurrekontua?**

a) Errektorea.
b) Dekanoak.
c) Gobernu Kontseiluak.
d) Gizarte Kontseiluak.

61. **UPV/EHU-ren Prebentzio-Zerbitzua honen mende dago zuzenean:**

a) Ikerketako errektoreordearen mende.
b) Errektorearen mende.
c) Gerentearen mende.
d) Campuseko gerenteordearen mende.

62. **2003ko apirilaren 7ko ebazpenak, UPV/EHU-ko errektorearenak, UPV/EHU-ren beraren prebentzio-zerbitzua eratu, antolatu eta zerbitzuaren funtzionamendua zehazteko denak, adierazten du hau dela prebentzio-zerbitzuaren jarduera-eremua:**

a) UPV/EHU-ko langile guztiei eragiten die.
b) UPV/EHU-ko langile eta ikasleei eragiten die.
c) Langile, ikasle eta enpresei eragiten die.
d) Langile, ikasle, enpresa eta bisitariei eragiten die.

63. **UPV/EHU-ren Prebentzio-Zerbitzuak aholku eman behar dio:**

a) Administrazioari bakarrik.
b) Langileei eta haien ordezkariei bakarrik.
c) Administrazioari eta langileei eta haien ordezkariei.
d) Administrazioari, langileei, haien ordezkariei eta campusetako eta campus arteko laneko segurtasun- eta osasun-batzordeei.

64. **Hauek dira UPV/EHU-ko Segurtasun- eta Osasun-batzordeak:**

a) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat.
b) Campus arteko Batzorde bat, Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat eta Laneko Ikuskaritza.
c) Campus arteko Batzorde bat eta laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko.
d) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Laneko Ikuskaritza.

65. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, lanalditik kanpo euskarazko ikastaroetan parte hartzen duten langileek baimen ordaindua eskuratzeko eskubidea izango dute:**

a) Zeina ezin izango baita izan urtean 5 egun baliodun baino gehiagokoa.
b) Urtean bost egun baliodunekoa.
c) Ikastaroaren ordu guztien baliokide den egun kopurukoa
d) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu bada bakarrik ematen da baimena.

66. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**

a) Administrari laguntzailea.
b) Bibliotekako laguntzailea.
c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
d) Hezkuntza-laguntzako teknikari espezialista.

67. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmenetik eratorritako batzorde parekidea honetarako eratuko da:**

a) Hitzarmeneko funtzionamendurako arauak aplikatzeko.
b) Hauteskunde sindikaletan hauteskunde-araudia aplikatzeko.
c) Hitzarmenaren interpretazio, iraunaldi edo ezarpenak sor ditzaketen arazoak aztertu eta konpontzeko.
d) Sindikatuen lana garatzeko funtsak administratzeko.

68. **Zer talde profesionaletan sailkatzen dira UPV/EHU-ko AZP-ko Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren eraginpeko langileak?**

a) Ez dago talde profesionalen araberako sailkapenik.
b) I. taldea, II. taldea eta III. taldea.
c) I. taldea, II. taldea, III. taldea eta IV. taldea.
d) I. taldea, II. taldea, V. taldea, VI. taldea eta VII. taldea.

69. **Zein dira UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako langileak?**

a) Langile funtzionarioak, lan-kontratudun langileak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
b) Langile funtzionarioak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
c) Langile lan-kontratudunak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
d) Langile funtzionarioak bakarrik.

70. **Zein da UPV/EHU-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren helburu nagusia?**

a) Gizon baino emakume gehiago egotea ardura-karguetan.
b) UPV/EHUko langileak gai izatea hizkuntza ez-sexista erabiltzeko idatzietan.
c) Gizonek ez edukitzea aukerarik ardura-karguak izateko.
d) Generoko ikuspegi integratua unibertsitateko jarduera osoan txertatzea, politika aktiboak martxan jarrita, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa benetan gauzatzeko eta diskriminazio-jarrerak saihesteko.

71. **Zein dira UPV/EHU-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ezaugarriak?**

a) Egingarria, dinamikoa, zeharkakoa, katalizatzailea, integratzailea eta konprometitua.
b) Dinamikoa, integratzailea eta katalizatzailea.
c) Egingarria, dinamikoa, zeharkakoa eta konprometitua.
d) Dinamikoa, zeharkakoa, katalizatzailea eta integratzailea.

72. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, honela egituratzen dira unibertsitateko ikasketa ofizialak:**

a) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta doktoregoa.
b) Bi ziklotan: gradua eta masterra.
c) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta lanbide-heziketa.
d) Bi ziklotan: gradua eta doktoregoa.

73. **Nola du izena UPV/EHU-ko arartekoak?**

a) Ararteko.
b) Herriaren defendatzaile.
c) Aldezle.
d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

74. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, UPV/EHU unibertsitatea...**

a) Campus anitzekoa da.
b) Pluricampus motakoa da.
c) Campus bakarrekoa da
d) Bi campusekoa da.

75. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zein dira ikastegiak?**

a) Eskola eta fakultateak.
b) Unibertsitateko campusak.
c) Ikastetxe nagusiak.
d) Ikasgelategiak.

76. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, dekanoaren agintaldia...**

a) 2 urtekoa izango da.
b) 3 urtekoa izango da.
c) 4 urtekoa izango da.
d) 5 urtekoa izango da.

77. **Zer organori dagokio UPV/EHU-ko Plan Estrategikoa eta Hizkuntza-Normalkuntzarako Plana onartzea?**

a) Klaustroari.
b) Gobernu Kontseiluari.
c) Errektorego-taldeari.
d) Errektoreari.

78. **Nork du ikastegi bateko arautegia onartzeko eskumena?**

a) Ikastegiko Batzarrak.
b) Zuzendaritza Kontseiluak.
c) Campuseko Batzarrak.
d) Gobernu Kontseiluak.

79. **Nork izendatzen ditu dekanoak eta ikastegietako zuzendariak?**

a) Ikastegiko Batzarrak.
b) Errektoreak.
c) Campuseko errektoreordea.
d) Eusko Jaurlaritzak.

80. **Gizarte kontseilua...**

a) UPV/EHUri atxikitako organo bat da.
b) UPV/EHUren kide anitzeko organo bat da.
c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako organo bat da.
d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kide anitzeko organo bat da.

81. **Zer organok du eskumena unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren alorreko irizpide orokorrak esleitzeko UPV/EHU-n?**

a) Gobernu Kontseiluak.
b) Irakaskuntza Plangintzarako Batzordeak.
c) Dekanotzak edo ikastegiko zuzendaritzak.
d) Saileko Kontseiluak.

82. **Aldezlea aukeratzeko, beharrezkoa da hautagaiak hau lortzea**

a) Gobernu Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa.
b) Gobernu Kontseiluko kideen gehiengo absolutua.
c) Gizarte Kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa.
d) Klaustroko bileran dauden kideen bi herenen aldeko botoa.

83. **Aldezlearen helburua hau izango da:**

a) Unibertsitatea ordezkatzea prozedura judizialetan.
b) Unibertsitateko jarduerarekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebaztea.
c) Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak berrestea.
d) Unibertsitateko kideen arteko lotura izatea.

84. **Zer erantzun da zuzena UPV/EHU-ko Estatutuen arabera?**

a) Ikastegi bakoitzak bere oinarrizko arautegia izango du, Gobernu Kontseiluak egina, eta dagokion barne-arautegiarekin osatu ahal izango da.
b) Gobernu Kontseiluak fakultate edo eskola bakoitzerako egiten duen arautegia izango dute ikastegiek.
c) Ikastegiek beren autonomiaren eta irizpideen arabera hartzen dituzten erabaki eta akordioen arabera jardungo dute.
d) Ikastegiko kide guztiek adostutako batzar-arautegiaren arabera jardungo dute ikastegiek.

85. **Honi dagokio hasierako onespena ematea fakultate bat sortzeko proposamenei**

a) Gobernu Kontseiluari.
b) Fakultateko Batzarrari.
c) Errektoreari.
d) Unibertsitate-gaietako sail eskudunari.

86. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zeinek hartuko du doktorego-eskola bat sortzeko erabakia?**

a) Gobernu Kontseiluak.
b) Gizarte Kontseiluak.
c) Klaustroak.
d) Errektoreak.

87. **Zer egitura du ikastetxe nagusi batek?**

a) Unibertsitate-zentro bat da.
b) Sail bat da.
c) Ikastegiko sail bat da.
d) Bera kokatuta dagoen campuseko errektoreordetza bat da.

88. **UPV/EHU-ko gobernu-kontseiluaren kideak, besteak beste, hauek dira:**

a) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko kideak.
b) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bost kide.
c) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko hiru kide.
d) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bi kide.

89. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, nor arduratzen da UPV/EHU-ren administrazio- eta ekonomia-zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz?**

a) Errektorea.
b) Gerentea.
c) Campuseko errektoreordea.
d) Ondare eta Kontratazioetarako gerenteordea.

90. **Noren mende dago organikoki eta funtzionalki gerentzia?**

a) Gobernu Kontseiluaren mende.
b) Ekonomi Gaietarako errektoreordearen mende.
c) Errektorearen mende.
d) Gizarte Kontseiluaren mende.

91. **Campuseko batzarrak kide hauek izango ditu, besteak beste**

a) Gehienez sail-zuzendarien zortzi ordezkari.
b) Gehienez sail-zuzendarien sei ordezkari.
c) Gehienez sail-zuzendarien bost ordezkari.
d) Gehienez sail-zuzendarien lau ordezkari.

92. **UPV/EHU-ko Gizarte-Kontseiluak:**

a) Araugintzarako ahalmena erabiliz, UPV/EHUko estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak onartzen ditu.
b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ditzake.
c) Campus berriak sor ditzake.
d) Inbertsio eta azpiegituren urte anitzerako programazioa onartzen du.

93. **Zer arautzen du 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 35. artikuluak?**

a) Erabateko deuseztasuna.
b) Deuseztagarritasuna.
c) Arrazoitzea.
d) Administrazio-egintzen jakinarazpena.

94. **Erabateko deuseztasunari eta egintzen deuseztagarritasunari dagokienez**

a) Erabat deusezak izango dira, legez ezarritako beste kasu batzuen artean, administrazio publikoen egintzak, arau-hauste penal baten ondorioz eman badira.
b) Forma-akatsak zehaztuko du egintzaren deuseztagarritasuna.
c) Epez kanpo egindako administrazio-jarduketen kasuan, egintza deuseztagarria izango da.
d) Administrazio-egintzaren parte bat deusez edo deuseztagarri izateak inola ere ez dakar parte horrekin zerikusirik ez duten gainerako zatien deuseztasuna edo deuseztagarritasuna.

95. **Espediente elektronikoari buruzko baieztapen hauetatik zein da zuzena?**

a) Informazio lagungarria edo osagarria ere jaso beharko du.
b) Interoperabilitatearen Eskema Nazionalean eta Interoperabilitateari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da.
c) Dokumentu eta jarduketen multzo ordenatu bat da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena, non eta ez diren administrazio-ebazpena baino lehen eskatutako txostenak, nahitaezkoak edo aukerakoak.
d) Espediente elektronikorako, nahikoa da, bidaltzen denean, barnean dituen dokumentu guztien aurkibide zenbakitu bat.

96. **Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, administrazio-prozedura bat ebazteko eskatzen diren txostenak:**

a) aukerakoak eta ez-lotesleak izango dira.
b) nahitaezkoak eta ez-lotesleak izango dira.
c) aukerakoak eta lotesleak izango dira.
d) nahitaezkoak eta lotesleak izango dira.

97. **Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den zuzena:**

a) aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko epea hilabete izango da, gora jotzeko errekurtsoaren ebazpena jakinarazten denetik.
b) administrazio-bidea amaitzen duten ebazpen eta egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean.
c) administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
d) gora jotzeko edo berraztertzeko errekurtsoaren ebazpenaren aurka, ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri.

98. **UPV/EHU-ren aurrekontuaren ezaugarriak Euskal Unibertsitate-sistemaren Legearen 104. artikuluan jasotzen dira, eta hauek dira:**

a) Publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrera eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan.
b) Publikoa eta orekatua eta solidarioa izango da.
c) Nahikoa, zabala eta malgua izango da, eta kontabilitate-mugimendu guztiak agertu beharko dira bertan.
d) Barnekoa, anizkoitza eta orekatua izango da.

99. **Langile-kostuetarako baimenari dagokionez**

a) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari, maiatzaren 31 baino lehen.
b) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailari, abenduaren 31 baino lehen.
c) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero Gizarte Kontseiluari, maiatzaren lehena baino lehen.
d) Unibertsitateak dagozkion agiriak bidali beharko dizkio urtero Gizarte Kontseiluari, maiatzaren 31 baino lehen.

100. **Euskal Unibertsitate-sistemaren Legearen II. titulua:**

a) Irakasleei buruzkoa da.
b) Unibertsitate-erkidegoari buruzkoa da.
c) Euskal unibertsitate-sistemaren ekonomia- eta finantza-araubideari buruzkoa da.
d) Kalitateari buruzkoa da.

101. **Langile hauetako zeini ez zaie zuzenean ezartzen 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa?**

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzuko langileei.
b) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erakunde Autonomoen zerbitzukoei.
c) Eusko Legebiltzarraren zerbitzuko langileei.
d) Foru- eta toki-administrazioen zerbitzuetako langileei.

102. **Lanpostuak hauen bidez sortu, aldatu edo ezabatuko dira:**

a) Aurrekontu-legeen bidez.
b) Lanpostu-zerrenden bidez.
c) Langileen berrizendapen-prozeduren bidez.
d) Enplegu publikorako eskaintzen bidez.

103. **Egiteko nagusia ofizio batean jardutea duten lanpostuak, zeinetan batez ere eskuzko teknikak erabili behar baitira eta zeinetan aritzeko ez baita ezinbestekoa ikasketa-titulaziojakin bat izatea:**

a) Langile lan-kontratudun finkoentzat gordeko dira.
b) Langile lan-kontratudun finkoentzat gorde ahalko dira.
c) Langile funtzionarioentzat gordeko dira.
d) EAEko administrazio publikoetan ez dago halako lanposturik.

104. **UPV/EHU-ko lanpostuen zerrendetan, langile lan-kontratudunei gordetzen zaizkie lanpostu hauek:**

a) Berekin dakartenak ahalmen publikoak erabiltzen parte hartzea.
b) Izaera instrumentalekoak; adibidez, mantentze-lanetakoak eta laborategietan laguntzekoak.
c) Laguntza administratibokoak.
d) Bibliotekakoak.

105. **Hizkuntza-eskakizunak hau zehazten du:**

a) Lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunaren mailak.
b) Administrazioak harremanetarako erabiltzen duen hizkuntza.
c) Lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko hizkuntza-gaitasunaren mailak.
d) Funtzionarioek beren harremanetan erabili behar duten hizkuntza.

106. **Hauek osatzen dute euskal administrazio publikoen zerbitzuko pertsonala:**

a) Langile funtzionarioek eta lan-itunpeko langileek.
b) Langile funtzionarioek, behin-behineko langileek eta merkataritza-kontratudunek.
c) Langile funtzionarioek, lan-kontratudunek eta behin-behinekoek.
d) Langile funtzionarioek eta behin-behinekoek.

107. **UPV/EHU-rekiko zerbitzu-harremana hartzeko, nola hautau behar dira funtzionarioak eta langileak?**

a) Enplegu-zerbitzu publikoen bidez.
b) Behin-behineko langile lan-kontratudunen edo langile mugagabe ez-finkoen artetik.
c) Langileen arloan eskumena duen organoak erakundearen interesetarako egokien deritzon moduan.
d) Bizkortasunez, objektibotasunari kalterik egin gabe.

108. **Hitzarmen kolektiboaren arabera, UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratudun langileek zenbat aparteko ordu egin ditzakete gehienez urteko?**

a) 80.
b) 85.
c) 100.
d) Gutxieneko kopuru bat dago, baina gehienekorik ez.

109. **Ezkontza edo odol bidezko ahaidetasunaren 2. mailara artekoen gaixotasun larri egiaztatuagatik, zer iraupen izango du baimenak?**

a) Hiru lanegun.
b) Bi egun natural.
c) Bi lanegun.
d) Hiru egun natural.

110. **Zer kontratu motarekin lotzen da langile baten erretiro partziala?**

a) Praktikaldiko kontratuarekin.
b) Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.
c) Txanda-kontratuarekin.
d) Prestakuntzarako kontratuarekin.

111. **Erretiro partziala hartzen duten langileek zer izenpetzen dute?**

a) Lan edo zerbitzu jakin baterako lanaldi partzialeko lan-kontratua.
b) Erretiro partzialeko lan-kontratua.
c) Lanaldi partzialeko txanda-kontratua.
d) Lanaldi partzialeko lan-kontratua.

112. **UPV/EHU-ko AZP-ko lan-kontratudun langileek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute?**

a) Gutxienez urtebeteko antzinatasuna badute enpresan.
b) Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.
c) Gutxienez bi urteko antzinatasuna badute enpresan.
d) Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte.

113. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**

a) Administrari laguntzailea.
b) Bibliotekako laguntzailea.
c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
d) Laborategiko teknikari espezialista.

114. **UPV/EHU-aren euskalduntze-batzordearen osaerari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

a) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kideak hauek izango dira: hamar irakasle edo ikertzaile, hiru ikasle, administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat eta sindikatu bakoitzeko bi ordezkari.
b) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kide izango dira campusetako euskara-batzordeetako eta ikastegietako euskara-batzordeetako ordezkari bana, halakorik badago.
c) Batzordea osatuko dute AZPko langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzaren ordezkari bik eta Administrazioaren beste horrenbeste ordezkarik. Horrez gain, sindikatu bakoitzak gehienez aholkulari bat eraman ahal izango du batzordearen bileretara.
d) Gobernu Kontseiluak arautuko ditu batzordeko kideak izendatzeko prozedura eta funtzionamendua.

115. **Zer da administrazio eta zerbitzuetako langileen erreferentziako plantila?**

a) Giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da.
b) Giza baliabideen plangintza egiteko tresna bat da.
c) Giza baliabideak kontrolatzeko tresna bat da.
d) Lanpostuak baloratzeko tresna bat da.

116. **Administrazio eta zerbitzuetako langile lan-kontratudunen ordainsariak honela egituratzen dira:**

a) Oinarrizko soldata, lanpostu mailako osagarria, osagarri espezifiko orokorra eta osagarri espezifiko berezia.
b) Oinarrizko soldata, lanpostu mailako osagarria, osagarri espezifiko orokorra, osagarri espezifiko berezia, produktibitate-osagarria eta aparteko haborokinak.
c) Oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak.
d) Oinarrizko soldata, antzinatasun-osagarria, toxikotasun, arrisku edo nekagarritasunagatiko plusa eta arduraldi bereziko osagarria.

117. **Langileen Estatutua honela onartu zen:**

a) Legegintzako Errege-dekretu bidez.
b) Lege arrunt bidez.
c) Lege-dekretu bidez.
d) Xedapen iragankor bidez.

118. **Lan-arriskuen prebentziorako Legearen arabera, zenbat langile dituzten enpresa edo lantokietan eratzen da segurtasun eta osasuneko batzordea?**

a) 30 langile baino gutxiago.
b) 30 langile.
c) 51 langile edo gehiago.
d) 50 langile edo gehiago.

119. **Segurtasun eta osasuneko batzordea...**

a) Parte hartzeko organo bitariko eta kolegiatua da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
b) Parte hartzeko organo igualitario eta kide bakarrekoa da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
c) Parte hartzeko organo indibidual eta parekidea da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.
d) Parte hartzeko organo parekidea da, arriskuei aurre egiteari dagokionez enpresaren jardueren kontsulta aldizkakoa eta erregularra egiteko.

120. **Prebentziorako eskuordeen eskumenak hauek dira:**

a) Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea, prebentzio-ekintza hobetzeko.
b) Arriskuak prebenitzeko planak eta programak egin, abian jarri eta ebaluatzen parte hartzea.
c) Arriskuak benetan prebenitzeko metodo eta prozedurei buruzko ekimenak sustatzea.
d) Prebentzioari buruzko prestakuntza ematea gainerako langileei.

121. **Hau da prebentzio-zerbitzua:**

a) Prebentzio-jarduerak gauzatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa.
b) Laneko segurtasunaren arloan lan egiten duten pertsonen multzoa.
c) Lantoki guztietan izan beharreko lehen sorospeneko lokalak.
d) Langileei lanbide-gaixotasuna dutenean ematen zaien zerbitzua.

122. **Zer helburu du UPV/EHU-ren Euskararen II. Plan Gidariak administrazio eta zerbitzuetako langileentzat?**

a) LPZko lanpostu guztiek derrigortasun-data gainditua izatea 2017ko abendurako.
b) IVAPekin elkarlanean aritzea, hizkuntza-prestakuntzarako politika koordinatzeko eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
c) Plangintzaldian zehar titulazio-talde bakoitzean izan behar diren derrigortasun-datak gutxienez talde horretako lanpostuen % 25 izan beharko du.
d) Planaren amaieran A eta I taldeetako lanpostuen % 30ek 4. hizkuntza-eskakizuna ezarria izan beharko du, nahiz eta ez guztiek derrigortasun-data gainditua izan.

123. **Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuan, administrazio atalak honela sailkatzen dira:**

a) Kidegoa eta eskala.
b) Bi kategoriatan: jendaurreko atalak eta jendaurrekoak ez direnak.
c) Lau kategoriatan: jendaurreko atalak, gizarte-mailako atalak, atal orokorrak eta atal bereziak.
d) Ordainsari-mailaren arabera.

124. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak:**

a) Bitarteko funtzionarioaren figura ezabatzen du.
b) Bitarteko funtzionarioaren figura jasotzen du.
c) Bitarteko funtzionarioen figura mantentzen du estatutu hori indarrean sartu aurretiko kontratuetarako bakarrik.
d) Adierazten du bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionario izatera pasatuko direla hirugarren xedapen gehigarrian jasotako prozedura berezi baten bidez.

125. **Behin-behineko langileei dagokienez:**

a) Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da.
b) Izaera ez-iraunkorreko langileak dira.
c) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzte.
d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

126. **Hirurtekoak:**

a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarrizko ordainsaritzat hartzen dira.
b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ordainsari osagarritzat hartzen dira.
c) Bitarteko funtzionarioek ezin dituzte kobratu.
d) Ez dira ordainsaritzat hartzen.

127. **Printzipio hauetatik zein ez dago Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan?:**

a) Funtzionarioak ez du onartuko abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoa kontuan izanik.

b) Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalei men egin behar diete langile publikoek, ordenamendu juridikoaren aurkakoak badira ere. Halakoetan, *debitum obedientia* (zor den obedientzia) printzipioak babestuko ditu, eta lanean diharduten Administrazioko arduradun nagusiari jakinarazi beharko diote.

c) Langile publikoek lanean diharduten administrazioarekiko leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera jardungo dute.

d) Langile publikoek eguneratua izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.

128. **Desgaitasuna duten pertsonak:**

a) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko hiruko kupoa gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonek bete ditzaten.

b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ez du kontuan hartzen inolako neurririk desgaitasuna duten pertsonak funtzioan publikoan sartzeari dagokionez.

c) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen kupo bat gorde ahal izango da, desgaitasunen bat duten pertsonek bete ditzaten. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du kopuru hori, zeina ezingo baita izan eskaintzen diren lanpostuen % 3 baino txikiagoa eta % 10 baino handiagoa.

d) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonek bete ditzaten.

129. **B taldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko, hau eskatuko da:**

a) Graduko tituluaren jabe izatea.

b) Goi-mailako teknikariaren tituluaren jabe izatea.

c) B1 talderako, graduko tituluaren jabe izan beharko da. B2 talderako ez da halakorik behar.

d) Batxilergoko tituluaren edo teknikari-tituluaren jabe izatea.

130. **Zein dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak?**

a) Oposizioa.

b) Lehiaketa.

c) Oposizioa eta oposizio-lehiaketa.

d) Lehiaketa-sistema bakarrik erabili ahal izango da baldin eta Administrazio Publikorako Estatuaren Goi Ikuskaritzak onartzen badu.

131. **Karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan, noiz erabili ahal izango da lehiaketa-sistema bakarrik?**

a) Inoiz ez.

b) Legearen indarrez bakarrik, eta salbuespen modura.

c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:

d) Administrazio publiko bakoitzeko organo arduradun nagusiak onartzen badu.

132. **Nolanahi ere, enplegu publikoaren eskaintza betetzeko, epe hau izango da gehienez ere:**

a) Hiru urte.
b) Lau urte.
c) Hamar urte.
d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten:

133. **Esaldi hauetako zein da zuzena?**

a) Debekatuta dago hemezortzi urtetik beherakoak lanerako hartzea.
b) Debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.
c) Konstituzioaren arabera, debekatuta dago hemezortzi urtetik beherakoak lanerako hartzea.
d) Konstituzioaren arabera, debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.

134. **Langileen Estatutuaren arabera, hauetako zein ez da langileen oinarrizko eskubideetako bat?**

a) Greba-eskubidea.
b) Sindikatua askatasunez aukeratzeko eskubidea.
c) Lanbide-heziketa jarraitua izateko eskubidea.
d) Enpresan informazioa jasotzeko, hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea.

135. **Beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egin ditzakete:**

a) Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago edukita independente bizi direnek, baldin eta gurasoen edo tutoreen onespena, edo bere kargura daukan pertsonaren edo erakundearen baimena badute.
b) Hamasei urtetik gorakoek.
c) Hemezortzi urtetik beherakoek ez dute lege-gaitasunik beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egiteko.
d) Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago dituztenek, betiere lanaldia ez bada zazpi ordutik gorakoa.

136. **Lan-kontratua:**

a) Idatziz egin behar da beti.
b) Berbaz egindako kontratuak zuzenbidean erabat deusezak dira.
c) Lanbideren F3 ereduaren arabera egin behar da.
d) Praktikaldiko kontratuak idatziz jaso behar dira kasu guztietan.

137. **Praktikaldiko kontratuaren iraupena:**

a) Ezingo da izan urtebete baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria bera izanda.
b) Ezingo da izan bi urte baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua bera izanda.
c) Langilearen eta alderdi kontratatzailearen arteko akordio bidez zehaztuko da.
d) Ez dago araututa Langileen Estatutuan.

138. **Langileen Estatutuan jasotzen diren hitzarmen kolektiboak:**

a) Notario aurrean erregistratu behar dira.
b) Eskumenak dituzten laneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, indarrean sar daitezen behin betiko.
c) Eskumenak dituzten laneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, erregistroan jasotzeko.
d) Autonomia-erkidego bakoitzean eskumena duen organoari aurkeztu behar zaizkio, eta erregistratu.

139. **Lanaldi bat amaitzen denetik eta hurrengoa hasten denera arte...**

a) 24 ordu igaro behar dira gutxienez.
b) 12 ordu igaro behar dira gutxienez.
c) 16 ordu igaro behar dira gutxienez.
d) Hitzarmen kolektibo bakoitzean ezarriko da, sektorearen, gremioaren eta ekoizpenaren ezaugarrien arabera.

140. **Benetan lan egindako ordu kopurua:**

a) Inoiz ezingo da izan egunean bederatzi ordu baino gehiago.
b) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan bederatzi baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
c) Inoiz ezingo da izan egunean hamar ordu baino gehiago.
d) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan hamar baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.

141. **Euskal funtzio publikoaren Legearen arabera, lanpostu-zerrendek nahitaez jaso beharreko informazioaren artetik, erantzun hauetako bat okerra da:**

a) Dedikazio-erregimena.
b) Hizkuntza-eskakizuna.
c) Hizkuntza-eskakizunak indarra galtzen duen eguna.
d) Lanpostua elebiduna ala elebakarra den.

142. **Euskal funtzio publikoaren Legearen arabera, lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa-prozedura batean, lehiaketa-aldiaren balorazioa:**

a) Beti % 45 izango da.
b) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 45etik gorakoa.
c) Prozesua deitzen duen administrazio publikoak erabakitzen du.
d) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik gorakoa.

143. **Erantzun hauetatik zein ez da baliozkoa funtzionario bat zerbitzu berezietakotzat jotzeko?**

a) Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario-izaera hartzen duenean.
b) Administrazioaren baimena duenean EAEko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatetsitako gobernuz kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
c) Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
d) Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.

144. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**

a) Lanpostu-mailako osagarria.
b) Produktibitate-osagarria.
c) Berariazko osagarria.
d) Ordainsari bereziak.

145. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**

a) Falta oso larria.
b) Falta oso arina.
c) Falta larria.
b) Falta arina.

146. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako falta da lantegietan iskanbilaren bat sortzea edo hartan parte hartzea?**

a) Falta larria.
b) Falta oso arina.
c) Falta oso larria.
b) Falta arina.

147. **Hizkuntza-eskakizunak betetzen direla akreditatzeko, zer erakundek erabakiko ditu kasu bakoitzean behar den euskara-maila ebaluatzeko proben edukia eta forma?**

a) Euskerazaintzak.
b) Euskaltzaindiak.
c) Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
d) Euskara Batzorde Nagusiak.

148. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**

a) Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
b) Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
c) Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
d) Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.

149. **Zer unibertsitatek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema?**

a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
c) Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.

150. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**

a) Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
b) Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
d) Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.

151. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea:**

a) Eusko Legebiltzarrari dagokio, unibertsitatearen jardun-eremua EAEko hiru lurralde historikoak badira.
b) Unibertsitatearen jardun-eremua lurralde historiko bakar bat baldin bada, lurralde horretako Batzar Nagusiei dagokie.
c) Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio.
d) Unibertsitate-hezkuntzako gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio.

152. **Unibertsitate-planak:**

a) Lau urteko iraupena du.
b) Bost urteko plan bat da.
c) Hiru urteko plan bat da.
d) Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

153. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean?**

a) Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
b) Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
c) Gizarte Kontseilua.
d) EAEko Errektoreen Batzarra.

154. **Unibertsitate publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**

a) Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
b) Oinarrizko ekarpen bat dira.
c) Ekarpen subsidiario bat dira.
d) Baldintzapeko finantzaketa-era bat dira.

155. **Euskal unibertsitate sistemako unibertsitate ez-publiko batek fakultate berri bat sortu nahi badu:**

a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren baimena behar du.
b) Unibertsitateen gaietan eskumenak dituen sailaren baimena behar du.
c) Eusko Legebiltzarraren baimena behar du.
d) Fakultate berria kokatuko den lurralde historikoko Batzar Nagusien baimena behar du.

156. **UPV/EHU**

a) Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
b) Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
c) Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
d) Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.

157. **Zeini dagokio zehaztea UPV/EHU-ko irakasleen eta ikertzaileen zerbitzu-eginkizun, lizentzia, baimen eta eszedentzia guztiak emateko araubidea?**

a) Unibertsitateko Klaustroari.
b) Gerentearen, Enpresa Batzordearen eta Langileen Batzarraren akordio bidez zehazten da.
c) Gobernu Kontseiluari, kontuan hartuta UPV/EHUko Irakasleen Batzordearen iritzia.
d) Gobernu Kontseiluari, Gerenteak proposatuta.

158. **Administrazio eta zerbitzuetako langileak hartzeko UPV/EHUren lan-eskaintzan jasotako plaza hutsak betetzeko egingo diren hautatze-probetako deialdia:**

a) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
b) Gobernu Batzarrak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
c) Gobernu Kontseiluak onartuko du, kontuan hartuta errektorearen proposamena.
d) Enplegu publikoko gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.

159. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaritza-organo bat?**

a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
b) Enpresa Batzordea.
c) Ikastegietako batzarrak.
d) Atal sindikalak.

160. **Nork aukeratuko du aldezlea?**

a) Gobernu Kontseiluak gehiengo osoz, 5 urterako.
b) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen gehiengo osoz, 5 urterako.
c) Klaustroak, errektoreak proposatuta, 5 urterako.
d) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan daudenen bi herenen gehiengoarekin, 5 urterako.

161. **Euskal unibertsitate-sistemaren unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**

a) Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
b) Gobernu Kontseiluari dagokio.
c) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
d) Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.

162. **Zein da UPV/EHUko kontratazio-organoa?**

a) Kontratazio eta Plangintza Batzordea.
b) Errektorea, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.
c) Gerentzia.
d) Campuseko gerentziordetzak, campus anitzeko unibertsitate bat baita.

163. **Zeinek onartzen du behin betiko UPV/EHUko aurrekontua?**

a) Gobernu Kontseiluak.
b) Kudeaketa Klaustroak, zeina urtero egiten baita.
c) Gizarte Kontseiluak.
d) Klaustroak.

164. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, honi dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea:**

a) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
b) Autonomia-erkidegoko instituzioei.
c) Lurralde historikoetako tokiko organoei eta foru-administrazioari.
d) Lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari.

165. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**

a) Diskriminazio positiborik gabekoak.
b) Ekintza positibokoak.
c) Ekintza publikokoak.
d) Diskriminazio positibokoak.

166. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, zeini dagokio lege hau zein neurritan betetzen den ebaluatzea?**

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari.
b) EAEko administrazio publikoei.
c) Auzitegi arruntei.
d) Estatuaren Administrazio Orokorrari.

167. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio metodologia planifikatzea eta diseinatzea hauek berdintasun-printzipioari egokitzeko:**

a) Ponentziak.
b) Irizpenak.
c) Estatistikak.
d) Txostenak.

168. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki hauetan era bateratuan egin beharrekoak direnean:**

a) Lurralde historiko guztietan.
b) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta Euskal Herriaren lurralde osoan.
c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.
d) EAEko udalerri guztietan.

169. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio, halaber:**

a) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak egitea.
b) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
c) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak egitea.
d) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak egitea.

170. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio programa edo zerbitzuak ematea ondoan zehazten diren emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten, zerbitzu horien izaera dela-eta Erkidego osorako era bateratuan eman beharrekoak direnean:**

a) Bereizkeria jasaten duten emakumeek.
b) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek.
c) Zuzeneko bereizkeria jasaten duten emakumeek.
d) Zeharkako bereizkeria jasaten duten emakumeek.

171. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzea helburu duten era honetako baliabide eta zerbitzuak ezartzea:**

a) Publiko edo pribatuak.
b) Soziokomunitarioak.
c) Publikoak.
d) Publiko eta pribatuak.

172. **2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek gutxienez ordezkaritza hau dutenean:**

a) % 50eko ordezkaritza dutenean.
b) % 40tik gorako ordezkaritza dutenean.
c) % 45eko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.
d) % 40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.

173. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmen Kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**

a) UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
b) UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.
c) UPV/EHUren zerbitzupeko funtzionarioei.
d) Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.

174. **Langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**

a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
d) UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.

175. **Promozio profesionalean parte hartu ahalko dute:**

a) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek.
b) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek, betiere beren lanpostuan gutxienez bi urteko antzinatasuna badute.
c) UPV/ EHUrekin lan-lotura duten langileek.
d) Gutxienez 5 urteko antzinatasuna duten langile guztiek.

176. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**

a) Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
b) Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daudenak bakarrik.
c) Langile funtzionario eta langile lan-kontratudunentzakoak bakarrik, hutsik daudenak izan ezik.
d) Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.

177. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile Lan-kontratudunen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, norberaren kontuetarako baimena:**

a) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
b) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen aldez aurretiko baimena beharko da.
c) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
d) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuetarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen aldez aurretiko baimena beharko da.

178. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**

a) Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kontuan hartuko antzinatasunerako.
b) Antzinatasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gordea izateko.
c) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kontuan hartuko zaio antzinatasunerako.
d) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzinatasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.

179. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboaren arabera, langileak, ezkonduz gero, eskubidea izango du:**

a) 15 laneguneko baimena hartzeko.
b) 20 laneguneko baimena hartzeko.
c) 15 egun naturaleko baimena hartzeko.
d) 20 egun naturaleko baimena hartzeko.

180. **UPV/EHU-ko gizarte funtsa erabili ahalko dute:**

a) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.
b) Langile funtzionarioek bakarrik.
c) Langile lan-kontratudunek bakarrik.
d) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek.

181. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako prestakuntza batzordea hauek osatuta egongo da:**

a) Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkarik eta administrazioko beste horrenbeste ordezkarik.
b) Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta administrazioko beste horrenbeste ordezkarik.
c) Gehiengoa duen sindikatuko bi ordezkarik, Enpresa Batzordean langileen ordezkaritza duten gainerako sindikatuetako ordezkari batek eta Administrazioko beste horrenbeste ordezkarik.
d) Batzorde Parekideak dituen ordezkari berek.

182. **Erretiro partziala eta txanda-kontratua hartu nahi duten langileek baldintza hauek bete behar dituzte:**

a) Langile lan-kontratuduna izatea.
b) Gutxienez 20 urteko antzinatasuna izatea.
c) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozeinetan, edo egonkortasuna aitortua izatea.
d) Langile lan-kontratudun finkoa izatea eta UPV/EHUn behin betiko lanpostu bat betetzen egotea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran edo lanpostua gordetzea dakarren beste edozeinetan.

183. **UPV/EHUren Prebentzio Zerbitzua honela antolatuta dago:**

a) Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa.
b) Osasun-arlo bat campus bakoitzeko eta Arlo Teknikoa.
c) Osasun Arloa eta arlo teknikoa campus bakoitzeko.
d) Osasun Arloa, Arlo Teknikoa eta Psikologia Aplikatua Saila.

184. **UPV/EHUren osasun arloaren zereginak hauek izango dira:**

a) UPV/EHUko ikastegietako arriskuen ebaluazioak egitea.
b) Osasunaren zaintzari dagozkionak eta ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak.
c) Istripu eta gorabeherak aztertzea, haien arrazoiak aztertzeko eta berriro gerta daitezen eragozteko.
d) Larrialdi-planak diseinatu eta koordinatzea.

185. **Prebentzioko ordezkariek:**

a) Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
b) Prebentzio-jarduerak planifikatuko dituzte urtero prebentzioko teknikariekin batera.
c) Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
d) Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.

186. **Administrazio publikoetako zuzendaritzako langile profesionalak:**

a) Eraginkortasun- eta efizientzia-irizpideak aintzat hartuta ebaluatuko da haien zeregina.
b) Ez daude araututa Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan.
c) Lau urterako kontratatzen dira, eta beste lau urterako bakarrik luza dakieke kontratua.
d) Ez daude aurreikusita unibertsitate publikoetarako.

187. **Administrazio-prozedura batean interesa duten pertsonatzat hartzen dira:**

a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura prozedura hori sustatu dutenak.
b) Prozedura haiek ez hasi arren hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

188. **Herri-administrazioen Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, honelakotzat jotzen dira unibertsitate publikoak:**

a) Administrazio publikotzat
b) Zuzenbide publikoko korporaziotzat.
c) Partzuergotzat.
d) Sektore publiko instituzionaltzat.

189. **Administrazio-prozedura batean epe jakin bat egunetan adierazten denean, hau ulertzen da:**

a) Egun naturalak direla.
b) Egun baliodunak direla, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
c) Egun baliodunak direla, larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuta daudenak izan ezik.
d) Aurreko erantzunetatik, bat ere ez da zuzena.

190. **39/2015 Legearen arabera, zuzenbidean erabat deusezak dira:**

a) ahozko administrazio-egintzak.
b) legez ezarritako prozedura zeharo alboratuz egindako administrazio-egintzak.
c) epez kanpo emandako administrazio-egintzak.
d) aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

191. **39/2015 Legearen arabera, zein da epea egintza espresu baten aurka gora jotzeko errekurtso bat jartzeko?:**

a) Hamabost egun.
b) Hilabete.
c) Bi hilabete.
d) Hiru hilabete.

192. **39/2015 Legearen arabera, gora jotzeko errekurtso bat jarri ondoren, zein da epea ebazteko eta ebazpena jakinarazteko?**

a) Hilabete.
b) Bi hilabete.
c) Hiru hilabete.
d) Sei hilabete.

193. **Adierazi kasu hauetako zein ez den administrazio-errekurtso bat ez onartzeko arrazoia:**

a) Errekurtsogileak legitimaziorik ez izatea.
b) Errekurtsoa jartzeko epea igaro izana.
c) Errekurtsoa jar ez dakiokeen egintza izatea.
d) Errekurtsogileak okerren bat egitea errekurtsoaren kalifikazioan.

194. **Administrazio-prozedura baten arauak bestelako eperen bat adierazten ez badu, hau izango da prozedura hori ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea:**

a) Hilabete.
b) Bi hilabete.
c) Hiru hilabete.
d) Sei hilabete.

195. **39/2015 Legearen arabera, epe honetan egin behar dira jakinarazpen guztiak:**

a) Gehienez hamar egun administrazio-egintzaren datatik.
b) Gehienez hamabost egun administrazio-egintzaren datatik.
c) Gehienez hilabete administrazio-egintzaren datatik.
d) Gehienez bi hilabete administrazio-egintzaren datatik.

196. **39/2015 Legearen arabera, noiz argitaratu behar dira egintza administratiboak?**

a) Beti.
b) Egintzaren jasotzailea jende kopuru mugagabe bat denean.
c) Kalterako den egintza denean.
d) Administrazio-egintzak ezin dira argitaratu inoiz.

197. **39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura batean interesa duen pertsonak, edo haren ordezkariak, administrazio-jardun baten jakinarazpena atzera botatzen badu:**

a) Berriro saiatu beharra dago jakinarazten interesdunak jasotzen duen arte.
b) Administrazio-jardun hori dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko da.
c) Espedientean aipatuko da, jakinarazteko egindako saioaren xehetasunak eta bidea zehaztuz; jakinarazitzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.
d) Prozedura bertan behera utziko da beti.

198. **Nori dagokio UPV/EHU-ko Erregistro Orokorra mantentzea?**

a) Idazkari nagusiari.
b) Errektoreari.
c) Dagokien zerbitzuburuei.
d) Campuseko errektoreordetzei.

199. **Unibertsitateko klaustroa:**

a) Unibertsitatearen gobernu-organoa da.
b) Gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da.
c) Jakintza-arlo bateko edo batzuetako ikasketak koordinatzeaz arduratzen den irakaskuntza- eta ikerketa-unitatea da.
d) Unibertsitateko kideen ordezkaritza-organo gorena da.

200. **UPV/EHU-ren Estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espresuki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**

a) Gobernu Kontseiluari.
b) Klaustroari.
c) Errektoreari.
d) Idazkari nagusiari.

ATAL ESPEZIFIKOA

1. **1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legean, eraikuntza antolatzeari buruzkoan, jasotzen da proiektu bat idazteko betebeharretik salbuetsita daudela eraikuntza-lan handirik behar ez duten eraikuntzak eta konplexutasun teknikorik gabeak, aldi baterako edo behin betiko ez direnak izango:**

   a) Bizitegi.
   b) Ez bizitegi ez publiko.
   c) Ez bizitegi ez publiko, eta solairu bakarra izango dutenak.
   d) Bizitegi ez direnak izango, eta solairu bakarra izango dutenak.

2. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten agenteak izango dira eraikinean eraikuntza-elementuen akatsek eragindako kalte materialen erantzule eta bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten instalazioen erantzule, denbora-tarte honetan:**

   a) Urtebetez.
   b) Hiru urtez.
   c) Hamar urtez.
   d) 5 urtez.

3. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten agenteak izango dira eraikineko zimenduari, euskarriei, habeei, solairuei, karga-murruei eta gainerako egitura-elementuei eragiten dieten eta eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna arriskuan jartzen duten akatsek eragindako kalte materialen erantzule, denbora-tarte honetan:**

   a) Urtebetez.
   b) Hiru urtez.
   c) Hamar urtez.
   d) 5 urtez.

4. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntza-prozesuan parte hartzen duen eraikitzailea izango da akabera-elementuei eragiten dieten gauzatze-akatsen ondorioz eraikinean eragindako kalte materialen erantzule, denbora-tarte honetan:**

   a) Urtebetez.
   b) Hiru urtez.
   c) Hamar urtez.
   d) 5 urtez.

5. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntzaren oinarrizko baldintzak hauen ingurukoak dira:**

   a) Funtzionaltasuna eta segurtasuna.
   b) Funtzionaltasuna, segurtasuna eta ekonomia.
   c) Funtzionaltasuna, segurtasuna eta bizigarritasuna.
   d) Bizigarritasuna, segurtasuna eta ekonomia.

6. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, erantzukizun zibila exijitu ahal izango da:**

   a) Modu pertsonal eta indibidualizatuan.
   b) Zati berdinetan.
   c) Modu solidarioan; aseguru-konpainien artean banatzen da.
   d) Beti da 2/3 arkitektoarentzat eta 1/3 arkitekto teknikoarentzat.

7. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntzako agenteak hauek dira:**

   a) Eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona fisiko guztiak.
   b) Eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona juridiko guztiak.
   c) Eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten administrazio guztiak.
   d) Eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

8. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntzako agenteak hauek dira:**

   a) Sustatzailea eta proiektugilea.
   b) Sustatzailea eta eraikitzailea.
   c) Proiektugilea eta eraikitzailea.
   d) Sustatzailea, proiektugilea eta eraikitzailea.

9. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, eraikuntzako agenteak hauek dira:**

   a) Kalitatea kontrolatzen duten erakundeak, produktuen hornitzaileak, aseguru-konpainiak eta jabe eta erabiltzaileak.
   b) Kalitatea kontrolatzen duten erakundeak, produktuen hornitzaileak eta aseguru-konpainiak.
   c) Kalitatea kontrolatzen duten erakundeak, aseguru-konpainiak eta jabe eta erabiltzaileak.
   d) Kalitatea kontrolatzen duten erakundeak, produktuen hornitzaileak eta jabe eta erabiltzaileak.

10. **Gaur egun, eta eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, proiektugilearen betebeharra da:**

    a) Arkitekto izateko gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala izatea.
    b) Ingeniari izateko gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala izatea.
    c) Arkitekto edo ingeniari izateko gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala izatea.
    d) Arkitekto, ingeniari, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko izateko gaitzen duen titulazio akademiko eta profesionala izatea.

11. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legean ezartzen denez, noiz iraungiko dira akatsetatik eratorritako kalte materialengatiko erantzukizuna eskatzeko ekintzak?**

    a) Jasotze-aktaren datatik urtebetera.
    b) Kalteak gertatu eta urtebetera.
    c) Jasotze-aktaren datatik bi urtera.
    d) Kalteak gertatu eta bi urtera.

12. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obra harreraren bidez, obra bukatutakoan:**

    a) Sustatzaileak obra entregatzen dio eraikitzaileari, eta hark onartu egiten du.
    b) Obraren zuzendariak obra entregatzen dio eraikitzaileari, eta hark onartu egiten du.
    c) Eraikitzaileak obra entregatzen dio sustatzaileari, eta hark onartu egiten du.
    d) Obraren zuzendariak obra entregatzen dio sustatzaileari, eta hark onartu egiten du.

13. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obra-harrera akta sinatu batean jaso beharko da, eta akta hori hauek sinatu beharko dute gutxienez:**

    a) Sustatzaileak eta obraren zuzendariak.
    b) Sustatzaileak eta eraikitzaileak.
    c) Eraikitzaileak eta obraren zuzendariak.
    d) Sustatzaileak eta obra egikaritzearen zuzendariak.

14. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obra-harrera akta sinatu batean jaso beharko da, eta hauek adierazi beharko dira:**

    a) Parte hartzen duten alderdiak.
    b) Obra guztiaren edo fase oso eta bukatuaren ziurtagiriaren data.
    c) Obra gauzatzearen azken kostua.
    d) Aurreko guztiak.

15. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obra bukatutakoan, nori eman behar zaio proiektua, aldaketa onartu eta guzti (aldaketarik baldin badago)?**

    a) Obraren zuzendariak sustatzaileari.
    b) Eraikitzaileak sustatzaileari.
    c) Eraikitzaileak obra egikaritzearen zuzendariari.
    d) Eraikitzaileak obraren zuzendariari.

16. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, jabe eta erabiltzaileen betebeharrak hauek dira:**

    a) Bat ere ez.
    b) Eraikuntza egoera onean mantentzea erabilera eta mantentze-lan egokien bidez.
    c) Egindako obraren, aseguruen eta bermeen dokumentazioa gorde eta transmititzea.
    d) Eraikuntza egoera onean mantentzea erabilera eta mantentze-lan egokien bidez, eta egindako obraren, aseguruen eta bermeen dokumentazioa gorde eta transmititzea.

17. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren arabera, proiektua egitean eta obra gauzatzean eraikuntza-obretako segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaile izateko gaitzen duten titulazio akademiko eta profesionalak hauek dira:**

    a) Arkitektoa eta arkitekto teknikoa.
    b) Arkitektoa eta ingeniaria.
    c) Arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa.
    d) Arkitektoa, ingeniaria, arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa.

18. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, proiektugile eta obraren zuzendari izateko gaitzen duten titulazio akademiko eta profesionalak hauek dira:**

    a) Arkitektoa eta arkitekto teknikoa.
    b) Arkitektoa eta ingeniaria.
    c) Arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa.
    d) Arkitektoa, ingeniaria, arkitekto teknikoa eta ingeniari teknikoa.

19. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legea aplikatzen zaio eraikuntza-prozesuari, hots, eraikin iraunkor bat, publikoa nahiz pribatua, eraikitzeko ekintzari eta emaitzari; zein izango da eraikin horren erabilera nagusia?**

    a) Administratiboa edo bizitegitarakoa.
    b) Nekazaritza eta abeltzaintzakoa edo meatzaritzakoa.
    c) Saneamendu- eta higiene-ingeniaritzakoa.
    d) Horiek guztiak.

20. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2. artikuluaren arabera, zer erabilera izan behar dituzte lehenengo taldean edo a) taldean sailkatutako eraikinek?**

    a) Bizitegitarakoa aldaera guztietan, irakaskuntzakoa eta kulturala.
    b) Administratiboa, sanitarioa, erlijiozkoa, bizitegitarakoa aldaera guztietan, irakaskuntzakoa eta kulturala.
    c) Aeronautikoa, nekazaritza eta abeltzaintzakoa; energiatarako; hidraulikoa; meatzaritzakoa; telekomunikazioetakoa; lurreko, itsasoko, ibaietako eta aireko garraiokoa; basogintzakoa; industriala; ontzigintzakoa; saneamendu- eta higiene-ingeniaritzakoa, eta ingeniaritza-obren eta haren ustiapenen osagarritarakoa.
    d) Berariaz aurreko taldeekin erlazionatutako erabilerarik ez dauden gainerako eraikuntzak.

21. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 14.1 artikuluaren arabera, eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeak dira hauek:**

a) Proiektuarekin eta aplikatzeko araudiarekin bat, materialen kalitatea, obra gauzatzearen eta haren instalazioen kalitatea egiztatzeko laguntza teknikoa emateko gaitasuna dutenak saiakuntzak edo zerbitzu-probak eginez.
b) Laguntza teknikoa emateko gaitasuna dutenak eraikuntza-obra bateko material, sistema eta instalazioen saiakuntzak edo zerbitzu-probak eginez.
c) Proiektuarekin eta aplikatzeko araudiarekin bat, proiektuaren, materialen, obra gauzatzearen eta haren instalazioen kalitatea egiztatzeko laguntza teknikoa emateko gaitasuna dutenak.
d) Laguntza teknikoa emateko gaitasuna dutenak lurrean saiakuntzak edo zerbitzu-probak eginez, eta eraikuntza-obra bateko material, sistema eta instalazioen laguntza teknikoa emateko gaitasuna dutenak.

22. **Sektore publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu modalitate hauek osatzen dute:**

a) Obra-kontratuek.
b) Obra-emakidek.
c) Zerbitzu-kontratuek.
d) Guztiek.

23. **Sektore publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, zer helburu du obra-kontratu batek?**

a) Emakidadunak zerbitzu batzuk ematea, adibidez, lehendik dauden eraikinak birgaitu eta konpontzea.
b) Produktu edo ondasun higigarri batzuk erosi edo alokatzea, erosteko aukerarekin nahiz ez.
c) Obra bat gauzatzea, modu bakartuan edo proiektua idaztearekin batera.
d) Aurreko guztiak.

24. **Sektore publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 13.2 artikuluaren arabera, zer da «obra» bat?**

a) Eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko, ondasun higiezin batean egiten diren eraikuntzako edo ingeniaritza zibileko lan batzuen emaitza.
b) Lurzoruaren edo haren lurgainaren forma edo funtsa aldatuko duten edota inguru-ne fisiko edo naturala hobetuko duten lanak egitea.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

25. **Sektore publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legean, kontratuak esleitzeko zer prozedura jasotzen dira?**

a) Prozedura irekia.
b) Prozedura irekia eta prozedura murriztua.
c) Prozedura irekia, prozedura murriztua eta negoziazioarekiko prozedura.
d) Prozedura irekia, prozedura murriztua, negoziazioarekiko prozedura, lehia-elkarrizketa eta berrikuntzarako elkartze-prozedura.

26. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 156. artikuluaren arabera, prozedura ireki batean:**

a) Interesa duten enpresaburu guztiek aurkez ditzakete proposamenak, eta ezingo dira negoziatu kontratuaren baldintzak lizitatzaileekin.
b) Interesa duten enpresaburu guztiek proposamen bat aurkeztu ahalko dute; kontratuaren kondizioak negoziatu ahalko ditu lizitatzaileekin.
c) Aurrez hautatutako enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahalko dute proposamen bat; ezingo dituzte negoziatu kontratuaren kondizioak lizitatzaileekin.
d) Aurrez hautatutako enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahalko dute proposamen bat; kontratuaren kondizioak negoziatu ahalko dituzte lizitatzaileekin.

27. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 156. artikuluaren arabera, prozedura ireki batean, obra, hornidura eta zerbitzuak kontratatzeko proposamenak aurkezteko epea ez da izango hau baino laburragoa:**

a) 15 egun.
b) 20 egun.
c) 30 egun.
d) 35 egun.

28. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/92017 Legearen 160. artikuluaren arabera, prozedura murriztu batean:**

a) Enpresaburuak eskatu ostean kontratazio-organoak hautatzen dituen enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak.
b) Enpresaburuak eskatu ostean eta haien kaudimenaren arabera kontratazio-organoak hautatzen dituen enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak.
c) Kontratazio-organoak kaudimenaren arabera hautatzen dituen enpresaburuek bakarrik aurkeztu ahalko dituzte proposamenak.
d) Enpresaburu guztiek aurkeztu ahalko dituzte proposamenak, beren kaudimenaren arabera.

29. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 166. artikuluaren arabera, prozedura negoziatu batean:**

a) Kontratazio-organoak hautatutako lizitatzaileari esleituko zaio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da, kontratuaren baldintzak hautagai batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren.
b) Kontratazio-organoak hautatutako lizitatzaileari esleituko zaio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da, eta ez da beharrik egongo kontratuaren baldintzak hautagai batekin edo hainbatekin negoziatzeko.
c) Lehiaketa publiko bidez egingo da esleipena, kontratuaren baldintzak hautagai batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren.
d) Lehiaketa publiko bidez egingo da esleipena, eta ez da beharrik egongo kontratuaren baldintzak hautagai batekin edo hainbatekin negoziatzeko.

30. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 167. artikuluaren arabera, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan eta obra-kontzesioen eta zerbitzu-kontzesioen kontratuetan lizitazio-prozedura negoziatu bat egingo da kasu hauetan:**

a) Kontratazio-organoaren beharrizanak asetzeko nahitaezkoa denean lizitatzaileek prestazioa (merkatuan eskuragarri dagoen moduan) aldez aurretik diseinatzea edo egokitzea.
b) Kontratuaren xede den prestazioak proiektu edo irtenbide berritzaileak dituenean.
c) Xede den prestazioaren izaerari, konplexutasunari eta konfigurazio juridiko nahiz finantzarioari lotutako egoerak direla-eta edota hari lotutako arriskuak direla-eta kontratua ezin denean esleitu aldez aurreko negoziaziorik gabe.
d) Aurreko hirurak.

31. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 172. artikuluaren arabera, lehia-elkarrizketa batean:**

a) Lehia-elkarrizketarako mahai bereziak elkarrizketa bat zuzentzen du hautatutako hautagaiekin, haiek eskaera egin ondoren, bere beharrizanak aseko dituzten zenbait irtenbide garatzeko; irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako hautagaiek eskaintza bat aurkez dezaten.
b) Lehia-elkarrizketarako mahai bereziak elkarrizketa bat zuzentzen du hautatutako hautagaiekin, haiek aldez aurretik eskaerarik egin gabe, bere beharrizanak aseko dituzten zenbait irtenbide garatzeko; irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako hautagaiek eskaintza bat aurkez dezaten.
c) Lehia-elkarrizketarako mahai bereziak elkarrizketa bat zuzentzen du hautagai posible guztiekin, bere beharrizanak aseko dituzten zenbait irtenbide garatzeko; irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako hautagaiek eskaintza bat aurkez dezaten.
d) Lehia-elkarrizketarako mahai bereziak elkarrizketa bat zuzentzen du hautagai posible guztiekin, bere beharrizanak aseko dituen hobekuntza ekonomiko bat edo gehiago garatzeko; hobekuntza horiek oinarria izango dira hautatutako hautagaiek eskaintza ekonomiko bat aurkez dezaten.

32. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183. artikuluaren arabera, zer helburu dute proiektuen arteko lehiaketek?**

a) Planoak eskuratzea.
b) Proiektuak eskuratzea.
c) Planoak eta proiektuak eskuratzea.
d) Lehiaketak eskuratzea.

33. **Sektore Publikokokontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183. artikuluaren arabera, batez ere zer arlotara zuzenduak izango dira proiektuen arteko lehiaketak?**

a) Arkitektura.
b) Arkitektura eta hirigintza.
c) Arkitektura, hirigintza eta ingeniaritza.
d) Arkitektura, hirigintza, ingeniaritza eta datu-prozesatzea.

34. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183.2 artikuluaren arabera, zerbitzu-kontratu bat esleitzeko prozeduren barruan antolatutako proiektu-lehiaketetan baimenak edo ordainak eman ahalko dira:**

    a) Beti.
    b) Batzuetan.
    c) Inoiz ere ez.
    d) Eraikinaren erabileraren arabera.

35. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183. artikuluaren arabera, ez-betetzearen larritasunarekiko zigor proportzionalak ezarri ahal izango dira kontratuaren objektu den prestazioa akatsez gauzatzeagatik, edo kontratua gauzatzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak ez betetzeagatik. zigor horiek ezingo dira izan:**

    a) Haietako bakoitza kontratuaren prezioaren % 10 baino handiagoa, eta totalak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren % 50.
    b) Haietako bakoitza kontratuaren prezioaren % 20 baino handiagoa, eta totalak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren % 50.
    c) Haietako bakoitza kontratuaren prezioaren % 30 baino handiagoa, eta totalak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren % 80.
    d) Haietako bakoitza kontratuaren prezioaren % 40 baino handiagoa, eta totalak ezingo du gainditu kontratuaren prezioaren % 80.

36. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 196. artikuluaren arabera, administrazioaren betebeharra da obra-ziurtagirien edo entregatutako ondasunen nahiz emandako zerbitzuen kontratua gauzatu dela egiaztatzeko agiriaren prezioa ordaintzea. epe hau izango du horretarako:**

    a) Haiek onartu eta hurrengo 15 egunak.
    b) Haiek onartu eta hurrengo 30 egunak.
    c) Haiek onartu eta hurrengo 60 egunak.
    d) Haiek onartu eta hurrengo 90 egunak.

37. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 196. artikuluaren arabera, kontratistak uko egin diezaioke kontratua betetzeari, baldin eta ordainketa berandutzen bada:**

    a) Hilabete baino gehiago.
    b) Bi hilabete baino gehiago.
    c) Hiru hilabete baino gehiago.
    d) Lau hilabete baino gehiago.

38. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikuluaren arabera, kontratazio-organoek egindako administrazio-kontratuak egoera hauetan bakarrik aldatu ahal izango dira:**

    a) Administrazio-klausulen pleguetan aurreikusten denean.
    b) Kontratazio-organoak hala erabakitzen duenean.
    c) Kontratistak hala erabakitzen duenean.
    d) Inoiz ere ez.

39. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 204. artikuluaren arabera, herri-administrazioen kontratuak indarrean dauden bitartean aldatu ahalko dira, betiere administrazio-klausula zehatzen pleguetan hala jasotzen bada, eta gehienez ere:**

a) Hasierako prezioaren % 10.
b) Hasierako prezioaren % 20.
c) Hasierako prezioaren % 30.
d) Hasierako prezioaren % 50.

40. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. artikuluaren arabera, administrazioak kontratu bat suntsiarazteko kausa izango dira hauek:**

a) Administrazioaren alde bakarreko borondatez.
b) Kontratistaren alde bakarreko borondatez.
c) Kontratista pertsona partikularra bada, haren heriotza edo ezgaitasuna; eta kontratista sozietatea bada, nortasun juridikoa azkentzea.
d) Aurreko guztiak.

41. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 219. artikuluaren arabera, sektore publikoko kontratazio-organo batek edo batzuek esparru-akordioak egiten badituzte enpresa batekin edo gehiagorekin, kotratuen gehienezko iraupena izango da:**

a) Urtebete.
b) Bi urte.
c) Lau urte.
d) Bost urte.

42. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari jarraituz, eta 231. artikuluaren arabera, obra-kontratu bat esleitzeko hauek egin behar dira aldez aurretik:**

a) Proiektu bat egin.
b) Proiektu bat egin eta ikuskatu.
c) Proiektu bat egin, ikuskatu eta onartu.
d) Proiektu bat egin, ikuskatu, onartu eta zuinkatu.

43. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeari jarraituz, obra-kontratu bat esleitzeko proiektuak egiteko, obrak sailkatu egingo dira, honen arabera:**

a) Objektuaren eta jatorriaren arabera.
b) Objektuaren eta izaeraren arabera.
c) Jatorriaren eta erabileraren arabera.
d) Jatorriaren eta izaeraren arabera.

44. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 232. artikuluari jarraituz, obra-kontratu bat esleitzeko proiektuak egiteko, obrak sailkatu egingo dira talde hauetan:**

a) Lehen ezarpeneko obrak, kontserbazio-obrak eta mantentze-obrak eta eraispen-obrak.
b) Lehen ezarpeneko obrak, kontserbazio-obrak eta mantentze-obrak.
c) Lehen ezarpeneko obrak, mantentze-obrak eta eraispen-obrak.
d) Lehen ezarpeneko obrak, konponketa errazeko obrak, kontserbazio-obrak eta mantentze-obrak eta eraispen-obrak.

45. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legean, 232.2. artikuluan «lehen ezarpeneko obrak» jasotzen dira; zer dira obra horiek?**

a) Lege horretan jasotzen diren ebazpenek zehazten dituzten obrak.
b) Zerbitzu-erabilera jakin bateko obrak.
c) Ondasun higiezinak sortzeko obrak.
d) Ondasun higigarriak sortzeko obrak.

46. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. artikuluan zehazten da proiektuen edukiak dokumentu hauek izan behar dituela gutxienez:**

a) Txostena; Plano orokorrak; Preskripzio tekniko zehatzen plegua; Aurrekontua; Obra burutzeko plana; Obraren zuinketen erreferentziak; Segurtasun- eta osasun-azterlana; Arauetan ezarritako agiriak.
b) Txostena; Plano orokorrak; Aurrekontua.
c) Txostena; Plano orokorrak; Preskripzio tekniko zehatzen plegua; Aurrekontua; Segurtasun- eta osasun-azterlana.
d) Txostena; Plano orokorrak; Preskripzio tekniko zehatzen plegua; Aurrekontua; Obra burutzeko plana; Segurtasun- eta osasun-azterlana; Arauetan ezarritako agiriak.

47. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233.2 artikuluan, lehen ezarpeneko, eraberritzeko zein konponketa handiak egiteko obren proiektuen edukiari buruzkoan, adierazten da erraztu egin daitezkeela agiri batzuk; zer baldintza behar da horretarako?**

a) Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoa, BEZa kontuan hartu gabe, 5.000 eurokoa izatea.
b) Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoa, BEZa kontuan hartu gabe, 50.000 eurokoa izatea.
c) Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoa, BEZa kontuan hartu gabe, 500.000 eurokoa izatea.
d) Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoa, BEZa kontuan hartu gabe, 5.000.000 eurokoa izatea.

48. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 234. artikuluaren arabera, noiz kontratatu ahalko dira proiektua egiteko lana eta dagozkion obrak egiteko lana biak batera?**

a) Administrazioak hala zehazten duenean.
b) Arrazoi teknikoak direla-eta, enpresaburua obren azterlanei lotu behar zaienean ezinbestean.
c) Obren tamaina ezohikoa edo zailtasun tekniko bereziak direla-eta, enpresaren beraren baliabide edo gaitasun teknikoen bidez eman beharreko konponbideak behar direnean.
d) b) eta c) aukerak.

49. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 239. artikuluaren arabera, ezinbesteko kasuetan, eta betiere zuhurtziarik gabeko jardunik ez badago kontratistaren aldetik, sortu zaizkion kalte eta galeren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango du kontratistak. zein dira ezinbesteko kasu horiek?**

a) Atmosferako elektrizitateak sortutako suteak.
b) Hondamendiak eragiten dituzten naturako fenomenoak: itsasikarak, lurrikarak, sumendi-erupzioak, lur-mugimenduak, itsasoko ekaitzak, uholdeak eta antzeko beste batzuk.
c) Gerra-denboran indarkeriaz egindako triskantzak, lapurreta zalapartatsuak eta ordena publikoaren urratze larriak.
d) Aurreko guztiak.

50. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 243. artikuluaren arabera, kontratazio-organoak onetsi beharko du gauzatutako obren azken ziurtagiria, eta ordaindu egin beharko dio kontratistari, kontratuaren likidazioaren kontura:**

a) Obra-harreratik hilabeteko epean.
b) Obra-harreratik bi hilabeteko epean.
c) Obra-harreratik hiru hilabeteko epean.
d) Obra-harreratik sei hilabeteko epean.

51. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 243.2 artikuluaren arabera, obraren berme-epea hasiko da administrazio kontratistak bere ordezkari izendatutako funtzionario teknikariak jasotzat jotzen dituenean, betiere:**

a) Obrak egoera onean badaude.
b) Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera gauzatu badira.
c) Obrak emandako aginduen arabera gauzatu badira eta dagokion akta egindakoan.
d) Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera gauzatu badira, eta dagokion akta egindakoan.

52. **2006ko ekainaren 30eko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera, hirigintzako lizentziak hauen bidez emango dira:**

a) Oinarrizko proiektua.
b) Egikaritze-proiektua.
c) Aurreko biak
d) Aurrekoetako bat ere ez.

53. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean jasotzen denez, oinarrizko proiektuaren edukiak osagai hauek izan behar ditu, gutxienez:**

a) Memoria eta planoak.
b) Memoria, planoak eta DB-SIren egiaztagiria.
c) Memoria, planoak, DB-SIren egiaztagiria eta gutxi gorabeherako aurrekontua.
d) Memoria, planoak eta DB-SIren eta DB-SUAren egiaztagiriak.

54. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean jasotzen denez, proiektuaren txostenaren edukiak osagai hauek izan behar ditu, gutxienez:**

a) Deskripzio-memoria: Eragileak, aurretiazko informazioa eta proiektuaren deskribapena.
b) Deskripzio-memoria: Eragileak, aurretiazko informazioa, proiektuaren deskribapena eta eraikinaren ezaugarriak.
c) Deskripzio-memoria: Eragileak, aurretiazko informazioa eta proiektuaren deskribapena.
d) Deskripzio-memoria: Eragileak, aurretiazko informazioa, proiektuaren deskribapena eta eraikinaren ezaugarriak; Eraikuntza-memoria: Eraikinaren sostengua.

55. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean jasotzen denez, egikaritze-proiektuaren edo proiektu osoaren edukiak osagai hauek izan behar ditu, gutxienez:**

a) I. Deskripzio-memoria, eraikuntza-memoria, EKT betetzearen ziurtagiria, memoriaren eranskinak; II. Planoak; III. Baldintzen plegua; IV. Aurrekontua.
b) I. Deskripzio-memoria, eraikuntza-memoria, EKT betetzearen ziurtagiria,beste araudi eta xedapen batzuk betetzearen ziurtagiria, memoriaren eranskinak; II. Planoak; III. Baldintzen plegua; IV. Aurrekontua.
c) I. Deskripzio-memoria, eraikuntza-memoria, EKT betetzearen ziurtagiria,beste araudi eta xedapen batzuk betetzearen ziurtagiria, memoriaren eranskinak; II. Planoak; III. Baldintzen plegua; IV. Neurketak; V. Aurrekontua.
d) I. Deskripzio-memoria, eraikuntza-memoria, EKT betetzearen ziurtagiria,beste araudi eta xedapen batzuk betetzearen ziurtagiria, memoriaren eranskinak; II. Planoak; III. Baldintzen plegua; IV. Neurketak; V. Aurrekontua; VI. Hondakinen plana.

56. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinaren 3. puntuan —proiektuaren edukiari buruzkoan— jasotzen denez, oinarrizko proiektuan egiaztatu beharko da ekt betetzen dela, alderdi honi dagokionez:**

a) Egituren segurtasuna.
b) Suteetarako segurtasuna.
c) Erabileraren segurtasuna.
d) Suteetarako segurtasuna eta erabileraren segurtasuna.

57. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean, eranskin hauek zerrendatzen dira proiektuan justifikatu beharrekoen artean:**

a) Kalitate-kontroleko plana; Segurtasun- eta osasun-azterlana.
b) Eraginkortasun energetikoa; Kalitate-kontroleko plana; Segurtasun- eta osasun-azterlana.
c) Eraginkortasun energetikoa; Kalitate-kontroleko plana; Segurtasun- eta osasun-azterlana; Egituraren kalkulua; Suteen aurkako babesa; Eraikineko instalazioak.
d) Eraginkortasun energetikoa; Kalitate-kontroleko plana; Segurtasun- eta osasun-azterlana; Egituraren kalkulua; Suteen aurkako babesa; Eraikineko instalazioak; Informazio geoteknikoa; Ingurumen-inpaktuaren azterketa.

58. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean jasotzen denez, oinarrizko proiektuaren edukiak plano hauek jaso behar ditu, gutxienez:**

a) Kokapen-planoa; Oinplano orokorrak; Altxaerak eta sekzioak.
b) Kokapen-planoa; Kokaleku-planoa; Oinplano orokorrak; Altxaera eta sekzioak.
c) Kokapen-planoa; Kokaleku-planoa; Urbanizazio-planoa; Oinplano orokorrak; Estalkien planoak; Altxaera eta sekzioak.
d) Kokapen-planoa; Kokaleku-planoa; Urbanizazio-planoa; Oinplano orokorrak; Estalkien planoak; Altxaera eta sekzioak; Eraikuntza-definizioko planoak.

59. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean jasotzen denez, oinarrizko proiektuaren edukiaren III. puntuak (kondizioen plegua) hau jaso behar du:**

a) Administrazio-klausulen plegua.
b) Baldintza tekniko berezien plegua.
c) Aurreko biak.
d) Ez da beharrezkoa baldintzen plegua kontuan hartzea Proiektuan.

60. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean, III. puntuan, baldintza-pleguen edukia jasotzen da. Administrazio-baldintzen pleguan hau jaso behar da, gutxienez:**

a) Xedapen orokorrak.
b) Xedapen orokorrak eta aukerako xedapenak.
c) Xedapen orokorrak, aukerako xedapenak eta xedapen ekonomikoak.
d) Xedapen orokorrak, aukerako xedapenak, xedapen ekonomikoak eta xedapen teknikoak.

61. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean, III. puntuan, baldintza-pleguen edukia jasotzen da. Baldintza tekniko zehatzen pleguan hau jaso behar da, gutxienez:**

a) Proiektuari buruzko preskripzioak, materialei buruzko preskripzioak, obra-unitate bakoitzeko egikaritzeari buruzko preskripzioak eta eraikin bukatuko egiaztapenei buruzko preskripzioak.
b) Materialei buruzko preskripzioak, obra-unitate bakoitzeko egikaritzeari buruzko preskripzioak eta eraikin bukatuko egiaztapenei buruzko preskripzioak.
c) Materialei buruzko preskripzioak eta obra-unitate bakoitzeko egikaritzeari buruzko preskripzioak.
d) Proiektuari buruzko preskripzioak.

62. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean, IV. puntuan (neurketak), adierazten da neurketen definizio-maila hau izan behar dela.**

a) Proiektugileak zehazten dituenak.
b) Partiden garapena, kapitulutan multzokatuta.
c) Partiden garapena, kapitulutan multzokatuta, eta haiek zehaztu eta baloratzeko adina deskribapen teknikorekin.
d) Ez da beharrezkoa neurketak jasotzea.

63. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean, V. puntuan (aurrekontua), adierazten da gutxi gorabeherako aurrekontuak hau izan behar duela:**

a) Proiektuaren gai den obraren egikaritze materialaren balorazio xehea, eraikinaren erabileraren araberakoa.
b) Proiektuaren gai den obraren egikaritze materialaren gutxi gorabeherako balorazioa, eraikinaren garapenaren m^2-en araberakoa.
c) Proiektuaren gai den obraren egikaritze materialaren balorazio xehea, kapitulutan banatuta.
d) Proiektuaren gai den obraren egikaritze materialaren gutxi gorabeherako balorazioa, kapitulutan banatuta.

64. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren 1. eranskinean, V. puntuan (aurrekontua), adierazten da aurrekontu xeheak hau izan behar duela:**

a) Prezioen koadroa, kapituluka banatuta.
b) Prezioen koadroa, kapituluka banatuta; kapitulutan banatutako laburpen bat, egikaritzearen eta kontrataren azken balioa adierazten dela.
c) Prezioen koadroa, kapituluka banatuta; kapitulutan banatutako laburpen bat, egikaritzearen eta kontrataren azken balioa adierazten dela; kalitate-kontrolaren aurrekontua.
d) Prezioen koadroa, kapituluka banatuta; kapitulutan banatutako laburpen bat, egikaritzearen eta kontrataren azken balioa adierazten dela; kalitate-kontrolaren aurrekontua; segurtasun- eta osasun-azterlanaren aurrekontua.

65. **Elkargoko nahitaezko bisatuari buruzko 2010eko abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuaren arabera, lan profesional hauek bakarrik behar dute bisatua:**

a) Eraikuntzako oinarrizko proiektua.
b) Eraikuntzako oinarrizko proiektua eta eraikuntzaren egikaritze-proiektua.
c) Eraikuntzaren egikaritze-proiektua eta eraikuntza-obraren bukaerako ziurtagiria.
d) Eraikuntzaren egikaritze-proiektua, eraikuntza-obraren bukaerako ziurtagiria, obra-legeztatzea eta lehergai gabe eraisteko eraikinen proiektua.

66. **Elkargoko nahitaezko bisatuari buruzko 2010eko abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluaren arabera, Administrazio Publiko kontratistek bisatua eskuratzeko betebeharretik salbuetsi ahalko ditu sektore publikoko kontratu baten xede diren lanak, egoera hauetan:**

a) Beti.
b) Lanaren egilearen nortasuna eta gaikuntza profesionala egiaztatzen dutenean.
c) Lanaren egilearen nortasuna eta gaikuntza profesionala eta lan profesionalaren zuzentasuna eta integritate formala egiaztatzen dutenean, aplikatzeko araudiarekin bat.
d) Inoiz ere ez.

67. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotzen denez, eraikuntza-obren dokumentazioaren segimenduak hauek izan behar ditu, gutxienez:**

a) Agindu eta Asistentzia Liburua.
b) Segurtasunaren eta osasunaren arloko gertakarien liburua.
c) Obra-bukaerako ziurtagiria.
d) Aurreko guztiak.

68. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotzen denez, obra-bukaerako ziurtagiria honek eman beharko du:**

a) Obraren zuzendariak.
b) Obra egikaritzearen zuzendariak.
c) Obraren zuzendariak eta obra egikaritzearen zuzendariak.
d) Obraren zuzendariak, obra egikaritzearen zuzendariak eta eraikitzaileak.

69. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren II. eranskinean jasotzen denez, obra-bukaerako ziurtagiriari hauek gehitu behar zaizkio, eranskin gisa:**

a) Obran egindako aldaketen sarrera.
b) Obran egindako aldaketen sarrera eta obra egikaritzean egindako kontrolen zerrenda.
c) Obran egindako aldaketen sarrera, obra egikaritzean egindako kontrolen zerrenda eta obran parte hartu duten eragileen berme-erantzukizunak.
d) Obran egindako aldaketen sarrera, obra egikaritzean egindako kontrolen zerrenda, obran parte hartu duten eragileen berme-erantzukizunak eta obraren sustatzailearen datu pertsonalak.

70. **Gaur egun, eta eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obraren zuzendariaren eskumen esklusiboa izango da:**

a) Obraren garapena zuzentzea alderdi estetiko, urbanistiko eta ingurumenekoei dagokienez, proiektuarekin bat.
b) Obraren garapena zuzentzea alderdi tekniko, estetiko eta urbanistikoei dagokienez, proiektuarekin bat.
c) Obraren garapena zuzentzea alderdi tekniko, urbanistiko eta ingurumenekoei dagokienez, proiektuarekin bat.
d) Obraren garapena zuzentzea alderdi tekniko, estetiko, urbanistiko eta ingurumenekoei dagokienez, proiektuarekin bat.

71. **Gaur egun, eta eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obraren gauzatze materialaren zuzendariaren eskumen esklusiboa izango da:**

a) Proiektuan aurreikusitako zerbitzu-probak egikaritzea.
b) Obra-unitate bakoitzaren zuinketa egikaritzea.
c) Obra-unitate bakoitzaren zuinketa egiaztatzea.
d) Zuzenak dira aurreko erantzun guztiak.

72. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 1999ko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen arabera, obra egikaritzearen zuzendaritzaren betebeharra da:**

a) Jarraibide zehatzak jasotzea Agindu eta Asistentzia Liburuan.
b) Sustatzaileak eskatuta edo haren adostasunarekin, aldaketak egitea proiektuan, obraren martxa dela-eta beharko balitz, betiere proiektuan jasotzen diren arauzko xedapenekin bat badatoz.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

73. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren arabera, obra ofizial batean nork bildu behar du obraren kontroleko dokumentazioa?**

a) Obraren zuzendariak.
b) Obra egikaritzearen zuzendariak.
c) Obraren zuzendariak eta obra egikaritzearen zuzendariak.
d) Obraren segimenduaz arduratzen den funtzionarioak.

74. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 240. artikuluaren arabera, obrak proiektuaren arabera egin direla egiaztatzen duten ziurtagiriak zer maiztasunekin egin behar ditu administrazioak?**

a) Hilero, dagokion hilaren ondorengo lehen 5 egunetan.
b) Hilero, dagokion hilaren ondorengo lehen 10 egunetan.
c) Bi hiletik behin, dagokion hilaren ondorengo lehen 5 egunetan.
d) Bi hiletik behin, dagokion hilaren ondorengo lehen 10 egunetan.

75. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 245. artikuluaren arabera, obra-kontratuak suntsiarazteko kausak dira, Legean jasotako orokorrez gainera;**

a) Zuinketa egiaztatzen berandutzea arrazoi justifikaturik gabe.
b) Obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.
c) Administrazioak obrak etetea zortzi hilabete baino gehiago.
d) Aurrekoetako edozein.

76. **Sektore Publikoko kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236. artikuluaren arabera, proiektua onartu ondoren, eta obraren kontratazio-espedientea onartu aurretik, proiektuaren zuinketa egin behar da. zertan datza?**

a) Obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko da zuinketa, eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko.
b) Proiektuaren edukia egiaztatzen da, egokia ez bada, zuinketa egiteko.
c) Obrak egingo diren orubera joan, eta obraren zuinketaren akta egiten da.
d) Proiektuaren irtenbidea egokiena den planteatzen da.

77. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zein dira zuzeneko kostuak?**

a) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana.
b) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana eta materialak.
c) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana, materialak eta segurtasuneko eta higieneko ekipamendu eta sistema teknikoak.
d) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana, materialak, segurtasuneko eta higieneko ekipamendu eta sistema teknikoak, langileen gastuak eta makineriaren amortizazio- eta kontserbazio-gastuak.

78. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zein dira zeharkako kostuak?**

a) Obran bulegoak instalatzearen gastu orokorrak.
b) Obran bulegoak eta langileentzako aldi baterako pabiloi, biltegi eta lantegiak instalatzearen gastu orokorrak.
c) Obran bulegoak instalatzearen gastu orokorrak; langileentzako aldi baterako pabiloi, biltegi eta lantegiak; laborategiak; obrara bakarrik atxikitako langile tekniko eta administrazio-langileen aseguruak.
d) Obran bulegoak instalatzearen gastu orokorrak; langileentzako aldi baterako pabiloi, biltegi eta lantegiak; laborategiak; obrara bakarrik atxikitako langile tekniko eta administrazio-langileen aseguruak; langile teknikoek eta administrazio-langileen joan-etorrien eta otorduen ordainen ondoriozko gastuak.

79. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zein dira gastu orokorrak?**

a) Enpresa-gastu eratorriak, gastu finantzarioak, legez ezarritako karga fiskalak eta administrazio-tasak.
b) Enpresa eraikitzailearen nahitaezko aseguruetatik eratorritako gastuak.
c) Enpresako langileen soldatetatik eratorritako gastuak.
d) Obraren zuzendaritzari opari gisa egiten zaizkion ordainketatik eratorritako gastuak.

80. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zer dira G.O. eta M.I. laburdurak?**

a) Gastu osoak eta mozkin-irabaziak.
b) Gastu osoak eta mozkin iragarria.
c) Gastu orokorrak eta mozkin iragarria.
d) Gastu orokorrak eta mozkin industriala.

81. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zer dira ema siglak?**

a) Ekintza materialen aurrekontua.
b) Egikaritze materializatuaren aurrekontua.
c) Egikaritze materialaren aurrekontua.
d) Ekintza materializatuen aurrekontua.

82. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, ema-k hauek barne hartu behar ditu:**

a) Zuzeneko kostuak bakarrik.
b) Zeharkako kostuak bakarrik.
c) Zuzeneko kostuak eta zeharkako kostuak.
d) Zuzeneko kostuak, zeharkako kostuak eta kontratistaren mozkin industriala.

83. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, kontratuko aurrekontuak hauek barne hartu behar ditu:**

a) Zuzeneko kostuak eta zeharkako kostuak.
b) Zuzeneko kostuak, zeharkako kostuak eta gastu orokorrak.
c) Zuzeneko kostuak, zeharkako kostuak, gastu orokorrak eta kontratistaren mozkin industriala.
d) Zuzeneko kostuak, zeharkako kostuak, gastu orokorrak, kontratistaren mozkin industriala eta BEZa.

84. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, obra-unitate baten prezio unitarioan hau jaso behar da:**

a) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana.
b) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana eta erabilitako materialak.
c) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana, materialak eta ekipamenduak eta makineria.
d) Obra-unitatea egikaritzeko eskulana, materialak, ekipamenduak eta makineria, eta enpresa kontratistaren mozkin industriala.

85. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, obra-unitate baten prezio deskonposatuan hau jaso behar da:**

a) Obra-unitatearen zuzeneko kostuak.
b) Obra-unitatearen zeharkako kostuak.
c) Obra-unitatearen zuzeneko eta zeharkako kostuak.
d) Obra-unitateko zuzeneko eta zeharkako kostuak eta enpresa kontratistaren mozkin industriala.

86. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zer da prezio kontrajarri bat?**

a) Proiektuko obra-unitateko hasierako neurketarekin kontraesanean dagoena.
b) Proiektuko obra-unitateko hasierako prezioarekin kontraesanean dagoena.
c) Gertatzen da sustatzaileak, arkitektoaren bitartez, hasierako proiektuan jasotzen ez den obra-unitate berri bat sartzen duenean.
d) Gertatzen da arkitektoak, sustatzailearen bitartez, hasierako proiektuan jasotzen ez den obra-unitate berri bat sartzen duenean.

87. **Baldin eta obra-prozesuan prezio kontrajarri bat ematen bada aurrekontuan, nola ezarriko da prezio berri hori?**

a) Modu kontrajarrian, arkitektoaren eta kontratistaren artean.
b) Sustatzaileak zehazten duen moduan.
c) Arkitektoak zehazten duen moduan.
d) Kontratistak zehazten duen moduan.

88. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zer da prezio gorena?**

a) Prezioa zenbatestea zaila denez, nahierara ezartzen da prezio bat.
b) Alderdiak ez direnez jartzen ados, nahierara ezartzen da prezio bat.
c) Prezioa zenbatestea zaila denez, balio altuenaren araberako zenbatespen bat ezartzen da.
d) Prezioa zenbatestea zaila denez, balio altuenaren araberako prezio bat ezartzen da.

89. **Eraikuntza-obra baten aurrekontuan, zer dira administraziorako obrak?**

a) Zuzenean eraikitzaileak kudeatzen dituen obra-unitateak.
b) Zuzenean sustatzaileak kudeatzen dituen obra-unitateak.
c) Zuzenean obraren zuzendariak kudeatzen dituen obra-unitateak.
d) Zuzenean obraren egikaritze materialaren zuzendariak kudeatzen dituen obra-unitateak.

90. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basearen araberako aurrekontu batean, hormigoi armatuzko lauza baten partidan, erabilitako hormigoi armatuaren motaz gainera, hau jaso beharko da:**

a) Neurketa m^2-tan, solairuaren ertza kontuan izanda.
b) Neurketa m^3-tan, solairuaren ertza kontuan izanda.
c) Neurketa ml-tan, solairuaren ertza kontuan izanda.
d) Inoiz ez da kontuan hartzen solairuaren ertza.

91. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basearen araberako aurrekontu batean, «hormigoi armatuzko lauza» partidan, erabilitako hormigoi armatuaren motaz gainera, hau jaso beharko da:**

a) Armatu mota eta haren neurketa.
b) Kofratua eta deskofratua eta haien neurketa.
c) Hormigoiaren dardaraketa eta ontzea EHEren arabera.
d) Aurreko guztiak.

92. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basearen arabera, aurrekontu bateko «azta osoko eta azta erdiko horma bat erraustea» partidan, hau barne hartu beharko da prezioan:**

a) Adreiluzko karga-horma bat erraustea.
b) Adreiluzko karga-horma bat erraustea; obra-hondakinak karga-puntura eramatea.
c) Adreiluzko karga-horma bat erraustea; obra-hondakinak karga-puntura eramatea; zabortegira garraiatzea.
d) Adreiluzko karga-horma bat erraustea; obra-hondakinak karga-puntura eramatea, zabortegira garraiatzea izan ezik.

93. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basearen arabera, «aire librean zulatzea harri bigunezko lurzorua» partidan, neurketa-unitatea hau izango da:**

a) m^2, jatorrizko profil-planoen arabera.
b) m^3, jatorrizko profil-planoen arabera.
c) m^2, ateratako materialaren arabera.
d) m^3, ateratako materialaren arabera.

94. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basearen arabera, «sastrakak kendu eta lurzorua garbitzea» partidan, honela egin behar da ekintza hori:**

a) Eskuz edo baliabide mekanikoen bidez, 20 cm-ko lodierara arte.
b) Eskuz edo baliabide mekanikoen bidez, 30 cm-ko lodierara arte.
c) Eskuz edo baliabide mekanikoen bidez, 40 cm-ko lodierara arte.
d) Eskuz edo baliabide mekanikoen bidez, 50 cm-ko lodierara arte.

95. **«Lurrak garraiatzea» partidan, lurra kargatu eta garraitzeko aukerak hauek dira:**

a) Kargatzea atzerako hondeamakinarekin edo pala kargatzailearekin eta, lehenespenez, 25 t-ko trakzio integraleko dumper kamioiarekin.
b) Kargatzea pala kargatzailearekin eta, lehenespenez, 35 t-ko trakzio integraleko dumper kamioiarekin.
c) Ez du aukerarik ematen karga mota hautatzeko; lehenespenez, 25 t-ko trakzio integraleko dumper kamioiarekin.
d) Ez du aukerarik ematen karga mota hautatzeko; lehenespenez, 35 t-ko trakzio integraleko dumper kamioiarekin.

96. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basearen arabera, aurrekontu bateko «euste-horma» partidan aukera hauek jasotzen dira:**

a) Zurezko kofratuzko euste-horma.
b) Metalezko kofratuzko euste-horma.
c) Zurezko kofratuzko eta metalezko kofratuzko euste-horma.
d) Zurezko kofratuzko (altuera ‹ 3,5 eta altuera › 3,5) eta metalezko kofratuzko (altuera ‹ 3,5 eta altuera › 3,5) euste-horma.

97. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basean, «egiturak» kapituluan egitura mota hauek daude:**

a) Altzairua, hormigoi armatua eta zura.
b) Altzairua, hormigoi armatua eta zura.
c) Altzairua, hormigoi armatua, hormigoi prefabrikatua eta zura.
d) Altzairua, hormigoi armatua, hormigoi prefabrikatua, fabrikak eta zura.

98. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basean, «egiturak» kapituluan kofratu mota hauek daude:**

a) Kartoizkoa, zurezkoa, poliestirenozkoa eta metalezkoa.
b) Zurezkoa, poliestirenozkoa eta metalezkoa.
c) Zurezkoa eta metalezkoa.
d) Metalezkoa.

99. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basean, «lorategi-estalki lau konbentzionalak» kapitulua hauek osatzen dute:**

a) Isuria sortzea, zementuzko mortairua, lurrun-hesia, isolamendua, inpermeabilizazioa, lehen geruza geotestila, legarra, bigarren geruza geotestila, lur begetala.
b) Zementuzko mortairua, lurrun-hesia, isolamendua, inpermeabilizazioa, lehen geruza geotestila, legarra, bigarren geruza geotestila, lur begetala.
c) Isolamendua, inpermeabilizazioa, lehen geruza geotestila, legarra, bigarren geruza geotestila, lur begetala.
d) Isolamendua, inpermeabilizazioa, lehen geruza geotestila, lur begetala.

100. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-baseko «lorategi-estalki lau alderantzikatuak» kapituluaren arabera, honela neurtu behar dira estalki horiek:**

a) Metro linealetan
b) m^2-tan.
c) m^3-tan.
d) Oroharreko partida.

101. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako salneurrien datu-basean, «estalki inklinatuak» kapituluak aukera hauek ditu estalki horietarako materialari dagokionez:**

a) Kobrea, galbanizatu eta aurrelakatuak, arbelak, teila zeramikoak eta hormigoizkoak, zinka.
b) Plaka bituminosoak, kobrea, galbanizatu eta aurrelakatuak, arbelak, teila zeramikoak eta hormigoizkoak, zinka.
c) Plaka bituminosoak, kobrea, galbanizatu eta aurrelakatuak, arbelak, sintetikoak, teila zeramikoak eta hormigoizkoak, zinka.
d) Plaka bituminosoak, kobrea, fibrozementua, galbanizatu eta aurrelakatuak, arbelak, sintetikoak, teila zeramikoak eta hormigoizkoak, zinka.

102. **Eusko jaurlaritzaren eraikuntza- eta hirigintza-lanetarako «termobuztinezko bloke zeramikoa» partidan, hau barne hartu beharko da prezioan:**

a) Termobuztinezko bloke zeramikoaren geruza, panderete moduan jarria.
b) Termobuztinezko bloke zeramikoaren geruza, panderete moduan jarria, mortairu lehorra erabilita.
c) Termobuztinezko bloke zeramikoaren geruza, panderete moduan jarria, mortairu lehorra erabilita eta bi aurpegiak igeltsu-pastarekin luzituta, perimetro-hegalaren isolamendu akustikoa barne.
d) Termobuztinezko bloke zeramikoaren geruza, panderete moduan jarria, mortairu lehorra erabilita eta bi aurpegiak igeltsu-pastarekin luzituta, perimetro-hegalaren isolamendu akustikoa barne, eta pintura-eskualdi bikoitza emanez aurpegi bietan.

103. **Obrako aurrekontu batean, zer dira «P.P.» siglak?**

a) Hasierako prezioa.
b) Prezioaren parte bat.
c) Publikoarentzako prezio.
d) Parte proportzionala.

104. **Zein da Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen xedea?**

a) Irisgarritasuna bermatzea pertsona guztiei EAEn.
b) Hiri-ingurunearen, gune publikoen eta eraikinen irisgarritasuna bermatzea.
c) Hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea.
d) Irisgarritasun unibertsala bermatzea.

105. **Zein da Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen aplikazio-esparrua?**

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa duten subjektuek bakarrik egiten dituzten jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.
b) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa edo juridikoa duen edozein subjektuk egiten dituen jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.
c) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa edo juridikoa duen edozein subjektu publikok egiten dituen jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.
d) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa edo juridikoa duen edozein subjektu publiko zein pribatuk egiten dituen jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.

106. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen hirialdeen eta leku publikoen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorretan:**

a) Erabilera publikoko guneek, eta batez ere bide publikoek, parkeek eta plazek, bai eta horiei dagozkien elkarte-hornidurek, zerbitzu publikoen instalazioek eta hiriko altzariek ere, bermatu egingo dute bere irisgarritasuna lege honek eta hura garatzeko arauek ezartzen dutenaren arabera.

b) Botere publikoek sustatu egingo dute lehendik daudenak lege honen aginduetara pixkanaka-pixkanaka egokitu daitezen.

c) Bide emango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko ondare historiko-artistikoa lege honek ezarritako irisgarritasun-irizpideetara arian-arian egokitzeari.

d) Aurreko guztiak.

107. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen hirialdeen eta leku publikoen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorretako 3.2 artikuluaren arabera, irisgarritasuna behar bezala bermatu beharko dute:**

a) Urbanizazio-proiektuek.

b) Hirigintza-planeamendurako tresnek, batez ere hiri-antolamenduko plan orokorrek eta arau subsidiarioek.

c) Hirigintza-planeamendurako tresnek, batez ere xehetasun-azterketek, eta urbanizazio-proiektuek eta lanen exekuzio-proiektuek.

d) Hirigintza-planeamendurako tresnek, batez ere plan partzialek eta plan bereziek.

108. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen eraikuntzaren irisgarritasunari buruzko xedapen orokorren arabera, irisgarritasuna behar bezala bermatu beharko dute:**

a) Oin berriko eraikinak eraikitzeko lanak, lur azpikoak barne.

b) Oin berriko eraikinak eraikitzeko lanak, eraldatze integralekoak eta lur azpikoak.

c) Oin berriko eraikinak eraikitzeko lanak, eraldatzekoak, birgaitzekoak eta handitzekoak.

d) Oin berriko eraikinak eraikitzeko lanak, eraldatzekoak, birgaitzekoak, handitzekoak eta lur azpikoak.

109. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen eraikuntzaren irisgarritasunari buruzko xedapen orokorren arabera, legea betetzetik salbuetsita daude hauek:**

a) Solairu bakarreko eraikinak.

b) Solairu bakarreko etxebizitzatarako eraikinak.

c) Familia bakarreko etxebizitza diren eraikinak.

d) Solairu bakar bat duten familia bakarreko etxebizitzatarako eraikinak.

110. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen eraikuntzaren irisgarritasunari buruzko xedapen orokorren arabera, bizitegi gisa erabiltzeko diren oin berriko eraikinek irisgarritasuna bermatu beharko dute:**

a) Eraikinak bide publikoarekin, elkarte-erabilpena duten atxikitako zerbitzu edo eraikinekin, garajeekin eta inguruko eraikinekin dituen sarbideak eta komunikabideak edozeinek era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.
b) Etxebizitzek elementu komunekin, garajeekin, trastelekuekin eta atxikitako eranskinekin dituzten komunikabideak edozeinek era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

111. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen eraikuntzaren irisgarritasunari buruzko xedapen orokorren arabera, ostalaritzan erabiltzeko diren oin berriko eraikinek irisgarritasuna bermatu beharko dute:**

a) Eraikinak bide publikoarekin, erabilera komunitarioko zerbitzu edo eraikin atxikiekin eta aparkalekuekin dituen sarbideak edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.
b) Egonlekuek elementu komunekin dituzten komunikabideak, bai eta egonleku erreserbatuen sarbidea eta erabilpena ere, edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

112. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen 4.2 artikuluaren arabera, gomendatzen da gutxienez unitate bat irisgarritasun-irizpideetara egokitzea:**

a) Etxe partikularretarako eraikinak eraldatu, handiagotu edo aldatzeko lanetan.
b) Nekazaritza-turismorako eraikinak eraldatu, handiagotu edo aldatzeko lanetan.
c) Etxe partikularretarako edo nekazaritza-turismorako eraikinak eraldatu, handiagotu edo aldatzeko lanetan.
d) Inola ere ez bizitokietarako eraikinak eraldatu, handiagotu edo aldatzeko lanetan.

113. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, zenbat plaza gorde behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuentzat soilik?**

a) Plaza bat 20 edo frakzio bakoitzeko.
b) Plaza bat 30 edo frakzio bakoitzeko.
c) Plaza bat 40 edo frakzio bakoitzeko.
d) Plaza bat 50 edo frakzio bakoitzeko.

114. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, gune publikoetan eta erabilera publikoko eta/edo jendeari zabaldutako eraikinetan kokatuta dauden komun, aldagela, dutxa eta antzeko elementuetan, zenbat elementu gorde behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonek erabiltzeko?**

a) Elementu bat 5 edo frakzio bakoitzeko.
b) Elementu bat 10 edo frakzio bakoitzeko.
c) Elementu bat 15 edo frakzio bakoitzeko.
d) Elementu bat 20 edo frakzio bakoitzeko.

115. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, zenbat egonleku gorde behar dira sailkapen eta maila guztietako hotel eta ostatuetan, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat?**

a) Elementu bat 10 edo frakzio bakoitzeko.
b) Elementu bat 20 edo frakzio bakoitzeko.
c) Elementu bat 30 edo frakzio bakoitzeko.
d) Elementu bat 50 edo frakzio bakoitzeko.

116. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, turismo-ostatuetan, beharrezkoak diren laguntza teknikoak egongo dira, komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonek egonleku bat era autonomoan erabil dezaten. halako zenbat egonleku izan behar dira?**

a) Bat 10 edo frakzio bakoitzeko.
b) Bat 20 edo frakzio bakoitzeko.
c) Bat 30 edo frakzio bakoitzeko.
d) Bat 50 edo frakzio bakoitzeko.

117. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, turismo-ostatuetan aparkalekurik egonez gero, zenbat plaza gorde behar dira?**

a) Plaza bat 10 egonleku edo frakzio bakoitzeko.
b) Plaza bat 20 egonleku edo frakzio bakoitzeko.
c) Plaza bat 50 egonleku edo frakzio bakoitzeko.
d) Plaza bat erreserba-gai den egonleku bakoitzeko.

118. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, babes ofizialeko etxebizitzen sustapenetan zenbat etxebizitza gorde behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat?**

a) Etxebizitza bat 10 edo frakzio bakoitzeko.
b) Etxebizitza bat 20 edo frakzio bakoitzeko.
c) Etxebizitza bat 25 edo frakzio bakoitzeko.
d) Etxebizitza bat 50 edo frakzio bakoitzeko.

119. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, etxebizitza libreen sustapenetan zenbat etxebizitza gorde behar dira mugikortasun murriztua duten pertsonentzat?**

a) Etxebizitza bat 10 edo frakzio bakoitzeko.
b) Etxebizitza bat 25 edo frakzio bakoitzeko.
c) Etxebizitza bat 50 edo frakzio bakoitzeko.
d) Ez da nahitaezkoa.

120. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, nola sailkatuko dira lege horretan jasotzen diren aginduak urratu edo horien aurka doazen egintza edo ez-betetzeak?**

a) Arau-hauste arinak.
b) Arau-hauste arinak eta arau-hauste astunak.
c) Arau-hauste arinak, arau-hauste astunak eta arau-hauste oso astunak.
d) Ez dago lege-hausterik, Legearen edukiaren arabera.

121. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, arau-hauste arinak dira hauek:**

a) Legean ohartematen denaren arabera irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, erabilera publikoko guneetan, eraikuntzan, garraioan eta informazio eta komunikazio-sistemetan.
b) Lege hau ezartzearen ondorio diren irisgarritasunerako elementuak andeatu edo ez erabiltzea, erruz edo arduragabekeriagatik.
c) Lege honetan ohartemandakoaren eta araudiz ezartzen diren irisgarritasun-baldintzen aurka doazen egintza edo ez betetzeak, larritzat jotzen ez direnak.
d) Aurreko guztiak.

122. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, arau-hauste oso astunak dira hauek:**

a) Lege honek ezarritako betebeharrak iruzurrez edo agiriak faltsifikatuz ez betetzea, eta arau-hauste astunak errepikatzea.
b) Kanpoko guneetako eraikuntza berriko lanetan eta handitze-, eraldaketa- eta hobekuntza-lanetan hirigintzako eta hiri-altzarien elementuen irisgarritasun-baldintzak ez betetzea.
c) Jendea biltzeko diren eraikinetako eraikuntza berriko lanetan eta handitze-, eraldaketa-, birgaitze-, hobekuntza- eta egokitzapen-lanetan eta erabilera-aldaketako lanetan irisgarritasun-baldintzak ez betetzea.
d) Etxebizitzaren erabilpen kolektiborako diren eraikin berriak eraikitzeko lanetan irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, kanpoaldea eta barrualdea era irisgarrian lotuta ez daudelako, eta barrualdea eta etxebizitza, garaje, trasteleku eta eranskinak ere ez.

123. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, irisgarritasuna sustatzeko euskal kontseilua sortuko da, eusko jaurlaritzako lurralde antolamendu, etxebizitza eta ingurugiro sailari atxikitako aholku eta partehartze-organo gisa. Zer ordezkari izango ditu?**

a) Eusko Jaurlaritzako ordezkari 1; Lurralde-historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana; Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako 3 ordezkari.

b) Eusko Jaurlaritzako ordezkari 1; Lurralde-historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana; Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako 3 ordezkari; irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten erakunde pribatuetatik ordezkaritza handiena dutenetako 6 ordezkari.

c) Eusko Jaurlaritzako ordezkari 1; Lurralde-historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana; Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako 3 ordezkari; irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten erakunde pribatuetatik ordezkaritza handiena dutenetako 6 ordezkari; kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetatik ordezkaritza handiena dutenetako 2 ordezkari; sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteetako 2 ordezkari.

d) Eusko Jaurlaritzako ordezkari 1; Lurralde-historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana; Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako 3 ordezkari; irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten erakunde pribatuetatik ordezkaritza handiena dutenetako 6 ordezkari; kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetatik ordezkaritza handiena dutenetako 2 ordezkari; sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteetako 2 ordezkari; Arkitektoen Elkargoko ordezkari 1; Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoko ordezkari 1; Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien Elkargoko ordezkari 1.

124. **Euskal Autonomia erkidegoko irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legearen azken xedapenetako bigarrenean aurreikusten da arau teknikoak egitea. hauetako zein onartu zenean gauzatu ziren arau tekniko horiek?**

a) 68/2000 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.

b) 86/2000 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.

c) 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.

d) 86/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzkoa.

125. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, zeina Eusko Legebiltzarrak onartu baitzuen, zenbat eranskin ditu?**

a) III eranskin.

b) IV eranskin.

c) V eranskin.

d) VI eranskin.

126. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak, zeina Eusko Legebiltzarrak onartu baitzuen, zer zehazten du I. eranskinean?**

a) Parametro antropometrikoak.
b) Hiri-inguruneko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak.
c) Eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak.
d) Komunikazio-sistemetako irisgarritasuna.

127. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak (Eusko Legebiltzarrak onartua) zer zehazten du V. eranskinean?**

a) Dauden eraikinen eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obretan irisgarritasuna sustatzen duen legearen aplikazioa arautzea.
b) Dauden urbanizazioen eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obretan irisgarritasuna sustatzen duen legearen aplikazioa arautzea.
c) Dauden bide publikoen eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obretan irisgarritasuna sustatzen duen legearen aplikazioa arautzea.
d) Dauden urbanizazio, bide publiko eta eraikinen eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obretan irisgarritasuna sustatzen duen legearen aplikazioa arautzea.

128. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (Eusko Legebiltzarrak onartua), V. eranskinaren 1.2 artikuluan, adierazten da ez direla hartuko eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obratzat:**

a) Eraikinak mantentzeko obrak, eraberritzerik edo aldaketarik ez dakartenean bederen.
b) Eraikinak eta/edo haien instalazioak, mantendu eta kontserbatzeko obrak, eraberritzerik edo aldaketarik ez dakartenean bederen.
c) Eraikinak eta/edo haien instalazioak, urbanizazioak eta erabilera publikoko bide eta espazioak mantendu eta kontserbatzeko obrak, eraberritzerik edo aldaketarik ez dakartenean bederen.
d) Obra guztiak hartuko dira eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obratzat, ez bada oin berriko obra bat.

129. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (Eusko Legebiltzarrak onartua), parametro antropometrikoei buruzkoa da I. eranskina. Zer da antropometria, eranskin horren arabera?**

a) Dimentsioak espazioan zehazki neurtzea helburu duen diziplina da.
b) Gorputz-dimentsioak zehazki neurtzea helburu duen diziplina da.
c) Eraikinen dimentsioak zehazki neurtzea helburu duen diziplina da.
d) Hiri-inguruneen dimentsioak zehazki neurtzea helburu duen diziplina da.

130. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinaren arabera, zer dira arkitektura-oztopoak?**

a) Eraikinen barruan ezgaitasun-maila desberdinentzat agertzen diren eragozpenak.
b) Hiri-egiturak eta hiri-altzariek, leku historikoek eta jabari publiko eta pribatuko eraikuntzarik gabeko espazioek ezgaitasun-maila desberdinen aurrean agertzen dituzten eragozpenak.
c) Lurreko, itsasoko, ibaietako edo aireko garraio-unitate partikular edo kolektiboek ezgaitasun-maila desberdinen aurrean agertzen dituzten eragozpenak.
d) Aurreko guztiak.

131. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinaren 5. artikuluan, ezgaitasuna dutenei laguntzeko elementu batzuen dimentsioak zehazten dira. zein dira elementu horiek?**

a) Gurpil-aulkiak, eskuzko eragingailua dutenak nahiz elektrikoak.
b) Gurpil-aulkiak, eskuzko eragingailua dutenak nahiz elektrikoak; makilak.
c) Gurpil-aulkiak, eskuzko eragingailua dutenak nahiz elektrikoak; makilak; ukondo--makuluak.
d) Gurpil-aulkiak, eskuzko eragingailua dutenak nahiz elektrikoak; makilak; ukondo--makuluak; eskorgak.

132. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko 68/2000 apirilaren 11ko Dekretuaren arabera (Eusko Legebiltzarrak onartua), zer dimentsio nagusi izan behar ditu eskuz erabiltzekoa den gurpil-aulki batek?**

a) Luzera maximoa, 1.000 mm; zabalera total maximoa, 700 mm; altuera totala, 1.090 mm.
b) Luzera maximoa, 1.000 mm; zabalera total maximoa, 800 mm; altuera totala, 1.090 mm.
c) Luzera maximoa, 1.200 mm; zabalera total maximoa, 700 mm; altuera totala, 1.090 mm.
d) Luzera maximoa, 1.200 mm; zabalera total maximoa, 800 mm; altuera totala, 1.090 mm.

133. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinaren 8. artikuluan, gurpil-aulki batean mugimenduak egiteko behar diren gutxieneko dimentsioak aztertzen dira. gurpil-aulki batek zer gutxieneko igarotze-zabalera behar du norabide zuzeneko mugimenduarekin oztopo bakan bat gainditzeko?**

a) 0,70 m.
b) 0,80 m.
c) 0,90 m.
d) 1,00 m.

134. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren parametro antropometrikoei buruzko I. eranskinaren 8. artikuluan, gurpil-aulki batean mugimenduak egiteko behar diren gutxieneko dimentsioak aztertzen dira. Gurpil-aulkia erabiltzen duten bi pertsona gurutzatzea edo aldi berean zirkulatzea aurreikusten denean, zein izango da oztoporik gabeko gutxieneko zabalera?**

a) 1,60 m gutxienez, eta 1,80 m gomendatzen da.
b) 1,60 m gutxienez, eta 2,00 m gomendatzen da.
c) 1,80 m gutxienez, eta 2,00 m gomendatzen da.
d) 1,80 m gutxienez, eta 2,20 m gomendatzen da.

135. **Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren arabera (Eusko Legebiltzarrak onartua), gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona batek norabidea 360º aldatu ahal izateko bira bat egin behar du gurpil-aulkiarekin. zer neurritako oztoporik gabeko gutxieneko zirkulua behar da horretarako?**

a) 1,40 m-ko diametrokoa, eta 1,80 m-koa gomendatzen da.
b) 1,50 m-ko diametrokoa, eta 1,80 m-koa gomendatzen da.
c) 1,50 m-ko diametrokoa, eta 2,00 m-koa gomendatzen da.
d) 1,60 m-ko diametrokoa, eta 2,00 m-koa gomendatzen da.

136. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren 3.2. artikuluaren arabera, oinezkoen ibilbideetan zein izango da oztoporik gabeko gutxieneko igarotze-zabalera, oro har?**

a) 1,60 m.
b) 1,80 m.
c) 2,00 m.
d) 2,20 m.

137. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren 3.2. artikuluaren arabera, oinezkoen ibilbideetan, zein izango da gutxieneko igarotze-altuera librea ibilbidearen edozein puntutan?**

a) 2,00 m.
b) 2,20 m.
c) 2,40 m.
d) 3,00 m.

138. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren 3.2. artikuluaren arabera, oinezkoen ibilbideetan, zein izango da luzetarako aldapa?**

a) % 6koa edo txikiagoa.
b) % 8koa edo txikiagoa.
c) % 10ekoa edo txikiagoa.
d) % 6koa edo txikiagoa.

139. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren 3.2. artikuluaren arabera, oinezkoen ibilbideetan, zein izango da zeharkako aldapa?**

a) % 1,5ekoa gehienez; % 2koa gomendatzen da.
b) % 1,5ekoa gehienez; % 1,0koa gomendatzen da.
c) % 2koa gehienez; % 1,5ekoa gomendatzen da.
d) % 2koa gehienez; % 1,0koa gomendatzen da.

140. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, oinezkoentzako ibilbide edo espaloien eta galtzadaren artean desnibela dagoenean, oinezkoentzako ibiak jarriko dira, luzetarako eta zeharkako aldapekin. nolakoak izango dira aldapa horiek?**

a) Gehienez ere % 6 eta % 1,5ekoak izango diren luzetarako eta zeharkako aldapak, hurrenez hurren.
b) Gehienez ere % 6 eta % 2koak izango diren luzetarako eta zeharkako aldapak, hurrenez hurren.
c) Gehienez ere % 8 eta % 1,5ekoak izango diren luzetarako eta zeharkako aldapak, hurrenez hurren.
d) Gehienez ere % 8 eta % 2koak izango diren luzetarako eta zeharkako aldapak, hurrenez hurren.

141. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, erabilera publikoko espazio libreetako eskailerek dimentsio hauek izan behar dituzte:**

a) Mailagaina gutxienez 30 cm-koa, eta kontramaila gehienez 15 cm-koa.
b) Mailagaina gutxienez 30 cm-koa, eta kontramaila gehienez 17 cm-koa.
c) Mailagaina gutxienez 35 cm-koa, eta kontramaila gehienez 15 cm-koa.
d) Mailagaina gutxienez 35 cm-koa, eta kontramaila gehienez 17 cm-koa.

142. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, erabilera publikoko espazio libreetako eskaileretan abaniko gisako eskailera bat dagoenean, mailagainaren dimentsioa ez da izango:**

a) 28 cm-tik beherakoa ezein puntutan.
b) 30 cm-tik beherakoa ezein puntutan.
c) 32 cm-tik beherakoa ezein puntutan.
d) 35 cm-tik beherakoa ezein puntutan.

143. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, erabilera publikoko espazio libreetako eskailerek gutxieneko zabalera libre hau izan behar dute:**

a) 1,00 m.
b) 1,50 m.
c) 1,80 m.
d) 2,00 m.

144. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, erabilera publikoko espazio libreetako arrapalek gutxieneko zabalera libre hau izan behar dute:**

a) 1,50 m.
b) 1,80 m.
c) 2,00 m.
d) 2,50 m.

145. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, erabilera publikoko espazio libreetako arrapalek gehieneko aldapa hau dute baimenduta:**

a) % 6.
b) % 8.
c) % 10.
d) % 12.

146. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, erabilera publikoko espazio libreetako arrapaletan, eskailera-bururik gabeko atalaren gehieneko luzera hau izango da:**

a) 5 m.
b) 8 m.
c) 10 m.
d) 15 m.

147. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean jasotzen denez, erabilera publikoko espazio libreetako arrapaletan:**

a) Bitarteko eskailera-buruek 1,50 m-ko luzera izango dute gutxienez, eta arrapalarako sarbideetan 1,50 m-ko diametroko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duten espazioak prestatuko dira.
b) Bitarteko eskailera-buruek 1,50 m-ko luzera izango dute gutxienez, eta arrapalarako sarbideetan 1,80 m-ko diametroko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duten espazioak prestatuko dira.
c) Bitarteko eskailera-buruek 2 m-ko luzera izango dute gutxienez, eta arrapalarako sarbideetan 1,80 m-ko diametroko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duten espazioak prestatuko dira.
d) Bitarteko eskailera-buruek 2 m-ko luzera izango dute gutxienez, eta arrapalarako sarbideetan 2 m-ko diametroko zirkulu bat egitea ahalbidetuko duten espazioak prestatuko dira.

148. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean jasotzen denez, mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako plazen gutxieneko dimentsioak hauek izango dira:**

a) 5,00 m-ko luzera eta 2,50 m-ko zabalera.
b) 5,50 m-ko luzera eta 3,00 m-ko zabalera.
c) 6,00 m-ko luzera eta 3,50 m-ko zabalera.
d) 6,00 m-ko luzera eta 3,60 m-ko zabalera.

149. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean jasotzen denez, ibilgailuak aparkatzeko eremu guztietan, mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailu arinentzat etengabe erreserbatuta eduki beharko dira, gutxienez:**

a) Plaza bat 20 edo frakzio bakoitzeko.
b) Plaza bat 30 edo frakzio bakoitzeko.
c) Plaza bat 40 edo frakzio bakoitzeko.
d) Plaza bat 50 edo frakzio bakoitzeko.

150. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean jasotzen denez, komun publikoetan, elementu talde bat izanez gero, erreserbatuko da:**

a) Elementu bat 5 edo frakzio bakoitzeko.
b) Elementu bat 10 edo frakzio bakoitzeko.
c) Elementu bat sexu bakoitzarentzat, 5 edo frakzio bakoitzeko.
d) Elementu bat sexu bakoitzarentzat, 10 edo frakzio bakoitzeko.

151. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinean jasotzen denez, egokitutako komun-ontziaren kabinak izango dituen dimentsioekin, zorutik 0,70 m-ko altueraraino oztoporik gabeko zirkulu bat egin ahal izango da, neurri honetakoa:**

a) 1,50 m-ko diametrokoa, eta 1,80 m-koa gomendatzen da.
b) 1,50 m-ko diametrokoa, eta 2,00 m-koa gomendatzen da.
c) 1,80 m-ko diametrokoa, eta 2,00 m-koa gomendatzen da.
d) 2,00 m-ko diametrokoa, eta 2,20 m-koa gomendatzen da.

152. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko II. eranskinaren arabera, espazio libreetan instalatzen diren jendaurreko mostradore eta leihatilek ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:**

a) 1,0 m-ko altueran egongo dira gehienez ere, eta gutxienez 1,20 m-ko luzetarako tarte bat izango dute 0,50 m-ko altueran.
b) 1,10 m-ko altueran egongo dira gehienez ere, eta gutxienez 1,20 m-ko luzetarako tarte bat izango dute 0,50 m-ko altueran.
c) 1,10 m-ko altueran egongo dira gehienez ere, eta gutxienez 1,20 m-ko luzetarako tarte bat izango dute 0,80 m-ko altueran.
d) 1,20 m-ko altueran egongo dira gehienez ere, eta gutxienez 1,20 m-ko luzetarako tarte bat izango dute 0,80 m-ko altueran.

153. **Eusko Legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko III. eranskinaren arabera, kanpoko sarbide-ateek ezaugarri hauek izan behar dituzte:**

a) Igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,80 m-koa izango da, eta irekiera automatikoko ateen kasuan, berriz, 1 m-ra zabalduko da.
b) Igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,80 m-koa izango da, eta irekiera automatikoko ateen kasuan, berriz, 1,20 m-ra zabalduko da.
c) Igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,90 m-koa izango da, eta irekiera automatikoko ateen kasuan, berriz, 1 m-ra zabalduko da.
d) Igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,90 m-koa izango da, eta irekiera automatikoko ateen kasuan, berriz, 1,20 m-ra zabalduko da.

154. **Eusko legebiltzarrak onartutako hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzko III. eranskinean jasotzen denez, eraikinetako korridore nagusietan, gutxieneko igarotze-zabalera librea hau izango da:**

a) 1,20 m oro har, eta 1,00 m etxebizitza-eraikinetan.
b) 1,50 m oro har, eta 1,20 m etxebizitza-eraikinetan.
c) 1,50 m oro har, eta 1,40 m etxebizitza-eraikinetan.
261. **Gutxieneko eguzki-ekarpenari buruzko DB-HE4 oinarrizko dokumentuaren arabera, eskaerarekin bat datorren metaketa bat aurreikusi behar da, eskaera ez delako sortzen sorkuntzarekin batera. etxeko ur beroari dagokionez, kaptadoreen azalera totalaren balioak baldintza hau bete behar du:**

a) Eguzki-metaketaren bolumena (l) kaptadoreen azalerarekin (m^2) zatitzearen emaitzak 50 eta 180 bitartekoa izan behar du.
b) Eguzki-metaketaren bolumena (l) kaptadoreen azalerarekin (m^2) zatitzearen emaitzak 180 baino handiagoa izan behar du.
c) Eguzki-metaketaren bolumena (l) kaptadoreen azalerarekin (m^2) zatitzearen emaitzak 50 baino txikiagoa izan behar du.
d) Eguzki-metaketaren bolumenak (l) ez dauka erlazio zuzenik kaptadoreen azalerarekin (m^2).

262. **Energia elektrikoaren gutxieneko ekarpen fotovoltaikoari buruzko DB-HE5 oinarrizko dokumentua hauei aplikatzen zaie:**

a) Eraikuntza berriko eraikinak eta lehendik dauden edozein erabileratarako eraikinak.
b) Hipermerkatu, ospitale, biltegiratze-nabe, aisialdi-zentro eta kirol-instalazio estaliko erabilerarako eraikuntza berriko eraikinak, edozein azaleratakoak.
c) Hipermerkatu, ospitale, biltegiratze-nabe, aisialdi-zentro eta kirol-instalazioko erabilerarako eraikuntza berriko eraikinak, 5.000 m^2-tik gorako azalera eraikikoak.
d) Hipermerkatu, ospitale, biltegiratze-nabe, aisialdi-zentro eta kirol-instalazioko erabilerarako eraikuntza berriko eraikinak, 10.000 m^2-tik gorako azalera eraikikoak.

263. **DB-HE 1 energia aurreztea dokumentuaren arabera, bilbon, ibaiaren ondoan, hau da fatxadetako hormen mugako transmitantzia:**

a) 0,50 W/m^2K.
b) 0,41 W/m^2K.
c) 0,73 W/m^2K.
d) 0,37 W/m^2K.

264. **DB-HE 1 energia aurreztea dokumentuaren arabera, bilbon, ibaiaren ondoan, hau da estalkietako mugako transmitantzia:**

a) 0,50 W/m^2K.
b) 0,41 W/m^2K.
c) 0,73 W/m^2K.
d) 0,37 W/m^2K.

265. **DB-HE 1 energia aurreztea dokumentuaren arabera, donostian, kontxaren ondoan, hau da zoruetako mugako transmitantzia:**

a) 0,49 W/m²K.
b) 0,73 W/m²K.
c) 0,50 W/m²K.
d) 0,37 W/m²K.

266. **DB-HE 3 energia aurreztea dokumentuaren arabera, irakaskuntza-erabilerako eraikin baten argiteriaren potentzia instalatuak, lanparen eta ekipamendu osagarrien potentzia kontuan hartuta, ez du gainditu behar balio hau:**

a) 15 W/m².
b) 12 W/m².
c) 10 W/m².
d) 25 W/m².

267. **DB-HE 3 energia aurreztea dokumentuaren arabera, administrazio-erabilerako eraikin baten argiteriaren potentzia instalatuak, lanparen eta ekipamendu osagarrien potentzia kontuan hartuta, ez du gainditu behar balio hau:**

a) 15 W/m².
b) 12 W/m².
c) 10 W/m².
d) 25 W/m².

268. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren a eranskinaren (terminologia) arabera, erabilera-unitate bat da erabilera espezifiko baterako eraikin bat edo eraikin baten zati bat, zeinaren erabiltzaileak elkarren artean erlazionatuta baitaude. hauek dira:**

a) Logela bakoitza, bizitegi-erabileraren kasuan.
b) Ospitaleratze-solairu bateko logela bakoitza, ospitale-erabileraren kasuan.
c) Ospitaleratze-solairu bakoitza, ospitale-erabileraren kasuan.
d) Eskola bateko solairu bakoitza, irakaskuntza-erabileraren kasuan.

269. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren a eranskinaren (terminologia) arabera, zer da esparru babestu bat?**

a) Ezaugarri akustiko hobeak dituen esparru bizigarri bat; adibidez, bizitegi-eraikin bateko gela guztiak.
b) Bizitegi-eraikin bateko edozein esparru bizigarri, aparkaleku-erabilerarako aldeak izan ezik.
c) Ezaugarri akustiko hobeak dituen esparru bizigarri bat; adibidez, bizitegi-eraikinetako logela eta gelak (logelak, egongelak, jangelak, etab.)
d) Bizitegi-eraikinetan ezaugarri akustiko hobeak dituen esparru bizigarri bat; adibidez, logelak, sukaldea, egongela eta gainerako espazio okupagarriak, eremu komunak barne hartuta eta aparkalekuak alde batera utzita.

270. **CTE-ren zarataren aurreko babesaren inguruko eskakizunak asetzeko, aireko zaratekiko isolamendu akustikoaren muga-balio batzuk erdietsi behar dira. bizitegi-erabilera pribatuko eraikinetan, erabilera-unitate bereko esparruetan sortutako zaratatik babesteko:**

a) Trenkada multzoaren murrizketa akustikoko indize globala (A, RA haztatua) ez da izango 30 dBA-etik beherakoa.
b) Trenkada multzoaren murrizketa akustikoko indize globala (A, RA haztatua) ez da izango 33 dBA-etik beherakoa.
c) Trenkada multzoaren murrizketa akustikoko indize globala (A, RA haztatua), ez da izango 50 dBA-etik beherakoa.
d) Trenkada multzoaren murrizketa akustikoko indize globala (A, RA haztatua) ez da izango 55 dBA-etik beherakoa.

271. **CTE-ren zarataren aurreko babesaren inguruko eskakizunak asetzeko, aireko zaratekiko isolamendu akustikoaren muga-balio batzuk erdietsi behar dira. ondoz ondoko bi etxebizitzatan dauden esparruetan sortutako zaratatik babesteko, ondoz ondoko etxebizitza banatako bi logelen artean aireko zaratarekiko isolamendu akustikoak, dnt,a, izan behar du:**

a) Ez da izango 30 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.
b) Ez da izango 33 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.
c) Ez da izango 50 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.
d) Ez da izango 55 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.

272. **CTE-ren zarataren aurreko babesaren inguruko eskakizunak asetzeko, aireko zaratekiko isolamendu akustikoaren muga-balio batzuk erdietsi behar dira. erabilera-unitate berekoak ez diren esparruetan sortutako zaratatik babesteko: etxebizitza bateko logela baten eta instalazio-esparru mugakide baten arteko aireko zaratarekiko isolamendu akustikoa (DnT,A):**

a) Ez da izango 30 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.
b) Ez da izango 33 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.
c) Ez da izango 50 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.
d) Ez da izango 55 dBA baino txikiagoa, betiere ez badute partekatzen ate edo leihorik.

273. **CTE-ren zarataren aurreko babesaren inguruko eskakizunak asetzeko, inpaktu-zaratekiko isolamendu akustikoaren muga-balio batzuk erdietsi behar dira. bata bestearen gaineko bi etxebizitzatan sortzen den zaratarekiko babesa bermatzeko, banantzeko eraikuntza-elementu horizontalek, eraikuntza-elementu mugakideekin batera, ezaugarri hau bete behar dute:**

a) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru babestu mugakide batean ez da izango 75 dB-etik gorakoa.
b) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru babestu mugakide batean ez da izango 70 dB-etik gorakoa.
c) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru babestu mugakide batean ez da izango 65 dB-etik gorakoa.
d) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru babestu mugakide batean ez da izango 60 dB-etik gorakoa.

274. **CTE-ren zarataren aurreko babesaren inguruko eskakizunak asetzeko, inpaktu-zaratekiko isolamendu akustikoaren muga-balio batzuk erdietsi behar dira. instalazio-esparruetan edo jarduera-esparruetan sortzen den zaratarekiko babesa bermatzeko, banantzeko eraikuntza-elementu horizontalek, eraikuntza-elementu mugakideekin batera, ezaugarri hau bete behar dute:**

a) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru bizigarri mugakide batean ez da izango 75 dB-etik gorakoa.
b) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru bizigarri mugakide batean ez da izango 70 dB-etik gorakoa.
c) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru bizigarri mugakide batean ez da izango 65 dB-etik gorakoa.
d) Inpaktu-zarataren presioaren maila globala (L'nT,w) esparru bizigarri mugakide batean ez da izango 60 dB-etik gorakoa.

275. **CTE-ren zarataren aurreko babesaren inguruko eskakizunak asetzeko, kanpotiko zaratekiko isolamendu akustikoaren muga-balio batzuk erdietsi behar dira. esparru babestu baten eta kanpoaldearen arteko aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa (D2m,nT,Atr):**

a) Esparru babestuei nahiz esparru bizigarriei aplikatzen zaie.
b) Eraikinaren erabileraren eta eguneko zarataren indizearen (Ld) balioaren arabera mugatutako balio bat izango da.
c) Eraikinaren erabileraren eta eguneko zarataren indizearen (Ld) balioaren arabera mugatutako balio bat izango da; zarata-mapetan bakarrik ezartzen da.
d) Eraikinaren erabileraren eta eguneko zarataren indizearen (Ld) balioaren arabera mugatutako balio bat izango da; Ld = 60 dBA, kanpoko zarata nagusia aireontziena denean.

276. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren arabera zer da eguneko zarata-indizea (Ld)?**

a) Funtsezko datuetako bat da erabilera eta kokaleku jakin bateko eraikin bateko esparru babestu baten eta kanpoaldearen arteko isolamendu akustikoa ezartzeko. dBA-etan adierazten da.
b) Esparru bizigarri batean egunez sortzen den zarata ezartzen duen indizea da. dBA-etan adierazten da.
c) Urtebeteko eguneko aldi guztietan esparru zaratatsuetan zehaztutako soinumaila. dB_{tr}-etan adierazten da.
d) Trafiko-zarata nagusi den eremu batean sortzen den zarata ezartzen duen indizea da, eta dB_{tr}-etan adierazten da.

277. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren arabera, aireko zarataren eta inpaktu-zaraten aurkako isolamendu akustikoaren inguruko eskakizunak betetzeko dimentsionatzen direnean eraikuntza-elementuak:**

a) Sustapen Ministerioak proposatutako programa informatikoak erabili behar dira.
b) DB-HRn jasotzen den aukera sinplifikatua erabili behar da.
c) Aukera sinplifikatua nahiz aukera orokorra erabil daitezke.
d) 2013ko ekainetik aurrera, aukera orokorra bakarrik erabil daiteke.

278. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren arabera, beste eraikin batzuekiko mugakide diren esparru bizigarrietan eta esparru babestuetan, bi eraikinen arteko mehelin baten itxituretako bakoitzaren aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa (d2m,nt,atr) ez da izango hau baino txikiagoa:**

a) 30 Dba.
b) 33 dBA.
c) 40 dBA.
d) 50 dBA.

279. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren arabera, beste eraikin batzuekiko mugakide diren esparru bizigarrietan eta esparru babestuetan, bi eraikinen arteko mehelin bat osatzen duten bi itxituren multzoari dagokion aireko zarataren aurkako isolamendu akustikoa (d2m,nt,atr) ez da izango hau baino txikiagoa:**

a) 30 dBA.
b) 33 dBA.
c) 40 dBA.
d) 50 dBA.

280. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren arabera, aireko zarataren eta inpaktu-zaraten aurkako isolamendu akustikoaren inguruko eskakizunak betetzeko dimentsionatzen direnean eraikuntza-elementuak, aukera sinplifikatua aplika daiteke.** Aukera sinplifikatua baliagarria da hauetarako:

a) Bizitegi-, irakaskuntza- eta administrazio-erabilerako eraikinak bakarrik, betiere hormigoizko egitura edo hormigoizko eta altzairu-xaflazko forjaketa mistoko egitura badute.
b) Edozein erabilera eta edozein egitura mota duten eraikinak.
c) Edozein erabilerako eraikinak, betiere hormigoizko egitura edo hormigoizko eta altzairu-xaflazko forjaketa mistoko egitura badute.
d) Bizitegi-erabilerako eraikinak, betiere hormigoizko egitura edo hormigoizko eta altzairu-xaflazko forjaketa mistoko egitura badute.

281. **DB-HR oinarrizko dokumentuan, aukera sinplifikatua aplikatzeko, banatze-elementu bertikalak honela sailkatzen dira:**

a) 1. mota: Oinarri-elementutzat fabrikazko, hormigoizko edo panel aurrefabrikatu astunezko orri bat edo bi dituzten elementuak, estradosatu gabeak edota alde banatan estradosatu bat dutenak; eta 2. mota: Bilbadura autosostengagarriko bi orriko elementua.

b) 1. mota: Oinarri-elementutzat fabrikazko, hormigoizko edo panel aurrefabrikatu astunezko orri bat edo bi dituzten elementuak, estradosatu gabeak edota alde banatan estradosatu bat dutenak; eta 2. mota: Fabrikazko bi orriko elementuak edo panel aurrefabrikatu astunak (Eb), perimetroan banda elastikoekin; eta 3. mota: Bilbadura autosostengagarriko bi orriko elementua.

c) 1. mota: Oinarri-elementutzat fabrikazko, hormigoizko edo panel aurrefabrikatu astunezko bi orri dituzten elementuak, alde banatan estradosatu bat dutenak; eta 2. mota: Fabrikazko bi orriko elementuak edo panel aurrefabrikatu astunak (Eb), perimetroan banda elastikoekin; eta 3. mota: Bilbadura autosostengagarriko orri bateko elementua.

d) 1. mota: Oinarri-elementutzat fabrikazko, hormigoizko edo panel aurrefabrikatu astunezko bi orri dituzten elementuak, alde banatan estradosatu bat dutenak; eta 2. mota: Fabrikazko bi orriko elementuak edo panel aurrefabrikatu astunak (Eb), elkargunearen arabera, banda elastikoekin; eta 3. mota: Bilbadura autosostengagarriko bi orriko elementua.

282. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren aukera sinplifikatua aplikatzeko, banantze-elementu bertikalek gutxieneko kondizio batzuk bete behar dituzte. banantze-elementu bertikalen mota guztiei lotzen zaizkien fatxada eta mehelinetan saihetseko zeharkako transmisioak mugatzeko, hauetako baldintzetako bat bete behar dute:**

a) Bi orriko eta aireztapenik gabeko fatxada edo mehelin astunerako, kanpoko orriaren azalera-unitateko masak (m) izan behar du, gutxienez, 130 kg/m^2.

b) Bi orriko eta aireztapenik gabeko fatxada edo mehelin astunerako, barruko orriaren azalera-unitateko masak (m) izan behar du, gutxienez, 200 kg/m^2.

c) Orri bateko edo aireztapena duen fatxada edo mehelin astunerako, fabrikazko orriaren azalera-unitateko masak (m) izan behar du, gutxienez, 200 kg/m^2.

d) Orri bateko edo aireztapena duen fatxada edo mehelin astunerako, fabrikazko orriaren azalera-unitateko masak (m) izan behar du, gutxienez, 150 kg/m^2.

283. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren aukera sinplifikatua aplikatzeko familia bakarreko etxebizitza atxikiei, banantze-elementu bertikalek gutxieneko kondizio batzuk bete behar dituzte. etxebizitza bakoitzaren egitura gainerakoekiko independentea baldin bada, etxebizitzen banantze-elementu bertikalak bi orriz osatua egon behar du, eta haietako bakoitzak murrizketa akustikoko indize orokor (A, RA) hau izan behar du:**

a) 35 dBA.

b) 45 Dba.

c) 50 dBA.

d) 55 dBA.

284. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren a eranskinaren (terminologia) arabera, zer da inertzia-bankada bat?**

a) Instalazioen makineriaren azpian jartzen den elementu elastiko bat da (banda elastiko bat), tresneriak eragindako esfortzuak xurgatzeko gai dena, bereziki, abioetan.
b) Altzairuzko profil bat da, tresneriak eragindako esfortzuak xurgatzeko gai dena, bereziki, abioetan.
c) Banaketa-bankada bat da. Instalazioen makineriaren azpian jartzen da, puntzonatzeak saihesteko.
d) Altzairuzko edo hormigoi indartuzko profil bat da, ekipamendu baten funtzionamenduak eragindako esfortzuak xurgatzeko gai dena.

285. **DB-HR oinarrizko dokumentuaren a eranskinaren (terminologia) arabera, fatxada arin bat da fatxada jarraitu eta egitura osagarri bati ainguratu bat, zeinaren azalera-unitateko masa hau baino txikiagoa baita:**

a) 150 kg/m^2.
b) 200 kg/m^2.
c) 220 kg/m^2.
d) 250 kg/m^2.

286. **Osasungarritasunari buruzko DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, hezetasunaren aurkako babesa aplikatu behar zaie hauei:**

a) Lurrarekin kontaktuan dauden lurzoru eta hesiei.
b) Kanpoko airearekin kontaktuan dauden itxiturei (fatxadak eta estalkiak).
c) Lurrarekin kontaktuan dauden lurzoru eta hesiei eta kanpoko airearekin kontaktuan dauden itxiturei (fatxadak eta estalkiak).
d) Sotoetako eta lurzoruko hesiei, lurzoru altxatuetakoei barne.

287. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, lurzoruarekin kontaktuan dauden hesietarako, eskatzen da gutxieneko iragazgaitasun-maila bat lurzoruko eta isurketetako urarentzat; iragazgaitasun-maila hori lortzen da ur-presentziaren eta lurzoruaren iragazkortasun-koefizientearen arabera. ur-presentzia izan daiteke:**

a) Baxua edo altua: Altua, lurraren beheko aurpegia (lurzoruarekin kontaktuan dagoena) maila freatikoaren gainetik dagoenean; eta, baxua, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren sakonera berean edo haren azpitik dagoenean.
b) Baxua, ertaina edo altua: Baxua, lurraren beheko aurpegia (lurzoruarekin kontaktuan dagoena) maila freatikoaren gainetik dagoenean; ertaina, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren sakonera berean dagoenean; eta, altua, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren azpitik dagoenean.
c) Baxua, ertaina edo altua: Baxua, lurraren beheko aurpegia (lurzoruarekin kontaktuan dagoena) maila freatikoaren gainetik dagoenean; ertaina, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren sakonera berean dagoenean; eta, altua, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren azpitik dagoenean, metro bat edo gehiago.
d) Baxua, ertaina edo altua: Baxua, lurraren beheko aurpegia (lurzoruarekin kontaktuan dagoena) maila freatikoaren gainetik dagoenean; ertaina, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren sakonera berean edo bi metro baino gutxiago dagoenean hari azpitik; eta, altua, lurraren beheko aurpegia maila freatikoaren azpitik dagoenean, bi metro edo gehiago.

288. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, zeren arabera ezartzen da fatxadetarako prezipitazioa sartzearen aurka eskatzen den gutxieneko iragazgaiztasun-maila?**

a) Batezbestekoen zona plubiometrikoa eta eraikinaren kokapenari dagokion haizearekiko esposizio-maila.
b) Batezbestekoen zona plubiometrikoa eta fatxadako gainazalaren akabera mota.
c) Fatxadako gainazalaren akabera mota eta eraikinaren kokapenari dagokion haizearekiko esposizio-maila.
d) Batezbestekoen zona plubiometrikoa, eraikinaren kokapenari dagokion haizearekiko esposizio-maila eta fatxadako gainazalaren akabera mota.

289. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, fatxada zimendutik hasten den puntutik, fatxadaren lodiera osoa estaliko duen hesi iragazgaitz bat jarri behar da, altuera honetara arte:**

a) Kanpoko lurzoruaren gainetik 10 cm-tik gora, kapilaritatearen ondorioz ura ez igotzeko.
b) Kanpoko lurzoruaren gainetik 15 cm-tik gora, kapilaritatearen ondorioz ura ez igotzeko.
c) Kanpoko lurzoruaren gainetik 18 cm-tik gora, kapilaritatearen ondorioz ura ez igotzeko.
d) Kanpoko lurzoruaren gainetik 20 cm-tik gora, kapilaritatearen ondorioz ura ez igotzeko.

290. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, forjatu batek ganbera eteten duenean, aire-ganbera aireztatuaren eta forjatuen arteko elkarguneak egin behar dira ura biltzeko sistema bat eratuz (xafla, profil berezia, etab.) ganberaren hondoaren luzeran zehar, kanporanzko maldarekin,**

a) Halako moldez non goiko ertzak hondotik 10 cm-ra (altuera) egon beharko baitu gutxienez.
b) Halako moldez non goiko ertzak hondotik 15 cm-ra (altuera) egon beharko baitu gutxienez.
c) Halako moldez non aire-ganberako urak jasoko dituen hodi multzo bat eratu beharko baita.
d) Ez da kontuan hartzen ganberaren hondoan zehar ura jasotzeko beharra. Lehenengo ilaran mortairurik gabeko albo-juntura batzuk egingo dira, gehienez ere 1,5 m-ko tartearekin, lurrunketa errazteko.

291. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, teilatu-hegal eta erlaitz jarraituek gutxieneko malda bat izan behar dute kanporantz, ura husteko:**

a) Gutxienez 2º-koa.
b) Gutxienez 5º-koa.
c) Gutxienez 8º-koa.
d) Gutxienez 10º-koa.

292. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, teila arabiarreko estalki inklinatuetako maldak eratzeko sistemak gutxieneko malda hau izan behar du ura husteko elementuetarantz:**

a) % 40.
b) % 30.
c) % 32.
d) % 20.

293. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, estalki lau baten eta paramentu bertikal baten arteko elkargunean, inpermeabilizazioak paramentu bertikalean gora jarraitu behar du gutxienez altuera honetara arte:**

a) Estalkiaren babesa baino 10 cm gorago.
b) Estalkiaren babesa baino 15 cm gorago.
c) Estalkiaren babesa baino 20 cm gorago.
d) Estalkiaren babesa baino 25 cm gorago.

294. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, estalki inklinatu baten eta paramentu bertikal baten arteko elkargunean, babes-elementuak jarri behar dira: babes-elementuek paramentu bertikalaren banda jakin bat estali behar dute gutxienez:**

a) 10 cm-ko altuerakoa teilatuaren gainetik.
b) 15 cm-ko altuerakoa teilatuaren gainetik.
c) 20 cm-ko altuerakoa teilatuaren gainetik.
d) 25 cm-ko altuerakoa teilatuaren gainetik.

295. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, estalki inklinatuek erretenak izan behar dituzte. erlaitzak honela jarri behar dira:**

a) % 1,5eko gutxieneko malda izan behar dute, eta erretenera isurtzen duten teilatuko piezek 5 cm atera behar dute hartatik.
b) % 1eko gutxieneko malda izan behar dute, eta erretenera isurtzen duten teilatuko piezek 5 cm atera behar dute hartatik.
c) % 2ko gutxieneko malda izan behar dute, eta erretenera isurtzen duten teilatuko piezek 5 cm atera behar dute hartatik.
d) % 3ko gutxieneko malda izan behar dute, eta erretenera isurtzen duten teilatuko piezek 3 cm atera behar dute hartatik.

296. **Hezetasunaren aurkako babesari buruzko osasungarritasunaren DB-HS1 oinarrizko dokumentuaren arabera, drainatze-hodietarako gutxieneko eta gehieneko malda hauek eskatzen dira:**

a) % 3 eta % 14.
b) % 3 eta % 15.
c) % 4 eta % 14.
d) % 5 eta % 15.

297. **Hondakinak jaso eta ebakuatzeari buruzko osasungarritasunaren DB-HS2 oinarrizko dokumentuaren arabera, zenbat frakziotan banatzen dira hondakin arruntak?**

a) Udalerriaren arabera, bost frakzio: papera eta kartoia, ontzi arinak, materia organikoa, beira eta beste batzuk; edo lau frakzio: papera eta kartoia, ontzi arinak, beira eta beste zenbait.

b) Lau frakzio: papera eta kartoia, ontzi arinak, beira eta beste zenbait. «Materia organikoa» frakzioa ez da jasotzen oinarrizko dokumentuan.

c) Bost frakzio: papera eta kartoia, ontzi arinak, materia organikoa, beira eta beste zenbait.

d) Sei frakzio: papera eta kartoia, plastikozko ontziak, metalezko elementuak, materia organikoa, beira eta beste zenbait.

298. **Hondakinak jaso eta ebakuatzeari buruzko osasungarritasunaren DB-HS2 oinarrizko dokumentuaren arabera, eraikin bakoitzak eraikineko edukiontzien biltegi bat edo haiek gordetzeko toki bat izan behar du. biltegia eta edukiontziak gordetzeko tokia eraikinetik kanpo daudenean, eraikineko sarbidetik distantzia honetara baino gutxiagora egon behar dute:**

a) 30 m.

b) 25 m.

c) 20 m.

d) 15 m.

299. **Hondakinak jaso eta ebakuatzeari buruzko osasungarritasunaren DB-HS2 oinarrizko dokumentuaren arabera, eraikin bakoitzak eraikineko edukiontzien biltegi bat edo haiek gordetzeko toki bat izan behar du. biltegiaren eta kanpoko jasotze-puntuaren arteko ibilbideak zabalera libre hau izan behar du:**

a) 1,20 m, eta ez da onartzen estugunerik.

b) 1,00 m, eta ez da onartzen estugunerik.

c) 1,20 m, eta 1 m-rainoko estuguneak onartzen dira 45 cm-tik beherako luzera batean.

d) 1,30 m, eta 1,20 m-rainoko estuguneak onartzen dira 45 cm-tik beherako luzera batean.

300. **Hondakinak jaso eta ebakuatzeari buruzko osasungarritasunaren DB-HS2 oinarrizko dokumentuaren arabera:**

a) Etxebizitza bakoitzean jarri behar dira etxebizitza horretan sortutako hondakin arrunten bost frakzioetako bakoitza edukitzeko tokiak, etxebizitza dagoen udalerrian atez ateko bilketa baldin badago bakarrik.

b) Etxebizitza bakoitzean jarri behar dira etxebizitza horretan sortutako eta atez ate biltzen diren hondakin arrunten frakzioetako bakoitza edukitzeko tokiak. Gainerakoak eraikineko edukiontzien biltegian eduki daitezke.

c) Etxebizitza bakoitzean jarri behar dira etxebizitza horretan sortutako hondakin arrunten frakzioak edukitzeko espazioak, papera/kartoia eta beira frakzioetarako izan ezik. Frakzio horietarako berehalako biltegiratze-toki gisa erabil daiteke eraikineko edukiontzien biltegia.

d) Etxebizitza bakoitzean jarri behar dira etxebizitza horretan sortutako hondakin arrunten bost frakzioetako bakoitza edukitzeko tokiak.

301. **Barnealdeko airearen kalitateari buruzko osasungarritasunaren DB-HS3 oinarrizko dokumentua aplikatzen zaie hauei:**

a) CTEren aplikazio orokorreko eremuan sartzen diren eraikin guztiak.
b) Eraikuntza berriko edozein eraikin mota, haien erabilera gorabehera.
c) Etxebizitza-eraikinetan, haien barrualdea, hondakinen biltegiak, trastelekuak, aparkalekuak eta garajeak; eta beste edozein erabileratako eraikinetan, aparkaleku eta garajeak.
d) Etxebizitza-eraikinetan, haien barrualdea, hondakinen biltegiak eta trastelekuak. Aparkaleku eta garajeak salbuetsita geratzen dira, EITE aplikatzen baitzaie haiei.

302. **Barnealdeko airearen kalitateari buruzko osasungarritasunaren DB-HS3 oinarrizko dokumentuaren arabera, sukaldeek:**

a) Nahitaez eduki beharko dute sukaldeko lurrun eta kutsatzaileak ateratzeko sistema mekaniko bat duen aireztapen-sistema espezifiko bat.
b) Nahitaez eduki beharko dute sukaldeko lurrun eta kutsatzaileak ateratzeko sistema mekaniko bat duen aireztapen-sistema espezifiko bat eta aireztapen naturaleko sistema bat, leiho irekigarriak edo kanporako ate bat dituena.
c) Nahitaez eduki beharko dute sukaldeko lurrun eta kutsatzaileak ateratzeko sistema mekaniko bat duen aireztapen-sistema espezifiko bat, eta suak dauden eremuak ez badu fatxadara ematen, haiek erabiltzean sortzen diren kutsatzaileak kanporatzeko sistema gehigarri bat jarri beharko da.
d) Nahitaez eduki beharko dute aireztapen naturaleko sistema bat, kanpora ematen duen leiho irekigarri bat edo kanporako ate bat dituena; suak dauden eremuan, haiek erabiltzen diren artean sortzen diren kutsatzaileak kanporatzeko sistema bat, zeinak 50 l/s-ko gutxieneko emari bat atera behar baitu; eta egosketako lurrun eta kutsatzaileak ateratzeko sistema mekaniko bat duen aireztapen-sistema espezifiko gehigarri bat.

303. **Barnealdeko airearen kalitateari buruzko osasungarritasunaren DB-HS3 oinarrizko dokumentuaren arabera, logelek nahitaez izan behar dute:**

a) Erauzketa-sistema osagarri bat.
b) Aireztapen naturaleko sistema bat bakarrik, kanpora ematen duen leiho irekigarri bat edo kanporako ate bat dituena.
c) Sarrera-irekidurak (aireztagailuak) bakarrik, eta, nahi izanez gero, aireztapen naturaleko sistema bat, kanpora ematen duen leiho irekigarri bat edo kanporako ate bat dituena.
d) Sarrera-irekidurak (aireztagailuak) eta aireztapen naturaleko sistema osagarri bat, kanpora ematen duen leiho irekigarri bat edo kanporako ate bat dituena.

304. **Barnealdeko airearen kalitateari buruzko osasungarritasunaren DB-HS3 oinarrizko dokumentuaren arabera, aparkaleku-erabileran, noiz da beharrezkoa automatikoki xurgagailuak aktibatuko dituen karbono monoxidoa detektatzeko sistema bat izatea?**

a) Aparkaleku guztietan, familia bakarreko etxebizitzetako aparkalekuetan izan ezik.
b) Bost plaza baino gehiago edo 100 m^2 erabilgarri baino gehiago dituzten aparkalekuetan.
c) Bi plaza baino gehiago edo 50 m^2 erabilgarri baino gehiago dituzten aparkalekuetan.
d) 500 m^2 erabilgarri baino gehiago dituzten aparkalekuetan.

305. **Barnealdeko airearen kalitateari buruzko osasungarritasunaren DB-HS3 oinarrizko dokumentuaren arabera, aparkaleku bat baliabide naturalen bidez aireztatu ahal izateko, hau eduki behar da:**

a) Irekidurak aparkalekuaren aurrez aurreko bi fatxadatan, aireztapen gurutzatua bermatzeko.
b) Irekidurak aparkalekuaren fatxada guztietan, eta lokaleko edozein punturen eta harekiko gertuen dagoen irekiduraren arteko gutxieneko distantzia librea 25 m izango da, gehienez.
c) Irekidurak aparkalekuaren aurrez aurreko bi fatxadatan, eta lokaleko edozein punturen eta harekiko gertuen dagoen irekiduraren arteko gutxieneko distantzia librea 25 m izango da, gehienez.
d) Irekidurak aparkalekuaren fatxada guztietan, eta lokaleko edozein punturen eta harekiko gertuen dagoen irekiduraren arteko gutxieneko distantzia librea 30 m izango da, gehienez.

306. **Barnealdeko airearen kalitateari buruzko osasungarritasunaren DB-HS3 oinarrizko dokumentuaren arabera, zer altueratan jarri behar dira aireztagailuak?**

a) Lurretik 1,8 m baino gehiagoko distantziara, aire-korronte desatseginik ez sortzeko.
b) Sabaitik 0,25 m baino gutxiagoko distantziara, aire-korronte desatseginik ez sortzeko eta espazio osoa aireztatzeko.
c) Lurretik 1,5 m baino gehiagoko distantziara, aire-korronte desatseginik ez sortzeko.
d) Sabaitik 0,50 m baino gutxiagoko distantziara, aire-korronte desatseginik ez sortzeko eta espazio osoa aireztatzeko.

307. **Ur-hornidurari buruzko osasungarritasunaren DB-HS4 oinarrizko dokumentuaren arabera, edateko uraren hodiak kolore hauekin adieraziko dira:**

a) Berdea.
b) Berde iluna edo urdina.
c) Urdina.
d) Horia.

308. **Ur-hornidurari buruzko osasungarritasunaren DB-HS4 oinarrizko dokumentuaren arabera, instalazio indibidualetan nahiz ekoizpen zentralizatuko instalazioetan, banaketa-sareak itzulera-sare bat izan behar du kontsumo-puntu urrunenera doan hodiaren luzera hau denean:**

a) 10 m edo gehiago.
b) 20 m edo gehiago.
c) 15 m edo gehiago.
d) 25 m edo gehiago.

309. **Uren ebakuazioari buruzko osasungarritasunaren DB-HS5 oinarrizko dokumentuaren arabera, euri-urak ebakuatzeko sarearen dimentsioari dagokionez, zenbat hustubide jarri behar dira gutxienez?**

a) Hustubide bat, baldin eta proiekzio horizontala duen estalki-azalera 100 m² baino gutxiago bada.
b) Bi hustubide, baldin eta proiekzio horizontala duen estalki-azalera 100 m² baino gutxiago bada.
c) Hiru hustubide, baldin eta proiekzio horizontala duen estalki-azalera 100 m² baino gutxiago bada.
d) Hustubide bat, familia bakarreko etxebizitzetan.

310. **Kyotoko protokoloa onartu ostean eta europar batasunak (garai hartan, Europako Erkidegoa) hartutako konpromisoak betetzeko, zein izan zen Europako Parlamentuak eta europar batasuneko kontseiluak eraikinen eraginkortasun energetikoaren inguruan onartu zuen lehenengo direktiba ?**

a) 93/76/CEE Direktiba, 1993ko irailaren 13koa.
b) 2002/91/CE Direktiba, 2002ko abenduaren 16koa.
c) 2010/31/UE Direktiba, 2010eko maiatzaren 19koa.
d) 2012/27/UE Direktiba, 2012ko urriaren 25ekoa.

311. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren arabera, etxebizitzen eta zerbitzuen sektoreak, zeina batez ere eraikinek osatzen baitute, hartzen du:**

a) Azken energia-kontsumoaren % 20 baino gehiago Europako Erkidegoan.
b) Azken energia-kontsumoaren % 30 baino gehiago Europako Erkidegoan.
c) Azken energia-kontsumoaren % 40 baino gehiago Europako Erkidegoan.
d) Azken energia-kontsumoaren % 50 baino gehiago Europako Erkidegoan.

312. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren helburu nagusia hau zen:**

a) Klima-aldaketa geldiaraztea.
b) Europako Erkidegoak Kyotoko protokoloa betetzea.
c) Europako Erkidegoan energia berriztagarrien arrazoizko erabilera bultzatzea.
d) Europako Erkidegoko eraikinetako eraginkortasun energetikoa bultzatzea.

313. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren arabera, zer da «eraikin baten eraginkortasun energetikoa»?**

a) Benetan kontsumitutako energia kantitatea edo beharrezkotzat jotzen dena eraikin baten erabilera estandar bati lotutako beharrak asetzeko; besteak beste, berogailua, etxeko ur beroa eta hoztea barne har ditzake.

b) Benetan kontsumitutako energia kantitatea edo beharrezkotzat jotzen dena eraikin baten erabilera estandar bati lotutako beharrak asetzeko; besteak beste, berogailua, etxeko ur beroa, hoztea eta argiztapena barne har ditzake.

c) Benetan kontsumitutako energia kantitatea edo beharrezkotzat jotzen dena eraikin baten erabilera estandar bati lotutako beharrak asetzeko; besteak beste, berogailua, etxeko ur beroa, hoztea, aireztapena eta argiztapena barne har ditzake.

d) Software-programa baten bidez eraikin baten erabilera estandar bati lotutako beharrak asetzeko beharko dela kalkulatzen den energia kantitatea; besteak beste, berogailua, etxeko ur beroa, hoztea, aireztapena eta argiztapena barne har ditzake.

314. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren 3. artikuluaren arabera, eraikinen eraginkortasun energetikoa zehazteko, estatu kide bakoitzak hau aplikatu beharko du, eskala nazionalean edo eskualdeka:**

a) Eraikinen eraginkortasun energetikoa kalkulatzeko metodologia bat.

b) Lehendik dauden eraikinetan esku hartzeko politika bat.

c) Eraikuntza berriko eraikinetan esku hartzeko politika bat.

d) b) eta c) aukerak.

315. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren 4. artikuluaren arabera, eraikinen eraginkortasun energetikoa zehazteko, estatu kide bakoitzak aukeratu ahalko du direktiba hori aplikatu ala ez eraikin-kategoria hauetan:**

a) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; bi urteko edo hortik beherako erabilera-epea izateko aurreikusitako behin-behineko eraikuntzak; energia-eskaera baxua duten eta bizitegitarako ez diren nekazaritzako eraikinak, industria-instalazioak eta lantegiak, edota eraginkortasun energetikoari buruzko akordio nazional sektorial baten babespeko sektore batek erabiltzen dituenak; etxebizitza-eraikinak, urtean lau hilabetez baino gutxiago erabiltzen badira; 50 m^2-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikin independenteak.

b) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; etxebizitza-eraikinak, urtean lau hilabetez baino gutxiago erabiltzen badira; 50 m^2-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikin independenteak.

c) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; 50 m^2-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikin independenteak.

d) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; etxebizitza-eraikinak, urtean lau hilabetez baino gutxiago erabiltzen badira.

316. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren 5. artikuluaren arabera, eraikinen eraginkortasun energetikoa zehazteko, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte eraikin berriek errendimendu energetikoari buruzko gutxieneko eskakizunak bete ditzaten:**

a) Beti.
b) Betiere eraikinek 1.000 m²-tik beherako azalera erabilgarri totala badute.
c) Betiere eraikinek 1.000 m²-tik gorako azalera erabilgarri totala badute.
d) Inoiz ere ez.

317. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren 6. artikuluaren arabera, eraikinen eraginkortasun energetikoa zehazteko, estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte lehendik dauden eraikinetan eraberritze garrantzitsuak egiten direnean haien eraginkortasun energetikoa hobetzen dela bermatzeko:**

a) Beti.
b) Betiere eraikinek 1.000 m²-tik beherako azalera erabilgarri totala badute.
c) Betiere eraikinek 1.000 m²-tik gorako azalera erabilgarri totala badute.
d) Inoiz ere ez.

318. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren 7. artikuluaren arabera, eraikinen eraginkortasun energetikoa zehazteko, estatu kideek ziurtatu beharko dute eraikinek ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRI BAT IZATEA:**

a) Eraikitzen direnean.
b) Saltzen direnean.
c) Alokatzen direnean.
d) Aurreko guztiak.

319. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren 7. artikuluaren arabera, eraikinen eraginkortasun energetikoa zehazteko, eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak indarraldi hau izango du:**

a) 5 urtean behin.
b) 10 urtean behin.
c) 15 urtean behin.
d) 25 urte.

320. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktiba jotzen da eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibaren bidez «bateratu» zela. zergatik bateratu zen lege-testu hori?**

a) Aurreko direktibaren ebazpenak indartzeko beharragatik.
b) Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak emateko modua aldatu zelako.
c) Eraikinen eraginkortasun energetikoa kalkulatzeko metodologia aldatu zelako.
d) Aurreko direktibarekin ez zirelako bete EBk Kyotoko Protokoloan hartu zituen konpromisoak.

321. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktiban, eraikin berrien eraginkortasun energetikoaren aldetiko gutxieneko baldintzak aplikatzeaz gainera, eraginkortasun energetikoaren aldetiko gutxieneko baldintza batzuk ezartzen dira hauentzat:**

a) Dagoeneko eraikita dauden baina konponketa sakonak behar dituzten eraikin eta unitateak eta eraikinen elementuak.
b) Eraikinaren inguratzailea osatzen duten eta, modernizatzen edo aldatzen direnean, inguratzaile horren eraginkortasun energetikoari modu esanguratsuan eragiten dioten eraikuntza-elementuak.
c) Eraikinen instalazio teknikoak instalatu, aldatu edo hobetzen direnean.
d) Aurreko guztiak.

322. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren arabera, zein da «energia-kontsumo ia nuluko eraikina»ren definizioa?**

a) Eraginkortasun energetiko handia duen eraikina. Behar den energia gutxi-gutxi hori iturri berriztagarrietako energia bidez lortu beharko litzateke, neurri handi batean, *in situ* edo inguruan ekoitzitako iturri berriztagarrietako energia barne.
b) Eraginkortasun energetiko handia duen eraikina. Behar den energia gutxi-gutxi hori iturri fosiletako energia bidez lortu beharko litzateke, neurri handi batean, *in situ* edo inguruan ekoitzitako iturri fosiletako energia barne.
c) Eraginkortasun energetiko handia duen eraikina. Behar den energia gutxi-gutxi hori energia elektrikoa hornitzeko sareetako energia bidez lortu beharko litzateke (inoiz ez iturri fosiletatik), neurri handi batean, *in situ* edo inguruan ekoitzitako energia elektrikaren hornidurako energia barne.
d) Eraginkortasun energetiko handia duen eraikina. Eraikinean erabiltzen den energia kantitateak zero izan behar du; hau da, ez da erabili behar energiarik eraikinak behar bezala funtziona dezan.

323. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren arabera, zein da «eraikinaren inguratzailea»ren definizioa?**

a) Fatxadak eta estalkia.
b) Eraikina inguratzen duten gainazal guztiak.
c) Eraikinaren azala osatzen duten elementuak.
d) Eraikinaren barnealdea eta kanpoko ingurunea bereizten dituzten elementu integratuak.

324. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren arabera, zein da «energia primarioa»ren definizioa?**

a) Inolako eraldatze-prozesurik izan ez duen eta iturri naturaletatik datorren energia.
b) Inolako eraldatze-prozesurik izan ez duen eta iturri berriztagarrietatik datorren energia.
c) Inolako eraldatze-prozesurik izan ez duen eta iturri ez-berriztagarrietatik datorren energia.
d) Inolako eraldatze-prozesurik izan ez duen eta iturri berriztagarrietatik eta ez-berriztagarrietatik datorren energia.

325. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibak, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002-ko abenduaren 16ko 2002/91/ce direktibak ez bezala, 7. artikuluan jasotzen du estatu kideek beharrezko neurriak hartu beharko dituztela lehendik dauden eraikinek eraginkortasun energetikoaren inguruko gutxieneko eskakizun batzuk bete ditzaten:**

a) Eraikinek 1.000 m²-tik gorako azalera erabilgarri totala badute.
b) Inguratzailearen % 75 baino gehiago eraberritzen denean.
c) Eraberritze sakonak egiten direnean.
d) Eraberritze sakonak egiten direnean, betiere teknikoki, funtzionalki eta ekonomikoki bideragarria bada.

326. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktiban, «eraberritze sakonak» terminoaren definizioan sartzen da eraikin baten eraberritzea:**

a) Eraikinaren inguratzailea edo instalazio teknikoak eraberritzearen kostu totalak eraikinaren balioaren % 25 gainditzen badu, hura eraikita dagoen lurraren balioa kenduta.
b) Eraikinaren inguratzailearen azaleraren % 25 baino gehiago eraberritzen denean.
c) Aurreko biak.
d) Eraberritzea inguratzailearen 1.000 m²-tik gorako azalera batean egiten denean.

327. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren 8. artikuluaren arabera, eraikinetako instalazio teknikoek energia-kontsumoa optimizatzeko gutxieneko eskakizun batzuk bete beharko dituzte. eskakizun horiek eraikin hauei aplikatuko zaizkie, gutxienez:**

a) Berokuntza-instalazioak eta ur berokoak.
b) Berokuntza-instalazioak, ur berokoak eta aire girotukoak.
c) Berokuntza-instalazioak, ur berokoak, aire girotukoak eta aireztapen-instalazio handiak.
d) Berokuntza-instalazioak, ur berokoak, aire girotukoak, aireztapen-instalazio handiak edo haien konbinazioak.

328. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren 9. artikuluaren arabera, estatu kideek bermatu behar dute eraikin berri guztiak energia-kontsumo ia nulukoak izatea:**

a) Gehienez ere 2018ko abenduaren 31n.
b) Gehienez ere 2020ko abenduaren 31n.
c) Gehienez ere 2025eko abenduaren 31n.
d) Gehienez ere 2030eko abenduaren 31n.

329. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren 9. artikuluaren arabera, estatu kideek bermatu behar dute okupatuta dauden eta autoritate publikoen jabetzakoak diren eraikin berri guztiak energia-kontsumo ia nuluko eraikinak izatea:**

a) 2018ko abenduaren 31tik aurrera.
b) 2020ko abenduaren 31tik aurrera.
c) 2022ko abenduaren 31tik aurrera.
d) 2030eko abenduaren 31tik aurrera.

330. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren 11. artikuluaren arabera, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak, eraikin baten eraginkortasun energetikoaz eta erreferentziako balioez gainera, eraikin baten eraginkortasunaren maila optimoak edo errentagarriak hobetzeko aholku batzuk ere jaso beharko ditu; adibidez:**

a) Eraikin baten inguratzailearen edo instalazio teknikoen eraberritze sakonen esparruan aplikatutako neurriak.
b) Eraikin bati buruzko neurriak, inguratzailearen edo instalazio teknikoen eraberritze sakonak gorabehera.
c) Biak.
d) Ez du ematen aholkurik.

331. **Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/ue direktibaren 13. artikuluaren arabera, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria toki nabarmen eta jendeak ikusteko moduko batean jarrita eduki beharko da.**

a) Beti.
b) Eraikinaren azalera total erabilgarria 500 m^2-tik gorakoa denean.
c) Eraikinaren azalera total erabilgarria 500 m^2-tik gorakoa izanik, agintari publikoek okupatua denean eta herritarrak bertaratu ohi direnean.
d) Inoiz ere ez.

332. **2007ko urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege-Dekretuak, zeinak eraikin eraiki berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen baitu, transposizioz jaso zuen:**

a) 93/76/CEE Direktiba, 1993ko irailaren 13koa.
b) 2002/91/CE Direktiba, 2002ko abenduaren 16koa.
c) 2010/31/UE Direktiba, 2010eko maiatzaren 19koa.
d) 2012/27/UE Direktiba, 2012ko urriaren 25ekoa.

333. **Eraikin eraiki berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2007ko urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege-Dekretuaren 1.2 artikuluaren arabera, oinarrizko prozedura hori onartzearen helburua hau da:**

a) Energia aurreztea, erosle eta erabiltzaileei nahitaez eraikinen ezaugarri energetikoen inguruan eman behar zaien informazio objektiboaren bidez.

b) Kyotoko Protokoloa betetzea, erosle eta erabiltzaileei nahitaez eraikinen ezaugarri energetikoen inguruan eman behar zaien informazio objektiboaren bidez.

c) Eraginkortasun energetikoa sustatzea, erosle eta erabiltzaileei nahitaez eraikinen ezaugarri energetikoen inguruan eman behar zaien informazio objektiboaren bidez.

d) Aurreko guztiak.

334. **Eraikin eraiki berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2007ko urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege-Dekretuaren 2. artikuluaren arabera, oinarrizko prozedura hori aplikatzen zaie hauei:**

a) Eraikin eraiki berriei bakarrik.

b) Lehendik dauden eraikinetako eraldatze, eraberritze eta birgaitzeei, betiere azalera total erabilgarria 1.000 m²-tik gorakoa izan eta itxituren ehuneko 25 baino gehiago berriztatzen bada.

c) Eraikin eraiki berriei eta lehendik dauden eta 1.000 m²-tik gorako azalera erabilgarria duten eraikinetako eraldatze, eraberritze eta birgaitzeei.

d) Eraikin eraiki berriei eta lehendik dauden eraikinetako eraldatze, eraberritze eta birgaitzeei, betiere azalera total erabilgarria 1.000 m²-tik gorakoa izan eta itxituren ehuneko 25 baino gehiago berriztatzen bada.

335. **Eraikin eraiki berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2007ko urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege-Dekretuaren 2. artikuluaren arabera, oinarrizko prozedura horren aplikazio-eremutik salbuesten dira:**

a) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak.

b) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; erabilera-ezaugarriak direla-eta irekita egon behar duten eraikinak.

c) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; erabilera-ezaugarriak direla-eta irekita egon behar duten eraikinak; bi urteko edo hortik beherako erabilera-epea izateko aurreikusitako behin-behineko eraikuntzak.

d) Ofizialki babestutako eraikin eta monumentuak; gurtza-leku gisa eta erlijio-jardueretarako erabiltzen diren eraikinak; erabilera-ezaugarriak direla-eta irekita egon behar duten eraikinak; bi urteko edo hortik beherako erabilera-epea izateko aurreikusitako behin-behineko eraikuntzak; industria-eraikinak eta nekazaritzakoak, lantegietara, industria-prozesuetara eta bizitegikoak ez diren nekazaritza-prozesuetara zuzendutako zatian; 50 m²-tik beherako azalera erabilgarri totala duten eraikin isolatuak; eta eraikuntza aldetik munta gutxikoak eta teknikoki errazak diren eraikinak, solairu bakarrekoak eta bizitegitarako edo zeregin publikoetarako erabiltzekoak ez direnak —ez behin-behineko ez behin betiko— eta pertsonen segurtasunari eragiten ez dietenak.

336. **2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuak, zeinak eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen baitu, transposizioz jaso zuen:**

a) 93/76/CEE Direktiba, 1993ko irailaren 13koa.
b) 2002/91/CE Direktiba, 2002ko abenduaren 16koa.
c) 2010/31/UE Direktiba, 2010eko maiatzaren 19koa.
d) 2012/27/UE Direktiba, 2012ko urriaren 25ekoa.

337. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 errege Dekretuan jasotzen denez, eta eraikin eraiki berrien eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2007ko urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege-Dekretuan ez bezala, eraikin eraiki berriei ez ezik, lehendik dauden eraikinen kasuan, prozedura hori aplikatu beharko zaie hauei:**

a) Eraikin eraiki berriei eta lehendik dauden eraikinetako eraldatze, eraberritze eta birgaitzeei, betiere azalera total erabilgarria 1.000 m²-tik gorakoa izan eta itxituren ehuneko 25 baino gehiago berriztatzen bada.
b) Lehendik dauden eraikinak edo haien zatiak saltzen direnean edo errentari berri bati alokatzen zaizkionean, betiere indarreko ziurtagiririk ez badute.
c) Lehendik dauden eraikinetan edo horien zatietan agintari publiko batek 250 m² baino gehiagoko azalera erabilgarria okupatzen duenean eta herritarrak bertaratu ohi direnean.
d) b) eta c) aukerak.

338. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 errege Dekretuan, eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen urtarrilaren 19ko 47/2007 errege Dekretuan prozedura horren aplikazio-eremutik salbuesten diren kasuez gainera, kasu hauek ere gehitzen dira:**

a) Eraberritze sakonak egiteko edo eraisteko erosten diren eraikinak.
b) Urtean lau hilabete baino gutxiagoz edo urtean zehar denbora mugatu batean erabiltzen diren etxebizitzen eraikinak edo eraikin zatiak, urte osoan erabiliz gero gastatuko litzatekeen energiaren ehuneko 25eko energia-kontsumo aurreikusia dutenak, betiere jabearen erantzukizunpeko adierazpen batean hala jasotzen bada.
c) Bi kasu horiek.
d) Ez da gehitzen kasu berririk.

339. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, «eraikin baten eraginkortasun energetikoa» hau da:**

a) Eraikineko energia-aurreztea funtzionamendu- eta okupazio-baldintza normaletan ezartzeko beharrezkotzat jotzen den energia-kontsumoa.
b) Eraikinaren energia-eskaera funtzionamendu- eta okupazio-baldintza normaletan asetzeko beharrezkotzat jotzen den energia-kontsumoa.
c) Eraikineko energia-kontsumoa funtzionamendu- eta okupazio-baldintza normaletan ezartzeko beharrezkotzat jotzen den energia-eskaera.
d) Eraikineko energia-kontsumoa funtzionamendu- eta okupazio-baldintza normaletan asetzeko beharrezkotzat jotzen den energia-eskaera.

340. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, «eraikin baten eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa» hau da:**

a) Kalkulu-metodologia baten arabera zehazten den eraikin baten energia-kontsumoaren adierazpena; adierazle energetikoekin adierazten da, eraginkortasun energetikoaren etiketaren bidez.
b) Kalkulu-metodologia baten arabera zehazten den eraikin baten energia-aurreztearen adierazpena; adierazle energetikoekin adierazten da, eraginkortasun energetikoaren etiketaren bidez.
c) Kalkulu-metodologia baten arabera zehazten den eraikin baten energia-eskaeraren adierazpena; adierazle energetikoekin adierazten da, eraginkortasun energetikoaren etiketaren bidez.
d) Kalkulu-metodologia baten arabera zehazten den eraikin baten eraginkortasun energetikoaren adierazpena; adierazle energetikoekin adierazten da, eraginkortasun energetikoaren etiketaren bidez.

341. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, «eraikin baten eraginkortasun energetikoaren etiketa» hau da:**

a) Eraikin baten inguratzaile termikoa adierazten duen bereizgarria.
b) Eraikin baten energia-instalazioa adierazten duen bereizgarria.
c) Eraikinak edo eraikin-unitateak lortutako eraginkortasun energetikoaren hobetze mota adierazten duen bereizgarria.
d) Eraikinak edo eraikin-unitateak lortutako eraginkortasun energetikoaren kalifikazio-maila adierazten duen bereizgarria.

342. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, eraikin baten eraginkortasun energetikoaren etiketa izango da:**

a) A letratik E letrara.
b) A letratik F letrara.
c) A letratik G letrara.
d) A letratik H letrara.

343. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, eraikin eraiki berri bat denean, hau egin beharko da:**

a) Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat.
b) Eraikin bukatuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat.
c) Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat eta eraikin bukatuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat.
d) Edo proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat, edo eraikin bukatuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat; inoiz ere ez biak.

344. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, lehendik dagoen eraikin bat denean, hau egin beharko da:**

a) Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat.
b) Eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat.
c) Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat eta eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat.
d) Edo proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat, edo eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat; inoiz ere ez biak.

345. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, eraikin baten eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa lortzeko, industria-, energia- eta turismo-ministerioak eta sustapen-ministerioak aintzatetsitako dokumentuak erabili ahalko dira, eta eduki hau izan ahalko dute:**

a) Eraginkortasun energetikoa kalifikatzeko programa informatikoak.
b) Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren aplikazio tekniko-administratiboari buruzko zehaztapenak eta eskuliburu teknikoak edo iruzkinak.
c) Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren aplikazioa errazten duen gainerako edozein dokumentu, salbu eta produktu edo sistema partikular bat edo patentea duen bat erabiltzeari buruzkoak.
d) Aurreko hirurak.

346. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak gehienez indarraldi hau izango du:**

a) 5 urtean behin.
b) 10 urtean behin.
c) 20 urtean behin.
d) 25 urte.

347. **Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen 2013ko apirilaren 5eko 235/2013 Errege-Dekretuaren arabera, eraikin bat saltzen edo alokatzen denean, eraiki baino lehen, saltzaileak edo alokatzaileak:**

a) Proiektatutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat eman behar du.
b) Eraikin bukatuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat eman behar du.
c) Proiektatutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat eta eraikin bukatuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat eman behar ditu.
d) Ez dauka proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria emateko betebeharrik eraikina eraikitzen bukatzen den arte.

348. **Uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuak, zeinaren bidez eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu baitzen (EITE 07), ordezkatu zuen uztailaren 31ko 1751/1998 errege Dekretua, eraikinetako instalazio termikoen lehenagoko erregelamendua eta horren jarraibide tekniko osagarriak (EITE) onesten dituena. zergatik?**

a) 2002/91/CE Direktiba transposizioz jasotzeko beharragatik.
b) Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duen 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, onartu zelako.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

349. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartzen duen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren xedea da pertsonen ongizate-, segurtasun- eta higiene-eskaerari erantzun ahal izateko, eraikinetako instalazio termikoek bete behar dituzten energia-eraginkortasunaren eta segurtasunaren eskakizunak arautzea:**

a) Diseinatu eta dimentsionatzen direnean.
b) Diseinatu eta dimentsionatzen direnean eta gauzatzen direnean.
c) Diseinatu eta dimentsionatzen direnean, gauzatzen direnean eta mantentze-lanetan eta erabileran.
d) Diseinatu eta dimentsionatzen direnean, gauzatzen direnean, mantentze-lanetan eta erabileran, eta haien barnean egin daitezkeen eraberritzeetan.

350. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren aplikazio eremuan, instalazio termikotzat joko dira hauek:**

a) Berokuntza-, hozte- eta aireztapen-instalazioak.
b) Klimatizazio-instalazioak (berokuntza, hoztea eta aireztapena).
c) Berokuntza-, hozte- eta aireztapen-instalazioak eta etxeko ur beroaren instalazioak.
d) Klimatizazio-instalazioak (berokuntza, hoztea eta aireztapena) eta etxeko ur beroaren instalazioak.

351. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, eite instalazio termikoei aplikatuko zaie hauetan:**

a) Eraikin eraiki berriak.
b) Eraikin eraiki berriak eta eraikin jada eraikiak kasu guztietan.
c) Eraikin eraiki berriak eta eraikin jada eraikiak haiek eraberritzeari, mantentzeari, erabiltzeari eta ikuskatzeari dagokienez.
d) Eraikin eraiki berriak eta eraikin jada eraikiak haiek eraberritzeari, birgaitzeari, hedatzeari, mantentzeari, erabiltzeari eta ikuskatzeari dagokienez.

352. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027-/2007 Errege-Dekretuaren 2.3 artikuluaren arabera, eraberritzetzat joko dira hauek:**

a) Klimatizazio-azpisistema berriak edo etxeko ur beroa sortzekoak jartzea edo lehendik daudenak aldatzea.

b) Klimatizazio-azpisistema berriak edo etxeko ur beroa sortzekoak jartzea edo lehendik daudenak aldatzea; bero- eta hotz-sorkuntzako tresnak ekipoak aldatzea ezaugarri desberdinekoengatik edo bero- eta hotz-sorkuntzako tresna gehiago jartzea.

c) Klimatizazio-azpisistema berriak edo etxeko ur beroa sortzekoak jartzea edo lehendik daudenak aldatzea; bero- eta hotz-sorkuntzako tresnak ekipoak aldatzea ezaugarri desberdinekoengatik edo bero- eta hotz-sorkuntzako tresna gehiago jartzea; energia mota desberdin bat erabiltzera pasatzea edo energia berriztagarriak erabiltzen hastea.

d) Klimatizazio-azpisistema berriak edo etxeko ur beroa sortzekoak jartzea edo lehendik daudenak aldatzea; bero- eta hotz-sorkuntzako tresnak ekipoak aldatzea ezaugarri desberdinekoengatik edo bero- eta hotz-sorkuntzako tresna gehiago jartzea; energia mota desberdin bat erabiltzera pasatzea edo energia berriztagarriak erabiltzen hastea; eraikinerako aurreikusten zen erabilera aldatzea.

353. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, eite ez da aplikatuko instalazio termiko hauetan:**

a) Prozesu industrialak, pertsonen ongizate termiko eta higienikoaren eskakizunak asetzeko zatian.

b) Prozesu industrialak, nekazaritzakoak edo beste mota batzuetakoak, pertsonen ongizate termiko eta higienikoaren eskakizunak asetzeko zatian.

c) Prozesu industrialak, pertsonen ongizate termiko eta higienikoaren eskakizunak asetzeko ez den zatian.

d) Prozesu industrialak, nekazaritzakoak edo beste mota batzuetakoak, pertsonen ongizate termiko eta higienikoaren eskakizunak asetzeko ez den zatian.

354. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren 10. artikuluaren arabera, instalazio termikoak diseinatu, kalkulatu, gauzatu, mantendu eta erabili behar dira hauen inguruko eskakizun teknikoak betez:**

a) Ongizatea, higienea, eraginkortasun energetikoa eta segurtasuna.

b) Ongizatea, eraginkortasun energetikoa eta segurtasuna.

c) Higienea, eraginkortasun energetikoa eta segurtasuna.

d) Ongizatea, higienea eta eraginkortasun energetikoa.

355. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren 11. artikuluaren arabera, ongizateari eta higieneari dagokienez, baldintza hauek bete behar dira:**

a) Giroaren kalitate termikoa.

b) Giroaren kalitate termikoa eta barrualdeko airearen kalitatea.

c) Giroaren kalitate termikoa, higienea eta barrualdeko airearen kalitatea.

d) Giroaren kalitate termikoa, higienea, barrualdeko airearen kalitatea eta ingurune akustikoaren kalitatea.

356. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren 12. artikuluaren arabera, eraginkortasun energetikoari dagokienez, instalazio termikoek baldintza hauek bete behar dituzte:**

a) Energia-errendimendu maximoa; beroa eta hotza galerarik gabe banatzea; diseinu-baldintzak mantentzeko arauak jarri eta kontrola egitea; kontsumoak kontabilizatzea, erabiltzaileak haien berri izateko; energia berreskuratzea aurrezte-azpisistemen bitartez; energia berriztagarriak erabiltzea.

b) Energia-errendimendu maximoa; diseinu-baldintzak mantentzeko arauak jarri eta kontrola egitea; kontsumoak kontabilizatzea, erabiltzaileak haien berri izateko; energia berreskuratzea aurrezte-azpisistemen bitartez; energia berriztagarriak erabiltzea.

c) Energia-errendimendu maximoa; kontsumoak kontabilizatzea, erabiltzaileak haien berri izateko; energia berreskuratzea aurrezte-azpisistemen bitartez; energia berriztagarriak erabiltzea. Barnekoa.

d) Energia-errendimendu maximoa; energia berreskuratzea aurrezte-azpisistemen bitartez; energia berriztagarriak erabiltzea.

357. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren 15. artikuluaren arabera, proiektu bat egin beharko da bero- edo hotz-sorkuntzarako instalatu beharreko potentzia termiko izendatua denean:**

a) 50 kW baino txikiagoa.

b) 50 kW baino handiagoa.

c) 70 kW baino txikiagoa.

d) 70 kW baino handiagoa.

358. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren 15. artikuluaren arabera, ez da izango beharrezkoa proiektu bat edo memoria tekniko bat aurkeztea bero- edo hotz-sorkuntzarako instalatu beharreko potentzia termiko izendatua denean:**

a) 5 kW baino handiagoa.

b) 5 kW baino txikiagoa.

c) 10 kW baino handiagoa.

d) 10 kW baino txikiagoa.

359. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren ongizateko eta higieneko eskakizunen karakterizazioaren eta kuantifikazioaren it 1.1.4. artikuluan, zehazten dira neguko tenperatura eraginkorra eta hezetasun erlatiboa 1,2 met-eko jarduera metaboliko sedentarioa, 1 clo-ko arropak eta % 10 eta % 15 bitarteko ppd duten pertsonentzat. balio hauek izan behar dira:**

a) 21/23 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 40-50eko hezetasun erlatiboa.

b) 21/23 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 45-60ko hezetasun erlatiboa.

c) 23/25 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 40-50eko hezetasun erlatiboa.

d) 23/25 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 45-60ko hezetasun erlatiboa.

360. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren ongizateko eta higieneko eskakizunen karakterizazioaren eta kuantifikazioaren it 1.1.4. artikuluan, zehazten dira udako tenperatura eraginkorra eta hezetasun erlatiboa 1,2 met-eko jarduera metaboliko sedentarioa, 0,5 clo-ko arropak eta % 10 eta % 15 bitarteko ppd duten pertsonentzat. balio hauek izan behar dira:**

a) 21/23 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 40-50eko hezetasun erlatiboa.
b) 21/23 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 45-60ko hezetasun erlatiboa.
c) 23/25 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 40-50eko hezetasun erlatiboa.
d) 23/25 ºC-ko tenperatura eraginkorra eta % 45-60ko hezetasun erlatiboa.

361. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, zer da «ida»?**

a) Kanpoko airearen kalitatearen kategoria.
b) Barrualdeko airearen kalitatearen kategoria.
c) Kanpoko airearen diluzioaren adierazlea.
d) Barrualdeko airearen diluzioaren adierazlea.

362. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, «ida» kategoria hauetan sailkatzen da:**

a) IDA 1: kalitate oneko airea/ IDA 2: kalitate-maila baxuko airea.
b) IDA 1: kalitate oneko airea/ IDA 2: kalitate ertaineko airea/ IDA 3: kalitate-maila baxuko airea.
c) IDA 1: kalitate oneneko airea/ IDA 2: kalitate oneko airea/IDA 3: kalitate ertaineko airea/ IDA 4: kalitate-maila baxuko airea.
d) IDA 1: kalitate oneneko airea/ IDA 2: kalitate oneko airea/IDA 3: kalitate ertaineko airea/ IDA 4: kalitate-maila baxuko airea/ IDA 5: kalitate oso txarreko airea.

363. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, zer da «ODA»?**

a) Kanpoko airearen kalitatea.
b) Barrualdeko airearen kalitatea.
c) Kanpoko airearen diluzioaren jatorria.
d) Barrualdeko airearen diluzioaren jatorria.

364. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, «ODA» maila hauetan sailkatzen da:**

a) 2 mailatan: ODA 1 eta ODA 2.
b) 3 mailatan: ODA 1, ODA 2 eta ODA 3.
c) 4 mailatan: ODA 1, ODA 2, ODA 3 eta ODA 4.
d) 5 mailatan: ODA 1, ODA 2, ODA 3, ODA 4 eta ODA 5.

365. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (eite 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren arabera, erauzketako airea (ae) honela sailkatzen da:**

a) 2 kutsadura-maila: AE 1: baxua/ AE 2: altua.
b) 3 kutsadura-maila: AE 1: baxua/ AE 2: ertaina/ AE 3: altua.
c) 4 kutsadura-maila: AE 1: baxua/ AE 2: ertaina/ AE 3: altua/ AE 4: oso altua.
d) 5 kutsadura-maila: AE 1: oso baxua/ AE 2: baxua/ AE 3: ertaina/ AE 4: altua/ AE 5: oso altua.

366. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren it 1.2.4 artikuluaren arabera, hodi- eta tutu-sareen gutxieneko isolamendu-lodiera kalkulatzeko, hauek erabili ahalko dira:**

a) Prozedura sinplifikatua edo prozedura osoa.
b) Prozedura sinplifikatua edo prozedura orokorra.
c) Prozedura sinplifikatua edo prozedura alternatiboa.
d) Ez dago isolamenduaren gutxieneko lodiera kalkulatzeko kalkulurik.

367. **Eraikinetako instalazio termikoen arautegia onartu zuen (EITE 07) uztailaren 20ko 1027/2007 Errege-Dekretuaren termino eta definizioei buruzko 1. eranskinaren arabera, zer dira «EHA» eta «SUP»?**

a) EHA: bulkada-airea / SUP: egozte-airea.
b) EHA: egozte-airea / SUP: bulkada-airea.
c) EHA: aire kutsatua / SUP: aire garbia.
d) EHA: aire garbia / SUP: aire kutsatua.

368. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuak ordezkatu zuen lehenago indarrean zegoen behe-tentsiorako araudia. zer urtetan onartu zen araudi hori?**

a) 1973.
b) 1980.
c) 1985.
d) 1990.

369. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren xedea da ezartzea behe-tentsioko hornidura-iturri batera konektatutako instalazio elektrikoek izan behar dituzten baldintza tekniko eta bermeak, helburu honekin:**

a) Pertsona eta ondasunen segurtasuna zaintzea.
b) Instalazio horiek normal funtzionatzen dutela bermatzea eta beste instalazio eta zerbitzu batzuetan perturbazioak saihestea.
c) Instalazioen fidagarritasun teknikoari eta eraginkortasun ekonomikoari laguntzea.
d) Aurreko guztiak.

370. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretua aplikatu behar zaie:**

a) Instalazio berriei, haien aldaketei eta haien hedatzeei bakarrik.
b) Instalazio berriei, haien aldaketei eta haien hedatzeei; eta hura indarrean sartu aurretik zeuden eta aldaketa nahiz konponketa sakonak egin zaizkien instalazioei eta hedatzen diren instalazioei.
c) Instalazio berriei, haien aldaketei eta haien hedatzeei; eta hura indarrean sartu aurretik zeuden eta aldaketa nahiz konponketa sakonak egin zaizkien instalazioei eta hedatzen diren instalazioei; eta hura indarrean sartu aurretik zeuden instalazioei, ikuskatze-erregimenari dagokionez (instalazioak onartu zireneko araudietako irizpideak aplikatuko dira ikuskatze horietan).
d) Instalazio berriei, haien aldaketei eta haien hedatzeei; eta hura indarrean sartu aurretik zeuden eta aldaketa nahiz konponketa sakonak egin zaizkien instalazioei eta hedatzen diren instalazioei; hura indarrean sartu aurretik zeuden instalazioei, ikuskatze-erregimenari dagokionez (instalazioak onartu zireneko araudietako irizpideak aplikatuko dira ikuskatze horietan); eta hura indarrean sartu aurretik zeuden instalazioei, eraginkortasun energetikoa hobetzeari dagokionez.

371. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren arabera, aldaketa edo konponketa sakontzat joko dira:**

a) Potentzia instalatuaren % 25i baino gehiagori eragiten diotenak.
b) Potentzia instalatuaren % 50i baino gehiagori eragiten diotenak.
c) Potentzia instalatuaren % 75i baino gehiagori eragiten diotenak.
d) Potentzia instalatuaren % 100i baino gehiagori eragiten diotenak.

372. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, zer da instalazio elektriko bat?**

a) Tresna eta zirkuitu elkartuen multzo bat, helburu jakin bat duena: energia elektrikoa ekoitzi, banatu edo erabiltzea.
b) Tresna eta zirkuitu elkartuen multzo bat, helburu jakin bat duena: energia elektrikoa ekoitzi, igorri, banatu edo erabiltzea.
c) Tresna eta zirkuitu elkartuen multzo bat, helburu jakin bat duena: energia elektrikoa ekoitzi, eraldatu, igorri, banatu edo erabiltzea.
d) Tresna eta zirkuitu elkartuen multzo bat, helburu jakin bat duena: energia elektrikoa ekoitzi, bihurtu, eraldatu, igorri, banatu edo erabiltzea.

373. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 4. artikuluan, behe-tentsioko instalazio elektrikoak sailkatzen dira, esleitzen zaizkien tentsio izendatuen arabera, honela:**

a) Behe-tentsioa eta erdi-tentsioa.
b) Oso tentsio baxua eta behe-tentsioa.
c) Oso tentsio baxua; ohiko tentsioa; tentsio berezia.
d) Ez dago sailkapenik tentsio izendatuen baitan.

374. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen denez, tentsio izendatu hauek erabili ohi dira korronte alternoa banatzeko:**

a) Fase arteko 220 V, 3 eroaleko sare trifasikoetarako.
b) Fase arteko 230 V, 3 eroaleko sare trifasikoetarako.
c) Fase arteko 220 V, 3 eroaleko sare trifasikoetarako; fase arteko 220 V eta neutroa, eta fase arteko 400 V, 4 eroaleko sare trifasikoetarako.
d) Fase arteko 230 V, 3 eroaleko sare trifasikoetarako; fase arteko 230 V eta neutroa, eta fase arteko 400 V, 4 eroaleko sare trifasikoetarako.

375. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, kanpoko argiteriako instalazioak izango dira, beren ezaugarriengatik edo segurtasun orokorragatik, piztuta egon behar dutenak beti edo egoera batzuetan, publikoak izan nahiz ez, eta helburu hau dutenak:**

a) Zirkulazio- edo komunikazio-bideak argiztatzea.
b) Zirkulazio- edo komunikazio-bideak eta eraikinen arteko tarteak argiztatzea.
c) Zirkulazio- edo komunikazio-bideak, eraikinen artekoak eta urbanizazioetakoak argiztatzea.
d) Zirkulazio- edo komunikazio-bideak, eraikinen artekoak, urbanizazioetakoak eta eraikin enblematikoak argiztatzea.

376. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 10. artikuluaren arabera, hornikuntzak honela sailkatzen dira:**

a) Hornikuntza arruntak eta osagarriak.
b) Hornikuntza arruntak, bereziak eta osagarriak.
c) Hornikuntza arruntak, ohiz kanpokoak eta osagarriak.
d) Hornikuntza arruntak, bereziak, ohiz kanpokoak eta osagarriak.

377. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 10. artikuluaren arabera, hornikuntza osagarriak honela sailkatzen dira:**

a) Larrialdiko hornikuntzak eta erreserbako hornikuntzak.
b) Larrialdiko hornikuntzak eta hornikuntza bikoitza.
c) Erreserbako hornikuntzak eta hornikuntza bikoitza.
d) Larrialdiko hornikuntzak, erreserbako hornikuntzak eta hornikuntza bikoitza.

378. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuaren 10. artikuluaren arabera, hornikuntza bikoitza da hau eusteko gai dena:**

a) Kontratatutako potentzia totalaren % 15 gutxienez.
b) Kontratatutako potentzia totalaren % 25 gutxienez.
c) Kontratatutako potentzia totalaren % 50 gutxienez.
d) Kontratatutako potentzia totalaren % 50 baino gehiago.

379. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan «ipc» aipatzen denean, honi egiten dio erreferentzia:**

a) Potentzia kontrolatzeko etengailu bat.
b) Potentzia kontrolatzeko indize bat.
c) Potentzia-kontagailuaren etengailu bat.
d) Potentzia-kaxaren etengailu bat.

380. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan «di» aipatzen denean, honi egiten dio erreferentzia:**

a) Eteteko gailu bat.
b) Deribazio indibidual bat.
c) Gailu indibidual bat.
d) Etete-deribazio bat.

381. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan «CGP» terminoa denean, honi egiten dio erreferentzia:**

a) Potentzia-kontagailu orokor bat.
b) Potentzia-kaxa orokor bat.
c) Babes-kaxa orokor bat.
d) Babes-kontagailu orokor bat.

382. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan, itc-bt-13an, jasotzen denez, neurketa-ekipoak irakurtzeko gailuek altuera honetan egon behar dute:**

a) 0,5 m eta 1,50 m bitarteko altueran.
b) 0,7 m eta 1,50 m bitarteko altueran.
c) 0,7 m eta 1,80 m bitarteko altueran.
d) 1 m eta 1,80 m bitarteko altueran.

383. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan, itc-bt-16an, jasotzen denez, kontagailuak eta energia elektrikoa neurtzeko gainerako gailuak egon ahalko dira:**

a) Modulu eta armairuetan
b) Panel eta armairuetan.
c) Modulu, panel eta armairuetan.
d) Modulu, kaxa, panel eta armairuetan.

384. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan, ITC-BT-18an, jasotzen denez, lur-konexioa instalatuta hau lortu beharko da:**

a) Instalazioen multzoan ez izatea potentzial-diferentzia arriskutsurik.
b) Instalazio eta eraikinen multzoan eta lurzoruko gertuko azaleran ez izatea potentzial-diferentzia arriskutsurik.
c) Instalazio eta eraikinen multzoan eta lurzoruko gertuko azaleran ez izatea potentzial-diferentzia arriskutsurik, eta, era berean, akats-korronteak lurrera igarotzen uztea.
d) Instalazio eta eraikinen multzoan eta lurzoruko gertuko azaleran ez izatea potentzial-diferentzia arriskutsurik, eta, era berean, akats-korronteak eta atmosferatik datozen deskarga-korronteak lurrera igarotzen uztea.

385. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan, itc-bt-27an, jasotzen da bainuontzia edo dutxa duten lokaletarako sailkapen bat, honen arabera:**

a) 3 bolumen mota.
b) 4 bolumen mota.
c) 5 bolumen mota.
d) 6 bolumen mota.

386. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (btee 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan, ITC-BT-27an, jasotzen da bainuontzia edo dutxa duten lokaletarako bolumenen sailkapen bat. 0 bolumena bainuontziaren edo dutxaren barruko aldeari dagokio, eta hormako ur-hargunearen inguruko plano sortzaile bertikalak mugatzen du:**

a) Difusorea mugitu badaiteke, 1,2 m-ko erradio batean edo dutxatuko den pertsonak okupatuko duen eremua ixten duen plano bertikala; edo dutxako difusorea finkoa bada, difusorearen inguruko 0,6 m-ko erradio batean.
b) Difusorea mugitu badaiteke, 1,5 m-ko erradio batean edo dutxatuko den pertsonak okupatuko duen eremua ixten duen plano bertikala; edo dutxako difusorea finkoa bada, difusorearen inguruko 0,6 m-ko erradio batean.
c) Difusorea mugitu badaiteke, 1,2 m-ko erradio batean edo dutxatuko den pertsonak okupatuko duen eremua ixten duen plano bertikala; edo dutxako difusorea finkoa bada, difusorearen inguruko 1 m-ko erradio batean.
d) Difusorea mugitu badaiteke, 1,5 m-ko erradio batean edo dutxatuko den pertsonak okupatuko duen eremua ixten duen plano bertikala; edo dutxako difusorea finkoa bada, difusorearen inguruko 1 m-ko erradio batean.

387. **Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (btee 02) onartzen duen 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege-Dekretuan, ITC-BT-27an, ezartzen ditu igerileku eta iturrietarako babes-neurri batzuk, bolumen edo eremu batzuk aintzat hartuta. zein dira eremu horiek?**

a) 0. eremua eta 1. eremua.
b) 2. eremua eta 3. eremua.
c) 0. eremua, 1. eremua eta 2. eremua.
d) 1. eremua, 2. eremua eta 3. eremua.

388. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuak lehendik zegoena ordezkatu zuen.**

a) Ez zegoen gai horri buruzko araudirik Errege-Dekretu horren aurretik.
b) 279/1999 Errege Dekretua, urtarrilaren 22koa, eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko Telekomunikazio-azpiegitura Komunak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.
c) 401/2003 Errege Dekretua, apirilaren 4koa, eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko Telekomunikazio-azpiegitura Komunak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.
d) 279/2006 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko Telekomunikazio-azpiegitura Komunak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.

389. **Telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunei buruzko espainiako lehenengo araudia 1998. urtean onartu zen:**

a) Uztailaren 11ko 3/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez.
b) Otsailaren 27ko 1/1998 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez.
c) Uztailaren 14ko 40/1998 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez.
d) Otsailaren 20ko 5/1998 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez.

390. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren aldaketa nagusiak egin dira hau onartuta:**

a) 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zerbitzu-jardueren eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko legera egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena.
b) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.
c) 1000/2010 Errege Dekretua, abuztuaren 5ekoa, nahitaezko bisatuari buruzkoa.
d) 5/1998 Legegintzako Errege Dekretua, otsailaren 27koa, telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunei buruzkoa.

391. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren lehenengo artikuluaren arabera, obra zibileko azpiegiturak nahikoa ahalmena izan behar dute:**

a) Gutxienez bi operadoreren sareak igarotzeko.
b) Gutxienez operadore baten sareak igarotzeko.
c) Operadore guztien sareak igarotzeko.
d) Ez da jasotzen alderdi horri buruzko ezer.

392. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, arau horren aplikazio-eremua izango da:**

a) Eraikin eta higiezinen multzo guztiak, jarraitutasuna izan nahiz ez, bizitegi-erabilerakoak izan nahiz ez, eta eraiki berriak izan nahiz ez.
b) Urtebete baino gehiago osorik edo zati bat alokatu diren eraikin guztiak, etxebizitza bakar bat dutenak izan ezik.
c) Eraikin guztiak.
d) a) eta b) aukerak.

393. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, eraikinen barnean telekomunikazio-sareak betetzeko:**

a) Beharrezkoa izango da dagokion proiektu teknikoa izatea.
b) Ez da izango beharrezkoa dagokion proiektu teknikoa izatea.
c) Beharrezkoa izango da dagokion proiektu teknikoa izatea, betiere zerbitzua ematen dieten bi etxebizitza badaude gutxienez.
d) Beharrezkoa izango da dagokion proiektu teknikoa izatea, betiere zerbitzua ematen dieten bi etxebizitza edo gehiago badaude, eta nukleo bakar batetik banatzen badira.

394. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, egikaritze-proiektu teknikoak dokumentu hauek izan behar ditu gutxienez:**

a) Memoria.
b) Memoria eta baldintzen plegua.
c) Memoria, planoak eta baldintzen plegua.
d) Memoria, planoak, baldintzen plegua eta aurrekontua.

395. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, jabearen betebeharra da:**

a) Proiektu teknikoa jaso eta gordetzea.
b) Proiektu teknikoa jaso, gorde eta transmititzea.
c) Proiektu teknikoa jaso, gorde, berritu eta transmititzea.
d) Ez dauka proiektu teknikoaren inguruko betebeharrik.

396. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren I. eranskinaren arabera, zer da «pau» terminoa?**

a) Erabiltzaileari arreta emateko proiektua.
b) Erabiltzailera egokitzeko proiektua.
c) Urbanizaziora sartzeko puntua.
d) Erabiltzailera sartzeko puntua.

397. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren I. eranskinaren arabera, etxebizitzen kasuan, zenbat hargune izan behar dituzte erabiltzaile bakoitzaren barneko sarea osatzen duten elementuek?**

a) Gela bakoitzeko bat, komunek eta trastelekuek izan ezik; gutxienez bi izan behar dira.
b) Gela bakoitzeko bat, komunak eta trastelekuak barne, gutxienez bi izan behar dira.
c) Gela bakoitzeko bat, komunek eta trastelekuek izan ezik; gutxienez hiru izan behar dira.
d) Gela bakoitzeko bat, komunak eta trastelekuak barne; gutxienez hiru izan behar dira.

398. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren I. eranskinaren arabera, batez ere lokal edo bulego gisa erabiltzeko eraikuntzen kasuan, oinplanoko banaketa definitu gabe dagoenean, solairu bakoitzari zerbitzua ematen dion erregistro sekundarioan zenbat banaketa-elementu jarri beharko dira zerbitzua emateko?**

a) Gutxienez PAU bat 25 m^2 edo frakzio bakoitzeko.
b) Gutxienez PAU bat 50 m^2 edo frakzio bakoitzeko.
c) Gutxienez PAU bat 100 m^2 edo frakzio bakoitzeko.
d) Ez dago gutxieneko kopururik.

399. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren I. eranskinaren arabera, eraikuntzako gela komunen kasuan, zenbat hargune izan behar dituzte barneko sarea osatzen duten elementuek?**

a) Ez da behar hargunerik.
b) Gela bakoitzeko 1.
c) Gela baten 50 m^2 bakoitzeko 1.
d) Gela baten 100 m^2 bakoitzeko 1.

400. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren II. eranskinaren arabera, zer da «riti» terminoa?**

a) Telekomunikazio-instalazioen beheko sarea.
b) Telekomunikazio-instalazioen barruko sarea.
c) Telekomunikazio-instalazioen beheko esparrua.
d) Telekomunikazio-instalazioen barruko esparrua.

401. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren III. eranskinaren arabera, zer da «rits» terminoa?**

a) Telekomunikazio-instalazioen goiko esparrua.
b) Seinaleko telekomunikazioen instalazioen esparrua.
c) Telekomunikazio-instalazioen goiko sarea.
d) Seinaleko telekomunikazioen instalazioen sarea.

402. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren III. eranskinaren arabera, zer da «ritu» terminoa?**

a) Telekomunikazio-instalazioen sare unitarioa.
b) Telekomunikazio-instalazioen esparru bakarra.
c) Telekomunikazio-instalazioen sare bakarra.
d) Telekomunikazio-instalazioen esparru bakarra.

403. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren II. eranskinaren arabera, zer da «bat» terminoa?**

a) Sarrera terminaleko oina.
b) Sarrera teknikoko oina.
c) Egokitze teknikoko oina.
d) Arretarako oina.

404. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren II. eranskinaren 3.1 kapituluan jasotzen denez, pare txirikordatuko kableen teknologiaren eskaera aurreikusiz, zenbat hargune beharko dira etxebizitzetarako?**

a) Hargune 1 etxebizitza bakoitzeko.
b) 2 hargune etxebizitza bakoitzeko.
c) 3 hargune etxebizitza bakoitzeko.
d) 4 hargune etxebizitza bakoitzeko.

405. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren II. eranskinaren 3.1 kapituluan jasotzen denez, pare txirikordatuko kableen teknologiaren eskaera aurreikusiz, batez ere lokal komertzialak eta bulegoak izateko eraikinetako lokal komertzial eta bulegoetan, zenbat hargune beharko dira?**

a) Bulego eta lokalen oinplanoko banaketa definituta dagoenean, hargune 1 jarriko da lokal edo bulego bakoitzeko; eta lokal edo bulego gisa erabiliko den azalera bakarrik denean ezaguna, hargune 1 jarriko da 100 m^2 erabilgarriko, gutxienez.

b) Bulego eta lokalen oinplanoko banaketa definituta dagoenean, 2 hargune jarriko dira lokal edo bulego bakoitzeko; eta lokal edo bulego gisa erabiliko den azalera bakarrik denean ezaguna, 2 hargune jarriko dira 50 m^2 erabilgarriko, gutxienez.

c) Bulego eta lokalen oinplanoko banaketa definituta dagoenean, 2 hargune jarriko dira lokal edo bulego bakoitzeko; eta lokal edo bulego gisa erabiliko den azalera bakarrik denean ezaguna, hargune 1 jarriko da 33 m^2 erabilgarriko, gutxienez.

d) Ez dago gutxieneko kopururik.

406. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren III. eranskinaren 5.5.1 kapituluaren arabera, esparruen neurriei dagokienez, 10 pau bitarteko «ritu»rako gutxieneko neurriak hauek dira:**

a) 2.000 mm altuera x 1.000 mm zabalera x 500 mm sakonera.

b) 2.000 mm altuera x 1.500 mm zabalera x 500 mm sakonera.

c) 2.000 mm altuera x 2.000 mm zabalera x 500 mm sakonera.

d) 2.300 mm altuera x 2.000 mm zabalera x 2.000 mm sakonera.

407. **Eraikinen barnean telekomunikazio-zerbitzuetarako sarbidea izateko telekomunikazio-azpiegitura komunak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen (ICT-11) martxoaren 11ko 246/2011 Errege-Dekretuaren III. eranskinaren eraikuntza-ezaugarriei buruzko 5.5.2 kapituluaren arabera, instalazioen esparruek, «ritmu»k izan ezik, hau izan beharko dute:**

a) Karga elektrostatikoak disipatuko dituen zoladura zurruna.

b) Karga elektrostatikoak disipatuko dituen zoladura zurruna eta behar adinako sostengu-ahalmeneko hormak eta sabaia.

c) Karga elektrostatikoak disipatuko dituen zoladura zurruna, behar adinako sostengu-ahalmeneko hormak eta sabaia eta lur-konexioko sistema.

d) Karga elektrostatikoak disipatuko dituen zoladura zurruna, behar adinako sostengu-ahalmeneko hormak eta sabaia, lur-konexioko sistema eta larrialdietarako seinaleak.

408. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege-Dekretuaren obren segimenduaren dokumentazioari buruzko II. eranskinean, obren kalitatearen kontrolari dagokionez, hau adierazten da:**

a) Obra egikaritzeko zuzendariak jasoko du egindako kontrolen dokumentazioa.
b) Produktuen hornitzaileek lehenago adierazitako produktuen dokumentazioa emango die eraikitzaileari, eta hark obraren zuzendariari eta obra egikaritzeko zuzendariari emango dio, eta, halaber, erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak eta bermeak ere, hala dagokionean.
c) Eraikitzaileak obra-unitate bakoitzaren kalitatearen inguruan prestatutako dokumentazioak balio izan dezake, obra egikaritzeko zuzendariak horretarako baimena ematen badu obraren kalitatea zaintzeko prozesuaren barruan.
d) Aurreko guztiak.

409. **Eraikuntzaren kode teknikoa arautzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege-Dekretuaren obren segimenduaren dokumentazioari buruzko II. eranskinaren arabera, obra bukatutakoan, kontrolaren segimenduaren inguruko dokumentazioa dagokion elkargo profesionalera edo administraziora eraman beharko du:**

a) Sustatzaileak.
b) Obraren zuzendariak.
c) Obra egikaritzeko zuzendariak.
d) Eraikitzaileak.

410. **Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Errege Dekretuaren 6. artikuluan jasotzen denez, obrak hasi aurretik eta obren kalitatea kontrolatzeko prozesua eraginkortasunez koordinatzea helburu hartuta:**

a) Sustatzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari.
b) Eraikitzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari.
c) Eraikitzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio sustatzaileari.
d) Sustatzaileak egikaritze-proiektuaren ale oso bat helaraziko dio eraikitzaileari.

411. **Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Errege Dekretuaren 13. artikuluaren arabera, obrak amaitu ondoren, obrak egikaritze proiektuaren kalitatezko espezifikazio guztiak betetzen dituela bermatuko du dokumentu ofizial honek:**

a) Kalitate-kontroleko liburua.
b) Kalitate-kontroleko ziurtagiria.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

412. **Zer lege-arauk ezartzen ditu laneko baldintzetatik eratorritako arriskuen aurrean babesteko maila egokia ezartzeko oinarrizko berme eta erantzukizunak, eta izan zen eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren jatorria?**

a) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentziokoa.
b) 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikingintzaren Antolamenduari buruzkoa.
c) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
d) 2/1995 Legea, uztailaren 11koa, Laneko Segurtasunari buruzkoa.

413. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 1.2 artikuluan jasotzen denez, araudi espezifikoaren erregulazioa dela eta, ez zaie aplikatuko hauei:**

a) Aire zabaleko erauzketa-industriei.
b) Aire zabaleko erauzketa-industriei eta lurpeko edo zundaketa bidezko erauzketa-industriei.
c) Aire zabaleko erauzketa-industriei, lurpeko edo zundaketa bidezko erauzketa-industriei eta harria erauzteko industriari.
d) Beti aplikatu behar da eraikuntzaren eremuan.

414. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 2 artikuluaren arabera, «eraikuntza-obra edo obra» izango da:**

a) Eraikuntza-lanak egiten diren edozein obra publiko.
b) Eraikuntza-lanak egiten diren edozein obra pribatu.
c) Eraikuntza-lanak egiten diren edozein obra publiko nahiz pribatu.
d) Eraikuntza-lanak edo ingeniaritza zibilekoak egiten diren edozein obra publiko nahiz pribatu.

415. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 2 artikuluaren arabera, «arrisku bereziko lanak» dira:**

a) Langileen segurtasunerako larritasun bereziko arriskua duten lanak.
b) Langileen osasunerako larritasun bereziko arriskua duten lanak.
c) Langileen segurtasunerako eta osasunerako larritasun bereziko arriskua duten lanak.
d) Langileen bizitzarako, segurtasunerako eta osasunerako larritasun bereziko arriskua duten lanak.

416. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 2 artikuluak definitzen du segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea obra egikaritzeko fasean:**

a) Zuzendaritza fakultatiboan dagoen teknikari eskumenduna izango da; sustatzaileak izendatuko du, eta segurtasun- eta osasun-arloko egitekoak egingo ditu obretan.
b) Zuzendaritza fakultatiboan dagoen nahiz ez dagoen teknikari eskumenduna izango da; sustatzaileak izendatuko du, eta segurtasun- eta osasun-arloko egitekoak egingo ditu obretan.
c) Zuzendaritza fakultatiboan dagoen teknikari eskumenduna izango da; eraikitzaileak izendatuko du, eta segurtasun- eta osasun-arloko egitekoak egingo ditu obretan.
d) Zuzendaritza fakultatiboan dagoen teknikari eskumenduna izango da; eraikitzaileak izendatuko du, eta segurtasun- eta osasun-arloko egitekoak egingo ditu obretan.

417. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 2.2 artikuluaren arabera, kontratista eta azpikontratista, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian aurreikusten diren xedeetarako, izango dira:**

a) Langileak.
b) Enpresaburuak.
c) Arduradun teknikoak.
d) Egikaritzearen arduradunak.

418. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 2.3 artikuluaren arabera, sustatzaileak zuzenean kontratatzen baditu langile autonomoak obra nahiz obrako lan batzuk egiteko, izango da:**

a) Langilea
b) Enpresaburua.
c) Arduradun teknikoa.
d) Kontratista.

419. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 3.1 artikuluan zehazten denez, zenbait proiektugilek egiten badute proiektua, sustatzaileak:**

a) Proiektuaren arduradun bakar bat izendatuko du.
b) Segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat izendatuko du obrako proiektua egiten den artean.
c) Segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egikaritzen den artean.
d) Segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat izendatuko du obrako proiektua egiten den artean eta segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat obra egikaritzen den artean.

420. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 3.2 artikuluan zehazten denez, obra egikaritzen enpresa batek baino gehiagok eta langile autonomoek esku hartzen badute, sustatzaileak, lanak hasi aurretik edo inguruabar hori egiaztatu bezain laster:**

a) Proiektuaren arduradun bat izendatuko du.
b) Proiektuaren arduradun bat izendatuko du: kontratista orokor bat edo langile autonomoen arduradun bat.
c) Segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egikaritzen den artean.
d) Segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat izendatuko du obra egikaritzen hasten den arte.

421. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 3.3 artikuluaren arabera, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatzen denean obra-proiektua egiteko fasean eta obra egikaritzeko fasean:**

a) Pertsona berak egin ditzake biak.
b) Ezin ditu egin biak pertsona berak.
c) Pertsona berak egin ditzake biak, baldin eta sustatzaileak ez baditu lortzen bi teknikari espezifiko izendapen horietarako.
d) Pertsona berak egin ditzake biak, eraikitzaileak beharrezkotzat jotzen badu.

422. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 3.4 artikuluan zehazten da segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatzeak:**

a) Ez du salbuesten sustatzailea bere erantzukizunetatik.
b) Sustatzailea bere erantzukizunetatik salbuesten du.
c) Sustatzailea bere erantzukizunetatik salbuesten du, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileek ziurtatzen badute.
d) Sustatzailea bere erantzukizunetatik salbuesten du baldin eta segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat badago proiekturako eta beste bat obra egikaritzeko faserako.

423. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, sustatzaileak betebeharra du proiektua egiteko fasean segurtasun- eta osasun-azterketa bat edo obra-proiektuetan segurtasun- eta osasun-arloko oinarrizko azterketa bat egiteko, betiere proiektuaren ezaugarrien arabera:**

a) Inoiz ere ez.
b) Beti.
c) Obran arrisku berezien inguruko baldintza batzuk daudenean bakarrik.
d) Kasu batzuetan ez da beharrezkoa, baina sustatzaileak beti egitea erabaki dezake.

424. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, sustatzaileak betebeharra du obra-proiektuetan segurtasun- eta osasun-arloko azterketa bat egiteko baldin eta:**

a) Proiektuan barne hartutako esleipen bakoitza egikaritzeko aurrekontua 75 milioi pezetakoa (450.759,08€) edo gehiagokoa bada.
b) Proiektuan barne hartutako esleipen bakoitza egikaritzeko aurrekontua 75 milioi pezetakoa (450.759,08€) edo gehiagokoa bada; iraupena 30 lanegunetik gorakoa izatea aurreikusten bada, eta uneren batean 20 langile baino gehiago ari badira lanean aldi berean.
c) Proiektuan barne hartutako esleipen bakoitza egikaritzeko aurrekontua 75 milioi pezetakoa (450.759,08€) edo gehiagokoa bada; iraupena 30 lanegunetik gorakoa izatea aurreikusten bada, eta uneren batean 20 langile baino gehiago ari badira lanean aldi berean; esku-lanaren bolumen zenbatetsia 500etik gorakoa bada, betiere kontuan izanda langile guztiek obran lan egindako egunen batura dela.
d) Proiektuan barne hartutako esleipen bakoitza egikaritzeko aurrekontua 75 milioi pezetakoa (450.759,08€) edo gehiagokoa bada; iraupena 30 lanegunetik gorakoa izatea aurreikusten bada, eta uneren batean 20 langile baino gehiago ari badira lanean aldi berean; esku-lanaren bolumen zenbatetsia 500etik gorakoa bada, betiere kontuan izanda langile guztiek obran lan egindako egunen batura dela; tunel, galeria, lurrazpiko hoditeriak eta presak egiteko obrak badira.

425. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaile bat dagoenean obra-proiektua egiteko fasean:**

a) Hari egokituko zaio beti azterketa hori egitea.
b) Hari egokituko zaio azterketa hori eginaraztea.
c) Hari egokituko zaio azterketa hori egitea edo eginaraztea.
d) Beste teknikari baten esku utzi ahal izango du azterketa hori egitea eta haren erantzukizuna.

426. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, segurtasun- eta osasun-arloko azterketak eduki hauek izan behar ditu gutxienez:**

a) Memoria eta aurrekontua.
b) Memoria, planoak eta aurrekontua.
c) Memoria, baldintzen plegua, planoak, neurketak eta aurrekontua.
d) Memoria, baldintzen plegua, planoak, neurketak, aurrekontua eta kalitate-kontrola.

427. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, segurtasun- eta osasun-arloko azterketari dagokionez, aurrekontua zehazten denean definitu beharko da:**

a) Obra osorako aurreikusten den gastu multzoa.
b) Segurtasun- eta osasun-arloko azterketa aplikatu eta egikaritzeko aurreikusten den gastu multzoa.
c) Obra guztirako eta segurtasun- eta osasun-arloko azterketa aplikatu eta egikaritzeko aurreikusten den gastu multzoa.
d) Ez da beharrezkoa aurrekontu bat definitzea.

428. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, segurtasun- eta osasun-arloko azterketa aplikatzeari dagokionez, planoak definitzen direnean, hauek jaso beharko dituzte gutxienez:**

a) Memorian definitutako prebentzio-neurriak ahalik eta ondoena definitu eta ulertzeko behar diren grafiko eta eskemak.
b) Memorian definitutako obra egikaritzeko behar diren grafiko eta eskemak.
c) Beharrezko grafiko eta eskemak, obrako langileentzat egoera arriskutsuak izan badaitezke bakarrik.
d) Obrako istripu-hipotesietarako beharrezko grafiko eta eskemak.

429. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 7. artikuluaren arabera, segurtasun- eta osasun-arloko azterketa edo oinarrizko azterketa aplikatzeari dagokionez, laneko segurtasun- eta osasun-plan bat egin beharko du honek:**

a) Sustatzaileak.
b) Obra egikaritzearen zuzendariak.
c) Segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak.
d) Kontratistak.

430. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 7. artikuluaren arabera, laneko segurtasun- eta osasun-planean:**

a) Kontratista bakoitzak segurtasuneko eta osasuneko azterketan edo oinarrizko azterketan dauden aurreikuspenak aztertu, ikertu, garatu eta osatu behar ditu, obra egikaritzeko darabilen sistemaren arabera.
b) Kontratista bakar batek segurtasuneko eta osasuneko azterketan edo oinarrizko azterketan dauden aurreikuspenak aztertu, ikertu, garatu eta osatu behar ditu, obra egikaritzeko darabilen sistemaren arabera.
c) Kontratista bakoitzak segurtasuneko eta osasuneko azterketan edo oinarrizko azterketan dauden aurreikuspenak aztertu, ikertu, garatu eta osatu behar ditu, obrako lan bakoitzerako espezifikoki jasotzen den moduan.
d) Kontratista bakar batek segurtasuneko eta osasuneko azterketan edo oinarrizko azterketan dauden aurreikuspenak aztertu, ikertu, garatu eta osatu behar ditu, obrako lan bakoitzerako espezifikoki jasotzen den moduan.

431. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 7. artikuluaren arabera, laneko segurtasun- eta osasun-plana onartu beharko du:**

a) Obra egikaritzeko zuzendariak, obra hasi baino lehenago.
b) Obraren kontratistak, obra hasi baino lehenago.
c) Obraren sustatzaileak, obra hasi baino lehenago.
d) Obraren egikaritze aldiko segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak, obra hasi baino lehenago.

432. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 7.2 artikuluan jasotzen denez, ez denean beharrezkoa segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat izendatzea, haren funtzioak hartuko ditu honek:**

a) Sustatzaileak.
b) Kontratistak.
c) Zuzendaritza fakultatiboak.
d) Obra egikaritzeko zuzendariak.

433. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, obra egikaritzeko aldiko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailearen funtzioak izango dira hauek:**

a) Prebentzio- eta segurtasun-printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea.
b) Obrako jarduerak koordinatzea, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek eta langile autonomoek, modu koherente eta arduratsuan aplika ditzaten segurtasun- eta osasun-arloko prebentzio-neurriak.
c) Behar diren neurriak hartzea, baimendutako pertsonak bakarrik sar daitezen obran.
d) Aurreko guztiak.

434. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 13. artikuluan jasotzen denez, segurtasun- eta osasun-plana kontrolatu eta haren segimendua egiteko, lan-zentro bakoitzean izan beharko da:**

a) Agindu eta asistentzien liburua.
b) Segurtasunaren eta osasunaren arloko gertakarien liburua.
c) Segurtasun- eta osasun-planaren onarpena.
d) Sustatzaileak izendatu beharko du obrako segurtasun- eta osasun-koordinatzailea.

435. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 13. artikuluaren arabera, gertakarien liburua emango du honek:**

a) Sustatzaileak.
b) Kontratistak.
c) Zuzendaritza fakultatiboak.
d) Segurtasun- eta osasun-plana onartu duen teknikariari dagokion elkargo profesionalak.

436. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 13. artikuluaren arabera, gertakarien liburua:**

a) Obran eduki behar da beti, eta kontratistak eduki behar du.
b) Obran eduki behar da beti, eta zuzendaritza fakultatiboak eduki behar du.
c) Obran eduki behar da beti, eta segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak eduki behar du, edo, koordinatzaile bat izendatzea beharrezkoa ez denean, zuzendaritza fakultatiboak eduki behar du.
d) Ez da nahitaezkoa beti obran edukitzea, eta sustatzaileak eduki behar du.

437. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 14. artikuluaren arabera, obra egikaritzeko faseko segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak edo zuzendaritza fakultatiboko beste edozein pertsonak obra geldiarazi ahalko du:**

a) Segurtasun- eta osasun-neurriak ez direla betetzen ikusita, sustatzailea ohartarazi ondoren, langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku larri eta berehalakoa dagoela zehazten bada.
b) Segurtasun- eta osasun-neurriak ez direla betetzen ikusita, kontratista ohartarazi ondoren eta gertakarien liburuan horren berri jaso ondoren, langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku larri eta berehalakoa dagoela zehazten bada.
c) Ikusten bada ez dela betetzen segurtasuneko eta osasuneko azterketaren edo oinarrizko azterketaren edukiren bat.
d) Beharrezkotzat jotzen duen guztietan eta aurrez jakinarazi gabe.

438. **Eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege-Dekretuaren 17. artikuluaren arabera, beharrezkoa izango da segurtasuneko eta osasuneko azterketa edo oinarrizko azterketa sartzea obra egikaritzeko proiektuan, honetarako:**

a) Dagokion elkargo profesionalaren bisaturako.
b) Udal-lizentzia eta administrazio publikoek egin beharreko gainerako izapideak igortzeko.
c) Aurreko biak.
d) Aurrekoetako bat ere ez.

439. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren xedea da eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren araubide juridikoa ezartzea, hauek sustatzeko, ordena honetan:**

a) Beste balorazio-mota batzuk, haien prebentzioa eta berrerabilpena.
b) Haien prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena.
c) Haien prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena eta beste balorazio mota batzuk.
d) Haiek murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea.

440. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuan nola definitzen da «eraikuntza- eta eraispen-hondakina»?**

a) Eraikuntzako edo eraispeneko obra batean sortzen den edozein substantzia edo objektu.
b) Eraikuntzako edo eraispeneko obra batean sortzen den eta berrerabil edo birzikla daitekeen edozein substantzia edo objektu.
c) Eraikuntzako obra batean sortzen diren substantzia edo objektuak.
d) Eraispeneko obra batean sortzen diren substantzia edo objektuak.

441. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuan nola definitzen da «hondakin geldoa»?**

a) Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko funtsezkorik izaten ez duen hondakin ez-arriskutsua.
b) Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko funtsezkorik izaten ez duen hondakin ez-arriskutsua, ez dena disolbagarria ez erregaia, eta ez duena erreakzio fisiko eta kimikorik, ezta bestelakorik ere.
c) Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko funtsezkorik izaten ez duen hondakin ez-arriskutsua, ez dena disolbagarria ez erregaia, eta ez duena erreakzio fisiko eta kimikorik, ezta bestelakorik ere, ez da biodegradagarria, ez du eragin kaltegarririk harekin kontaktuan jartzen diren beste materia batzuetan, eta, ondorioz, ez dio kalterik egiten ingurumenari.
d) Eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko funtsezkorik izaten ez duen hondakin ez-arriskutsua, ez dena disolbagarria ez erregaia, eta ez duena erreakzio fisiko eta kimikorik, ezta bestelakorik ere, ez da biodegradagarria, ez du eragin kaltegarririk harekin kontaktuan jartzen diren beste materia batzuetan, eta, ondorioz, ez dio kalterik egiten ingurumenari eta gizakien osasunari.

442. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren 2. artikuluan jasotzen denez, eraikuntza- eta eraispen-obratzat jotzen da:**

a) Ondasun higiezin bat eraiki edo eraistea.
b) Ondasun higiezin bat eraiki edo eraistea, edo lursailaren edo lurpearen forma edo substantzia aldatuko duten obrak egitea.
c) Ondasun higiezin bat eraiki, zaharberritu, konpondu edo eraistea, edo lursailaren edo lurpearen forma edo substantzia aldatuko duten obrak egitea.
d) Ondasun higiezin bat eraiki, konpondu, zaharberritu, hedatu, aldatu, edo eraistea, edo lursailaren edo lurpearen forma edo substantzia aldatuko duten obrak egitea.

443. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren 2. artikuluan jasotzen denez, etxeko eraikuntza- edo konponketa-obratzat jotzen da:**

a) Etxe partikular, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezin bat eraikitzeko edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitzeko gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketak egingo ez dituena eta titulatutako profesionalek sinatutako proiekturik behar ez duena.
b) Etxe partikular, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezin bat eraikitzeko edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitzeko gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketak egingo ez dituena eta titulatutako profesionalek sinatutako proiektua behar duena.
c) Etxe partikular, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezin bat eraikitzeko edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitzeko gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketarik egingo ez duena eta titulatutako profesionalek sinatutako proiekturik behar ez duena.
d) Etxe partikular, denda, bulego edo zerbitzuen sektoreko higiezin bat eraikitzeko edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitzeko gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketarik egingo ez duena eta titulatutako profesionalek sinatutako proiektua behar duena.

444. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren arabera, «eraikuntza- eta eraisketa-hondakinen ekoizlea» da hau:**

a) Sustatzailea.
b) Proiektugilea.
c) Obra-zuzendaritza.
d) Eraikitzailea.

445. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren arabera, «eraikuntza- eta eraispen-hondakinen edukitzailea» da hau:**

a) Sustatzailea.
b) Proiektugilea.
c) Obra-zuzendaritza.
d) Eraikitzailea.

446. **Eraikuntza- eta eraispen- hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen denez, beharrezkoa da eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren azterketa bat sartzea hemen:**

a) Oinarrizko proiektuan.
b) Egikaritze-proiektuan.
c) Obra-amaieran.
d) Aurreko guztietan.

447. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen denez, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren azterketan jaso behar dira, gutxienez:**

a) Sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kantitatearen gutxi gorabeherakoa; proiektuko preskripzio tekniko partikularren pleguko baldintzak; kudeaketan aurreikusitako gastuaren balorazioa.
b) Sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kantitatearen gutxi gorabeherakoa; hondakinak biltegiratzeko, maneiatzeko eta banatzeko aurreikusitako instalazioen planoak; proiektuko preskripzio tekniko partikularren pleguko baldintzak; kudeaketan aurreikusitako gastuaren balorazioa.
c) Sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kantitatearen gutxi gorabeherakoa; hondakinak sortzea saihesteko neurriak; hondakinak nola berrerabili, balioztatu edo deuseztatuko diren; hondakinak obran banatzeko neurriak; hondakinak biltegiratzeko, maneiatzeko eta banatzeko aurreikusitako instalazioen planoak; proiektuko preskripzio tekniko partikularren pleguko baldintzak; kudeaketan aurreikusitako gastuaren balorazioa.
d) Sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kantitatearen gutxi gorabeherakoa; hondakinak sortzea saihesteko neurriak; hondakinak nola berrerabili, balioztatu edo deuseztatuko diren; hondakinak obran banatzeko neurriak; hondakinak biltegiratzeko, maneiatzeko eta banatzeko aurreikusitako instalazioen planoak; proiektuko preskripzio tekniko partikularren pleguko baldintzak; kudeaketan aurreikusitako gastuaren balorazioa; hondakinen kudeaketarako segurtasun- eta osasun-azterketa; hondakinen kudeaketaren kalitate-kontrola.

448. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege-Dekretuaren 11. artikuluan jasotzen denez, hondakinak hondakindegian uztea debekatuta dago:**

a) Inoiz ere ez.
b) Beti.
c) Hondakin ez-kutsatzaileak badira bakarrik.
d) Hondakinei ez bazaie egin tratamenduren bat.

449. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretua onartzeko xede nagusia hau izan zen:**

a) EAEn eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko araubide juridikoa ezartzea.
b) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko 105/2008 EDa garatzea.
c) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren beste balorazio mota batzuk eta haien prebentzioa eta berrerabilpena sustatzeko.
d) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen gaikako bilketa egiteko.

450. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuak helburu hauek ditu:**

a) Eraikuntza jasangarria garatzen laguntzea, nahiz horrek eraikinen kalitatea eta funtzionaltasuna kaltetu.

b) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sailkapen egokia bermatzea; eraikuntza jasangarria garatzen laguntzea, eraikinen kalitatea eta funtzionaltasuna kaltetu gabe.

c) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ezabapena minimizatzea; eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sailkapen egokia bermatzea; eraikuntza jasangarria garatzen laguntzea, eraikinen kalitatea eta funtzionaltasuna kaltetu gabe.

d) Ingurumen-kondizio seguruetan, eraikuntza- eta eraispen-materialen berrerabilpena sustatzea; ingurumen-kondizio seguruetan, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen birziklapena eta beste balorizazio modu batzuk -ordena horretan- sustatzea; eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ezabapena minimizatzea; eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ezabapen egokia bermatzea; eraikuntza jasangarria garatzen laguntzea, eraikinen kalitatea eta funtzionaltasuna kaltetu gabe.

451. **Eraikuntza- eta eraispen- hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 4 artikuluaren arabera, hirigintza-lizentziarik behar ez duten obren kasuan:**

a) Ez da sartu beharko hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko ezer.

b) Hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruzko txosten bat sartu beharko da.

c) Hondakinen ekoizpenerako eta kudeaketarako aurrekontu bat sartu beharko da proiektuan.

d) Obraren oinarrizko proiektuan eta gauzatze-proiektuan hondakinen eta eraikuntza- eta eraispen-materialen kudeaketari buruzko azterketa bat sartu beharko da.

452. **Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, hirigintza-lizentziarik behar ez duten obren kasuan, eta hondakinaren ekoizlea administrazio publikoa denean, hondakinen kudeaketari buruzko azterketa bat egin beharko da, eta honek ikuskatu beharko du:**

a) Administrazio publikoak berak.

b) Beste administrazio publiko batek.

c) Dagokion bulego teknikoak.

d) Ez da beharrezkoa hondakinen kudeaketari buruzko azterketarik.

453. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 8. artikuluan jasotzen denez, obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak frakzio hauetan bereizi behar dira:**

a) Hormigoia; hormigoi-blokeak, adreiluak, teilak eta zeramikazko materialak; metala; zura; beira; plastikoa; papera eta kartoia; sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak.

b) Hormigoia; adreiluak, teilak eta zeramikazko materialak; metala; zura; beira; plastikoa; papera eta kartoia; sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak.

c) Hormigoia; metala; zura; beira; plastikoa; papera eta kartoia; sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak.

d) Hormigoia; metala; zura; beira; plastikoa; papera eta kartoia.

454. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 8. artikuluan jasotzen denez, obra handien kasuan, hormigoiari dagokion eraikuntza- eta eraispen-hondakinaren frakzioa bereizi beharko da obra osorako aurreikusitako kantitateak hau gainditzen duenean:**

a) 5 t.
b) 10 t.
c) 25 t.
d) Kasu guztietan.

455. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 8. artikuluan jasotzen denez, obra handien kasuan, metalari dagokion eraikuntza- eta eraispen-hondakinaren frakzioa bereizi beharko da obra osorako aurreikusitako kantitateak hau gainditzen duenean:**

a) 5 t.
b) 10 t.
c) 25 t.
d) Kasu guztietan.

456. **ERaikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 8. artikuluren arabera, obra handien kasuan, plastikoari dagokion eraikuntza- eta eraispen-hondakinaren frakzioa bereizi beharko da obra osorako aurreikusitako kantitateak hau gainditzen duenean:**

a) 0,25 t.
b) 0,5 t.
c) 1 t.
d) Kasu guztietan.

457. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, obra handien kasuan, paperari eta kartoiari dagokion eraikuntza- eta eraispen-hondakinaren frakzioa bereizi beharko da obra osorako aurreikusitako kantitateak hau gainditzen duenean:**

a) 0,25 t.
b) 0,5 t.
c) 1 t.
d) Kasu guztietan.

458. **Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege-Dekretuaren 8. artikuluan jasotzen denez, obra handietan, arriskutsutzat jotzen diren hondakinak:**

a) Gainerako hondakinetatik bereizi behar dira, tratamendu egokia emateko.
b) Obran tratatu beharko dira, gainerako hondakinetatik bereizi ondoren.
c) Obran tratatu beharko dira, gainerako hondakinetatik bereizi aurretik.
d) Ez dira inoiz manipulatu behar.

459. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, eraikuntza-unitate bat edo eraikuntza bat hirigintzara moldatutakoa dela jotzen da:**

a) Zoruari buruz indarrean dagoen legediaren arabera antolamendutik kanpo ez dagoenean, eta indarrean dagoen plangintzaren arabera lagapen bati lotuta ez dagoenean; hala, ez da beharrezkoa erabat edo partzialki eraistea hornidura komunitario primarioak egiteko, edo hirigintzako planeamenduan definitutako zirkulaziorako edo oinezkoentzako bideak ireki edo hedatzeko

b) Oin berriko eraikuntza bat egiteko ordenantza bete ez arren, erabat edo partzialki eraitsi beharreko eraikuntza gisa aipatuta ez dagoenean plangintzan, helburuekin bateragarria ez delako.

c) Aurreko kasuetako edozeinetan.

d) Aurreko kasu bakar batean ere ez.

460. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, finantziazioa kualifikatua zehazteko, eta higiezinen kokapenaren arabera, birgaitzeko jarduketa babestuak jo ahal izango dira:**

a) Birgaitze osotzat edo birgaitze partzialtzat.

b) Birgaitze osotzat, birgaitze partzialtzat edo birgaitze puntualtzat.

c) Birgaitze integratutzat edo birgaitze isolatutzat.

d) Birgaitze integratutzat, birgaitze partzialtzat edo birgaitze isolatutzat.

461. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitza-erabilera nagusitzat duten eraikuntza-unitateetako birgaitzeko jarduketak joko dira jarduketa babestutzat, besteak beste, egiaztatzen denean:**

a) Birgaitu beharreko eraikinek 50 urte baino gehiago dituztela, edozein kasutan.

b) Birgaitu beharreko eraikinek 20 urte baino gehiago dituztela, edozein kasutan.

c) Birgaitu beharreko eraikinek 10 urte baino gehiago dituztela, edozein kasutan.

d) Birgaitu beharreko eraikinek 10 urte baino gehiago dituztela, ondoko kasuetan izan ezik: etxebizitzak minusbaliatuek erabiltzeko egokitzean, gas naturala instalatzen denean edota obrak beharrezkoak direnean instalazioak indarrean dagoen araudi tekniko berriari egokitzeko (obrak egikaritzeko administrazio-agindu bat egon behar da).

462. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, birgaitzeko eraikuntzako esku-hartzeak talde hauetan sailkatzen dira:**

a) Handitzerik gabeko eraikuntzako esku-hartzeak, handitzea ekarriko duten eraikuntzako esku-hartzeak eta bitariko esku-hartzeak.

b) Eraisteko esku-hartzeak, handitzerik gabeko eraikuntzako esku-hartzeak, handitzea ekarriko duten eraikuntzako esku-hartzeak eta bitariko esku-hartzeak.

c) Oin berriko eraikuntzak sortzeko esku-hartzeak, eraisteko esku-hartzeak, handitzerik gabeko eraikuntzako esku-hartzeak, handitzea ekarriko duten eraikuntzako esku-hartzeak eta bitariko esku-hartzeak.

d) Oin berriko eraikuntzak sortzeko esku-hartzeak, eraisteko esku-hartzeak, handitzerik gabeko eraikuntzako esku-hartzeak eta handitzea ekarriko duten eraikuntzako esku-hartzeak.

463. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, esku-hartze batean berariazko arkitektura-baliorik ez duen jatorrizko eraikuntza bat eraisten bada eta solido inguratzaile berria bat badator jatorrizkoarekin, lur eta espazio berean kokatzen bada eta solairu guztietan azalera berdina badu, hau izango da eusku-hartzea:**

a) Ordezkatzea.
b) Berreraikitzea.
c) Sendotzea.
d) Berriztatzea.

464. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, eraikuntzako zer esku-hartze egiten da arkitekturaren ikuspegitik berariazko balioak dituela-eta hiri-ehunean berebiziko garrantzia duen eraikin edo instalazio batean?**

a) Zaharberritze zientifikoa.
b) Zaharberritze kontserbatzailea.
c) Berriztatzea.
d) Zaintzea eta apaintzea.

465. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, zaharberritze zientifikoari esker:**

a) Eranskin itsusgarriak ezaba daitezke, baina inoiz ere ez dira sendotzen egitura-elementuak.
b) Berreskuratu ezin diren zatiak ordezkatuz sendotu daitezke, egitura-elementuen (sostengu-hormak, forjatuak eta gangak, eskailerak eta estalkiak) kokapena edo kotak aldatu gabe.
c) Egoera txarrean dauden egitura-elementuak sendotu daitezke eta, beharrezkoa denean, ordezkatu. Eraikuntzaren zati handi batean forjatuen kotak aldatzeko aukera izango da.
d) Kanpoko fatxadak zaharberritu daitezke; baoak ireki ahal izango dira, betiere osaketaren batasuna hausten ez bada.

466. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, eraikin baten edozein elementu inpermeabilizatzeko obrak zer motatako esku-hartzea dira?**

a) Sendotzea.
b) Zaintzea eta apaintzea.
c) Berriztatzea.
d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

467. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitza batek izan behar ditu:**

a) Bizitzeko egoki den espazio bat, zeinak sukaldea, ohe bateko logela bat eta komun bat hartuko baitu barne.
b) Bizitzeko egoki den espazio bat, zeinak sukaldea, bi oheko logela bat eta komun bat hartuko baitu barne.
c) Bizitzeko egoki diren bi espazio berezi gutxienez, zeinek sukaldea, jangela, egongela, bi oheko logela bat eta komun bat hartuko baitituzte barne.
d) Bizitzeko egoki diren hiru espazio berezi gutxienez; batek sukaldea eta jangela hartuko ditu; beste batek, egongela; eta, hirugarrenak, bi oheko logela bat eta komun bat.

468. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitza bateko komunak hauek izan behar ditu gutxienez:**

a) Komuna eta konketa.
b) Komuna, konketa eta dutxa.
c) Komuna, konketa eta bainuontzia.
d) Komuna, konketa, bideta eta dutxa.

469. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitzen gutxieneko bizigarritasun-baldintzei dagokienez, bizitzeko egoki diren espazioetako argiztapenak honelakoa izan behar du:**

a) Zuzenean kanpoaldera jotzen duten kristalezko irekiuneak bakarrik izan behar dituzte.
b) Zuzenean kalera jotzen duten kristalezko irekiuneak bakarrik izan behar dituzte, komunak, sukaldeak eta despentsak izan ezik. Arkitekturari dagokionez hori lortzea ezinezkoa denean, espazio horietako bat argia duen beste baten bidez edo eskailera-begiaren bidez argitu ahal izango da, betiere horri nahikoa argi iristen zaionean zenitalki edo galeria edo antzeko beste espazioren baten bidez.
c) Zuzenean kalera jotzen duten kristalezko irekiuneak bakarrik izan behar dituzte, komunak, sukaldeak eta despentsak izan ezik. Arkitekturari dagokionez hori lortzea ezinezkoa denean, espazio horietako bat beste baten bidez edo galeria edo antzeko beste espazioren baten bidez argitu ahal izango da, baina inoiz ere ez eskailera-begiaren bidez.
d) Zuzenean kalera jotzen duten kristalezko irekiuneak bakarrik izan behar dituzte, komunak eta despentsak izan ezik. Arkitekturari dagokionez hori lortzea ezinezkoa denean, espazio horietako bat beste baten bidez edo galeria edo antzeko beste espazioren baten bidez argitu ahal izango da, baina inoiz ere ez eskailera-begiaren bidez.

470. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitzen gutxieneko bizigarritasun-baldintzei dagokienez, zuzenean aireztatzen ez diren komunak:**

a) Beste gela baten bidez aireztatu ahal izango dira, betiere gela horrek zuzenean kanpoaldera ematen duten leihoak baditu.
b) Ezin izango dira beste gela baten bidez aireztatu, beste gela hori sukaldea bada eta zuzenean kanpoaldera ematen dituen leihoak baditu izan ezik.
c) Ezin izango dira beste logela baten bidez aireztatu, eta airea berritzea eta garbitzea ahalbidetuko duen aireztatze-sistema natural bat jarri beharko da.
d) Ezin izango dira beste logela baten bidez aireztatu, eta airea berritzea eta garbitzea ahalbidetuko duen aireztatze-sistema behartu bat jarri beharko da.

471. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, patioek bizitzeko egoki diren espazioak argitu eta aireztatzen badituzte eta eraiki berriak edo berritutakoak badira, zer azalera eta zuzeneko argi izan behar dituzte?**

a) 15 m²-ko azalera eta 3 m-ko zuzeneko argia gutxienez.
b) 10 m²-ko azalera eta 3 m-ko zuzeneko argia gutxienez.
c) 7 m²-ko azalera eta 2 m-ko zuzeneko argia gutxienez.
d) 4,5 m²-ko azalera eta 1,5 m-ko zuzeneko argia gutxienez.

472. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitza guztiek hau izan behar dute gutxienez:**

a) Ohe bateko logela bat, egongela bat, sukalde bat eta komun bat.
b) Logela nagusi bat, egongela bat, sukalde bat eta komun bat.
c) Logela nagusi bat, egongela bat, jangela bat, sukalde bat eta komun bat.
d) Logela nagusi bat, ohe bateko logela bat, egongela bat, jangela bat, sukalde bat eta komun bat.

473. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, etxebizitzen gutxieneko bizigarritasun-baldintzei dagokienez, sukalde, egongela eta jangelarekin bat egitea erabakitzen denean, azalera erabilgarri totala ez da izango hau baino txikiagoa:**

a) 24 m².
b) 18 m².
c) 12 m².
d) 6 m².

474. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren eta haren aldaketen arabera, etxebizitzen gutxieneko bizigarritasun-baldintzei dagokienez, zer azalera erabilgarri izan behar du etxebizitza batek?**

a) Ez da izan behar 40 m² baino txikiagoa.
b) Ez da izan behar 37 m² baino txikiagoa.
c) Ez da izan behar 26 m² baino txikiagoa.
d) Ez da izan behar 18 m² baino txikiagoa.

475. **Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren arabera, egitura-segurtasun ona duen eraikin bateko etxebizitza guztietan dauden altuerei eutsi ahal izango zaie, betiere altuera hau badute gutxienez:**

a) 2,60 metro.
b) 2,50 metro.
c) 2,20 metro.
d) 2,10 metro.

476. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, eraikuntza baten berrezarpen-kostua da:**

a) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) eraikitzearen egungo balioa, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez; jatorrian izan zituen okupazio- eta erabilera-baldintzak mantendu eta berreskuratzen ditu.

b) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) eraikitzearen egungo balioa, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez, betiere higiezinaren okupazioa baimentzeko bete beharreko baldintzak beteta edo, hala badagokio, berez dagokion erabilerara bideratzeko moduan utzita.

c) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) tasatzearen egungo balioa, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez; jatorrian izan zituen okupazio- eta erabilera-baldintzak mantendu eta berreskuratzen ditu.

d) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) tasatzearen egungo balioa, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez, betiere higiezinaren okupazioa baimentzeko bete beharreko baldintzak beteta edo, hala badagokio, berez dagokion erabilerara bideratzeko moduan utzita.

477. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, eraikin batean irisgarritasun unibertsala errazteko egin daitezkeen arrazoizko egokitzapenei dagokienez, jabetza horizontalaren araubidean eratutako eraikinetan karga neurrigabetzat joko da, baldin eta, obren kostua, urtero jasanarazia eta eskubidea izanik lortutako laguntza publikoak kenduta:**

a) Gastu arrunten ohiko hamabi hilekoren adinakoa baino handiagoa bada.

b) Gastu arrunten ohiko hamar hilekoren adinakoa baino handiagoa bada.

c) Gastu arrunten ohiko sei hilekoren adinakoa baino handiagoa bada.

d) Gastu arrunten ohiko lau hilekoren adinakoa baino handiagoa bada.

478. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, okupa daitezke espazio libreen edo jabari publikoaren azalerak igogailu bat ezartzeko?**

a) Bai, beti.

b) Bai, betiere ezinbestekoa bada, eta teknikoki edo ekonomikoki bideragarria den beste irtenbiderik ez bada irisgarritasun unibertsala bermatzeko, espazio libreen, zuzkiduren eta jabari publikoko gainerako elementuen funtzionaltasuna galtzen bada ere.

c) Bai, betiere teknikoki edo ekonomikoki bideragarria den beste irtenbiderik ez bada, eta espazio libreen, zuzkiduren eta jabari publikoko gainerako elementuen funtzionaltasuna bermatuta gelditzen bada.

d) Ez, inoiz ez.

479. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, etxebizitzak zer egoeratan dauden egiaztatzeko eska diezaieke administrazio eskudunak etxebizitza kolektiboko bizitegitarako eraikinetan kokatutako higiezinen jabeei, gutxienez alderdi hauei dagokienez:**

a) Eraikinaren kontserbazio-egoera eta haren zerga-betebeharren egoera

b) Eraikinaren kontserbazio-egoera eta irisgarritasun unibertsalari buruzko indarreko araudiaren betetze-maila eta haren zerga-betebeharren egoera.

c) Eraikinaren kontserbazio-egoera, irisgarritasun unibertsalari buruzko indarreko araudiaren betetze-maila eta etxebizitzen eraginkortasun energetikoaren maila.

d) Eraikinaren kontserbazio-egoera, irisgarritasun unibertsalari buruzko indarreko araudiaren betetze-maila, etxebizitzen eraginkortasun energetikoaren maila eta ikusitako hutsuneak konpontzeko behar diren neurriak definitzen dituen egikaritze-proiektu egokia.

480. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, okupa daitezke erabilera pribatiboko azalera komunak, hala nola atarteak eta eskaileraburuak, igogailu bat ezartzeko?**

a) Bai, beti.

b) Bai, lurzoruan zein lurpean edo hegalean kokatuta egonik ere, betiere ezinbestekoa bada, eta teknikoki edo ekonomikoki bideragarria den beste irtenbiderik ez bada irisgarritasun unibertsala bermatzeko, eta espazio libreen, zuzkiduren eta jabari publikoko gainerako elementuen funtzionaltasuna bermatzen bada.

c) Bai, ez badaude hegalean kokatuta, ezinbestekoa bada, eta teknikoki edo ekonomikoki bideragarria den beste irtenbiderik ez bada irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

d) Ez, inoiz ez.

481. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, jardun isolatua denean eta desjabetzerik aplikatu behar ez denean, birgaitzeko edo eraisteko obren ondorioz errentan hartutako etxebizitzak erabili ezin dituzten errentarien kasuan:**

a) Behin-behineko egonlekua izateko eskubidea izango dute, bai eta ahal denean berriz itzultzeko eskubidea ere; bi eskubide horiek eraikin berriaren jabearen aurrean baliatu ahal izango dira, eta kontratua amaitzeko falta den denbora guztirako.

b) Behin-behineko egonlekua izateko eskubidea izango dute, bai eta ahal denean berriz itzultzeko eskubidea ere; bi eskubide horiek eraikinaren jabearen aurrean baliatu ahal izango dira, eta kontratua amaitzeko falta den denbora guztirako, betiere urtebetetik gorakoa bada.

c) Behin-behineko egonlekua izateko eskubidea izango dute, bai eta ahal denean berriz itzultzeko eskubidea ere; bi eskubide horiek eraikinaren jabearen aurrean baliatu ahal izango dira, eta kontratua amaitzeko falta den denbora guztirako, betiere bi urtetik gorakoa bada.

d) Ez dute izango eskubiderik behin-behineko egonlekua izateko, ez eta obrak bukatutakoan itzultzekoa ere, nahiz eta kontratua amaitzeko denbora geratu.

482. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari dagokionez, ziurtapen-teknikaritzat jardutea, ziurtapen-teknikari izateko legez bete behar diren eskakizunak bete gabe:**

a) Arau-hauste administratibo oso astuna da.
b) Arau-hauste administratibo astuna da.
c) Arau-hauste administratibo arina da.
d) Ez da arau-hauste administratiboa.

483. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari dagokionez, bukatutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria ez txertatzea eraikinaren liburuan:**

a) Arau-hauste administratibo oso astuna da.
b) Arau-hauste administratibo astuna da.
c) Arau-hauste administratibo arina da.
d) Ez da arau-hauste administratiboa.

484. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen Dekretuaren arabera, zer titulazio behar da eit egiteko?**

a) Arkitektura.
b) Arkitektura eta arkitektura teknikoa.
c) Arkitektura edo ingeniaritza.
d) Eraikuntza antolatzeari buruzko 38/1999 Legearen araberakoa edo eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakunde bateko ikuskaritza-teknikari fakultatiboa.

485. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen Dekretuaren arabera, zein da gehieneko epea 2. mailako esku-hartze bat (oso premiazkoa) egiteko?**

a) 12 hilabete.
b) 6 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 1 hilabete.

486. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen Dekretuaren arabera, zein da gehieneko epea 3. mailako esku-hartze bat (premiazkoa) egiteko?**

a) 12 hilabete.
b) 6 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 1 hilabete.

487. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen Dekretuaren arabera, lehenengo eit egin ondoren, beste ikuskapen bat egin beharko da, aurreko ikuskapena kontuan hartuta eraikinaren kontserbazio-egoera berriz aztertzeko. zenbat urtean behin egin behar da?**

a) 20 urtean behin.
b) 10 urtean behin.
c) 5 urtean behin.
d) Urtean behin.

488. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen 241/2012 Dekretuaren II. eta III. eranskinak aldatzen dituen 2013 ko urriaren 15eko aginduaren arabera, eraikinaren kontserbazio-egoeraren ebaluazioa egiteko, begiz ikuskatuko dira elementu hauek:**

a) Estalkia, fatxadak eta uren hornikuntza eta hustuketa.
b) Estalkia, zimenduak eta egitura, fatxadak eta uren hustuketa.
c) Estalkia, zimenduak, fatxadak eta uren hornikuntza eta hustuketa.
d) Estalkia, zimenduak eta egitura, fatxadak eta uren hornikuntza eta hustuketa.

489. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen 241/2012 Dekretuaren II. eta III. eranskinak aldatzen dituen 2013 ko urriaren 15eko aginduaren arabera, eraikinaren kontserbazio-egoera honela sailkatu daiteke:**

a) Itxuraz ona; eraikuntza-kalteak eta akatsak; akatsak leku batzuetan; erabat hondatuta.
b) Itxuraz ona; eraikuntza-kalteak eta akatsak; akatsak leku batzuetan; erabat hondatuta; jakin ezina.
c) Eraikuntza-kalteak eta akatsak; akatsak leku batzuetan; erabat hondatuta; jakin ezina.
d) Ageriko arriskurik gabe; eraikuntza-kalteak eta akatsak; akatsak leku batzuetan; erabat hondatuta; jakin ezina.

490. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen 241/2012 Dekretuaren II. eta III. eranskinak aldatzen dituen 2013 ko urriaren 15eko aginduaren arabera, esku-hartzearen ebaluazioa izan daiteke:**

a) Berehalakoa (24 ordu); oso presakoa (hilabete baino lehen); presakoa (3 hilabete baino lehen); beharrezkoak epe ertainera (sei hilabete baino gehiago atzeratu daitezke); mantentze-lanak (urtebete baino gehiago atzeratu daitezke).
b) Berehalakoa (24 ordu); oso presakoa (hilabete baino lehen); presakoa (3 hilabete baino lehen); beharrezkoak epe ertainera (urtebete baino lehen); mantentze-lanak (urtebete baino gehiago atzeratu daitezke).
c) Berehalakoa (24 ordu); oso presakoa (3 hilabete baino lehen); presakoa (6 hilabete baino lehen); beharrezkoak epe ertainera (urtebete baino lehen); mantentze-lanak (urtebete baino gehiago atzeratu daitezke).
d) Berehalakoa (24 ordu); oso presakoa (3 hilabete baino lehen); presakoa (urtebete baino lehen); beharrezkoak epe ertainera (urtebete baino gehiago atzeratu daitezke); mantentze-lanak.

491. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen 241/2012 Dekretuaren II. eta III. eranskinak aldatzen dituen 2013 ko urriaren 15eko aginduaren arabera, kaltearen garrantzia izan daiteke:**

a) Ageriko arriskurik gabe; beste eraikuntza-elementu batzuk kaltetzeko arriskua; pixkanaka hondatzeko arriskua; hirugarrenak kaltetzeko arriskua.b) Ageriko arriskurik gabe; beste eraikuntza-elementu batzuk kaltetzeko arriskua; pixkanaka hondatzeko arriskua; bide publikoko elementuak kaltetzeko arriskua.

c) Arriskua epe luzera; beste eraikuntza-elementu batzuk kaltetzeko arriskua; pixkanaka hondatzeko arriskua; hirugarrenak kaltetzeko arriskua.

d) Arriskua epe luzera; beste eraikuntza-elementu batzuk kaltetzeko arriskua; pixkanaka hondatzeko arriskua; hirugarrenak kaltetzeko arriskua; bide publikoko elementuak kaltetzeko arriskua.

492. **Euskal autonomia erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen 241/2012 Dekretua aldatzen duen 80/2014 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia erkidegoan, hauek sartzen dira eit-n.**

a) Begiz ikuskatu eta laginak hartuko zaizkie eraikinaren eraikuntza-elementu guztiei, jakiteko zer eraikuntza-ezaugarri dituzten, nolako egoeran dauden eta zer patologia izan ditzaketen; eraikinaren inguratzaileari eta instalazioei buruzko datuak ere jasoko dira, eraikinaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko, eta informazioa edukitzeko irisgarritasun unibertsaleko oinarrizko baldintzei buruz; hartara, eraikinean arrazoizko doikuntzarik egin ahal den edo ez erabaki ahalko da.

b) Begiz ikuskatu eta laginak hartuko zaizkie huts gehien dituzten elementuei, jakiteko zer ezaugarri dituzten, nolako egoeran dauden eta zer patologia izan ditzaketen; zuzenketak behar dituzten zatien egikaritze-proiektu bat; inguratzaileari eta instalazioei buruzko datuak ere jasoko dira, eraikinaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko.

c) Begiz ikuskatuko dira eraikinaren egitura, fatxada, estalkia eta saneamendu- nahiz hornikuntza-sare komunak, jakiteko zer eraikuntza-ezaugarri dituen, nolako egoeran dagoen eta zer patologia izan ditzakeen; eraikinaren inguratzaileari eta instalazioei buruzko datuak ere jasoko dira, eraikinaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko, eta informazioa edukitzeko irisgarritasun unibertsaleko oinarrizko baldintzei buruz; hartara, eraikinean arrazoizko doikuntzarik egin ahal den edo ez erabaki ahalko da.

d) Begiz ikuskatuko dira eraikinaren egitura, fatxada eta estalkia, jakiteko zer eraikuntza-ezaugarri dituen, nolako egoeran dagoen eta zer patologia izan ditzakeen; eraikinaren inguratzaileari eta instalazioei buruzko datuak ere jasoko dira, eraikinaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko, eta informazioa edukitzeko irisgarritasun unibertsaleko oinarrizko baldintzei buruz; hartara, eraikinean arrazoizko doikuntzarik egin ahal den edo ez erabaki ahalko da.

493. **Eraikuntza antolatzeari buruzko 38/1999 Legearen arabera, zimenduei eragiten dieten akats edo hutsek eraikinean eragindako kalte materialen erantzukizunak epe hau izango du:**

a) Mugagabea.

b) Urtean behin.

c) 5 urtean behin.

d) 10 urtean behin.

494. **250/2003 Dekretuaren arabera, etxebizitzarako eraikinaren liburua nahitaezkoa da:**

a) Eraikin guztietarako, betiere gutxienez etxebizitza bat badute.
b) Etxebizitza guztietarako, eraikuntza berrikoak izan nahiz ez.
c) Eraikuntza berriko osorik nahiz partzialki birgaitutako etxebizitzetarako.
d) Eraikuntza berriko edo osorik birgaitutako etxebizitzetarako.

495. **250/2003 Dekretuaren arabera, etxebizitzarako eraikinaren liburuak hauek izan behar ditu:**

a) Erregistro-koadernoa; zehaztasun teknikoen agiria; agiritegia; etxebizitzen eskuliburuak.
b) Erregistro-koadernoa; zehaztasun teknikoen agiria; egikaritze-proiektua; etxebizitzen eskuliburuak.
c) Erregistro-koadernoa; zehaztasun teknikoen agiria; agiritegia.
d) Erregistro-koadernoa; zehaztasun teknikoen agiria; etxebizitzen eskuliburuak.

496. **250/2003 Dekretuaren arabera, eraikinaren liburuko zehaztasun teknikoen agiriak eduki behar ditu:**

a) Obraren azken proiektua, eraikinaren eta haren elementuen datu tekniko nagusien eranskina, eta etxebizitza bakoitzaren erabilera- eta mantentze-eskuliburu partikularrak, baita larrialdiei buruzkoak ere.
b) Obraren azken proiektua, eraikinaren eta haren elementuen datu tekniko nagusien eranskina, eta erabilera- eta mantentze-eskuliburuak, baita larrialdiei buruzkoak ere.
c) Egikaritze-proiektua, eraikinaren eta haren elementuen datu tekniko nagusien eranskina, eta erabilera- eta mantentze-eskuliburuak, baita larrialdiei buruzkoa ere.
d) Obraren azken proiektua, eraikinaren eta haren elementuen datu tekniko nagusien eranskina, eta etxebizitza bakoitzaren erabilera- eta mantentze-eskuliburu partikularrak, baita larrialdi eta ezbeharrei buruzkoak ere.

497. **250/2003 Dekretuaren arabera, eraikinaren liburuari dagokionez, etxebizitzen eskuliburuak dira:**

a) Etxebizitza bakoitzari dagozkion kapitulu espezifikoak dira, zeinak ezin baitira banandu Eraikinaren Liburutik, eta eraikinaren espazio komun batean gordeko dira okupazio-lizentzia eman ostean.
b) Etxebizitza bakoitzari dagozkion kapitulu espezifikoak dira, zeinak ezin baitira banandu Eraikinaren Liburutik, eta eraikina dagoen udalerriko agiritegi administratiboan gordeko baitira.
c) Etxebizitza bakoitzari dagozkion kapitulu espezifikoak, zeinak ezin baitira banandu Eraikinaren Liburutik, eta banan-banan entregatuko dira, eskriturak izenpetzerakoan.
d) Etxebizitza bakoitzari dagozkion agiri espezifikoak, zeinak Eraikinaren Liburua osatzen duten gainerako atalen eranskin independente gisa eratzen baitira, eta banan-banan entregatuko dira, eskriturak izenpetzerakoan.

498. **250/2003 Dekretuaren arabera, eraikinaren liburua formalizatzea dagokio honi:**

a) Sustatzaileari.
b) Enpresa kontratatzaileari.
c) Obrako arkitekto zuzendariari.
d) Arkitekto teknikoari.

499. **250/2003 Dekretuaren arabera, eraikinaren liburua osatzeko, nori dagokio erabilera- eta mantentze-jarraibide benetan betetakoen berri ematea?**

a) Obrako arkitekto zuzendariari.
b) Arkitekto teknikoari.
c) Ingeniariari.
d) Teknikari eskumendun bati.

500. **Jabetza horizontalaren 49/1960 Legearen arabera, etxebizitza edo lokal bakoitzaren jabeak aldatu ahal izango ditu haren elementu arkitektonikoak, instalazioak eta zerbitzuak:**

a) Haren jabetzako azalera eraikiak ezartzen dituen mugen barruan.
b) Eraikinaren egitura orokorrari eta kanpoko konfigurazioari eragiten ez badio, eta aldez aurretik obra horien berri ematen badio komunitatearen ordezkariari.
c) Sukaldeen, komun eta bainugelen eta gainerako zerbitzu-espazioen egoera aldatzen ez bada.
d) Eraikinak 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna badu bakarrik.

501. **Eusko Jaurlaritzaren eraikinaren liburuaren programan barne hartzen den etxebizitzaren erabilera- eta mantentze-eskuliburuaren arabera, fatxadetako pintura-akaberak ikuskatu behar dira:**

a) 10 urtean behin.
b) 5 urtean behin.
c) 3 urtean behin.
d) Urtean behin.

502. **Eusko Jaurlaritzaren eraikinaren liburuaren programan barne hartzen den etxebizitzaren erabilera- eta mantentze-eskuliburuaren arabera, leihoak garbitu beharko dira xaboi-urarekin edo detergente ez-alkalinoarekin, arrastorik eragiten ez duten trapuekin:**

a) 10 urtean behin.
b) 5 urtean behin.
c) 2 urtean behin.
d) Urtean behin.

503. **Zer izen dute eraikuntza-arazo baten seinale behagarriek?**

a) Lesio.
b) Patologia.
c) Kausa.
d) Gaixotasun.

504. **Eraikin bat birgaitzeko esku-hartze baterako gomendatzen den metodologia:**

a) Aldez aurretiko informazioa eta kalteak ikuskatzea, esku-hartzea planifikatzea, kausa zehazteko diagnostikoa, kausaren gainean jardutea, eragina konpontzea.
b) Aldez aurretiko informazioa eta kalteak ikuskatzea, kausa zehazteko diagnostikoa egitea, esku-hartzea planifikatzea, kausaren gainean jardutea, eragina konpontzea, mantentze-neurriak ezartzea.
c) Aldez aurretiko informazioa eta kalteak ikuskatzea, kausa zehazteko diagnostikoa egitea, eragina konpontzea, mantentze-neurriak ezartzea.
d) Kalteak ikuskatzea, esku-hartzea planifikatzea, kausa zehazteko diagnostikoa egitea, eragina konpontzea, mantentze-neurriak ezartzea.

505. **Arrakala bat eragin duen prozesu patologiko baten diagnostikoa egiteko, hauetako zer ezaugarri da garrantzitsuena?**

a) Ertzak irekitzea.
b) Denboran zeharreko bilakaera.
c) Eragindako eraikuntza-elementua.
d) Lurzoruarekiko gertutasunaren maila.

506. **Zer tresna erabiltzen da hormigoiaren gainazaleko erresistentzia egiaztatzeko?**

a) Konparazio-galga.
b) Patxometroa.
c) Esklerometroa.
d) Endoskopioa.

507. **Zer tresna erabiltzen da zuraren hezetasun edukia detektatzeko?**

a) Patxometroa.
b) Esklerometroa.
c) Fonendoskopioa.
d) Xilohigrometroa.

508. **Lesio moten araberako sailkapen batean, zer motatakoak izango dira kondentsazioagatiko hezetasunak?**

a) Fisikoak.
b) Mekanikoak.
c) Kimikoak.
d) Termikoak.

509. **Lesio moten araberako sailkapen batean, zer motatakoak izango dira efloreszentziak?**

a) Fisikoak.
b) Mekanikoak.
c) Kimikoak.
d) Termikoak.

510. **Eraikin bat eraisten denean eta eraikuntzako elementuak aprobetxatu behar direnean, desmuntatzea egingo da, oro har:**

a) Eraikina eraikitzeko ordenaren alderantzizkoan.
b) Solairuak modu simetrikoan arinduz.
c) Haietan grabitatzen duen kargarekin.
d) Beharrezkoa bada, hegal-elementuak zurkaiztuz.

511. **CTE DB egitura-segurtasuna – zimenduak oinarrizko dokumentuaren arabera, oro har, azterketa geotekniko batean zenbat puntu ikuskatu behar dira gutxienez?**

a) Ez du ezartzen gutxieneko kopururik.
b) Bat.
c) Hiru.
d) Bost.

512. **CTE DB egitura-segurtasuna – zimenduak oinarrizko dokumentuaren arabera, hiru solairuko eraikin bat (C-1) eraiki nahi den lursail bat egokitzat jotzeko (T-1) erreferentziazko sakonera hau da:**

a) 1 metro.
b) 3 metro.
c) 6 metro.
d) 10 metro.

513. **CTE DB egitura-segurtasuna – zimenduak oinarrizko dokumentuaren arabera, zertan datza lurzoruan sartzeko saiakera estandar bat (SPT)?**

a) Dimentsio normalizatuko zilindro huts bat 30 cm sartzeko behar den kolpe kopurua neurtzea *in situ*.
b) Plaka zurrun karratu edo zirkular baten asentuak *in situ* neurtzea gero eta karga handiagoak aplikatu ahala, lurzorua apurtzen dela nahiz ez.
c) 63,5 kg-ko mazo bat 1 metrotik erortzean eragiten duen sartze-sakonera neurtzea laborategian.
d) 90º-an jarritako eta lurzoruan sartutako hegal batzuk birarazi eta lurzorua mozteko behar den parea neurtzea

514. **CTE DB egitura-segurtasuna – zimenduak oinarrizko dokumentuaren arabera, laborategiko zer saiakera da egokia lurzoru baten deformagarritasuna neurtzeko?**

a) Konpresio-saiakuntza sinplea.
b) Proktore aldatuaren saiakuntza.
c) Granulometria-saiakuntza.
d) Saiakuntza edometrikoa.

515. **Zer lurzoru motak du joera handiena zabalgarritasun-arazoak izateko?**

a) Harearen eta hartxintxar solteen nahasketak.
b) Indize plastiko altuko buztin-lurrak.
c) Haitz meteorizatuak.
d) Harea trinkotuak.

516. **NCSE-02 arau sismorresistentearen arabera, izango duten erabileraren eta suntsituta eragin ditzaketen kalteen arabera, eraikuntzak honela sailkatzen dira:**

a) Garrantzi ertain, arrunt eta berezikoak.
b) 4 solairu baino gutxiagokoak, 4 eta 10 solairu bitartekoak eta 10 solairu baino gehiagokoak.
c) Erabilera pribaturako eta erabilera publikorako eraikinak.
d) Aurreikusi ezin diren kalteak eta aurreikusten diren kalteak eragiten dituztenak.

517. **Hormigoiarekin kontaktuan dagoen lur susmagarri baten azterketaren emaitzak eman du 5.000 mg so42-/kg-ko sulfato-edukia lur lehor kilogramoko. egitura-hormigoiaren jarraibidearen (EHE-08) arabera:**

a) Analisia ez da kontuan eduki behar, proiektua gailentzen da.
b) Sulfato-edukia txikia da, eta izan daitezkeen kalteak arbuiagarriak dira.
c) SR zementua erabili behar da.
d) LH zementua erabili behar da.

518. **zer motatako arrakala sortzen du fabrikako horma baten azpiko lurzoruan, erdialdean, dagoen asentuak?**

a) Arrakala horizontala.
b) Arrakala bertikala.
c) Arrakala kurbatua, deskarga-kurba baten formakoa.
d) «V» formako arrakala.

519. **zertan datza «jet grouting» teknika?**

a) Lurra trinkotzeko teknika bat da: zulatu eta zementuzko mortairuarekin betetzen da goi-presioan, behetik gora.
b) Aldi bereko injekzioen sistema bat da, zeina lurzoru kohesiboetarako gomendatzen baita.
c) Egitura sendotzean datza; bereziki egokia da bat-bateko kargak jasaten dituzten habeetarako.
d) Zimendatze sakoneko mota bat da, eta gogortze bizkorreko mikropiloteek osatzen dute.

520. **Lehorreko harlangaitzezko antzinako azaleko zimendu batzuetan lanean, ikusi da bermatze-eremua nahikoa dela, baina zimendua ez dagoela egoera onean, narriaduraren ondorioz. zer esku-hartze mota da egokiena?**

a) Zimendua hedatzea, azpitik lan eginez.
b) Tentsioan jarritako armadurak sartuz sendotzea.
c) Zimendua hedatzea, haren inguruan lan eginez.
d) Sendotzea zementuzko mortairua edo esnea presioan injektatuz.

521. **Petrolioaren errekuntzatik eratorritako sufre dioxidoak (SO2) epe luzera kareharrizko fatxadetan duen eraginak zer itxura du?**

a) Hautsezko errezel batena, erraz kentzen dena xurgatze-tekniken bidez.
b) Hezetasun-orbanena, oso higroskopikoa delako eta aireko hezetasuna xurgatzen duelako.
c) Erosioarena, partikulek haizearen eraginez talka egitean eragiten duten marruskaduraren ondorioz.
d) Igeltsu-zarakarrarena, harriaren kaltzio karbonatoarekiko erreakzioaren ondorioz; leherketa eragiten du azkenerako.

522. **Fabrika armatua funtsezkoa da maila sismiko altuko eremuetan, non ekintza horizontal aldizkako eta errepikatuek arrakala eta pitzadura bereziak eragiten baitituzte:**

a) Bertikalak, baoen ondoan.
b) Bertikalak, horma atalaren erdigunean.
c) X formakoak, trakzio diagonalen ondorioz.
d) Horizontalak, horma atalaren erdigunean.

523. **Kohesio-akats orokortuak dituzten ageriko junturako fabrikako horma zaharrak sendotzeko, gomendatzen da sendotze-teknika jakin batzuk erabiltzea. zertan oinarritzen dira teknika horiek?**

a) Zulaketa hormarekiko perpendikularrak egin, haietako bakoitzean buloiak jarri mortairuarekin, banaketa-elementuak, azkoinak eta kontrazkoinak jarri, eta, azkenik, post-tenkatu.
b) Aho edo erretenak egin hormaren gainazalean, zementu-esnea jarri, armadura eta bereizgailuak jarri, eta, azkenik, bao bakoitza itxi kofratze bidez, hormigoia botata.
c) Horizontalki lerrokatutako zuloak egin, hodiak sartu injektoreak finkatzeko, zementu-esnea bota presio txikian eta goiko zulotik hasiz, eta, azkenik, harri edo adreiluen arteko junturak zigilatu, eta, aldi berean, estali zuloetan geratutako tarteak
d) Junturak zigilatu, zuloak egin uniformeki banatuta, hodiak sartu, injektoreak finkatu zuloaren sarrera zigilatuz, zementu-esnea bota presio txikian eta beheko zulotik hasiz, eta, azkenik, estali zuloetan geratutako tarteak.

524. **Adreiluzko fabrikako horma batean, zer forma du gilbordurak eragindako lesioa?**

a) Horizontalarekiko 45º-ko angelua osatzen duen pitzadura makurtua, eta mailakatua adreiluaren junturetan.
b) Pitzadura horizontalak hormaren erdialdean eta bi aurpegietan, konprimatutako eremuko zapalketaren ondorioz eta trakzio-eremuko bereizteagatik.
c) Pitzadura horizontalak hormaren goiko aldeko konpresioaren ondoriozko zapaltzeagatik, bi aurpegietan.
d) Pitzadura horizontalak hormaren beheko aldeko konpresioaren ondoriozko zapaltzeagatik, bi aurpegietan.

525. **Zurezko egitura duen eraikin bat birgaitzeko, zer mortairu da egokiena fabrikako fatxada zahar bat estaltzeko?**

a) Igeltsu-mortairua.
b) Kare-mortairua.
c) Zementu-mortairua.
d) Epoxi erretxinekiko mortairua.

526. **CTE DBSE-F egitura-segurtasuna – zimenduak oinarrizko dokumentuaren arabera, oinplano errektangular edo kontzentratuko eraikinetan, dilatazio eta uzkurduren ondoriozko kalteak saihesteko adreilu zeramikozko fatxadetan, hau izango da sostengatutako fabrikaren mugimendu-junturen arteko gehieneko distantzia, kasurik onenean:**

a) 50 metro.
b) 30 metro.
c) 15 metro.
d) 8 metro.

527. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), jabeak finkatu beharko du, proiektua hasi aurretik, egituraren bizitza erabilgarri izendatua. etxebizitza- edo bulego-eraikinetan ezingo da izan aldi hau baino txikiagoa:**

a) 25 urtean behin.
b) 50 urtean behin.
c) 100 urtean behin.
d) 150 urtean behin.

528. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), jabeak finkatu beharko du, proiektua hasi aurretik, egituraren bizitza erabilgarri izendatua. egitura nagusia osatzen ez duten elementu ordezkagarrien kasuan (adibidez, barandak, hodien bermakuntzak) izan beharko du:**

a) 3 eta 10 urte bitarte.
b) 10 eta 25 urte bitarte.
c) 15 eta 50 urte bitarte.
d) 50 urtetik gora.

529. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), iia esposizio mailako hormigoi armatuen kasuan eta bestelako baldintza gehigarririk ez badago (estankotasuna, etab.), pitzaduraren berezko irekidura ez da izango gehieneko hau (WGEH) baino handigoa:**

a) 0,05 mm.
b) 0,3 mm.
c) 1 mm.
d) 2 mm.

530. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), zer zementu gomendatzen dira konponketa azkar eta presakakoetako hormigoietarako?**

a) CEM I, CEM II/A-D motako zementu arruntak eta kaltzio aluminatozko zementua (CAC).
b) CEM I eta CEM II/A-D motako zementu arruntak.
c) CEM II/A-Q, CEM II/B-Q eta CEM II/A-W zementuak.
d) Erabilera berezietarako ESP VI-1 zementuak.

531. **Egitura-hormigoiaren jarraibidean (EHE-08) jasotzen diren korrosio-prozesuetarako iraunkortasun-ereduen arabera, hormigoiaren gainazaletik d distantzia batera karbonatazioa gertatzeko denbora faktore hauen mende dago:**

a) Aireztatzaileak erabiltzea eta hormigoiaren trakzioarekiko batez besteko erresistentzia.
b) Zementuaren ingurumen-esposizioa eta hormigoiaren konpresioarekiko batez besteko erresistentzia.
c) Ingurumen-esposizioa, aireztatzaileen erabilera, zementu mota eta hormigoiaren konpresioarekiko batez besteko erresistentzia.
d) Zementu mota eta ingurumen-esposizioa.

532. **Egitura-hormigoiaren jarraibidean (EHE-08) jasotzen diren korrosio-prozesuetarako iraunkortasun-ereduen arabera, hormigoiaren gainazaleko kloruro-kontzentrazioa:**

a) Kanpoko kondizioen mende dago bakarrik.
b) Hormigoiaren adinaren mende dago bakarrik; urtebete duenean izaten da kontzentrazio handiena.
c) Kanpoko kondizioen eta hormigoiaren adinaren mende dago; urtebete duenean izaten da kontzentrazio handiena.
d) Kanpoko kondizioen eta hormigoiaren adinaren mende dago; 10 urte dituenean izaten da kontzentrazio handiena.

533. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), armaduretako korrosioak hormigoian pitzadurak eragiten dituen edota armaduran bertan sekzio-galera onartezin bat eragiten duen hedapen-denbora da:**

a) d estalduraren lodierarekiko alderantziz proportzionala, eta v_{korr} [μm/urte] korrosio-abiadurarekiko zuzenki proportzionala.
b) d estalduraren lodierarekiko zuzenki proportzionala, eta $v_{kor}r$ [μm/urte] korrosio-abiadurarekiko alderantziz proportzionala.
c) d estalduraren lodierarekiko eta v_{korr} [μm/urte] korrosio-abiadurarekiko alderantziz proportzionala.
d) d estalduraren lodierarekiko eta v_{korr} [μm/urte] korrosio-abiadurarekiko zuzenki proportzionala.

534. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), hezetasun erlatibo altuak (› %65) dituzten barruko eremuetan, vkorr korrosio-abiadura hau da:**

a) 1 mm/urte.
b) 50 μm/urte.
c) 20 μm/urte.
d) 3 μm/urte.

535. **Zuntzak hormigoi-masari gehitzen zaizkio, propietate espezifiko batzuk emateko. egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera (EHE-08), mikrozuntz polimerikoak (diametroa < 0,30 mm) erabiltzen dira:**

a) Hormigoiaren uzkurdura plastikoaren ondoriozko pitzatzea murrizteko, bereziki zoladura eta zolatetan; hala ere, ezin dute egitura-funtziorik hartu.
b) Zutabeen erresistentzia areagotzeko, zuntzak erabiltzeak modu esanguratsuan aldatzen baitu konpresiopeko hormigoiaren jokaera.
c) Karbonatazioaren ondoriozko korrosioa hedatzea atzeratzeko, bereziki, elementu linealetan.
d) Kloruroak sartzeagatik korrosioa izateko arriskua duten egituretako sakrifizio-anodo gisa.

536. **Egitura-hormigoiaren jarraibidearen arabera((EHE-08), ez da erabili behar itsaspen-kondizioei eragiteko adinako oxidazio-maila duen armadurarik. kasu horretan, zurdadun arrabota batekin leundu ondoren, egiaztatu behar da:**

a) Pisu-galera ez dela % 1 baino handiagoa.
b) Pisu-galera ez dela % 5 baino handiagoa.
c) Pisu-galera ez dela % 10 baino handiagoa.
d) Pisu-galera ez dela % 20 baino handiagoa.

537. **Hormigoia fabrikatzen denean zikinkeriak badaude, haren erresistentzia txikiagoa izan daiteke, eta beste arazo batzuk ekar ditzake. esaterako, hormigoian buztin-lurrak egoteak eragiten du:**

a) Alkali-agregatu erreakzioa.
b) Uzkurdura handia.
c) Kloruroengatiko korrosioa.
d) Gainazala zartatzea.

538. **Hormigoia fabrikatzen denean zikinkeriak badaude, haren erresistentzia txikiagoa izan daiteke, eta beste arazo batzuk ekar ditzake. esaterako, hormigoian igeltsua egoteak eragiten du:**

a) Alkali-agregatu erreakzioa.
b) Sulfato-erasoa.
c) Karbonatazioagatiko korrosioa.
d) Uzkurdura plastikoa.

539. **Zer ezaugarri du igeltsu-erasoak hormigoian?**

a) Espantsioak sortzen ditu etringitaren eraginez.
b) Karea lixibiatzen du.
c) Orbanak ateratzen ditu gainazalean.
d) Berehala gogorrarazten du.

540. **Nola eragiten dio aireko karbono dioxidoak (CO2) hormigoiari?**

a) Orbanak ateratzen ditu gainazalean, toki batzuetan mugatuak.
b) Patina satinatu bat eratzen du gainazalean.
c) Espantsioak sortzen ditu etringitaren eraginez.
d) Kaltzitarekin erreakzionatu eta kaltzio bikarbonatoa ematen du, zeina oso disolbagarria baita uretan.

541. **Fenolftaleina, zeina kolorgea baita disoluzio azidoetan, ph-markagailu bat da, eta hormigoiaren karbonatazio-maila detektatzeko erabiltzen da. zer kolore hartzen du egoera onean dagoen hormigoi batean aplikatzen denean?**

a) Magenta, egoera onean dauden hormigoietan 14-12 bitarteko pH-maila (alkalinoa) ematen baitu.
b) Magenta argia, egoera onean dauden hormigoietan 7ko pH-maila (neutroa) ematen baitu.
c) Bat ere ez, egoera onean dauden hormigoietan 5eko pH-maila (azidoa) ematen baitu.
d) Bat ere ez, egoera onean dauden hormigoietan 3ko pH-maila (azidoa) ematen baitu.

542. **Karbonatazioa eta armaduren korrosioa dituen hormigoi bat konpontzeko fase orokorrak:**

a) Elementua erabat eraitsi, garbitu, sendotu, estali eta babestu.
b) Saneatu, pasibatu, leheneratu, estali, babestu, garbitu.
c) Saneatu, garbitu, pasibatu, leheneratu, estali, babestu.
d) Saneatu, garbitu, leheneratu, estali, babestu.

543. **Karbono-zuntzez sendotutako polimeroz (FRP) osatutako laminatuak erabiltzen dira hormigoi armatuzko egiturak sendotzeko. Zer abantaila dute beste egitura-sendotze batzuen aldean?**

a) Kostu material txikia.
b) Ez dute behar suteen aurkako babes gehigarririk.
c) Ez dute behar euskarria prestatzerik.
d) Prestazio mekaniko handiak dituzte masa areagotu gabe.

544. **Eroankortasuna bakarrik hartuta kontuan, zer material da hobea metalezko egiturak suaren eraginetik babesteko?**

a) Granitozko edo marmolezko estaldura.
b) Kare-agregatudun dentsitate normaleko hormigoia.
c) Igeltsu-plakak.
d) Bermikulitazko edo perlita eta zementuzko mortairu proiektatua.

545. **Zertarako erabiltzen da pintura intumeszentea?**

a) Kapilaritatearen ondoriozko hezetasunetatik babesteko.
b) Kondentsazioaren ondoriozko hezetasunetatik babesteko.
c) Sutik babesteko metalezko egiturak.
d) Zoru industrialak abrasiotik babesteko.

546. **Aluminiozko errezel-horma bat eta altzairuzko egitura bat zuzenean elkartzea:**

a) Bi elementuak hezetasunetik babestu behar dira; ez dago bestelako arazorik.
b) Altzairu herdoilgaitzezko torlojuak erabili behar dira beti.
c) Saihestu egin behar da, pare galvanikoaren ondoriozko korrosioa gertatzeko arriskua dago eta.
d) Ez da egin behar, jokaera mekaniko bateraezinak baitituzte.

547. **CTE SE – a, egitura-segurtasuna – altzairua dokumentuaren arabera, zer eragin du igeltsuak altzairuan?**

a) Orbanak ateratzen ditu gainazalean.
b) Korrosioa eragiten du.
c) Erresistentzia handiagoa ematen dio.
d) Suaren aurkako jokaera hobetzen dio.

548. **CTE SE – a, egitura-segurtasuna – altzairua dokumentuaren arabera, zer elementu motak du joera handiagoa geruza urratzeko?**

a) Lotura soldatuak, trakzioen noranzko nagusia elkartzen diren xaflen laminazioaren noranzkoarekiko zeharkakoa denean.
b) Lotura soldatuak, trakzioen noranzko nagusia elkartzen diren xaflen laminazioaren noranzkoarekiko paraleloa denean.
c) Aurreko xafla torlojutuko loturak, trakzioen noranzko nagusia elkartzen diren xaflen laminazioaren noranzkoarekiko zeharkakoa denean.
d) Konpresiopeko pilare bateko asentuko xaflako lotura soldatuak.

549. **CTE SE – a, egitura-segurtasuna – altzairua dokumentuaren arabera, tratamenduren bat egin behar da elementu baten galvanizatuaren eta akaberako pinturaren artean?**

a) Gainazal galvanizatua garbitu bakarrik.
b) Ez, galvanizatuak itsaspen ona dauka.
c) Bai, gainazala garbitu eta korrosioaren aurkako inprimazio bat eman, diluitzaile azidoarekin edo zurrustaka isurita.
d) Galvanizatuak ez du onartzen akaberako estaldurarik.

550. **CTE SE – a, egitura-segurtasuna – altzairua dokumentuaren arabera, proiektuan aurkakoa adierazi ezean, zer gutxieneko diametro izendatu izan behar du torloju batek lotura hariztatu batean?**

a) 8 mm.
b) 10 mm.
c) 12 mm.
d) 14 mm.

551. **Non du zurak gaitasun handiena tratamenduko produktuak inpregnatu eta xurgatzeko?**

a) Zurgiharrean.
b) Zurgizenean.
c) Bihotzean.
d) Azalean.

552. **Zer zurek izaten ditu dimentsio-aldaketa handienak hezetasun-aldaketen ondorioz?**

a) Pagoa.
b) Gaztaina.
c) Haritza.
d) Irokoa.

553. **Oro har, zuraren onddoak ateratzen dira hezetasun-maila hau duten piezetan:**

a) % 100etik gora
b) % 80tik gora.
c) % 20tik gora.
d) % 5etik gora.

554. **Xilofago hauen artetik zeinek kaltetzen dute gehien zura larba-zikloan?**

a) Onddoek.
b) Termitek.
c) Pipiek.
d) Lizunak.

555. **Agente biotiko hauen artetik, zeinek eragiten diote gehien zuraren erresistentzia mekanikoari?**

a) Zuraren intsektuek.
b) Bakterioek.
c) Onddo kromogenoek.
d) Usteltzearen onddoek.

556. **Zurezko egituretan, nola identifikatzen da termiten erasoa:**

a) Pupak, ugaltzeko, zuretik ateratzen denean egiten dituen zuloengatik eta ateratzen den zerrautsarengatik.
b) Oso zaila da; izan ere, lurrean egiten dute habia, eta zuraren barrualdea jaten dute, kanpora atera gabe.
c) Zurak hondar-substantzien ondorioz hartzen duen kolore grisagatik.
d) Erasoa izan duen zurak gainazalean dituen pitzadurengatik.

557. **Zein da zurerako babes-tratamendu prebentibo eraginkorrena?**

a) Autoklabea.
b) Luzaroko murgilketak.
c) Lainoztatzea.
d) Pintatzea.

558. **Cte db se-m egitura-segurtasuna – zura dokumentuaren arabera, zer sartze-maila eskatzen da testak agerian dituen zurezko hegal bateko habeetarako, % 20ko hezetasuna gaindi badaiteke?**

a) Ez dago eskakizun espezifikorik.
b) Gutxienez 3 mm piezaren aurpegi guztietako zurgizenean.
c) Gutxienez 6 mm piezaren aurpegi guztietako zurgizenean.
d) Erabateko sartzea zurgizenean.

559. **Egitura-segurtasuna – zura dokumentuaren arabera, zer tratamendu gomendatzen da barrualdean, egurats zabaletik babestuta eta hezetasunik jasan gabe, dauden habe eta pilareetarako?**

a) Ez dago gomendiorik.
b) Gainazala tratatzea produktu intsektizida batekin aurpegi guztietan.
c) Gainazala tratatzea produktu intsektizida eta fungizida batekin aurpegi guztietan.
d) Produktu fungizida gutxienez 25 mm sartzea aurpegi guztietan.

560. **Egitura-segurtasuna – zura dokumentuaren arabera, aldez aurretik xilofagoen erasoak izan dituzten egiturak birgaitzeko lanetan, zer babes maila izan behar dute obran jartzen diren eta detektatutako eraso horiek jasateko iraunkortasun natural nahikorik ez duten elementu berriek?**

a) Gutxienez piezaren aurpegi guztietako zurgizenean 3 mm sartzen den gainazal-tratamendu bat.
b) Gutxienez piezaren aurpegi guztietako zurgizenean 6 mm sartzen den gainazal-tratamendu bat.
c) Kasu guztietan, zurgizenean erabat sartzen den tratamendua.
d) Kasu guztietan, zurgizenean eta zurgiharrean erabat sartzen den tratamendua.

561. **Zur-espezie hauetatik, zein inpregnatzen da errazen xilofagoetatik babesteko tratamendu batekin?**

a) Izeia.
b) Zedro gorria.
c) Izeia.
d) Pagoa.

562. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren hezetasunaren aurkako babesari buruzko hs1 atalean, fatxadako ganberaren aireztapen-irekidurak garbi daudela egiaztatu behar da:**

a) 20 urtean behin.
b) 10 urtean behin.
c) 5 urtean behin.
d) Urtean behin.

563. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren hezetasunaren aurkako babesari buruzko hs1 atalean, fatxadako orri nagusian begiratu behar da ea arrakala eta pitzadurarik eta makurgunerik eta bestelako deformaziorik dagoen:**

a) 10 urtean behin.
b) 5 urtean behin.
c) 2 urtean behin.
d) Urtean behin.

564. **Zer toki dira aproposenak kondentsazioak agertzeko?**

a) Hormaren eta fatxadan integratutako pilarearen artean dauden eta isolamendu termiko jarraiturik ez duten txokoetan.
b) Fatxadako isolamenduaren eta zurgintzaren artean dauden eta jarraitutasuna duten janbetan.
c) Fatxadako isolamenduaren eta zurgintzaren artean dauden eta jarraitutasunik ez duten janbetan.
d) Fatxadako isolamenduaren eta zurgintzaren artean dauden eta jarraitutasuna duten barlasaietan.

565. **Gela bateko paramentuetako puntu hotz eta aireztapen gutxienekoetan pilatzen diren lizun-orbanak hezetasunak eragiten ditu. Zerk eragiten du hezetasun hori?**

a) Iragazpenak.
b) Xurgapenak.
c) Kapilaritateak.
d) Kondentsazioak.

566. **Lizun-orbanak ateratzeko arriskua modu esanguratsuan areagotzen da:**

a) Ura etengabe iragazi eta horma bustita egonez gero.
b) % 80tik gorako hezetasun erlatiboa mantentzen bada gainazal batean zenbait egunez.
c) Gaizki isolatutako espazio bateko tenperatura igotzen bada.
d) Sestrapean dagoen espazio bateko aireztapena igotzen bada.

567. **Oro har, zer gomendatzen da adreiluzko fabriketako efloreszentzia zuriak (sulfato disolbagarriak) ezabatzeko?**

a) Eskuilatu eta urarekin garbitzea.
b) Gainazal-xurgatzea.
c) Hondarra zurrustaka isurtzea.
d) Silikona-oinarriko disoluzio bat ematea.

568. **Masa konstitutiboaren beheko zerrenda hezetasunak hartuta duten hormak lehortzeko teknika sinpleenetako bat da:**

a) Horma osoa zeharkatzen duten zuloak egitea hiruzuloka, goitik behera, pixka bat makurtuta barrurantz, ura errazago lurruntzeko.
b) Zulo kalibratuak horizontalki lerrokatzea, zuloak behetik gora eginez lodieraren erdiraino eta pixka bat kanporantz makurtuta; arra beteko luzerako zeramikazko hodi oso porotsuak sartuko dira hor, zeinek aireztapen-azalera areagotzen baitute.
c) Zuloak egitea horizontalean, elkarren artean arra beteko tartea utzita, siloxano-disoluzio bat (% 6ko kontzentrazioan) presioan injektatu eta sekzio guztia inpregnatzeko.
d) Horma moztu altzairuzko hari batekin, eta hagun bereziak sartzea mugimenduak saihesteko; perimetro guztia zigilatu ondoren injekzio-hodiekin, zuloa bete behar da epoxi-erretxinak edo poliesterra oinarri dituen mortairu estanko bat sartuta.

569. **Zer hezetasun-mota tratatzen da elektroosmosi bidez?**

a) Iragazpena.
b) Ustekabekoa.
c) Kondentsazioa.
d) Kapilaritatea.

570. **Barrualdeko gainazaleko kondentsazioen ondoriozko hezetasunak gertatzen dira:**

a) Inguratzailearen barruko gainazalaren tenperatura ihintz-tenperaturaren berdina edo txikiagoa denean.
b) Inguratzailearen barruko gainazalaren tenperatura ihintz-tenperatura baino handiagoa denean.
c) Barruko gainazalaren tenperatura 10 °C-ra jaisten denean.
d) Barruko espazioaren hezetasun erlatiboa % 80tik gorakoa denean.

571. **Termikoki isolatuta eta barrutik lurrun-presiopean dagoen inguratzaileko itxitura batean, zer isolamendu termikok du arrisku txikiena kondentsazioaren ondoriozko hezetasunak sortzeko?**

a) Poliestireno estrusionatua (XPS).
b) Poliestireno hedatua (EPS).
c) *In situ* ezarritako poliuretano-bitsa.
d) Artile minerala (MW).

572. **Nola eratzen dira kondentsazio higroskopikoak?**

a) Fatxadaren barruko punturen batean gertatzen da hezetasuna; adibidez, itxituretan dauden ur hotzaren hodietan.
b) Ura presio handiegia duelako sartu izanagatik agertzen da hezetasuna; adibidez, fatxadaren itxiturara atxikita dagoen jardinera batetik.
c) Materialaren poroaren barrualdean gatzak egotea izaten da kausa nagusia; izan ere, giroko ur-lurruna xurgatzen dute gatz horiek.
d) Lurzoruan dagoen ura igotzen da kanpoko plataforma horizontalekin (adibidez, espaloi, balkoi eta barlasaiak) kontaktuan dagoen fatxada bateko poroetatik.

573. **Barruko gainazaletako kondentsazioak konpontzeko estrategiak:**

a) Itxituraren barrualdeko gainazaleko tenperatura eta lokaleko ur-lurrunaren presioa jaitsi.
b) Itxituraren barrualdeko gainazaleko tenperatura igo eta lokaleko ur-lurrunaren presioa jaitsi.
c) Pintura lurrunarekiko iragazkor hidrofugo bat ematea fatxadaren kanpoko aurpegian.
d) Ganberako lurrun-presioa desagerraraztea, fatxadako kanpoko orrian zuloak eginda.

574. **Oro har, zer motatako pitzadura sortzen du hegalik ez duen eta mendebaldera ematen duen fatxada bateko gehiegizko deformazio horizontal batek, baldin eta pitzadura eguzkiarekiko esposizioagatiko dilatazio termikoak eragin badu?**

a) Pitzadura bertikal garbia esposizio gutxieneko fatxadarekiko izkina mugakidean.
b) Pitzadura horizontal garbia gailur-petoaren eta estalkiko forjatuaren elkargunean.
c) Pitzadura diagonal mailakatu eta goranzkoa, esposizio handieneko fatxadarekiko izkinarantz.
d) Ausazko pitzadurak, nabarmenagoak itxituraren erdigunean.

575. **Hezetasun gutxiegirekin ondutako mortairuz egindako estaldura jarraituak eragin ohi ditu:**

a) Mapa-formako pitzadurak.
b) Armiarma-sarearen formako pitzadurak.
c) Pitzadura nabarmenki bertikalak, arra beteko distantziarekin elkarren artean.
d) Pitzadura horizontal garbia, izkina batekiko elkargunean tokian adarkatua.

576. **Geruza bateko estaldura batean, zerk eragiten ditu banaketa nahiko erregularreko pitzadura txiki eta azalekoak?**

a) Egitura-mugimenduek.
b) Gogortze-aldiko uzkurtzeek.
c) Euskarriaren heterogeneotasunak.
d) Noizbehinkako tenperatura altuek.

577. **Oro har, fatxadetako zikinkeriak patroi hau jarraitzen du:**

a) Barlasaiaren azpiko eremuak garbiago egoten dira, euritik babestuta daudelako.
b) Izkina ganbilak gehiago zikintzen dira, euriarekiko esposizio handiagoa dutelako.
c) Izkina ahurrak garbiago egoten dira, euritik babestuago daudelako.
d) Goialdeko zatiak garbiago egoten dira, euriarekiko esposizio handiagoa dutelako.

578. **Irizpide orokor gisa, fatxada bat urarekin garbitzeko metodo bat hautatu behar denean:**

a) 10 mm-ko sartze-ahalmena izan behar du.
b) Zikinkeria disolbatzeko ahalmena izan behar du.
c) Gutxienez 140 kPa-eko presioan aplikatu behar da.
d) Materialaren antzeko pH-a izan behar du, eta zikinkeria bigundu behar du, ez disolbatu.

579. **Oro har, eguzkiaren erradiazio zuzena jasotzen duen eraikin bateko estalki lau eta termikoki isolatu gabeko batek eragiten ditu:**

a) Pitzadura horizontal bat forjatuaren eta petoaren elkargunean, forjatuaren dilatazioaren ondorioz.
b) Pitzadura nabarmenki horizontalak petoan, forjatuaren dilatazio bertikalaren ondorioz.
c) Mapa-formako pitzadurak forjatuaren konpresio-geruzan.
d) Pitzadura adarkatuak gailur-petoan.

580. **Materialen arteko bateraezintasunaren ondorioz, pvc sintetikozko xaflekin inpermeabilizatutako estalkia partzialki berriztatzen denean, saihestu behar da zuzeneko kontaktua izatea:**

a) Harri-zuntzarekin.
b) Poliuretano-bitsekin.
c) Poliestireno estruituarekin.
d) Zur-zuntzekin eratutako isolamenduekin.

581. **Erabat egurats zabalean dauden xafla sintetikoekin inpermeabilizatuta dagoen estalki batean, kondentsazio interstizialak saihesteko, gomendatzen da:**

a) Lurrun-hesirik ez jartzea.
b) Lurrun-hesia jartzea forjatuaren gainean eta isolamendu termikoaren gainean.
c) Lurrun-hesia jartzea forjatuaren eta isolamendu termikoaren artean.
d) Lurrun-hesia jartzea isolamendu termikoaren eta xafla sintetikoaren artean.

582. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren hezetasunaren aurkako babesari buruzko hs1 atalaren arabera, estalkiko hustubideak (estoldazulo, erreten eta gainezkabideak) garbitu behar dira eta ondo funtzionatzen dutela egiaztatu behar da maiztasun jakin batekin:**

a) 5 urtean behin.
b) 2 urtean behin.
c) Urtean behin.
d) Udazkenero.

583. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren barnealdeko airearen kalitateari buruzko hs3 atalaren arabera, aireztapen-irekidurak mantendu eta zaintzeko, zenbatean behin garbitu behar dira?**

a) Sei hilean behin.
b) Urtean behin.
c) 3 urtean behin.
d) 5 urtean behin.

584. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren ur-hornidurari buruzko hs4 atalaren arabera, zerbitzuz kanpo denbora jakin bat baino gehiago badaude giza kontsumoko uren instalazioak, konexioa itxi eta sarea hustu behar da. zenbatekoa da denbora hori?**

a) 3 hilabete.
b) 6 hilabete.
c) Urtean behin.
d) 5 urtean behin.

585. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren ur-hornidurari buruzko hs4 atalaren arabera, aldi baterako zerbitzuz kanpo eta hutsik egon diren giza kontsumoko uren instalazioak sakon garbitu behar dira, prozedura honi jarraituz:**

a) Pasaera-giltza guztiak itxita daudela, ixteko giltza nagusia erabat ireki behar da; denbora bat igarotakoan, pasaera-giltza guztiak ireki behar dira aldi berean guztiz, eta hodiak garbitu.
b) Pasaera-giltza guztiak itxita daudela, ixteko giltza nagusia erabat ireki behar da; ordubete igarotakoan, pasaera-giltza guztiak ixten joan behar da, gertuenekotik edo baxuenetik hasita, eta hodiak garbitu behar dira.
c) Hasieran pixka bat bakarrik ireki behar da ixteko giltza nagusia; hodiei airea atera behar zaie denbora batez, poliki irekiz pasaera-giltza bakoitza, urrunen edo altuen dagoenetik hasita, harik eta aire gehiago ateratzen ez den arte; ixteko giltzak erabat ireki eta hodiak garbitu behar dira.
d) Hasieran pixka bat bakarrik ireki behar da ixteko giltza nagusia; hodiei airea atera behar zaie denbora batez, poliki irekiz pasaera-giltza bakoitza, gertuen edo baxuen dagoenetik hasita, harik eta aire gehiago ateratzen ez den arte; ixteko giltzak erabat ireki eta hodiak garbitu behar dira.

586. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren ur-hornidurari buruzko hs4 atalaren arabera, legionellosia prebenitu eta saihesteko, ur beroaren zirkuituko giza kontsumorako barneko instalazioan, oro har:**

a) Tenperatura 50 ˚C-tik gora mantendu behar da zirkuituaren puntu urrunenean edo metagailura itzultzeko hodian, eta urak 70 ˚C harrapatzeko aukera eman behar du.
b) Tenperatura 40 ˚C-tik gora mantendu behar da zirkuituaren puntu urrunenean edo metagailura itzultzeko hodian, eta urak 80 ˚C harrapatzeko aukera eman behar du.
c) Tenperatura 36 ˚C-tik gora mantendu behar da zirkuituaren puntu urrunenean edo metagailura itzultzeko hodian, eta urak 100 ˚C harrapatzeko aukera eman behar du.
d) 60ºC-ko tenperatura konstantea mantendu behar du zirkuitu guztian, puntu urrunenean ere.

587. **865/2003 Errege-Dekretuaren arabera, zeina cte db hs osasungarritasuna dokumentuaren ur-hornidurari buruzko hs4 atalak aipatzen baitu, legionella errazago ugaldu eta sakabanatzeko aukera daukate:**

a) Iturri apaingarriek.
b) Giza kontsumorako ur hotzeko barruko instalazioek.
c) Itzulera-zirkuiturik gabeko ur bero sanitarioko instalazioek.
d) Metagailua eta itzulera-zirkuitua dituzten ur bero sanitarioko instalazioek.

588. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren ur-hornidurari buruzko hs4 atalaren arabera, altzairu galvanizatuzko iturgintza-instalazio bat eraberritzean:**

a) Ezin izango da akoplatu altzairu erdoilgaitzezko hodirik.
b) Altzairu galvanizatuzko hodiak bakarrik erabili ahal izango dira.
c) Kobrezko hodiak akoplatu ahal izango dira altzairu galvanizatuzko hodien ondoren, uraren zirkulazioaren noranzkoan; atzeraezeko balbula bat muntatu behar da bi hodien artean.
d) Kobrezko hodiak jar daitezke, betiere altzairu galvanizatuzko hodien aurretik, uraren zirkulazioaren noranzkoan.

589. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren uren ebakuazioari buruzko hs5 atalaren arabera, saneamendu-instalazioak ondo funtzionatzeko, lokal hezeetako eta ibiltzeko estalkietako estolda-zuloak, eta, halaber, sifoi-potoak, garbitu behar dira, gutxienez:**

a) Ekaitza dagoen bakoitzean.
b) 6 hilabetean behin.
d) 5 urtean behin.

590. **CTE DB HS osasungarritasuna dokumentuaren uren ebakuazioari buruzko hs5 atalaren arabera, zorroten azpiko kutxatilak, loturako-kutxatilak eta sifoi-kutxatilak garbitu behar dira:**

a) Urtean behin, edo lehenago, usaina aditzen bada.
b) 5 urtean behin, edo lehenago, usaina aditzen bada.
c) 10 urtean behin, edo lehenago, usaina aditzen bada.
d) 20 urtean behin, edo lehenago, usaina aditzen bada.

591. **CTE DB HE energia aurreztea dokumentuaren gutxieneko eguzki-ekarpenari buruzko he4 atalaren arabera, instalazioaren mantentze-planak barne hartzen du:**

a) Gutxienez, instalazioak sei hilean behin ikuskatzea 20 m^2-tik gorako erakarpen-azalera badute, eta urtean behin, 20 m^2-tik beherako erakarpen-azalera badute.
b) Gutxienez, instalazioak hiru hilean behin ikuskatzea 50 m^2-tik gorako erakarpen-azalera badute, eta sei hilean behin,50 m^2-tik beherako erakarpen-azalera badute.
c) Urtean behin ikuskatu behar dira, instalazioaren erakarpen-azalera gorabehera.
d) Urtean behin ikuskatu behar dira; instalazioa dagoen zona klimatikoaren araberakoa izango da ikuskatzea.

592. **2/2006 Legearen arabera, zein dira hirigintzaren printzipio orokorrak?**

a) Hauek dira hirigintzaren printzipio orokorrak: garapen jasangarriaren printzipioa, interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa; hirigintzako plangintzarako eskumenaren printzipioa; hitzartzearen printzipioa; hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipioa; herritarren parte-hartzearen printzipioa; eta jendaurreko informazioaren printzipioa.

b) Hauek dira hirigintzaren printzipio orokorrak: garapen jasangarriaren printzipioa, interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa; hirigintzako plangintzarako eskumenaren printzipioa; kooperazioaren printzipioa; hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipioa; herritarren parte-hartzearen printzipioa; eta jendaurreko informazioaren printzipioa.

c) Hauek dira hirigintzaren printzipio orokorrak: garapen jasangarriaren printzipioa, interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa; hirigintzako plangintzarako eskumenaren printzipioa; kooperazioaren printzipioa; hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipioa; eta herritarren parte-hartzearen printzipioa.

d) Hauek dira hirigintzaren printzipio orokorrak: garapen jasangarriaren printzipioa, interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa; hitzartzearen printzipioa; hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipioa; herritarren parte-hartzearen printzipioa; eta jendaurreko informazioaren printzipioa.

593. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduak honela sailkatzen du lurzorua:**

a) Hiri-lurzorua eta landa-lurzorua

b) Hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta landa-lurzorua

c) Hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina

d) Hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta landa-lurzorua

594. **2/2006 Legearen arabera, lurzoru bat hiri-lurzoru gisa sailkatu ahal izango da:**

a) Hornigai hauek baditu: ibilgailuentzako sarbidea –erabilera publikoko bide zolatuz egina–; ur-hornidura; euri-ura eta ur beltza husteko sarea; behe-tentsioko energia elektrikoko hornidura. Hornidura horien tamainak, emariak, ahalmenak eta tentsioak izan beharko dute eraikitzeko eta lurzorua okupatzeko lehendik dauden eraikinei eta hirigintza-antolamenduan aurreikusitako eraikinei zerbitzu egokia emateko adinakoak.

b) Lursailek, nahiz eta aurreko erantzunean adierazitako zerbitzuetako batzuk ez eduki, beren antolamendua finkatuta badute, eraikuntzak, gutxienez, hirigintza-antolamenduaren arabera izendatzen zaien eremu baliagarrien bi herenak okupatzeagatik.

c) Aurreko bi kasuetako edozeinetan, baina lehendik dagoen hiri-bilbean –sailkapena egiten duen plan orokorrak bere egiten duen neurrian– sartuta dauden edo sar daitezkeen lursailak.

d) Ingurumenaren aldetik babestuta dagoenean.

595. **Zer kategoria aurreikusten dira 2/2006 Legean hiri-lurzoruetarako eta lurzoru urbanizagarrietarako, hurrenez hurren?**

a) Sektorizatua eta sektorizatugabea, eta finkatua eta finkatugabea, hurrenez hurren.

b) Finkatua eta finkatugabea, eta sektorizatua eta sektorizatugabea, hurrenez hurren.

c) Ez da aurreikusten kategoriarik hiri-lurzorurako eta lurzoru urbanizagarrirako.

d) Sektorizatua eta finkatugabea, eta finkatua eta sektorizatugabea, hurrenez hurren.

596. **2/2006 Legearen arabera, lurzoru bat urbanizagarri gisa sailkatu ahal izango da:**

a) Plangintza orokorrean ez atxikitzea hiri-lurzoruetara edo urbanizaezinetara.
b) Beharrezkoa denean lursailen ezaugarriak gordetzea, azpiegitura, zerbitzu, zuzkidura edo ekipamendu publikoak edo interes publikokoak bere osotasunean babesteko.
c) Bertako lehen ekonomia-sektorea sustatzearren eskakizun bereziak dituenean ezarrita, batez ere geografiaren ezaugarriak edo jatorrizko deiturak direla-eta lehen sektorearekin duen lotura arrazoizkoa den udaletan.
d) Hirigintza-eraldaketak higadura, erorketa, luizi, sute edo uholdeetarako arriskua edo beste arrisku natural edo teknologiko garrantzitsu batzuk, bereziki hondamendi-arriskua, sortzen dituenean edo halakoen arriskua saihesten ez duenean.

597. **Lurzoru bat urbanizaezin gisa sailkatu beharko da:**

a) Arloko legediaren aginduz hirigintza-eraldaketa debekatuta ez duenean herri-jabariko elementuak babesteko edo zaintzeko.
b) Hiri-bilbean sartuta egon eta hornidura, saneamendua, argindarra, argiteria eta espazio publikotik oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bidea badu.
c) Haren hirigintza-eraldaketa ez denean bidezkoa eta ez denean egokia hiri-garapenerako.
d) Hornigai hauek baditu: ibilgailuentzako sarbidea —erabilera publikoko bide zolatuz egina—; ur-hornidura; euri-ura eta ur beltza husteko sarea; behe-tentsioko energia elektrikoko hornidura. Hornidura horien tamainak, emariak, ahalmenak eta tentsioak izan beharko dute eraikitzeko eta lurzorua okupatzeko lehendik dauden eraikinei eta hirigintza-antolamenduan aurreikusitako eraikinei zerbitzu egokia emateko adinakoak.

598. **Hirigintza-antolamenduko eremu baten hirigintza-eraikigarritasuntzat joko da:**

a) Hirigintza-antolamenduaren eremuko sabai-azalera osoa, eraikitakoa eta eraiki gabea, sestra gainekoa eta sestra azpikoa.
b) Eraikigarritasun fisikoa ken zuzkidura publikoei dagokien eraikigarritasuna.
c) Eraikigarritasun fisikoa gehi ekipamendu publikoei dagokien eraikigarritasuna.
d) Hirigintza-antolamenduaren eremuko sabai-azalera osoa, eraikitakoa eta eraiki gabea, sestra gainekoa eta sestra azpikoa, ken irabazizko ekipamenduetarako azalera.

599. **Hirigintza-antolamenduko eremu baten eraikigarritasun fisikotzat joko da:**

a) Hirigintza-antolamenduaren eremuko sestra gaineko eraikigarritasun guztia.
b) Hirigintza-eraikigarritasuna gehi zuzkidura publikoei dagokien eraikigarritasuna.
c) Hirigintza-eraikigarritasuna gehi ekipamendu publiko eta pribatuetarako aurreikusitako eraikigarritasuna.
d) Hirigintza-antolamenduaren eremuko sestra azpiko eraikigarritasun guztia.

600. **Hirigintza-antolamenduaren kategoriak:**

a) Ez dago hirigintza-antolamenduaren kategoriarik.
b) Finkatua eta finkatugabea; edo sektorizatua eta sektorizatugabea.
c) Egiturazkoa eta xehatua.
d) Finkatua eta finkatugabea.

601. **2/2006 Legean aurreikusitako hirigintza-antolamenduko eremuak honela tipifikatutako antolamendu xeheko eremuak dira:**

a) Lurzoru urbanizagarrirako eta hiri-lurzorurako area eta sektoreak, hurrenez hurren.
b) Hiri-lurzorurako nahiz lurzoru urbanizagarrirako eremu egituratu eta xehatuak.
c) Hiri-lurzorurako areak eta lurzoru urbanizagarrirako sektoreak.
d) Hiri-lurzorurako sektoreak eta lurzoru urbanizagarrirako areak.

602. **Lurzoru urbanizagarrian, plangintzan jasotako egiturazko antolamenduak zehaztapen hauek aurreikusiko ditu:**

a) Lerrokadak eta sestrak zehaztea.
b) Lurzorua kategorizatzea.
c) Aurreikusitako hirigintza-eraikigarritasuna zehaztea.
d) Bolumenen antolamendua

603. **Area edo sektore baten antolamendu xehatuak zehaztapen hauek aurreikusiko ditu:**

a) Lurzoruaren sailkapena.
b) Lerrokadak eta sestrak zehaztea.
c) Sistema orokorrak zehaztea.
d) Kalifikazio globala.

604. **Hauek dira egiturazko antolamendua zehazteko hirigintza-tresnak:**

a) Hiri-antolamenduko plan orokorra, plangintza orokorra bateragarri egiteko plana eta plan partziala.
b) Plan bereziak, plangintza orokorra bateragarri egiteko plana eta plan partziala.
c) Hiri-antolamenduko plan orokorra, plangintza orokorra bateragarri egiteko plana eta sektorizatze-plana.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorra eta plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.

605. **2/2006 Legearen 59. artikuluan, antolamendu xehatua zehazteko hirigintza-tresna hauek aurreikusten dira:**

a) Plan partzialak, egiturazko antolamendua garatzeko plan bereziak eta hiri-antolamenduko plan bereziak.
b) Hiri-antolamenduko plan orokorrak, plan partzialak eta hiri-antolamenduko plan bereziak.
c) Hiri-antolamenduko plan orokorrak, egiturazko antolamendua garatzeko plan bereziak eta hiri-antolamenduko plan bereziak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak, plan partzialak.

606. **Hirigintza antolatzeko zer tresna osagarri jasotzen dira 2/2006 Legean?**

a) Xehetasun-azterketak, katalogoak eta ordenantzak.
b) Katalogoak, xehetasun-azterketak eta plan partzialak.
c) Plan bereziak, xehetasun-azterketak eta plan partzialak.
d) Katalogoak eta ordenantzak.

607. **2/2006 Legearen arabera, zein da hiri-antolamenduko plan orokor baten eduki substantiboa?**

a) Hiri-antolamenduko plan orokorrak jaso behar gutxienez udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta xehatua.
b) Hiri-antolamenduko plan orokorrak jaso behar gutxienez udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoru finkatuaren antolamendu xehatua.
c) Hiri-antolamenduko plan orokorrak jaso behar gutxienez udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoru finkatuaren eta finkatugabearen antolamendu xehatua.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak jaso behar gutxienez udalerri osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatua.

608. **2/2006 Legearen arabera, zein da plan partzial baten xedea?**

a) Hiri-antolamenduko plan orokorrak lurzoru urbanizagarri modura sailkaturiko sektoreak mugatzea.
b) Hiri-lurzoruko area baten egiturazko antolamendua eta xehatua ezartzea.
c) Hiri-antolamenduko plan orokorrak lurzoru urbanizagarri modura sailkaturiko sektore jakin baten antolamendu xehatua.
d) Lurzoru urbanizaezineko area baten egiturazko antolamendua eta xehatua ezartzea.

609. **2/2006 legeak zer muga ezartzen du hirigintza-eraikigarritasunerako erabilera nagusia bizitegirakoa duten hiri-lurzoru finkatugabeetan?**

a) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,3 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
b) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,1 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
c) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,3 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
d) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,3 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.

610. **Zer administraziori dagokio 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan plan partzialak egin eta onartzea?**

a) Eusko Jaurlaritzari.
b) Foru-aldundiari.
c) Udalari.
d) Sustatzaileari.

611. **.Zer administraziori dagokio 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan plan partzialak behin betiko onartzea?**

a) Eusko Jaurlaritzari.
b) Foru-aldundiari.
c) Udalari.
d) Sustatzaileari.

612. **Zer motatako jarduketak aurreikusten ditu 2/2006 legeak hirigintza-antolamendua egikaritzeko?**

a) Jarduketa isolatuak, zuzkidura-jarduketak, jarduketa integratuak eta egikaritze-unitateak.
b) Jarduketa isolatuak, zuzkidura-jarduketak eta jarduketa integratuak.
c) Jarduketa isolatuak, zuzkidura-jarduketak, jarduketa integratuak eta sistema orokor eta tokikoen sareetako zuzkidura publikoen egikaritze-jarduketak.
d) Zuzkidura-jarduketak eta jarduketa integratuak.

613. **Noiz izapidetzen da hirigintzako jarduketa-programa?**

a) Garapeneko plangintzari behin betiko onespena eman ondoren izapidetzen da beti programa.
b) Hirigintzako jarduketa-programa edozein unetan bideratuko da, garapeneko plangintzari behin betiko onespena eman ondoren edo harekin batera edo aldi berean.
c) Programa ezingo da izapidetu garapeneko plangintzarekin batera.
d) Garapeneko plangintzari behin-behingo onespena eman ondoren izapidetzen da beti programa.

614. **Zer jarduketa-sistema aurreikusten dira 2/2006 Legean?**

a) Egikaritze publikoko araubidean: lankidetza-sistema eta nahitaezko desjabetzearen sistema; eta administrazio-emakida bidezko egikaritze pribatuko araubidean: eragile urbanizatzailearen sistema eta hitzarmen-sistema.
b) Egikaritze publikoko araubidean: hitzarmen-sistema eta nahitaezko desjabetzearen sistema; eta administrazio-emakida bidezko egikaritze pribatuko araubidean: eragile urbanizatzailearen sistema eta lankidetza-sistema.
c) Egikaritze publikoko araubidean: hitzarmen-sistema, lankidetza-sistema eta nahitaezko desjabetzearen sistema; eta administrazio-emakida bidezko egikaritze pribatuko araubidean: eragile urbanizatzailearen sistema.
d) Egikaritze publikoko araubidean: hitzarmen-sistema; eta administrazio-emakida bidezko egikaritze pribatuko araubidean: eragile urbanizatzailearen sistema eta lankidetza-sistema.

615. **2/2006 Legearen arabera, noiz erabakitzen da jarduketa-sistema?**

a) Urbanizatzeko jarduketa-programak behin betiko onartzeko egintzan beti zehaztu behar da jarduketa-sistema. Dena den, zehaztapen hori lehenago ere aurreikus daiteke plangintza orokorrean, sektorekatze-planean edo antolamendu xehatuko planean, edo geroago aldatu ere egin daiteke.
b) Plan orokorra, sektorekatze-plana edo antolamendu xehatuko plana behin betiko onartzeko egintzan beti zehaztu behar da jarduketa-sistema, eta geroago aldatu ere egin daiteke.
c) Plan orokorra, sektorekatze-plana edo antolamendu xehatuko plana behin betiko onartzeko egintzan beti zehaztu behar da jarduketa-sistema. eta geroago ezingo da aldatu.
d) Plan orokorra, sektorekatze-plana edo antolamendu xehatuko plana behin-behinean onartzeko egintzan beti zehaztu behar da jarduketa-sistema. eta geroago aldatu ere egin daiteke.

616. **2/2006 Legearen arabera, lizentziak emango dira:**

a) Obren oinarrizko proiektuan oinarrituta, baina, hala badagokio, obra horien egikaritze-proiektua ere aurkeztu beharko da aurrerago.
b) Obren oinarrizko proiektuan oinarrituta; ez da beharrezkoa izango egikaritze-proiektua aurkeztea.
c) Egikaritze-proiektuan oinarrituta.
d) Beti obren oinarrizko proiektuan oinarrituta.

617. **2/2006 Legearen arabera, gutxienez zer zehaztapen izan behar dituzte lizentziek?**

a) Obrak hasteko eta amaitzeko epea.
b) Obrak hasteko epea eta obrak egiteko epe maximoa.
c) Obrak egiten hasteko epea, obrak egiteko epe maximoa eta obrak gehienez zenbat denboraz egon daitezkeen etenda, errua sustatzailearena denean.
d) Obrak amaitzeko epea.

618. **2/2006 arabera, baimena iraungi bada, eska daiteke berriro?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Bai edo ez.
d) Inoiz ere ez.

619. **Hirigintza-hitzarmenak edozein pertsonak kontsulta ditzakeen dokumentu publikoak dira?**

a) Bai.
b) Ez.
c) Bai edo ez.
d) Inoiz ere ez.

620. **Hirigintza-hitzarmenak, xedearen arabera, izan daitezke:**

a) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: antolamendu xehatuaren edukia zehazteko; eta hirigintza egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak ezartzeko.
b) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean den plangintzan zer aldaketa eta nolako edukiarekin egin daitezkeen zehazteko; eta hirigintza egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak ezartzeko.
c) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean den plangintzan zer aldaketa eta nolako edukiarekin egin daitezkeen zehazteko; eta hirigintza egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza egikaritzean erabili behar den jarduketa-sistema ezartzeko.
d) Hirigintza egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak ezartzeko.

621. **Hirigintza-antolamenduari buruzko hirigintza-hitzarmenak:**

a) Plangintza-aldaketak behin betiko onespenik ez badu, besterik gabe suntsitutzat joko dira.
b) Baliozkotasuna izaten jarraituko dute, nahiz eta azkenean plangintza-aldaketak behin betiko onespenik ez lortu.
c) Plangintza-aldaketak behin betiko onespena badu, besterik gabe suntsitutzat joko dira.
d) Baliozkotasuna izaten jarraituko dute, nahiz eta azkenean plangintza-aldaketak onespenik ez badu ere.

622. **2/2006 legeak zer muga ezartzen du sestra gaineko gutxieneko hirigintza-eraikigarritasunerako, 7000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, zuzkidura publikoez bestelako erabileretarako, batez ere bizitegietarako erabili behar den lurzoru urbanizagarrietan?**

a) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,3 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
b) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,1 metro koadroko sabai-indizea sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
c) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,3 metro koadroko sabai-indizea sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
d) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,3 metro koadroko sabai-indizea sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.

623. **2/2006 legeak zer muga ezartzen du sestra gaineko gutxieneko eraikigarritasun fisikorako, 7000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, zuzkidura publikoez bestelako erabileretarako, batez ere bizitegietarako erabili behar den lurzoru urbanizagarrietan?**

a) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,3 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
b) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,1 metro koadroko sabai-indizea arearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe, Bilbo, Donostia eta Gasteiz udalerriak barruan dituzten area funtzionaletan sartuta ez badaude.
c) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 1,3 metro koadroko sabai-indizea sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
d) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,3 metro koadroko sabai-indizea sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.

624. **2/2006 legeak batez ere industrietarako eta hirugarren sektorerako erabili behar diren hiri-lurzoru finkatugabe eta urbanizagarrietarako aurreikusten duen okupazio-mugan**

a) Area edo sektorearen azalera guztiaren % 25 bete behar dute, gutxienez, eraikinek.
b) Area edo sektorearen azalera guztiaren % 40 bete behar dute, gutxienez, eraikinek.
c) Area edo sektorearen azalera guztiaren % 30 bete behar dute, gutxienez, eraikinek.
d) Area edo sektorearen azalera guztiaren % 50 bete behar dute, gutxienez, eraikinek.

625. **2/2006 legeak zer muga ezartzen du sestra gaineko gutxieneko eraikigarritasun fisikorako, 7.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, zuzkidura publikoez bestelako erabileretarako, batez ere bizitegietarako erabili behar den lurzoru urbanizagarrietan?**

a) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,3 metro koadroko sabai-indizea area edo sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
b) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,25 metro koadroko sabai-indizea area edo sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
c) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,4 metro koadroko sabai-indizea area edo sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.
d) Lurzoru metro koadro bakoitzeko 0,15 metro koadroko sabai-indizea area edo sektorearen azaleran, sistema orokorretarako lurzorua zenbatu gabe.

626. **2/2006 Legearen arabera, hiri-antolamenduko plan orokor baten aurrerakina jendaurrean eduki beharko da denbora-tarte honetan gutxienez:**

a) Hilabete.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

627. **2/2006 Legearen arabera, hasierako onespena eman zaion hiri-antolamenduko plan orokorra jendaurrean eduki beharko da:**

a) hilabete.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

628. **2/2006 Legearen arabera, hasierako onespena eman zaien plan partzialak informazio publikoaren izapidea bete beharko dute:**

a) 20 egun.
b) Hilabete.
c) 2 hilabete.
d) 45 egun.

629. **2/2006 Legearen arabera, udalak plan partziala behin-behingoz edo behin betiko –dagokionaren arabera– onartzeko epea (hasierako onespenetik zenbatzen hasita), gehienez ere, izango da:**

a) Sei hilean behin.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

630. **2/2006 Legearen arabera, zer plan berezik behar dute beti ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa?**

a) Lurzoru urbanizaezinari edo lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeari eragiten dioten babestu eta kontserbatzeko plan bereziek.
b) Eusko Jaurlaritzako edo foru-administrazioko sail baten sektore-eskumenetan oinarritzen diren plan bereziek.
c) Birgaitze-plan bereziek.
d) Monumentu multzoak eta higiezin kalifikatuak babestu eta kontserbatzeko plan bereziak.

631. **2/2006 Legearen arabera, udalek zenbateko epea dute gehienez xehetasun-azterketei hasierako onespena emateko?**

a) Sei hilean behin.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

632. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresnaren xedea da antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatu edo egokitzea?**

a) Xehetasun-azterketena.
b) Ordenantzena.
c) Plan partzialena.
d) Plan bereziena.

633. **2/2006 Legearen arabera, xehetasun-azterketek gehienez zenbat denbora egon behar dute jendaurrean, hasierako onespena eman ostean?**

a) 20 egun.
b) Hilabete.
c) 2 hilabete.
d) 45 egun.

634. **2/2006 Legearen arabera, udalek zenbateko epea dute gehienez xehetasun-azterketak behin betiko onartzeko, hasierako onespena ematen zaienetik?**

a) Sei hilean behin.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

635. **2/2006 Legearen arabera, hirigintzako eta eraikuntzako udal-ordenantzak:**

a) 2/2006 Legean xehetasun-azterketetarako ezartzen denaren arabera izapidetuko dira.
b) 2/2006 Legean katalogoetarako ezartzen denaren arabera izapidetuko dira.
c) Toki-erregimenari buruzko araudiaren arabera izapidetuko dira.
d) Udalak ezartzen dituen epeen arabera izapidetuko dira.

636. **2/2006 Legearen arabera, zer agiri jaso behar ditu gutxienez hiri-antolamenduko plan orokor batek?**

a) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, ingurumen-inpaktuari buruzko aurretiazko txostena betetzearen justifikazio-memoria, ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa, informazio-planoak, egiturazko antolamenduaren planoak, antolamendu xehatuaren planoak.

b) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa, informazio-planoak, egiturazko antolamenduaren planoak, antolamendu xehatuaren planoak.

c) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, ingurumen-inpaktuari buruzko aurretiazko txostena betetzearen justifikazio-memoria, informazio-planoak, egiturazko antolamenduaren planoak, antolamendu xehatuaren planoak.

d) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen justifikazio-memoria, ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa, egiturazko antolamenduaren planoak, antolamendu xehatuaren planoak.

637. **2/2006 Legearen arabera, zer agiri jaso behar ditu gutxienez plan partzial batek?**

a) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, informazio-planoak, antolamendu xehatuaren planoak, egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa, plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak eta ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

b) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, informazio-planoak, egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren planoak, egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa, plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak eta ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

c) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, informazio-planoak, antolamendu xehatuaren planoak, plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak eta ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

d) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, informazio-planoak, antolamendu xehatuaren planoak, egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa, eta ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

638. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresnak ezartzen du antolamendua, batetik, udalerri osorako edo udalerriaren zati baterako, lurzoru-mota bat edo gehiago hartuta, eta bestetik, plangintza orokorrak definitutako edo plan bereziak berak bere xedearekin bat etorriz zehaztutako esparru edo area jakin baterako?**

a) Plan bereziak.

b) Plan partzialak.

c) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

d) Sektorizatze-planak.

639. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresnak ematen du aukera antolamendu xehatuan jasotako urbanizatze-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzeko?**

a) Xehetasun-azterketak.
b) Plan partzialak.
c) Katalogoak.
d) Ordenantzak.

640. **2/2006 Legearen arabera, zer agiri jaso behar ditu gutxienez xehetasun-azterketa batek?**

a) Informazio-memoria, ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa, informazio-planoak eta antolamenduaren planoak.
b) Justifikazio-memoria, informazio-planoak, antolamenduaren planoak.
c) Justifikazio-memoria, informazio-planoak, egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren planoak.
d) Planaren informazio- eta justifikazio-memoriak, informazio-planoak, antolamendu xehatuaren planoak, egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa, eta ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

641. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresna osagarrik zehaztu eta zerrenda batera biltzen ditu hirigintza-antolamenduan babestu beharreko ondasun naturalak eta artifizialak, eta jasotzen ditu haien ezaugarriak, eta, beharrezkoa bada, zein maila edo kalifikazio dagokien –aplikatzekoa den Legearen arabera– eta babesa arautzeko zehaztapenak zein planetan dauzkaten ere zehazten du?**

a) Xehetasun-azterketak.
b) Plan partzialak.
c) Katalogoak.
d) Ordenantzak.

642. **2/2006 Legearen arabera, plan berezietako gutxieneko agiriak tresna honetarako eskatzen direnen antzekoak dira (betiere planaren helburuari lotuak):**

a) Xehetasun-azterketak.
b) Plan partzialak.
c) Katalogoak.
d) Ordenantzak.

643. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresnaren xedea da plan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzea, planen zehaztapenek xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez?**

a) Babesteko eta kontserbatzeko plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Hiri-berrikuntzako plan bereziak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

644. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresnaren xedea da plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoru areetan antolamendu xehatua ezarrita?**

a) Babesteko eta kontserbatzeko plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Hiri-berrikuntzako plan bereziak.
d) Hiri-antolamenduko plan berezia.

645. **2/2006 Legearen arabera, hirigintza-antolamenduko zer tresna erabil daiteke plan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzeko, planen zehaztapenek xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez?**

a) Babesteko eta kontserbatzeko plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Hiri-berrikuntzako plan bereziak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

646. **2/2006 Legearen arabera, ondarea babesteko zer hirigintza-tresnak jaso behar du halakotzat kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-araubidea –bakoitzaren hasierako eta deklarazioko espedienteen araberakoa–, eta babes-araubide hori bere helburuen arabera garatu ahal izango du?**

a) Babesteko eta kontserbatzeko plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Hiri-berrikuntzako plan bereziak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

647. **2/2006 Legearen arabera, zer hirigintza-tresnaren bidez ezartzen dira egiturazko hirigintza-antolamendurako zehaztapenak, lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe gisa sailkatutako lursailen hirigintza-eraldaketari ekiteko?**

a) Hiri-berrikuntzako plan berezia.
b) Plan partziala.
c) Sektorizatze-plana.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorra.

648. **2/2006 Legearen arabera, zer hirigintza-tresnak ematen du aukera aldi berean zenbait udalerritako lurzoruak antolatzeko?**

a) Plangintza orokorra bateragarri egiteko planak.
b) Plan partzialak.
c) Sektorizatze-planak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

649. **2/2006 Legearen arabera, zer hirigintza-tresnak ematen du aukera itsasertza antolatzeko?**

a) Plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Sektorizatze-planak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

650. **2/2006 Legearen arabera, zer hirigintza-tresnak ematen du aukera hiri-hobekuntzako eta -berrikuntzako jarduketak egiteko eta hiri-lurzoruan zuzkidura publikoak sortzeko?**

a) Plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Sektorizatze-planak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

651. **2/2006 Legearen arabera, zer hirigintza-tresnak ematen du aukera barruti eta multzo historiko-artistikoak antolatzeko?**

a) Plan bereziak.
b) Plan partzialak.
c) Sektorizatze-planak.
d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

652. **4/1990 Legearen arabera, lurralde-antolamenduko tresna hauek aurreikusten dira:**

a) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.
b) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak.
c) Lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak.
d) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, lurralde-plan partzialak, lurralde-plan sektorialak, hiri-antolamenduko plan orokorrak.

653. **4/1990 Legearen 5. artikuluaren arabera, hauei dagokie lurraldean diharduten eragile publiko zein pribatuen jarduera ekonomiko eta sozialen jarduerak lurraldean ezartzeko prozesuak orientatuko dituzten irizpide eta arauak formulatzea:**

a) Lurralde-plan sektorialak.
b) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
c) Lurralde-plan partzialak.
d) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

654. **4/1990 Legearen arabera, lurralde-plan sektorial batek aurkakotasunak baditu lurralde antolamenduaren gidalerroekin edo lurralde-plan partzialekin, indargabetu egingo dira hauek:**

a) Kontraesana jasotzen duten lurralde-plan sektorialaren zatia edo zatiak.
b) Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
c) Lurralde-plan partzialak.
d) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

655. **4/1990 Legearen arabera, lurralde-plan partzialak:**

a) Eusko Jaurlaritzako sailek egiten dituzten eta lurraldean eragina duten planak dira, eta Eusko Jaurlaritzak erabakitzen duenean egiten dira.
b) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak proposatuko dituzte mugatzen diren udalez gaindiko eremuetarako.
c) Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak garatuko dituzte haiek mugatzen dituzten eta udalerriaz gaindikoak diren eremuetan, eta Gidalerroek ezartzen dituzten antolamendu-irizpide espezifikoak zehaztuko dituzte.
d) Lurraldean eragina duten planak dira, eta lurralde historikoetako foru-organoek ere egin ahalko dituzte haiek zehazten dutenean.

656. **4/1990 Legearen arabera, lurralde-plan partzialak behin betiko onartzen ditu:**

a) Eusko Jaurlaritzak.
b) Dagokion foru-aldundiak.
c) Dagozkion udalek.
d) Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak.

657. **4/1990 Legearen arabera, zer agiri jaso behar ditu gutxienez lurralde-plan partzial batek?**

a) Azterketa eta informazio-planoak; planaren azalpen-memoria; ekonomia- eta finantza-azterketa; antolamenduaren plano eta arauak.
b) Azterketa eta informazio-planoak; ekonomia- eta finantza-azterketa; egikaritze-programa; antolamenduaren plano eta arauak.
c) Azterketa eta informazio-planoak; planaren azalpen-memoria; ekonomia- eta finantza-azterketa; egikaritze-programa; antolamenduaren plano eta arauak.
d) Azterketa eta informazio-planoak; planaren azalpen-memoria; egikaritze-programa; antolamenduaren plano eta arauak.

658. **4/1990 Legearen arabera, interesa duten erakunde publiko eta pribatuek zenbateko epea dute egoki irizten dituzten ohar, proposamen eta aukerak emateko gidalerroen aurrerakinari?**

a) 1 hilabete.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

659. **4/1990 Legearen arabera, interesa duten lurralde-administrazio publikoek zenbateko epea dute egoki irizten dituzten aukera, ohar eta proposamen egiteko lurralde-plan partzialen aurrerakinari?**

a) 1 hilabete.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 4 hilabete.

660. **4/1990 Legearen arabera, zer sailek idatzi behar dute lurralde-plan sektorialei buruzko txosten bat, gobernu-kontseilura igorri aurretik behin betiko onespena emateko?**

a) Eusko Jaurlaritzako sail guztiek.
b) Lurralde-eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak, nahitaez.
c) Lurralde Antolamendurako Batzordeak, nahitaez.
d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

661. **Zer estandar arautzen dira hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuan?**

a) Hirigintza-eraikigarritasunaren mugak eta zuzkidura-estandarrak.
b) Hirigintza-eraikigarritasunaren mugak, zuzkidura-estandarrak, babes publikoko etxebizitzen estandarra eta zuzkidura-bizitokien estandarra.
c) Hirigintza-eraikigarritasunaren mugak, zuzkidura-estandarrak eta babes publikoko etxebizitzen estandarra.
d) Hirigintza-eraikigarritasunaren mugak, zuzkidura-estandarrak eta zuzkidura-bizitokien estandarra.

662. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuan, sistema orokorren sareko zuzkidura publikoen zer gutxieneko estandar arautzen dira 20.000 biztanle baino gehiagoko herrietarako?**

a) 5 metro karratuko azalera biztanle bakoitzeko edo bizitegitarako eraikitako 25 metro karratuko, espazio libretarako eta hiri-parketarako (bi kasuetan, jabetza publikokoak). Eremu horien barnean hainbat erabilera gauzatu ahal izango dira: lorategi-eremuak, haurrentzako jolastokiak, aire zabaleko kirol-esparruak, berdegune bereziak (baratze kolektiboak, mintegiak, parke linealak) eta antzeko beste espazio batzuk, erabilera eta/edo zerbitzu publikoa helburu dutenak.
b) a) puntuan adierazitakoa, eta, gainera, 1,5 metro karratutik 2,5 metro karratura bitarteko lurzoru-azalera gorde behar da zuzkidura-bizitokitarako, bizitegitarako gehitutako 100 m^2 eraikiko, edota, zehaztu gabe egonez gero, planeamenduan aurreikusitako etxebizitza berri bakoitzeko. Bizitoki horien kokapena hirigintza-antolamendu xehatuan zehaztuko da.
c) 5 metro karratuko azalera biztanle bakoitzeko edo bizitegitarako eraikitako 250 metro karratuko, espazio libretarako eta hiri-parketarako (bi kasuetan, jabetza publikokoak). Eremu horien barnean hainbat erabilera gauzatu ahal izango dira: lorategi-eremuak, haurrentzako jolastokiak, aire zabaleko kirol-esparruak, berdegune bereziak (baratze kolektiboak, mintegiak, parke linealak) eta antzeko beste espazio batzuk, erabilera eta/edo zerbitzu publikoa helburu dutenak.
d) Aurreko erantzun guztiak gezurra dira.

663. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, zein dira sistema orokorren sareko zuzkidura publikotarako lursail-erreserbarako gutxieneko estandarrak espazio libretarako eta hiri-parketarako?**

a) 10 metro karratuko azalera biztanle bakoitzeko edo bizitegitarako eraikitako 25 metro karratuko.
b) 15 metro karratuko azalera biztanle bakoitzeko edo bizitegitarako eraikitako 25 metro karratuko.
c) 5 metro karratuko azalera biztanle bakoitzeko edo bizitegitarako eraikitako 25 metro karratuko.
d) 2,5 metro karratuko azalera biztanle bakoitzeko edo bizitegitarako eraikitako 25 metro karratuko.

664. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, zer lurzoru erabil daitezke sistema orokorren sareko zuzkidura publikotarako lurzoru-erreserbarako, espazio libre eta hiri-parketarako?**

a) Jabetza publikoko lurzoruak; eremu horien barnean ezingo dira gauzatu lorategi-eremuak, haurrentzako jolastokiak, aire zabaleko kirol-esparruak, berdegune bereziak (baratze kolektiboak, mintegiak, parke linealak) eta antzeko beste espazio batzuk, erabilera eta/edo zerbitzu publikoa helburu dutenak.

b) Jabetza pribatuko lurzoruak; eremu horien barnean gauzatu ahal izango dira lorategi-eremuak, haurrentzako jolastokiak, aire zabaleko kirol-esparruak, berdegune bereziak (baratze kolektiboak, mintegiak, parke linealak) eta antzeko beste espazio batzuk, erabilera eta/edo zerbitzu publikoa helburu dutenak.

c) Jabetza publiko eta/edo pribatuko lurzoruak; eremu horien barnean gauzatu ahal izango dira lorategi-eremuak, haurrentzako jolastokiak, aire zabaleko kirol-esparruak, berdegune bereziak (baratze kolektiboak, mintegiak, parke linealak) eta antzeko beste espazio batzuk, erabilera eta/edo zerbitzu publikoa helburu dutenak.

d) Jabetza publikoko lurzoruak; eremu horien barnean hainbat erabilera gauzatu ahal izango dira: lorategi-eremuak, haurrentzako jolastokiak, aire zabaleko kirol-esparruak, berdegune bereziak (baratze kolektiboak, mintegiak, parke linealak) eta antzeko beste espazio batzuk, erabilera eta/edo zerbitzu publikoa helburu dutenak.

665. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, nagusiki bizitegitarako erabiltzeko hiri-lurzoru finkatugabean, zer azalera utzi behar da gutxienez berdegunetarako eta espazio libretarako?**

a) Arearen edo zuzkidura-jarduketaren guztizko azaleraren % 15 gehienez, sistema orokorrak alde batera utzita.

b) Arearen edo zuzkidura-jarduketaren guztizko azaleraren % 15 gutxienez, sistema orokorrak alde batera utzita.

c) Arearen edo zuzkidura-jarduketaren guztizko azaleraren % 15 gutxienez, sistema orokorrak barne.

d) Arearen edo zuzkidura-jarduketaren guztizko azaleraren % 15 gehienez, sistema orokorrak barne.

666. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, nagusiki bizitegitarako erabiltzeko hiri-lurzoru finkatugabean, zer azalera utzi behar da tokiko zuzkidura publikoetarako?**

a) 5 metro karratu lurzoru, hirigintza-eraikigarritasunaren lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako edo 5 metro karratuko sabai-azalera, hirigintza-eraikigarritasunaren lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako.

b) 25 metro karratu lurzoru, hirigintza-eraikigarritasunaren lur-arrasetik gorako 5 metro karratuko sabai-azalerako edo 25 metro karratuko sabai-azalera, hirigintza-eraikigarritasunaren lur-arrasetik gorako 5 metro karratuko sabai-azalerako.

c) 25 metro karratu lurzoru, eraikigarritasun fisikoaren lur-arrasetik gorako 5 metro karratuko sabai-azalerako edo 25 metro karratuko sabai-azalera, eraikigarritasun fisikoaren lur-arrasetik gorako 5 metro karratuko sabai-azalerako.

d) 5 metro karratu lurzoru, eraikigarritasun fisikoaren lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako edo 5 metro karratuko sabai-azalera, eraikigarritasun fisikoaren lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako.

667. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, nagusiki bizitegitarako erabiltzeko lurzoru urbanizagarrietan, zenbat aparkaleku-plaza aurreikusi beharko dira zuzkidura publikotarako lurzoruetan?**

a) 0,15 aparkaleku-plaza, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikotarako ez diren azalerak kontuan hartuta.

b) 0,35 aparkaleku-plaza, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikotarako ez diren azalerak kontuan hartuta.

c) 0,35 aparkaleku-plaza, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, jabetza pribatuko lursailetan zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta; eta 0,15 aparkaleku-plaza, 25 metro karratuko sabai-azalerako, berdin zenbatuta, zuzkidura publikotarako lursailetan, eta, ondorioz, sarbide publiko eta librea dutenak.

d) 0,35 aparkaleku-plaza, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako.

668. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, hiri-lurzoru finkatugabean, bai jarduketa integratuan edo integratuetan, bai zuzkidura-jarduketetan, zuzkiduren estandarrak kalkulatuko dira:**

a) Gehitutako eraikigarritasun fisikoaren arabera, lehendik gauzatuta dagoena erreferentziatzat hartuta.

b) Gehitutako hirigintza-eraikigarritasunaren arabera, lehendik gauzatuta dagoena erreferentziatzat hartuta.

c) Gehitutako eraikigarritasun haztatuaren arabera, lehendik gauzatuta dagoena erreferentziatzat hartuta.

d) Gehitutako batez besteko eraikigarritasunaren arabera, lehendik gauzatuta dagoena erreferentziatzat hartuta.

669. **Hirigintza-estandarrei buruzko 2012ko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, tokiko zuzkiduren estandarrak lurzoru urbanizagarrian, ekipamendu pribatutarako, izango dira gutxienez:**

a) 3 metro karratu sabai-azalera, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.

b) 5 metro karratu sabai-azalera, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.

c) metro karratu 1 sabai-azalera, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.

d) 10 metro karratu sabai-azalera, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.

670. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, baieztapen hauetako zein ez dator bat herritarren eskubide batekin?:**

a) Etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri bat izatea bizilekutzat, pertsona guztientzako diseinuaren printzipioaren arabera pentsatua, aplikagarri den legeriak onarturiko gehieneko mugak gainditzen dituen zaratarik edo beste edozein motatako immisio kutsagarririk gabea, ingurumen eta paisaia egoki batean.

b) Administrazio eskudunarengandik informazioa jasotzea, bere osotasunean, idatziz eta arrazoizko epean, finka jakin baten araubideaz eta hari aplika dakizkiokeen hirigintza-baldintzez, legeria arautzaileak ezarri bezala.

c) Akzio publikoa baliatzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak gordearazteko, bai eta zehaztapen horiek jasotzen dituzten tresnen ingurumen-ebaluaziorako prozeduretatik eta haiek exekutatzeko proiektuetatik sorturiko erabakiak ere, legeria arautzaileak ezarri bezala.

d) Auzokideek lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko eta haien ingurumen-ebaluazioko edozein tresna prestatzeko eta onesteko prozeduretan parte har dezaten eskatzea.

671. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, hirigintza-eraldaketako jarduketak dira:**

a) Hirigintza-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak, eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak eta eraikinak birgaitzekoak.

b) Zuzkidura-jarduketak, eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak, eraikuntza berriko jarduketak eta eraikinak birgaitzekoak.

c) Hirigintza-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak.

d) Hirigintza-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak, eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak.

672. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, eraikingintza-jarduketak dira:**

a) Hirigintza-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak, eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak eta eraikinak birgaitzekoak.

b) Eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak, eta eraikinak birgaitzekoak.

c) Hirigintza-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak.

d) Hirigintza-jarduketak eta zuzkidura-jarduketak, eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak.

673. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, hirigintza-jarduketen sustapenari dagozkion eginbeharretako bat da administrazio eskudunari entregatzea, lurzoru-ondare publikorako, jarduketaren edota jarduketa sartzen den goragoko erreferentzia-eremuaren batez besteko eraikigarritasun haztatuaren ehunekoari dagokion lurzorua, urbanizazio-kargarik gabea (ehuneko hori lurralde- eta hirigintza-antolamendua arautzen duen legeriak finkatzen duena izango da). Zenbatekoa izango da ehuneko hori?**

a) Ez % 5 baino gutxiago, ez % 15 baino gehiago.

b) Ez % 5 baino gutxiago, ez % 10 baino gehiago.

c) % 15 baino gehiago.

d) % 10 baino gehiago.

674. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, hirigintza-jarduketen sustapenari lotutako eginbeharrak izango dira hauek:**

a) Administrazio eskudunari entregatzea bide, espazio libre, berdegune eta jarduketan sartzen ez diren gainerako zuzkidura publikoetarako erreserbaturiko lurzorua.

b) Administrazio eskudunari entregatzea, lurzoru-ondare publikorako, jarduketaren edota jarduketa sartzen den goragoko erreferentzia-eremuaren batez besteko eraikigarritasun haztatuaren ehunekoari dagokion lurzorua, urbanizazio-kargarik gabea; ehuneko hori lurralde- eta hirigintza-antolamendua arautzen duen legeriak finkatzen duena izango da.

c) Kalte-ordainak ematea eraitsi behar diren eraikuntza eta eraikinen eta kontserbatu daitezkeen obra, instalazio, landatutako sail eta ereindako sailen gaineko eskubideen titularrei.

d) Kalte-ordainak ematea titularrei jarduketaren inguruan, eraikuntza eta eraikinak eraistetik eta obra, instalazio, landatutako sail eta ereindako sailak egikaritzetik eratorritako afektazioen ordainetan.

675. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, hauek dira lurzoruaren oinarrizko egoerak:**

a) Landa-lurzorua eta hiri-lurzorua.

b) Landa-lurzorua eta lurzoru urbanizatua.

c) Lurzorua urbanizatugabea eta hiri-lurzorua.

d) Landa-lurzorua eta hiri-lurzorua.

676. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, landa-lurzorua da:**

a) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduak urbanizazio bidez eraldatzetik babesturiko lurzorua.
b) Dagokion antolamendu-tresnaren bidez urbanizatu den lurzorua.
c) Aplikatu beharreko hirigintza-legerian xedatutakoari jarraituz, hirigintza-antolamenduan dauden edo aurreikusi diren azpiegiturak eta zerbitzuak (sareko konexioaren bitartez erabileren eta eraikinen eskaria betetzeko beharrezkoak direnak) instalatuak eta operatibo dituzten lurzoruak, edo izan ditzaketenak, lehendik dauden instalazioekin konexioa egiteko obrak soilik eginda.
d) Eraikinek okupatuta dagoen lurzorua lurralde- edo hirigintza-antolamenduko legerian mota horretarako zehaztutako espazio baliagarrien ehunekoan, dagokion plangintza-tresnak proposatutako antolamenduari jarraituz.

677. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, lurzoru urbanizatua da:**

a) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduak urbanizazio bidez eraldatzetik babesturiko lurzorua.
b) Dagokion antolamendu-tresnaren bidez urbanizatu den lurzorua.
c) Landa-ingurunean legez ezarrita dauden landagune tradizionaletan txertatuta dagoen lurzorua, betiere lurralde- eta hirigintza-antolamenduko legerian ez bazaie esleitzen lurzoru urbanizatu izaera edo antzekoa eta, legeri horri jarraituz, izaera hori izateko beharrezkoak diren zuzkidura, azpiegitura eta zerbitzuak baldin badituzte.
d) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek lurzoru urbanizatu izatera pasatzea aurreikusita edo baimenduta duten lurzoruak, dagokion urbanizazio-jarduketa amaitu arte, eta ondorengo atalean aipatzen diren betekizunak betetzen ez dituen beste edozein lurzoru.

678. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, landa-lurzoruaren balioespena:**

a) Ustiapenaren urteko errenta erreala edo potentziala —bietan handiena— kapitalizatzearen bidez egingo da, balioespena egiten den unean duten egoeraren arabera.
b) Berrezarpen-metodoaren bidez egingo da.
c) Nahitaezko desjabetzeari buruzko legeetan ezarritako irizpideen arabera egingo da.
d) Eragin-balioaren metodoaren bidez egingo da.

679. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, lurzoru urbanizatu eraikigabearen balioespena:**

a) Ustiapenaren urteko errenta erreala edo potentziala kapitalizatzearen bidez egingo da.
b) Berrezarpen-metodoaren bidez egingo da.
c) Konparazio-metodoaren bidez egingo da.
d) Lurzoruaren eragin-balioaren metodoaren bidez egingo da.

680. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, lurzoruaren eta lurzoru urbanizatu eraikian eraikita dagoenaren baterako balioespena:**

a) Ustiapenaren urteko errenta erreala edo potentziala kapitalizatzearen bidez egingo da.
b) Berrezarpen-metodoaren bidez egingo da.
c) Konparazio-metodoaren bidez egingo da.
d) Lurzoruaren eragin-balioaren metodoaren bidez egingo da.

681. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, zuzkidura-jarduketak dira:**

a) Lurzoru urbanizatuko eremu baten urbanizazioa eraberritzea edo berritzea xede dutenak.
b) Xedea dutenak lurzoru urbanizatuko eremu bateko zuzkidura publikoak mantentzea, hartara zuzkiduron proportzioa eraikigarritasun edo dentsitate handiagoaren edo eremuko partzela bati edo gehiagori hirigintza-antolamenduan esleitutako erabilera berrien arabera bermatzeko, betiere eremuaren urbanizazioa erabat eraberritu edo berritu beharrik ez badute.
c) Xedea dutenak lurzoru urbanizatuko eremu bateko zuzkidura publikoak areagotzea, hartara zuzkiduron proportzioa eraikigarritasun edo dentsitate handiagoaren edo eremuko partzela bati edo gehiagori hirigintza-antolamenduan esleitutako erabilera berrien arabera berregokitzeko, betiere eremuaren urbanizazioa erabat eraberritu edo berritu beharrik ez badute.
d) Lurzoru-eremu bat landa-lurzoru izatetik lurzoru urbanizatu izatera pasatzea dakartenak, dagozkion azpiegitura eta zuzkidura publikoekin batera.

682. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, herritarren eginbeharrak dira, besteak beste:**

a) Ingurumena eta paisaia naturala zaintzea eta babesten laguntzea.
b) Lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko eta haien ingurumen-ebaluazioko edozein tresna prestatzeko eta onesteko prozeduretan egiazki parte hartzea.
c) Akzio publikoa baliatzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak gordearazteko.
d) Administrazio publikoek lurralde-antolamenduaz, hirigintza-antolamenduaz eta haien ingurumen-ebaluazioaz duten informaziorako irispidea izatea.

683. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, hirigintza-eraldaketako jarduketak izan daitezke:**

a) Ekimen pribatukoak.
b) Ekimen publikokoak.
c) Ekimen publiko edo pribatukoak.
d) Eraikingintza-jarduketak.

684. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, herritarren eskubideak dira, besteak beste:**

a) Etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri bat izatea bizilekutzat, pertsona guztientzako diseinuaren printzipioaren arabera pentsatua.

b) Jabari publikoko ondasunak eta azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak zaintzea eta modu arrazoizko eta egokian erabiltzea, betiere haien ezaugarrien, funtzioaren eta zerbitzu-ahalmenaren arabera.

c) Ingurumena eta paisaia naturala zaintzea eta babesten laguntzea, betiere airea, ura, lurzorua eta lurpea kutsatzen duten edo gaiari buruzko legeriak debekatzen dituen jarduketak egitetik begiratuz.

d) Hiri-paisaia eta arkitektura- nahiz kultura-ondarea errespetatzea eta zaintzen laguntzea; horretarako, ez da baimendu gabeko jarduera edo jardunik egin edo garatuko.

685. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, jabetza-eskubideak eginbehar eta karga hauek eragiten ditu:**

a) Segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea; eta Administrazioak turismo- edo kultura-arrazoiz edo hiri-ingurunearen kalitatea edo jasangarritasuna hobetzeko agintzen dituen lan gehigarriak egitea, finkatzeko legezko betebeharra iristen den punturaino.

b) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekin bateragarri diren erabileretara bideratzea; segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea; eta Administrazioak turismo- edo kultura-arrazoiz edo hiri-ingurunearen kalitatea edo jasangarritasuna hobetzeko agintzen dituen lan gehigarriak egitea, kontserbatzeko legezko betebeharra iristen den punturaino.

c) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekin bateragarri diren erabileretara bideratzea; segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea.

d) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekin bateraezin diren erabileretara bideratzea; Segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea; eta Administrazioak turismo- edo kultura-arrazoiz edo hiri-ingurunearen kalitatea edo jasangarritasuna hobetzeko agintzen dituen lan gehigarriak egitea, finkatzeko legezko betebeharra iristen den punturaino.

686. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, eraikinak kontserbatzeko legezko eginbeharra betez jabeen kontura egin beharreko obren muga da:**

a) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) eraikitzearen egungo balioaren heren bat, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez, betiere higiezinaren okupazioa baimentzeko bete beharreko baldintzak beteta edo, hala badagokio, berez dagokion erabilerara bideratzeko moduan utzita.

b) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) eraikitzearen egungo balioaren erdia, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez, betiere higiezinaren okupazioa baimentzeko bete beharreko baldintzak beteta edo, hala badagokio, berez dagokion erabilerara bideratzeko moduan utzita.

c) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) eraikitzearen egungo balioaren laurdena, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez, betiere higiezinaren okupazioa baimentzeko bete beharreko baldintzak beteta edo, hala badagokio, berez dagokion erabilerara bideratzeko moduan utzita.

d) Oin berriko higiezin bat (jatorrizkoaren baliokidea) eraikitzearen egungo balioaren seiren bat, eraikuntza-ezaugarriei eta azalera erabilgarriari dagokienez, betiere higiezinaren okupazioa baimentzeko bete beharreko baldintzak beteta edo, hala badagokio, berez dagokion erabilerara bideratzeko moduan utzita.

687. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, lurzoru urbanizatu baten jabetza-eskubideak eginbehar eta karga hauek eragiten ditu besteak beste:**

a) Segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea; eta Administrazioak turismo- edo kultura-arrazoiz edo hiri-ingurunearen kalitatea edo jasangarritasuna hobetzeko agintzen dituen lan gehigarriak egitea, finkatzeko legezko betebeharra iristen den punturaino.

b) Lurren urbanizazioa eraikitzeko ezarritako betekizun eta baldintzekin osatzeko eginbeharra eta aplikatu beharreko araudian ezarritako epeen barruan eraikitzeko eginbeharra, betiere horrela xedatzen badu hirigintza-antolamenduak eta antolamendu horrek ezarritako baldintzen arabera.

c) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekin bateragarri diren erabileretara bideratzea; segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea.

d) Lurralde- eta hirigintza-antolamenduarekin bateraezin diren erabileretara bideratzea; Segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun unibertsal eta apaintasuneko legezko baldintzetan eta legeek erabilera horien euskarri izateko eskatzen dituzten gainerakoetan edukitzea; eta Administrazioak turismo- edo kultura-arrazoiz edo hiri-ingurunearen kalitatea edo jasangarritasuna hobetzeko agintzen dituen lan gehigarriak egitea, finkatzeko legezko betebeharra iristen den punturaino.

688. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, zer jarduera jotzen dira eraikingintza-jarduketatzat, baita urbanizazio-lan osagarriak behar dituztenean ere?**

a) Eraiki berriak soilik.

b) Eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak soilik.

c) Eraiki berriak eta lehendik dagoen eraikina ordezten dutenak, eta eraikinak birgaitzekoak.

d) Aurrekoetako bat ere ez.

689. **Lurzoruaren eta hiri-birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen 2015eko urriaren 30eko 7/2015 legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, urbanizazioa eraberritzeko edo berritzeko jarduketak egiten ari diren lurzoru urbanizatuaren balioespena:**

a) Hondar-metodoaren bidez egingo da, zeinak kontuan izango baititu antolamenduak lurzoruari helburuko egoeran esleituriko erabilerak eta eraikigarritasunak.
b) Berrezarpen-metodoaren bidez egingo da.
c) Hondar-metodoaren bidez egingo da, zeinak kontuan izango baititu antolamenduak lurzoruari jatorrizko egoeran esleituriko erabilerak eta eraikigarritasunak.
d) Lurzoruaren eragin-balioaren metodoaren bidez egingo da.

690. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko zer bi ebaluazio mota aurreikusten dira proiektu bat egikaritzearen efektuak neurtzeko?**

a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta eta sinplifikatua.
b) Proiektuen ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioa eta ebaluazio sinplifikatua.
c) Ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta eta sinplifikatua.
d) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

691. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, zein da lege horren xedea?**

a) Garapen jasangarri bat bermatzea.
b) Ingurumena babesteko Araudi-markoa ezartzea.
c) Herritarren bizi-kalitatea hobetzea.
d) Ingurumen-inpaktuak minimizatzea.

692. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, ingurugiroaren arloan ardura duen sailari atxikitako zer aholku-organo arduratzen da ingurugiroaren arloan Euskal Autonomia erkidegoan diharduten administrazioen harreman, parte-hartze eta koordinazioaz?**

a) Ingurumen-organoa
b) Dagozkion administrazio publikoak.
c) Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea.
d) Organo substantiboa.

693. **1998Ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, hauetako zein da autonomia-erkidegoko ingurumen-organoaren eskumena?**

a) Ingurumen-organoa
b) Ingurumen-kalitateko helburuak sartzea bere plangintza-baliabideetan.
c) Ordenantzak argitaratu edo daudenak moldatzea.
d) Atmosfera polui dezaketen jardueren katalogoa osatzea.

694. **1998KO Otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, zer da sailkatutako jarduketa bat?**

a) Eragozpenak sor ditzaketen edo pertsonei edo haien ondasunei arriskuak sor diezazkieketen edo ingurugiroari kalteak eragiten dizkioten jarduketak.
b) Ingurumenean kalterik eragiten ez duten jarduketak.
c) Ingurumenean eta pertsonen osasunean eragiteko arriskurik ez duten jarduketak.
d) Ingurumenean eta pertsonen osasunean eragiteko arrisku txikia duten jarduketak.

695. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, zer udal-lizentziak ematen du ahalmena sailkatutako jarduera bat ezartzeko, hedatzeko nahiz aldatzeko?**

a) Jarduera-lizentziak.
b) Udal-lizentziak.
c) Obra handirako lizentziak.
d) Obra-lizentziak.

696. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, hauetako zein da sailkatutako jarduketa bat eta jarduera-lizentzia behar du?**

a) Hezkuntzako ekipamendua.
b) Etxebizitza kolektiboa.
c) Ospitalea.
d) Gozogintzako lantegiak.

697. **1998Ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren arabera, hauetako zein organo dago plangintzako aholku-kontseiluan?**

a) UPV/EHU.
b) Lehendakaria.
c) Hezkuntzako sailburua.
d) Osasuneko sailburua.

698. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren II. eranskinaren arabera, zer izen du ingurunean eragin txikia duen proiektu bat burututakoan edo ingurumen-inpaktua detektatzea edo zuzentzea erraza denean ingurumenaren gaineko eraginak baloratzeko helburua duen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak?**

a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua.
b) Ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioa.
c) Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa.
d) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta.

699. **1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 lege orokorraren II. eranskinaren arabera, zer izen du proiektu bat burututakoan ingurumenarekiko eraginak baloratzeko helburua duen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak?**

a) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua.
b) Ingurumen-inpaktuaren banakako ebaluazioa.
c) Ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioa.
d) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta.

700. **2013KO abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, lege horren xedea eta zertarakoa da hauen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea:**

a) Planak eta programak.
b) Planak eta proiektuak.
c) Plan, programa eta proiektuak.
d) Proiektuak eta programak.

701. **2013KO abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, hauen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharko da:**

a) Planak eta programak.
b) Planak eta proiektuak.
c) Plan, programa eta proiektuak.
d) Proiektuak eta programak.

702. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, hauen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da:**

a) Planak eta programak.
b) Planak eta proiektuak.
c) Plan, programa eta proiektuak.
d) Proiektuak.

703. **2013KO abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ebaluazio estrategiko arrunta egin zaien plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa honela zehazten da:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
d) Ingurumen-inpaktuaren txostena.

704. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin zaien plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa honela zehazten da:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
d) Ingurumen-inpaktuaren txostena.

705. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin zaien proiektuen ingurumen-ebaluazio estrategikoa honela zehazten da:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
d) Ingurumen-inpaktuaren txostena.

706. **2013Ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zaien proiektuen ingurumen-ebaluazio estrategikoa honela zehazten da:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
d) Ingurumen-inpaktuaren txostena.

707. **2013KO abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, «ingurumen-organoaren erabakia, sustatzaileari zuzendua, ingurumen-azterketa estrategikoak eta ingurumen-inpaktuaren azterketak izan beharreko zabaltasuna, xehetasun-maila eta zehazpen-gradua mugatzen dituena» da hau:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren txostena.
d) Irismeneko dokumentua.

708. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, «administrazio publikoaren organoa, ingurumen-ebaluaziorako espedienteen azterketa teknikoa egiten duena, eta ingurumen-adierazpen estrategikoak, ingurumen-txosten estrategikoak, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak eta ingurumen-inpaktuaren txostenak egiten dituena» da hau.**

a) Pertsona interesdunak.
b) Toki-administrazioa.
c) Organo substantiboa.
d) Ingurumen-organoa.

709. **2013Ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, «ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren azken emaitza dena» da hau:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren txostena.
d) Irismeneko dokumentua.

710. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, «ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azken emaitza dena eta plan edo programaren azken proposamenean ingurumen-alderdiak zenbateraino integratu diren ebaluatzen dituena» da hau:**

a) Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Ingurumen-txosten estrategikoa.
c) Ingurumen-inpaktuaren txostena.
d) Irismeneko dokumentua.

711. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, hauen ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin beharko da:**

a) Plan eta programen aldaketa txikiak.
b) Plan eta programak, oro har.
c) Eremu handien erabilera ezartzen duten plan eta programak.
d) Eremu txikien erabilera ezartzen duten plan eta programak, eremua eskualde-mailakoa izan arren.

712. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, hauetatik zer proiekturen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin beharko da?**

a) Merkataritza-guneak eta aparkalekuak eraikitzea, lurzoru urbanizagarrietatik kanpo, hektarea bat baino gehiagoko azalera hartzen badute.
b) Gaikako parkeak, ez badira garatzen naturagune babestuetan eta Natura 2000 Sareko guneetan eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan.
c) Osasun-erabilerarako eta larrialdietarako bakarrik diren aerodromoak eraikitzea.
d) Urbanizazioetako eremu urbanizatuetatik kanpo kokatutako proiektuak, merkataritza-guneak eta aparkalekuak eraikitzea barnean hartuta, azalean 1 ha baino gehiago hartzen badute.

713. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, hauetatik zer proiekturen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin beharko da?**

a) Merkataritza-guneak eta aparkalekuak eraikitzea, lurzoru urbanizagarrietatik kanpo, hektarea bat baino gehiagoko azalera hartzen badute eta Natura 2000 Sareak eragiten dien lurzoruetan egiten badira.
b) Gaikako parkeak eraikitzea, naturagune babestuetan eta Natura 2000 Sareko guneetan eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan garatzen badira.
c) Trazadura berriko autobideak eraikitzea.
d) Urbanizazioetako eremu urbanizatuetatik kanpo kokatutako proiektuak, merkataritza-guneak eta aparkalekuak eraikitzea barnean hartuta, azalean 1 ha baino gehiago hartzen badute.

714. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren izapideak dokumentu hauekin hasi eta bukatzen dira:**

a) Hasteko eskaera eta ingurumen-adierazpen estrategikoa.
b) Aldez aurreko kontsultak, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea eta ingurumen-adierazpen estrategikoa.
c) Aldez aurreko kontsultak, eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea eta espedientearen azterketa teknikoa.
d) Hasteko eskaera eta informazio publikoa eta eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egitea.

715. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-organoak gehienez ere zenbateko epea izango du, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera –plan edo programaren zirriborroarekin eta hasierako agiri estrategikoarekin batera– jasotako egunetik zenbatzen hasita, legedian aurreikusitako kontsultak egiteko eta ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko agiri bat egiteko?**

a) Gehienez ere hiru hilabete.
b) Gehienez ere hilabete.
c) Gehienez ere 2 hilabete.
d) Gehienez ere 6 hilabete.

716. **2013KO Abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-organoak zenbateko epea izango du gehienez espedientearen azterketa teknikoa eta ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko?**

a) Ingurumen-organoak lau hilabeteko epea izango du. Epe hori beste bi hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituz gero, espediente osoa jasotako egunetik hasita, eta sustatzaileari eta organo substantiboari jakinarazi behar zaizkie arrazoibide horiek.
b) Ingurumen-organoak hiru hilabeteko epea izango du. Epe hori beste hiru hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituz gero, espediente osoa jasotako egunetik hasita, eta sustatzaileari eta organo substantiboari jakinarazi behar zaizkie arrazoibide horiek.
c) Ingurumen-organoak bi hilabeteko epea izango du. Epe hori beste hiru hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituz gero, espediente osoa jasotako egunetik hasita, eta sustatzaileari eta organo substantiboari jakinarazi behar zaizkie arrazoibide horiek.
d) Ingurumen-organoak hiru hilabeteko epea izango du. Epe hori beste hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituz gero, espediente osoa jasotako egunetik hasita, eta sustatzaileari eta organo substantiboari jakinarazi behar zaizkie arrazoibide horiek.

717. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren izapideak dokumentu hauekin hasi eta bukatzen dira:**

a) Hasteko eskaera eta ingurumen-txosten estrategikoa.
b) Aldez aurreko kontsultak, ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren irismena zehaztea eta ingurumen-adierazpen estrategikoa.
c) Aldez aurreko kontsultak, eta ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren irismena zehaztea eta espedientearen azterketa teknikoa.
d) Hasteko eskaera eta informazio publikoa eta eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egitea.

718. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-organoak zenbateko epea izango du gehienez espedientearen azterketa estrategikoa eta ingurumen-txosten estrategikoa egiteko?**

a) Gehienez ere 4 hilabete.
b) Gehienez ere hilabete.
c) Gehienez ere 2 hilabete.
d) Gehienez ere 6 hilabete.

719. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-organoak zenbateko epea izango du gehienez ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren izapideak egiteko?**

a) Ingurumen-organoak izapide horiek guztiak hiru hilabeteko epean egingo ditu, ingurumen-inpaktuaren espediente osoa jasotako egunetik zenbatzen hasita. Epe hori bi hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituta justifikatuz gero.
b) Ingurumen-organoak izapide horiek guztiak lau hilabeteko epean egingo ditu, ingurumen-inpaktuaren espediente osoa jasotako egunetik zenbatzen hasita. Epe hori bi hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituta justifikatuz gero.
c) Ingurumen-organoak izapide horiek guztiak bi hilabeteko epean egingo ditu, ingurumen-inpaktuaren espediente osoa jasotako egunetik zenbatzen hasita. Epe hori bi hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituta justifikatuz gero.
d) Ingurumen-organoak izapide horiek guztiak lau hilabeteko epean egingo ditu, ingurumen-inpaktuaren espediente osoa jasotako egunetik zenbatzen hasita. Epe hori hilabetez luza daiteke, behar bezala arrazoituta justifikatuz gero.

720. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren izapideak dokumentu hauekin hasi eta bukatzen dira:**

a) Hasteko eskaera eta ingurumen-inpaktuaren txostena.
b) Hasteko eskaera eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
c) Ingurumen-inpaktuaren espedientearen azterketa teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren txostena.
d) Ingurumen-inpaktuaren espedientearen azterketa teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

721. **2013ko abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-organoak zenbateko epea izango du gehienez ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren izapideak egiteko?**

a) Gehienez ere 3 hilabete.
b) Gehienez ere hilabete.
c) Gehienez ere 2 hilabete.
d) Gehienez ere 6 hilabete.

722. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, planak edo programak eraginpean hartutako herri-administrazioak eta interesdunak identifikatu eta haiei kontsulta egin ondoren ingurumen-organoak lantzen duen eta organo sustatzaileak ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenean eta planean kontuan hartu behar duen agiri teknikoa da hau:**

a) Erreferentziako agiria.
b) Hasierako agiria.
c) Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena.
d) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa.

723. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, ingurumen-organoak egindako agiria, organo sustatzaileak –agiria behin betiko onartu aurretik– eta plana behin betiko onartuko duen administrazio-organoak kontuan hartu beharrekoa da hau:**

a) Erreferentziako agiria.
b) Hasierako agiria.
c) Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena.
d) Ingurumen-memoria.

724. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, plan edo programa hauetatik zeinek igaro behar dute ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura, zeina Dekretu horretan arautzen baita?**

a) Eraikuntza-ordenantzek.
b) Ingurumenari eragiten ez dioten plangintza orokorreko aldaketek.
c) Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen plan bereziek.
d) Xehetasun-azterketek.

725. **2012Ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, zer organok egiten du erreferentziako agiria?**

a) Organo sustatzaileak.
b) Ingurumen-organoak.
c) Herritar interesatuek.
d) Publikoak oro har.

726. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, zer organok egiten du ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena?**

a) Organo sustatzaileak.
b) Ingurumen-organoak.
c) Herritar interesatuek.
d) Publikoak oro har.

727. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, organo sustatzaileak gutxienez zenbat denboraz jarri behar du jendaurrean ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena eta planaren edo programaren aldez aurreko bertsioa, kontsulta egiteko, epe horretan bertan, eraginpeko herri-administrazioei eta herritar interesdunei?**

a) 45 egun.
b) Hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 30 egun.

728. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, ingurumen-organoak zer epetan jakinarazi behar dio sustatzaileari ingurumen-memoria?**

a) 6 hilabete.
b) 2 hilabete.
c) 3 hilabete.
d) 1 hilabete.

729. **2012ko urriaren 16ko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, organo sustatzaileak erreferentziako agiriari erantzuteko egiten duen txostena da hau:**

a) Erreferentziako agiria.
b) Hasierako agiria.
c) Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena.
d) Ingurumen-memoria.

730. **DB-SE, egitura-segurtasuna, bi zatitan banatzen da. zein dira zati horiek?**

a) SE 1: Erresistentzia eta egonkortasuna eta SE 2: Zerbitzurako egokitasuna.
b) SE 1: Eraikuntzako ekintzak eta SE 2: Zerbitzurako egokitasuna.
c) SE 1: Erresistentzia eta egonkortasuna eta SE 2: Eraikuntzako ekintzak
d) SE-AE: Eraikuntzako ekintzak eta SE-C: Zimenduak

731. **DB-SE, egitura-segurtasuna oinarrizko dokumentuaren arabera, se 2 zerbitzurako egokitasuna oinarrizko eskakizuna:**

a) Bat etorriko da eraikinerako erabilera aurreikusiarekin.
b) Bat etorriko da egituraren materialarekin.
c) Hormigoizko egiturei bakarrik aplikatzen zaie.
d) Bat etorriko da erabilera aurreikusiarekin eta egituraren materialarekin.

732. **DB-SE, egitura-segurtasuna oinarrizko dokumentuaren se 2 zerbitzurako egokitasuna oinarrizko eskakizunaren arabera, deformazioei, bibrazioei eta narriadurari dagokienez portaera egokia dagoela jotzen da dimentsionatze-egoera egokietarako, ekintzen eraginak ez badu hartzen eragin horretarako ezarritako mugako balio onargarria. eraikuntza-elementuen integritatea hartzen denean kontuan, trenkada ahulak edo junturarik gabeko zoladura zurrunak dituzten solairuetan, solairu edo estalki bateko egitura horizontala nahikoa zurruna dela jotzen da baldin eta gezi erlatiboa hau baino txikiagoa bada:**

a) 1/200.
b) 1/300.
c) 1/400.
d) 1/500.

733. **DB-SE, egitura-segurtasuna oinarrizko dokumentuaren se 2 zerbitzurako egokitasuna oinarrizko eskakizunaren arabera, deformazioei, bibrazioei eta narriadurari dagokienez portaera egokia dagoela jotzen da dimentsionatze-egoera egokietarako, ekintzen eraginak ez badu hartzen eragin horretarako ezarritako mugako balio onargarria. eraikuntza-elementuen integritatea hartzen denean kontuan, trenkada arruntak edo junturadun zoladura zurrunak dituzten solairuetan, solairu edo estalki bateko egitura horizontala nahikoa zurruna dela jotzen da baldin eta gezi erlatiboa hau baino txikiagoa bada:**

a) 1/250.
b) 1/300.
c) 1/400.
d) 1/500.

734. **DB-SE, egitura-segurtasuna oinarrizko dokumentuaren se 2 zerbitzurako egokitasuna oinarrizko eskakizunaren arabera, deformazioei, bibrazioei eta narriadurari dagokienez portaera egokia dagoela jotzen da dimentsionatze-egoera egokietarako, ekintzen eraginak ez badu hartzen eragin horretarako ezarritako mugako balio onargarria. lerradura horizontalek kaltetu ditzaketen eraikuntza-elementuen integritatea hartzen denean kontuan, egitura orokorrak nahikoa albo-zurruntasun duela jotzen da, baldin eta edozein ekintza-konbinaziorekin makurdura totala hau baino txikiagoa bada:**

a) Eraikinaren altuera totalaren 1/250.
b) Eraikinaren altuera totalaren 1/300.
c) Eraikinaren altuera totalaren 1/400.
d) Eraikinaren altuera totalaren 1/500.

735. **DB-SE, egitura-segurtasuna oinarrizko dokumentuaren se 2 zerbitzurako egokitasuna oinarrizko eskakizunaren arabera, deformazioei, bibrazioei eta narriadurari dagokienez portaera egokia dagoela jotzen da dimentsionatze-egoera egokietarako, ekintzen eraginak ez badu hartzen eragin horretarako ezarritako mugako balio onargarria. lerradura horizontalek kaltetu ditzaketen eraikuntza-elementuen integritatea hartzen denean kontuan, egitura orokorrak nahikoa albo-zurruntasun duela jotzen da, baldin eta edozein ekintza-konbinaziorekin toki-makurdura hau baino txikiagoa bada:**

a) Solairuaren altueraren 1/250, haietako edozeinetan.
b) Solairuaren altueraren 1/300, haietako edozeinetan.
c) Solairuaren altueraren 1/400, haietako edozeinetan.
d) Solairuaren altueraren 1/500, haietako edozeinetan.

736. **DB-SE, egitura-segurtasuna oinarrizko dokumentuaren se 2 zerbitzurako egokitasuna oinarrizko eskakizunaren arabera, jotzen da eraikin batek portaera egokia duela ekintza dinamikoen ondoriozko bibrazioen aurrean, baldin eta ekintza dinamikoaren maiztasuna (eszitazio-maiztasuna) berezko maiztasunetatik behar adina aldentzen bada. jotzen da pertsonen eragin erritmikoen ondoriozko bibrazioak jasan ditzakeen solairu bat nahikoa zurruna dela baldin eta haren berezko maiztasuna hau baino handiagoa bada:**

a) 8 Hz gimnasioetan eta 7 Hz dantzalekuetan. Gainerako erabilerek ez dute mugarik.
b) 8 Hz zaratekiko edo kirol-erabilerako edozein lokaletan.
c) 8 Hz gimnasioetan, 7 Hz dantzalekuetan, eta 3,4 Hz jarleku finkoekiko ikuskizun-lokaletan.
d) 8 Hz gimnasioetan eta dantzalekuetan, eta 3 Hz jarleku finkoekiko ikuskizun-lokaletan.

737. **Egitura-segurtasuna db-se-ae dokumentuan, egiturei eragin diezaieketen eta kalkuluan kontuan hartzen diren jarduketak honela sailkatzen dira, denboran duten aldaketaren arabera:**

a) Ekintza iraunkorrak eta ekintza aldagarriak.
b) Ekintza iraunkorrak, ekintza aldagarriak eta noizbehinkako ekintzak.
c) Ekintza iraunkorrak, ekintza aldagarriak (ustekabekoak eta noizbehinkakoak barne).
d) Ekintza iraunkorrak, ekintza aldagarriak eta ustekabeko ekintzak.

738. **DB-SE-AE, egitura-segurtasuna, eraikuntzako ekintzak dokumentuaren arabera, ekintza aldakorrak dira hauek:**

a) Erabilera-gainkarga, haizea, ekintza termikoak, elurra, sismoa eta sutea.
b) Erabilera-gainkarga, haizea, barandekiko eta banatze-elementuekiko ekintzak, ekintza termikoak eta elurra.
c) Erabilera-gainkarga, haizea, elurra eta sismoa.
d) Erabilera-gainkarga, haizea, barandekiko eta banatze-elementuekiko ekintzak, inpaktua eta ekintza termikoak.

739. **DB-SE-AE, egitura-segurtasuna, eraikuntzako ekintzak dokumentuak ezartzen ditu erabilera-gainkargen berezko balioak erabilera-kategoriaren eta -azpikategoriaren arabera. «bizitegi eremuak» a erabilera-kategoria eta «etxebizitzak eta gela-eremuak ospitale eta hoteletan» a1 azpikategoria baterako, hau da erabilera-gainkargaren berezko balioa:**

a) 2,5 kN/m^2 (karga uniformea)
b) 3 kN/m^2 (karga uniformea)
c) 2 kN/m^2 (karga uniformea)
d) 1,5 kN/m^2 (karga uniformea)

740. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuak ordezkatu zuen 1998ko abenduaren 11ko 2661/1998 Errege-Dekretua, egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE) onartu zuena. Zergatik?**

a) Denbora-tarte horretan jarraibide horren edukiari eragiten zioten berrikuntza teknikoak eta arauaren ingurukoak izan zirelako.

b) 8 urtetik behin berrikusi behar delako jarraibidea.

c) Aurreko jarraibidea erabiltzeari utzi zitzaiolako.

d) Ez zegoelako lehenagoko jarraibiderik.

741. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretua onartzeko eta haren bidez egiturazko hormigoiaren aurreko jarraibidea (EHE) ordezkatzeko arrazoi nagusietako bat izan zen hau:**

a) Hormigoiaren iraunkortasunaren tratamendua.

b) Haren bizitza erabilgarriaren estimazioa, egitura dagoen ingurunearen agresibitatetik eratorritako patologiak murrizteko.

c) Obran egin beharreko kalitate-kudeaketaren plangintza berrikustea.

d) Aurreko guztiak.

742. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuan ezarritako eskakizunak bete behar dira:**

a) Proiektuan.

b) Proiektuan eta hormigoi-egiturak eraikitzean.

c) Proiektuan, hormigoi-egiturak eraikitzean eta haien mantentze-lanetan.

d) Aurrekoetako bat ere ez.

743. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, hura aplikatzea beharrezkoa da:**

a) Eraikuntzako egiturazko hormigoizko egituretan.

b) Ingeniaritza zibileko egiturazko hormigoizko egituretan.

c) Eraikuntzako eta ingeniaritza zibileko egiturazko hormigoizko egitura eta elementu guztietan.

d) Pertsonen segurtasunari eragiten dioten egituretan bakarrik.

744. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, haren aplikaziotik kanpo geratzen dira salbuespen hauek:**

a) Egiturazko altzairuzko eta hormigoizko egitura-elementu mistoak; egiturazko hormigoizko eta funtzio erresistentea duen bestelako material batez egindako egiturak; aurreatezatzea elementuaren ertzetik kanpoko armadura aktiboen bidez sartzen diren egiturak; jarraibide honetan kontuan hartuta ez dauden hormigoi bereziekin egindako egiturak, adibidez, hormigoi astunekin, erregogorrekin eta zerrautsekin nahiz antzeko substantziekin konposatutako hormigoiekin egindakoak; normalean 70 ºC-tik gora egongo diren egiturak; edozein motatako fluidoak banatzeko erabiltzen diren hodiak; eta presak.

b) Aurreatezatzea elementuaren ertzetik kanpoko armadura aktiboen bidez sartzen diren egiturak; jarraibide honetan kontuan hartuta ez dauden hormigoi bereziekin egindako egiturak, adibidez, hormigoi astunekin, erregogorrekin eta zerrautsekin nahiz antzeko substantziekin konposatutako hormigoiekin egindakoak; normalean 70 ºC-tik gora egongo diren egiturak; edozein motatako fluidoak banatzeko erabiltzen diren hodiak; eta presak.

c) Egiturazko altzairuzko eta hormigoizko egitura-elementu mistoak; egiturazko hormigoizko eta funtzio erresistentea duen bestelako material batez egindako egiturak; aurreatezatzea elementuaren ertzetik kanpoko armadura aktiboen bidez sartzen diren egiturak; jarraibide honetan kontuan hartuta ez dauden hormigoi bereziekin egindako egiturak, adibidez, hormigoi astunekin, erregogorrekin eta zerrautsekin nahiz antzeko substantziekin konposatutako hormigoiekin egindakoak; edozein motatako fluidoak banatzeko erabiltzen diren hodiak; eta presak.

d) Egiturazko altzairuzko eta hormigoizko egitura-elementu mistoak; egiturazko hormigoizko eta funtzio erresistentea duen bestelako material batez egindako egiturak; aurreatezatzea elementuaren ertzetik kanpoko armadura aktiboen bidez sartzen diren egiturak; jarraibide honetan kontuan hartuta ez dauden hormigoi bereziekin egindako egiturak, adibidez, hormigoi astunekin, erregogorrekin eta zerrautsekin nahiz antzeko substantziekin konposatutako hormigoiekin egindakoak; normalean 70 ºC-tik gora egongo diren egiturak; edozein motatako fluidoak banatzeko erabiltzen diren hodiak.

745. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, egiturazko hormigoizko elementuak zerekin egon daitezke osatuta?**

a) Hormigoi armatuarekin.

b) Hormigoi armatuarekin eta masa-hormigoiarekin.

c) Hormigoi armatuarekin, masa-hormigoiarekin eta hormigoi aurreatezatuarekin.

d) Hormigoi armatuarekin, masa-hormigoiarekin, hormigoi aurreatezatuarekin eta egiturazko hormigoiarekin.

746. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuan jasotzen denez, proiektuan definituko dira hormigoian proiektatutako obrak, gutxienez alderdi hauei dagokienez:**

a) Obra-unitate bakoitzaren ezaugarri teknikoak.

b) Proiektatutako egituran modu iraunkorrean sartuko diren produktu, ekipamendu eta sistemek bete behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak.

c) Obra eraikian egin behar diren egiaztapen eta karga-probak; eta erabilera- eta mantentze-jarraibideak.

d) Aurreko guztiak.

747. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, pertsona, animalia eta ondasunen segurtasuna, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren babesa bermatzeko, hormigoizko egiturek hauen gaineko baldintzak bete behar dituzte:**

a) Egitura-segurtasuna eta -funtzionalitatea.
b) Egitura-segurtasuna eta -funtzionalitatea eta egiturak su hartzen duen kasuetako segurtasuna.
c) Egitura-segurtasuna eta -funtzionalitatea, egiturak su hartzen duen kasuetako segurtasuna, eta higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa.
d) Egitura-segurtasuna eta -funtzionalitatea eta higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa.

748. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 5. artikuluaren arabera, pertsona, animalia eta ondasunen segurtasuna, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren babesa bermatzeko, etxebizitza-eraikinetako egituraren bizitza erabilgarri izendatua ezingo da izan hau baino txikiagoa:**

a) 10 urtean behin.
b) 25 urtean behin.
c) 50 urtean behin.
d) 100 urte.

749. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, monumentu-eraikinen edo garrantzi bereziko eraikinen egituraren bizitza erabilgarri izendatua ez da izango hau baino txikiagoa:**

a) 10 urtean behin.
b) 25 urtean behin.
c) 50 urtean behin.
d) 100 urte.

750. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 5.1 artikuluaren arabera, hormigoizko egitura batek egiturazko segurtasunari buruzko betekizun hauek bete behar ditu:**

a) Erresistentziaren eta egonkortasunaren betekizuna.
b) Zerbitzurako egokitasunaren betekizuna.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

751. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 5.1 artikuluaren arabera, hormigoizko egitura batek egiturazko segurtasunari buruzko zerbitzurako egokitasuna eskakizunak adierazten du hau:**

a) Ez da sortu behar arrisku onartezinik aurreikus daitezkeen ekintza eta eraginen ondorioz.
b) Ez da sortu behar deformazio onartezinik, eta erabiltzaileen erosotasunerako onartezinak diren egituraren portaera dinamikoen probabilitate-mailak onargarria izan behar du.
c) Biak.
d) Horietako bat ere ez.

752. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, hormigoizko egitura baten kalkulua egiteko, kalkulu-oinarriko bi metodo daude:**

a) Mugako egoeren metodoa eta zerbitzu-egoeraren metodoa.
b) Iraunkortasun-egoeren metodoa eta zerbitzu-egoeraren metodoa.
c) Azken egoeren metodoa eta zerbitzu-egoeraren metodoa.
d) Azken mugako egoeren metodoa eta iraunkortasunera bideratutako kalkulu-oinarri gehigarriak.

753. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, mugako egoeren metodoaren barruan, sailkatzen dira:**

a) Azken mugako egoerak.
b) Azken mugako egoerak eta zerbitzu-mugako egoera.
c) Azken mugako egoerak, zerbitzu-mugako egoera eta iraunkortasun-mugako egoera.
d) Azken mugako egoerak, zerbitzu-mugako egoera, iraunkortasun-mugako egoera eta segurtasun-mugako egoera.

754. **EGiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, azken mugako egoerak hau esan nahi du:**

a) Oreka galtzearen ondoriozko egituraren akatsa.
b) Kolapsoaren ondoriozko egituraren akatsa.
c) Egitura edo haren zati bat apurtzearen ondoriozko egituraren akatsa.
d) Aurreko guztiak.

755. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, zerbitzu-mugako egoerak hau esan nahi du:**

a) Egituraren oreka galtzea.
b) Egitura kolapsatzea.
c) Egituraren akatsa, funtzionaltasuna, erosotasuna edota beharrezko beste alderdiren bat falta delako.
d) Aurreko guztiak.

756. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, iraunkortasun-mugako egoerak hau esan nahi du:**

a) Egiturak duen muga ekintza fisiko eta kimikoen ondorioz eta egitura-azterketaren ekintzen eta kargen ondorioz, zeinek hormigoiaren eta armaduren ezaugarriak narria baititzakete muga onartezinetaraino.
b) Egiturak duen muga ekintza fisiko eta kimikoen ondorioz (desberdinak egitura-azterketaren ekintzen eta kargen aldean), zeinek hormigoiaren eta armaduren ezaugarriak narria baititzakete muga onartezinetaraino.
c) Egiturak duen muga ekintza fisiko eta kimikoen ondorioz (desberdinak egitura-azterketaren ekintzen eta kargen aldean), zeinek hormigoiaren eta armaduren ezaugarriak narria baititzakete kolapsoa eragin arte.
d) Egiturak duen muga ekintza fisiko eta kimikoen ondorioz (eta egitura-azterketaren ekintzekin eta kargekin batera), zeinek hormigoiaren eta armaduren ezaugarriak narria baititzakete egituraren pitzatze-mugaraino.

757. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuan jasotzen denez, hormigoi armatuaren dentsitatea da:**

a) 2.300 kg/m^3.
b) 2.400 kg/m^3.
c) 2.500 kg/m^3.
d) 2.600 kg/m^3.

758. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, kalkulu-argia izango da hau:**

a) Bi euskarri bertikalen arteko distantzia.
b) Bermakuntza-ardatzen arteko distantzia.
c) Egitura-elementu horizontalen arteko distantzia.
d) Bi egitura independenteren arteko distantzia.

759. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, sekzio gordina izango da hau:**

a) Piezaren dimentsio errealen bidez lortzen dena, armadurei dagokien espazioak kendu gabe.
b) Piezaren dimentsio errealen bidez lortzen dena, armadurei dagokien espazioak kenduta.
c) Piezaren dimentsio errealen bidez lortzen dena, hormigoian egindako luzetarako baoak kenduta.
d) Piezaren dimentsio errealen bidez lortzen dena, hormigoian egindako zeharkako baoak kenduta.

760. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, hau da sekzio garbia:**

a) Piezaren dimentsio errealen bidez lortzen dena, armadurei dagokien espazioak kendu gabe.
b) Piezaren dimentsio errealen bidez lortzen dena, armadurei dagokien espazioak kenduta.
c) Sekzio gordinari hormigoian egindako luzetarako baoak kenduta lortzen dena.
d) Sekzio gordinari hormigoian egindako zeharkako baoak kenduta lortzen dena.

761. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen denez, hormigoi armatua fabrikatzeko, eraikuntzako produktu hauek erabili ahal izango dira:**

a) EBko estatu kideetan legalki fabrikatutakoak edo merkaturatutakoak bakarrik.
b) EBko estatu kideetan eta, kasu guztietan, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu zuten estatuetan legalki fabrikatutakoak edo merkaturatutakoak.
c) EBko estatu kideetan eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu zuten estatuetan legalki fabrikatutakoak edo merkaturatutakoak, betiere produktu horiek EBko edozein estatu kidetako araudia betetzen badute.
d) EBko estatu kideetan eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu zuten estatuetan legalki fabrikatutakoak edo merkaturatutakoak, betiere produktu horiek EBko edozein estatu kidetako araudia betetzen badute eta jarraibide honetan eskatzen den mailaren baliokidea betetzen badute segurtasunari eta izango duten erabilerari dagokienez.

762. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, jarraibide horretan jasotzen dira hormigoia fabrikatzeko material hauek:**

a) Zementuak, ura, agregakinak.
b) Zementuak, ura, agregakinak, gehigarriak.
c) Zementuak, ura, agregakinak, gehigarriak, adizioak.
d) Zementuak, ura, agregakinak, gehigarriak, adizioak, koloratzaileak.

763. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, hormigoia fabrikatzeko erabil daitezkeen zementuek klase erresistente hau izan behar dute:**

a) 22,5 N edo handiagoa.
b) 32,5 N edo handiagoa.
c) 42,5 N edo handiagoa.
d) 52,5 N edo handiagoa.

764. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 26. artikuluaren arabera, gogortze arrunteko zementutzat jotzen dira:**

a) 32,5 N klase erresistentekoak.
b) 32,5 R eta 42,5 N klase erresistentekoak.
c) 42,5 R, 52,5 N eta 52,5 R klase erresistentekoak.
d) Aurreko guztiak.

765. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuan jasotzen denez, hormigoia oratzeko eta obran ontzeko erabili behar den urak kondizio hau bete behar du:**

a) Hidrogenoaren esponenteak pH 5 edo handiagoa izan behar du.
b) Hidrogenoaren esponenteak pH 5 edo txikiagoa izan behar du.
c) Hidrogenoaren esponenteak pH 7 edo handiagoa izan behar du.
d) Hidrogenoaren esponenteak pH 7 edo txikiagoa izan behar du.

766. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, jarraibide horretan agregakinak tamainaren arabera sailkatzen dira, honela:**

a) Agregakin lodiak eta agregakin finak.
b) Agregatu lodiak, agregatu ertainak eta agregatu finak.
c) Ez dago sailkapenik.
d) Agregakinen tamainaren araberako sailkapen bat bakarrik dago.

767. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuan, gehigarri mota hauek hartzen dira kontuan:**

a) 3 mota: Ur-erreduktoreak/Plastikotzaileak; Aktibitate handiko ur-erreduktoreak/ Superplastikotzaileak; Fraguatze-aldarazleak/Bizkorgarriak, atzeragarriak.
b) 4 mota: Ur-erreduktoreak/Plastikotzaileak; Aktibitate handiko ur-erreduktoreak/ Superplastikotzaileak; Fraguatze-aldarazleak/Bizkorgarriak, atzeragarriak; Multifuntzionalak.
c) 5 mota: Ur-erreduktoreak/Plastikotzaileak; Aktibitate handiko ur-erreduktoreak/ Superplastikotzaileak; Fraguatze-aldarazleak/Bizkorgarriak, atzeragarriak; Airesartzaileak; Multifuntzionalak.
d) 5 mota: Ur-erreduktoreak/Plastikotzaileak; Aktibitate handiko ur-erreduktoreak/ Superplastikotzaileak; Fraguatze-aldarazleak/Bizkorgarriak, atzeragarriak; Airesartzaileak; Ur-sartzaileak; Multifuntzionalak.

768. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren arabera, adiziotzat jotzen dira:**

a) Hormigoiari, haren propietateetako bat hobetzeko, gehitu dakizkiokeen material ez-organikoak, pozzolanikoak edo hidraulitate sorra dutenak.
b) Hormigoiari, haren propietateetako bat hobetzeko, gehitu dakizkiokeen material ez-organikoak.
c) Hormigoiari, haren propietateetako bat hobetzeko, gehitu dakizkiokeen material organikoak.
d) Hormigoiari, haren propietateetako bat hobetzeko, gehitu dakizkiokeen material gehigarriak.

769. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 31.4 artikuluan jasotzen denez, hau da proiektuko hormigoiaren erresistentziaren gutxieneko balioa:**

a) Ez du izan behar 15 N/mm^2 baino txikiagoa masa-hormigoietan, ez eta 20 N/mm^2 baino txikiagoa ere hormigoi armatu edo aurreatezatuetan.
b) Ez du izan behar 20 N/mm^2 baino txikiagoa masa-hormigoietan, ez eta 25 N/mm^2 baino txikiagoa ere hormigoi armatu edo aurreatezatuetan.
c) Ez du izan behar 25 N/mm^2 baino txikiagoa masa-hormigoietan, ez eta 30 N/mm^2 baino txikiagoa ere hormigoi armatu edo aurreatezatuetan.
d) Ez du izan behar 20 N/mm^2 baino txikiagoa masa-hormigoietan, ez eta 25 N/mm^2 baino txikiagoa hormigoi armatuetan ere, ez eta 30 N/mm^2 baino txikiagoa ere hormigoi aurreatezatuetan.

770. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 31.5 artikuluan jasotzen denez, hormigoiaren otzantasunak behar adinakoa izan beharko du obran jartzeko eta trinkotzeko aurreikusitako metodoekin:**

a) Hormigoiak erabat betetzeko enkofratuak, burbuilarik sortu gabe.
b) Hormigoiak etenik gabe inguratzeko armadurak dagozkion estaldurekin, eta erabat betetzeko enkofratuak, hormigoian burbuilarik sortu gabe.
c) Hormigoia maneiagarria izateko.
d) Hormigoia ez gogortzeko aurreikusitako denbora baino lehen.

771. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 31.5 artikuluan jasotzen denez, hormigoiaren otzantasunak jarraian adierazten diren trinkotasun motak izan ditzake, asentu-saiakuntzaren muga-balioen arabera:**

a) Lehorra; Biguna; Likidoa.
b) Lehorra; Biguna; Jariakorra; Likidoa.
c) Lehorra; Plastikoa; Biguna; Jariakorra; Likidoa.
d) Lehorra; Plastikoa; Elastikoa; Biguna; Jariakorra; Likidoa.

772. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 32.2 artikuluaren arabera, hormigoia armatzeko barra uzkurtuek diametro izendatu hauek izan ditzakete:**

a) 8-12-16-20-25 mm.
b) 8-12-16-20-25-32-40 mm.
c) 6-8-10-12-14-16-20-25-32 mm.
d) 6-8-10-12-14-16-20-25-32-40 mm.

773. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuak, 32.2 artikuluan, altzairu uzkurtuaren mota hauek jasotzen ditu:**

a) B 400 S eta B 500 S altzairu soldagarria.
b) Harikortasun-ezaugarri bereziak dituen B 400 SD eta B 500 SD altzairu soldagarria.
c) B 400 SD eta B 500 SD altzairu soldagarria eta harikortasun-ezaugarri bereziak dituen B 400 SD eta B 500 SD altzairu soldagarria.
d) B 400 SD eta B 500 SD altzairu soldagarria, harikortasun-ezaugarri bereziak dituen B 400 SD eta B 500 SD altzairu soldagarria eta definitzeko espezifikazio teknikoak dituen altzairu hipersoldagarria (B 400 SD eta B 500 SD).

774. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 32.2.4 artikuluan jasotzen denez, hormigoi batek esposizio klase hauek izan ditzake:**

a) I-II-III-IV.
b) I-IIa-IIb-IIIa-IIIb-IIIc-IV.
c) I-IIa-IIb-IIIa-IIIb-IIIc-IV-Q-H-F-E.
d) I-IIa-IIb-IIIa-IIIb-IIIc-IV-Qa-Qb-Qc-H-F

775. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 54. artikuluaren arabera, obran egikaritutako hormigoizko egitura baten euskarriek neurri hau izan behar dute gutxienez:**

a) 20 cm edo gehiago.
b) 25 cm edo gehiago.
c) 30 cm edo gehiago.
d) 35 cm edo gehiago.

776. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 55. artikuluaren arabera, berme jarraituen gaineko bi noranzkoko plaka, lauza eta forjatuek, kontrakorik arrazoitu ezean, honelako ertza izan behar dute:**

a) L/40 edo 8 cm-koa.
b) L/40 edo 10 cm-koa.
c) L/40 edo 15 cm-koa.
d) L/40 edo 20 cm-koa.

777. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 55. artikuluaren arabera, berme bakartuen gaineko hormigoi armatuzko plakek, kontrakorik arrazoitu ezean, honelako ertz totala izan behar dute:**

a) L/20 lodiera konstanteko plaka zurrunetan eta L/18 lodiera konstanteko plaka arinduetan.
b) L/25 lodiera konstanteko plaka zurrunetan eta L/20 lodiera konstanteko plaka arinduetan.
c) L/30 lodiera konstanteko plaka zurrunetan eta L/25 lodiera konstanteko plaka arinduetan.
d) L/32 lodiera konstanteko plaka zurrunetan eta L/28 lodiera konstanteko plaka arinduetan.

778. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 63. artikuluaren arabera, ertz handiko habetzat jotzen dira oro har sekzio konstanteko habe zuzenak, zeinek argiaren eta ertz totalaren arteko erlazio hau baitute:**

a) 2 baino txikiagoa bermatuta bakarrik dauden habeetan eta 2,5 habe jarraituetan.
b) 2,5 baino txikiagoa bermatuta bakarrik dauden habeetan eta 3 habe jarraituetan.
c) 3 baino txikiagoa bermatuta bakarrik dauden habeetan eta 3,5 habe jarraituetan.
d) 3,5 baino txikiagoa bermatuta bakarrik dauden habeetan eta 4 habe jarraituetan.

779. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 69.5 artikuluaren arabera, zeri dagokio «lb»?**

a) Baoko argiaren luzerari.
b) Gilborduraren luzerari.
c) Ainguratzearen luzerari.
d) Armadura-luzerari.

780. **Egiturazko hormigoiaren jarraibidea (EHE 08) onartzen duen 2008ko uztailaren 18ko 1247/2008 Errege-Dekretuaren 86.3. artikuluaren arabera, hormigoi gogorturako espezifikazioak egiaztatuko dira entseguak eginda adin honetan:**

a) 7 egun.
b) 14 egun.
c) 21 egun.
d) 28 egun.

781. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuak ordeztu zuen:**

a) 201/1975 Dekretua, otsailaren 20koa, Eraikuntza Sismorresistentearen Araua onartzen duena.
b) 545/1990 Errege Dekretua, uztailaren 14koa, Eraikuntza Sismorresistentearen Araua onartzen duena.
c) 2543/1994 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, Eraikuntza Sismorresistentearen Araua: parte orokorra eta eraikingintza onartzen duena.
d) Ez zegoen gai horri buruzko araudirik Errege-Dekretu horren aurretik.

782. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan jasotzen denez, eraikuntzako egiturek bete behar dituzten baldintza teknikoak ezartzen dira, helburu honekin:**

a) Etorkizunean gerta daitezkeen lurrikarek eragin ditzaketen heriotzak saihesteko.
b) Etorkizunean gerta daitezkeen lurrikarek eragin dezaketen kaltea murrizteko.
c) Etorkizunean gerta daitezkeen lurrikarek eragin dezaketen kostu ekonomikoa murrizteko.
d) Aurreko guztiak.

783. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, arau horren aplikazio-eremua da**

a) Oin berriko eraikinen proiektua eta eraikuntza.
b) Oin berriko eraikinen proiektua, eraikuntza eta kontserbazioa.
c) Oin berriko eraikinen proiektua, eraikuntza eta kontserbazioa, eta eraberritze- edo birgaitze-kasuak, eragindako elementuen segurtasun-maila hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa bada.
d) Oin berriko eraikinen proiektua, eraikuntza eta kontserbazioa, eta eraberritze- edo birgaitze-kasuak, betiere barrualde osoa hustu eta fatxada bakarrik uzten bada.

784. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, eraikuntzak, izango duten erabileraren arabera, suntsitzen badira eragin ditzaketen kalteak kontuan hartuta eta obra mota gorabehera, honela sailkatzen dira:**

a) Garrantzi ertainekoak eta garrantzi berezikoak.
b) Garrantzi ertainekoak, garrantzi arruntekoak eta garrantzi berezikoak.
c) Garrantzi arinekoak, garrantzi ertainekoak, garrantzi arruntekoak eta garrantzi berezikoak.
d) Garrantzi arinekoak, garrantzi ertainekoak, garrantzi arruntekoak, garrantzi berezikoak eta garrantzi larrikoak.

785. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, garrantzi arrunteko eraikuntzak dira:**

a) Lurrikara baten eraginez suntsituz gero biktimak eragin ditzaketenak.
b) Lurrikara baten eraginez suntsituz gero biktimak eragin ditzaketenak edo herritarrentzako zerbitzu bat etenaraz dezaketenak.
c) Lurrikara baten eraginez suntsituz gero biktimak eragin ditzaketenak, herritarrentzako zerbitzu bat etenaraz dezaketenak edo galera ekonomiko garrantzitsuak eragin ditzaketenak.
d) Lurrikara baten eraginez suntsituz gero biktimak eragin ditzaketenak, herritarrentzako zerbitzu bat etenaraz dezaketenak, galera ekonomiko garrantzitsuak eragin ditzaketenak, edo ondare eraikian galera konponezin bat eragin dezaketenak.

786. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, sailkatutako eraikuntza moten artean, hauei ez zaie aplikatu behar araua:**

a) Garrantzi ertaineko eraikuntzak.
b) Garrantzi arrunt edo bereziko eraikuntzak, a_b oinarrizko azelerazio sismikoa 0,04 g baino txikiagoa denean (g da grabitatearen azelerazioa).
c) Norabide guztietan arkupe elkarren artean ondo txarrantxatuak dituzten garrantzi arrunteko eraikuntzak, a_b oinarrizko azelerazio sismikoa 0,08 g baino txikiagoa denean. Hala ere, araua zazpi solairutik gorako eraikin guztietan aplikatuko da, kalkuluko azelerazio sismikoa, a_c, 0,08 g edo handiagoa bada.
d) Aurreko guztiak.

787. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan jasotzen den arrisku sismikoaren maparen arabera, espainian zenbat eremu sismiko daude?**

a) 3 eremu.
b) 4 eremu.
c) 5 eremu.
d) 6 eremu.

788. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, zeri egiten dio erreferentzia «ac» terminoak?**

a) Oinarrizko azelerazioa.
b) Oinarrizko azelerazio sismikoa.
c) Kalkuluko azelerazio sismikoa.
d) Lurzoruaren koefizientearen araberako azelerazioa.

789. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan, lurzorua sailkatzen da zeharkako uhin elastikoen hedapen-abiaduraren arabera. sailkapen horren arabera, lurzoruak honela sailkatzen dira:**

a) I. motako lurzorua; II. motako lurzorua; III. motako lurzorua.
b) I. motako lurzorua; II. motako lurzorua; III. motako lurzorua; IV. motako lurzorua.
c) I. motako lurzorua; II. motako lurzorua; III. motako lurzorua; IV. motako lurzorua; V. motako lurzorua.
d) I. motako lurzorua; II. motako lurzorua; III. motako lurzorua; IV. motako lurzorua; V. motako lurzorua; VI. motako lurzorua.

790. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan, lurzorua sailkatzen da zeharkako uhin elastikoen hedapen-abiaduraren arabera. uhinen «vs» hedapen-abiadura kontuan hartuta, «vs» balio hau duen lurzoruak izango du portaera onena, lurrikara bat gertatuz gero:**

a) $v_s > 750$ m/s.
b) $750 \text{ m/s} \geq v_s > 400$ m/s.
c) : $400 \text{ m/s} \geq v_s > 200$ m/s.
d) $v_s \leq 200$ m/s.

791. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, kalkulurako metodo hau onartzen da:**

a) Kalkulu-metodo sinplifikatua.
b) Azelerazio-erregistroak integratzearen bidezko azterketa dinamikoa.
c) Erantzun-espektroen bidezko azterketa.
d) Aurreko guztiak.

792. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan jasotzen denez, kalkulu-metodo sinplifikatua aplikatu ahalko da besteak beste baldintza hauek betetzen dituzten eraikinetan:**

a) 10 solairu baino gutxiago izatea sestra gainean, eta eraikinaren sestra gaineko altuera 40 m baino gutxiagokoa izatea.
b) 20 solairu baino gutxiago izatea sestra gainean, eta eraikinaren sestra gaineko altuera 70 m baino gutxiagokoa izatea.
c) 30 solairu baino gutxiago izatea sestra gainean, eta eraikinaren sestra gaineko altuera 100 m baino gutxiagokoa izatea.
d) 40 solairu baino gutxiago izatea sestra gainean, eta eraikinaren sestra gaineko altuera 120 m baino gutxiagokoa izatea.

793. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, «μ» harikortasun-koefizientea zeren araberakoa da nagusiki?**

a) Egituraren antolaketa.
b) Egituraren materialak.
c) Antolaketa eta egituraren materialak.
d) Antolaketa, egituraren materialak eta proiektuko eta eraikuntzako xehetasunak.

794. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, «μ» harikortasun-koefizienteak izan daitezke:**

a) 2.
b) 3.
c) 4.
d) 5.

795. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren arabera, baldin eta eraikin baten harikortasun-koefizientea «μ = 1» bada, eraikin horren harikortasun-koefizientea izango da:**

a) Oso altua.
b) Ertaina.
c) Baxua.
d) Harikortasun gabea.

796. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan, hainbat diseinuko arau eta eraikuntzako jarraibide jasotzen dira, diseinu hobea lortzeko:**

a) Arau hori aplikatu beharreko eraikuntza guztietan bete beharko dira.
b) Arau hori aplikatu behar zaien eta garrantzi ertaina duten eraikuntza guztietan bete beharko dira.
c) Arau hori aplikatu behar zaien eta garrantzi arrunta duten eraikuntza guztietan bete beharko dira.
d) Arau hori aplikatu behar zaien eta garrantzi berezia duten eraikuntza guztietan bete beharko dira.

797. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan, hainbat diseinuko arau eta eraikuntzako jarraibide jasotzen dira; eraikinaren formari dagokionez, adierazten da:**

a) Zenbat eta simetria eta erregulartasun txikiagoa izan eraikinaren antolaketa geometrikoak, portaera hobea izango duela.
b) Zenbat eta simetria eta erregulartasun handiagoa izan eraikinaren antolaketa geometrikoak, portaera hobea izango duela.
c) Zenbat eta irregularragoa izan eraikinaren antolaketa geometrikoa, portaera hobea izango duela.
d) Zenbat eta trinkoagoa izan eraikinaren antolaketa geometrikoa, portaera hobea izango duela.

798. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuan, zimenduen diseinuari buruzko arau batzuk jasotzen dira; eraikinaren formari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**

a) Zimendatze-sistema azalekoak eta sakonak batera egotea saihestu behar da.
b) Zimendatze-sistema azalekoak eta sakonak batera egoteko ahalegina egin d da.
c) Inoiz ere ez da erabili behar zimendatze-sistema azalekorik.
d) Inoiz ere ez da erabili behar zimendatze-sistema sakonik.

799. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren 1. eranskinean, ab azelerazio sismikoaren eta k kontribuzio-koefizientearen balioak jasotzen dira; lurzoru mota dela eta, eae-ren kasuan probintzia hauek bakarrik agertzen dira:**

a) Bizkaia.
b) Araba eta Bizkaia.
c) Bizkaia eta Gipuzkoa
d) Araba eta Gipuzkoa.

800. **Eraikuntza sismorresistentearen araua: parte orokorra eta eraikingintza (NCSR-02) onartzen duen irailaren 27ko 997/2002 Errege-Dekretuaren 1. eranskinaren arabera, eae-ko eremuetan, ab azelerazio sismikoak eta k kontribuzio-koefizienteak balio hauek dituzte:**

a) $a_b = 0{,}04$ eta $K = 1{,}0$.
b) $a_b = 0{,}05$ eta $K = 1{,}2$.
c) $a_b = 0{,}08$ eta $K = 1{,}3$.
d) $a_b = 0{,}12$ eta $K = 1{,}3$.